# ANTIGUA 1900

kutxa

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián

DONOSTIAR HISTORIAKO DR. CAMINO INSTITUTOA
GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI-KUTXAREN
Kultur Ekintza
(Lehendakaria: J. Ignacio Telletxea Idigoras)




INSTITUTO DR. CAMINO DE HISTORIA DONOSTIARRA
Obra Cultural de la
CAJA GIPUZKOA SAN SEBASTIAN
(Presidente: J. Ignacio Tellechea Idígoras)

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA
TXILLARDEGI

# ANTIGUA 1900



**Donostia-San Sebastián**
**1992**

Legezko Gordailua: Donostia 28/92
I.S.B.N.: 84-7173-184-3
Editore Erregistroa: 661/68

**Argitaratzaile:**
ARGITALPEN ETA PUBLIKAPENEN GIPUZKOAR ERAKUNDEA
SOCIEDAD GUIPUZCOANA DE EDICIONES Y PUBLICACIONES

Obra Cultural de la CAJA GIPUZKOA SAN SEBASTIAN
GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA-ren Kultur Ekintza

31 de Agosto, 30 — 20003 Donostia — Tel.: (943) 42 44 78 - 42 81 34

**Fotokonposaketa eta inprimaketa:**
IZARBERRI, S.A. — 36. Industri Poligonoa z/g, — 20.170 Usurbil

*Antigutar guztiei*
*beste antigutar honek*

Tx.

# AURKIBIDEA


| | | |
|---|---|---|
| | HITZAURREA | 11 |
| I | AIZERROTA | 13 |
| II | LORETOPEA | 37 |
| III | ANTIGUA OROKORKI | 73 |
| IV | BAZTERRETXE | 99 |
| V | GUTENFELDER | 117 |
| VI | ONDARRETA | 131 |
| VIII | ERROTAUNDIETA | 197 |
| VII | TXILLARDEGI | 167 |
| IX | ARANALDENE | 213 |
| X | ESTRATA | 235 |
| XI | KONPORTA | 247 |
| XII | TXUBILLO | 265 |

**ERASKINAK**

| | |
|---|---|
| Eraskin Toponimikoa | 295 |
| Eraskin Grafikoa | 299 |

# HITZAURREA

Liburu hau gida-liburua da; bidai-gida-liburua zehazkiago.

Bere eskuetan liburu hau hartuko duen irakurleari, hauxe proposatzen baitiot: ez berak eta ez nik ezagutzen dugun eskualde ilun bateraino laguntzea.

Areago: sekula inork bisitatuko ez duen Eukal Herriko zoko apal galdu hartara joatea: *Antigua* zaharrera, hain zuzen; betirako suntsitua den Antigua ahantzira abiatzea. Eta Lugaritz eta Ibaeta auzo zaharrak elkartzerakoan suntsitu ziren urte urrunetan nirekin etortzea.

Mundu txiki hura, dena dela, auzokideek berehala erreparatuko dutenez, ez gaitu antigutarroi (antigutar zaharroi bereziki) arras ezezagun gertatzen. Han-hemenka, haurtzaroan bederen ezagutu genuen herriska suntsikor haren aztarnak topatuko ditu irakurleak, bidaia harrigarri honetan barrena mugarri tinko gisa.

Aipatzen diren, are batzutan ikusten ere diren, pertsonak, era berean, askotan, senide hurbilak dituzke irakurleak; zenbait aldiz aiton-amonak, edo berauen adiskide, omen, izanak.

Bidaia hau, horregatik, geure barne-zoletara garamatzan mentura bitxi eta hunkigarri izango zaio askori; eta, agian, hitsegi ere bai tarteka. Denok baitaramagu, harrigarriro iltzaturik, geronen arbasoen giro eta inguramendu hartara inoiz iritsi ezinaren tristura izkutua.

Antigutar gazteago batzuk, agian (eta asko balira hobe, nik uste) barne-ximiko batez kurrituko dituzte Antigua zaharreko paraje horiek; azkeneko hilabeteotan osoki desitxuraturik eta errausturik. Aurrerapena... agian!

Niretzat bederen, jator aitortzen dizuet, esperentzia harrigarria izan da liburu berezi honen prestakuntza. Behin eta berriz nabaitu baitut, eta azkarki nabaitu, neronen zimentarriak ikutzen nituela; eta nire izate osoa daldarka abiatzen zitzaidala. Hau guztia ez da batere "progrea"; baina gauza ezaguna da ni beti "progre" eta "snob" guztiez trufatu naizela.

Eta goazen orain harira.

Bidaia hau egiteko, "Donostia"tik abiatuko gara. Antigutarron ustez, Loretopeko tunelaz Ekialdekoa baita "Donostia", Antigua aparte utzirik... Eta gaur "Mirakontxa" deitzen dugun aldapan gora joanez, halako batez, Loretopea eskuin aldean uzterakoan, zausk! ...Orain dela ehun bat urtetako Antigua zaharra topatuko dugu. "Ehun bat" diot; argazkiei eta irudiei dagokienez, eta salbuespen batzu salbu, eskain ditzakedanak 1875 eta 1925 urte-tartekoak direlako.

Fotoak eta marrazkiak lagun, hemendik eta handik sartuko gara, dena bertatik miatu nahian; eta garai hartako bizimodua, pertsonak, inguramendua, are zaratak eta kiratsak berak ere senditzen saiatuko gara.

Ohar orokor bat: irudiak eta argazkiak aurkezterakoan, "ezker aldea" irakurtzean, irakurleak *bere* ezkerrean ikusten duena besterik ez da konpreni behar.

Plano batzu ere erantsi ditut, lagungarri gerta daitezkeelakoan. Hauetan, eta beren horretan kopiatu ditugun dokumentuetan, erdal ortografia aldrebesak, ageri diren bezalaxe utzi ditugu. Baina geure testuan, ahoskera aldatu gabe, gaurko euskal ortografi arauez idatzi ditugu euskal izendapenak: toponimoak, antroponimoak, etab. Garaia badela uste baitut.

Zehaztasunari dagokionez, azkenik, bi hitz bakarrik: artxiboetan ehunka ordu pasa arren, zalantza pilo bat daukat oraindik neure barruan. Alde batetik, artxiboetako dokumentu eta plano zaharretan, hutsegina franko aurkitzen delako, are kontraesan ugari ere. Eta bestetik, herri-oroimen delakoa motxa izanik oso, lekukoen esanak albait ongienik bildurik ere, askotan egarriak gelditu garelako, eta zalantza gorrian maizegi.

Liburu hau, dena dela, idarokizuna denez, eta oroitzapena, eta urrutimina, eta ikerlan hotz eta hutsa ez den neurrian, bere horretan argitara ematea erabaki dut. Ondoko urteotan bestek egingo baitu segurki hoberik eta zehatzagorik. Agian bai!

*Txillardegi, 1991.*

*Oharra:*

Liburu hau, orain arteko guztiak baino areago, talde-lanaren emaitza da. Hauxe bai izan dela "auzo-lana"...

Eta horrela denez, nola edo hala beren laguntza eman didaten guztiei erakutsi nahi diet neure eskertzarik egiatiena. Eta nork berea eman didan segurantzian, hemen duzue laguntzaile guztien lerrokada, ilara alfabetikoan:

Agirre Franco, Iñaki (argazkilaria).
Aguirre Sorondo, Antxon.
Alkain Martikorena, Jesus Mari; jatorriz "Boltsagillene"koa.
Alkorta, Felipe; "Izarra" moldiztegikoa (1991ko Apirilean hila).
Alkorta, Jon (harotza).
Altuna, Joxe Mari eta Agustina; "Arbizketa"koak.
Alvarez Torre, Dabid; lehengusua.
Alzua, Luis (sendagilea)
Amiano, Anjel (jatorriz, "Aranaldene"koa).
Anso, Martin (kasetaria).
Aristegieta, Maria (Porta-ren alarguntsa, Matiakoa).
Astigarraga, Pantze ("Ezeiza"koa).
Azpillaga, Jose Luis ("Untzene" ingurukoa).
Azurmendi, Mikel ("Txapaldegi-berri"koa).

"Banco Guipuzcoano" (Donostia).
Barriola, Iñaki (doktorea, "Isturin"goa).
Barroeta, Sor M. Luisa (Esklabetako Zuzendaria †).
Basurko, Karlos (musikaria eta grabatu zaharren biltzailea).
Bereziartua, sendia (*"Txokolatene"* "Sagasti-zar").
Berra, Antonio (jatorriz "Illunbe"koa).
Burutaran, Juan Mari (medikua, Gurutze Gorriko zuzendari-ohia).

"Canon" (laser-fotokopi egilea).

Diaz de Cerio, Ricardo (elektrizista).
Dr. Camino Biblioteka (Donostia).

Egaña, Iñaki (idazlea eta foto-biltzailea).
Eizagirre, Andoni (apaiza, Diosesako Artxibaria).
Enparantza, Ixabel (lehengusina, eta jatorriz "Isasene"koa).
Enparantza, Maritxu (Ixabel-en ahizpa).
Esarte, Pello Mari (historilaria, elizondoarra).
Etxabe, Juan Jose (sukaldaria).
Etxenike, Jose Juan ("Ezeiza"koa).
Ezeiza, Anttoni ("Ezeiza"koa).
Ezenarro, Arkadia (Nikomedesen alaba).

Fernandez Etxabe, Inmakulada (Diputaziokoa).
Ferrer Txapartegi, Jose Mari (foto-biltzailea †).
Ferro Lareki, Jexux ("Matia"ko Zuzendaria).
Foto Carte (Fotocar) eta Foto Marin Argazkilariak (Donostia).
Gipuzkoa Donostia Kutxa.
Goikoetxea, Izaskun (Donostiako Udal-Artxibaria).
Gonzalez Galarza, Donostia (argazkilaria).

Hauser y Menet (Madrid).

Irastortza, Jexux Mari ("Camino" Liburutegikoa).
Iturria Sorozabal, Pablo ("Txillardegi"koa jatorriz).
Iturriotz, Xabier (harotza).
Iztueta, Agurtzane ("Camino" Liburutegikoa).
Iztueta, Joxe Mari (jatorriz "Untzene"koa, eta erretorea).

Letamendia, Agustin (foto-mekanikari eta foto-biltzailea).

Mendizabal, Antonio (mediku eta historilaria).
Mendizabal, Maritxu ("Gurutze Gorri"koa).
"Miki" (Matia-ko fotografilaria).
Mujika, Juan Jose (mediku, "Gurutze Gorri"koa).

Pagola, Julian (Antiguako kontuetan jakituna).
Parrondo, Pako (moldiztegikoa).
"Patrimonio Nacional" (Madrid).
Posso, Dora ("Villa Rosa"koa, jatorriz).

"Registro de la Propiedad, nº 2" (Donostia).
Rekondo, Eleuterio ("Recondo" jatetxekoa †).
Rezola, Mari Anjeles ("Txabardegi"koa).
Rocandio, José (margolaria †)

Sainz, Jexux (sankristaua).
San Sebastián, Karmen (jatorriz "Almaxene" eta "Buena-Vista"koa).
Sánchez, Jose Luis (postal-biltzailea).
San Telmo Museoa (Donostia).
Soto Azkarate, Felix (Donostiako Udalekoa).
Sukia, Pedro (aita) eta Antonio (semea, medikua).

Tellabide, Josu (toponimi alorrean jakituna).
Torner de Cervera, Jose Luis (Caudilla-ko Kondearen etorkikoa).

Zaldua, Mari Karmen ("Camino" Liburutegikoa).
Zamora, Balentin ("Leku Eder"enekoa).

Liburu honen prestaeran, eta aspaldiko argazkien alorrean, aipamen berezia merezi dute ondoko bi hauek:
*"Novedades"* aldizkaria (Donostia), eta
*"Album Gráfico Descriptivo del País Vascongado"*, Rafael Picavea-ren argitalpena (Donostia).

Eta, jakina, aipamen berezia behar du liburu honen projektua sustatu eta bideratu duen Juan Antonio Garmendia Elosegik, Gipuzkoa Donostia Kutxako Kultur-arduraduna.

# I. AIZERROTA

Goazen, beraz, 1900-ko Antiguara.

Nondik, ordea?

Bidaia bitxia, benetan, liburu honetan barrena irakurleak eta nik biok egin beharko duguna.

Ikusi, are eskuez ikutu uste genuena, etengabe nabaituko baitugu ezintasunean gesaltzen eta suntsitzen ari.

Has gaitezen, halere, plano hotzetatik. Eta begira dezagun arretaz 1788ko hau. Frantses armadarentzat Vicente Tosiño espainiar ofizialak egindakoa. (Ikus 14. orr.).

Lehenagoko mendeetan, egia esan, ez zegoen Antiguan Dominikarren komentu zaharraz besterik. Ibaetako bi errekak ageri dira hor: *Gorgatxo* ezkerretan, gure gaztaroko urteetan, estalirik, frontoinaren eta gaurko *Errotatxo*ren ondotik zetorrena; eta *Konporta* eskuinetan, bere bi errekadarretan *Ebro*, eta *Konporta* ondotik, heldu zena. Ozta-ozta aipa liteke besterik planoaren begiradaz.

Antiguako eliza-komentu-egoitza zaharraren ondoan (aspaldikoa oso, izenak berak adierazten duenez: hortik heldu dira bai *La Antigua* erdal izena; bai Donostiako erretoreen artean gehiengoa edo nagusigoa Antiguako parrokoari erastea), batimendumordo zahar haren ondoan, nion, baratza zabal bat ageri da, gaur egun *Miramar* jauregiaren zuhazti-parte bat dagoen alderdian; eta etxe batzu, bestalde, Loretopea inguruetan. Eta, hau bai, planoaren eskuin aldean, gaur Baron-darren *Urondo* dagoen lekuan (bai antigutarrek, eta bai 1862ko Nomenclator ofizialak *Barraka* deitua) zubitxo bat: Arbizketa-ko zubi zaharra (1569tikakoa, gutxienez), alde horretan zeuden erreka-erroten lekuko izana.

Honantzago, ozta ageri, *Arroka* baserria, arroken ondo-ondoan (geroago hobeki ikusiko).

Hitz batez, orain dela bi mende, atzekaldeko baserriez kanpo, Antiguan ez zegoen ia ezer, Erauso-ko Kattalin moja famatua egondako komentuaz besterik.

Aldakuntzak eta aurrerapenak, Antiguan gainerako auzoetan bezala, Mota-ko Gaztelu militarraren suntsieraren ondorioz mamitu baitziren; eta, oso bereziki, 1863an Eustasio Amilibia donostiar alkateak, Madrilen, Donostia zaharra inguratzen zuen harresitzar gaitza errausteko baimena lortu zuenean. (Ikus 15. orr.).

Handik 25 bat urtetara (1884) Donostiak beste itxura hau hartu zuen Antiguako mugaren aldetik.

Hortxe dago *goiko galtzara* zaharra (batera Antiguako muga, planoetan *Carretera de Hernani* deitua); hortxe dago 1847an zabaldutako kamino berria (gaur hondartza gaineko partean *Mirakontxa-ko Pasealekua* deitua); eta hortxe dago, kasu honi, *Barkaizteginetik* gora, *Isturin* aldera, *Aizerrotaren* ondotik errepide nagusira zeraman bide zaharra (gaur *Duque de Baena*rena).

Kontutan har Loretopean irakur daitekeen "Lorito" hori... (ikus 15. orr.).

Berriro ere itzuli beherko dugu inguru hauetara. Bego horretan, beraz, gure azalpena. Nahiz oraintxe ohar pare bat egin.

Hor daude *Rincón de la Antigua* kolkotxoa, batetik, (ikus 16. orr.) erdal izendapen zaharraren araueraKoa; eta *Peñón del Antigua* arroka-muturra erdaraz, *Pico del Loro) ere deitua, bestetik, izendapen maskulino honen berria salatuz. Ondoan "Rincón de Zaldisco" ageri da (Zaldisko-Zokoa), aste hauetan, 1990ko udan, Txillidaren imajina berri baten kokaleku hautatua. Eta, Kontxa alderago, "Fábrica de cal hidráulica" delakoa, Beitia-ren kare-fabrika, Añorgakoa baino lehenagokoa, Kolkoaren ertzean, Saldias-ko bidea gorantz abiatzen den puntuan.*

*Pintore* ondoko gaztelutxoa ere hor dago (1862; Lug. 3); gaur egun zenbait postal zaharretan bakarrik begiragarri.

*Barkaizteginetik* gora doan bidean, *Euletegi*tik gora preses-


Religieuses de
Nre Sre de la
Antigua
Hermitage
Ile de Ste Claire






ki, Dominikarrek aspaldiko denboretan erabiltzen zuten haize--errotaren dorrea. Geroago ikusiko.

Hortxe ageri da garbiki, esan beharrik ez, *Barkaiztegi-enea* zaharra.

Hondartzaren gain-gainetik doan bide zabala, eliza zaharraren sahetsetik doana, Bazkardo-Landetxe galtzara berria da (1847ko Ekainaren lan estrainatua).

Hortxe ikus daiteke, era berean, zuri-zuri ageri, Antiguako kanposantu zaharra, "Loreto-ko Ama-birjinaren kapera" barruan daukalarik. Ezer gutxi besterik.

On da, hau esanda, Antigua zaharrean murgiltzen has gaitezen.

Artistaren fantasia ongi ezin neurturik, bista hau Aldapeta-Aietetik hartua dela esango dugu. Eta ez besterik. (Ikus 17. orr., eskuinetan).


FABRICA DE CAL HIDRAULICA LA FE



Antiguatik irteteko (edo-ta Antiguara joateko) modu normala Hernaniko errepide zaharrera igotzea zen: *Barkaizteginetik*, *Illunbetik*, *Txillardegitik*, *Sansustenetik*, *Zapataritik*, gora egin; eta gain hartatik helbururantz. 1847ra arte, berriz errepikatzen dugu, Urgull-en zeuden espainiar militarrek ez zuten beste kaminorik uzten. Alegia, *etsaiak* Donostia erasoz gero, inguruetan babesteko aukerarik eman ez, eta aisa mogitzeko ere ez. San Martin auzoa ere, arrazoin berberarengatik, errazki porroskatzeko eta desegiteko eran eraiki eta berreraiki izan da. Donostia osoa (Antigua barne, jakina) Mota-ko Gazteluak inposatzen zituen baldintzen pean bizi izan da.

Antiguatik irteteko, hitz batez, gorantz irten behar izaten zen. Ibaetako lurrak, gainera, oso maiz are txalupan ere Igara-raino heltzeko moduan, urpean egon ohi zirelako. Gogoan har, adibidez, *Portuetxe* baserriaren izena bera (Ib. 78. etxea, 1862); gaur egun Jatetxe dotore bihurtua (baina aurki desagertzekoa, omen).

Baina fantasiei utzita, goazen argazkietara.

Eta hona hemen lehenengoa (ezkerretan).

Bulebarra (*Zumardia* gaur ofizialki) antolatzen hasia denez, eta Hernani-kaleko lehenengo etxea ("Café de la Marina"ren kokalekua urte luzetan) eraikita agertzen denez, data bat proposa dakioke argazki honi: 1865 ingurua.

Garbiki ikus daitekeenez, Antiguara joatekotan, gaur Mirakontxa deitzen dugun aldapan gora egin behar zen; behereko kaminoa oraindik zabaldu gabe zegoelako.

Eskuin aldean, nabarmen, Barkaiztegi-tarren jauregi zuri zaharra ageri da, "Barkaiztegienea" bataiatua (Lug. 8; 1862); gero, goraxeago, *Maritxulegi* berriagoak ordezkatua.



Eskuin alderago, bestetan ere ikusiko dugun mugarri-estalpetxoa dago. Eta ezker aldera, mazela erditsuan, *Eulategi* zaharra izan daiteke; eta gorago, erdizka somagarri, "Almaxene- Aizerrota" bikotea. Ezin ziurta, ordea; (ikus 18., goian).

Garai bertsuan ateratako foto horretan, berriz (eskuin aldean Putzu-kalea ikusten dugularik) urrutiegi dugu Antigua. Baina zerbait antzeman daiteke. (Ikus 18., behean).

Lemery-jeneralak Olasagasti-ri erosi berria zion *Mirador* ikusten da Ondarretaren atzekaldean; handik urte batzutara Caudilla-ko Kondeak ezkontza-bidez eskuratzekoa. Eta, Antiguako eliza zaharraren inguruan, arrokadiaren gainean, etxe mordoxka bat; gero ere ikustekoa (II. eta III. kapituluak).

Eta hementxe dugu 1847an zabaldutako errepide berria. Kontxa hondartza dugu aurrean (zergatik ez *Kolkoa* euskaraz, Antiguan *Kolka-ene* bat, eta






erdialderago beste *Kolka-ene* bat, topatzen ditugularik?), bere mainu-etxe eskerga eta guzti.

Aldapa horretan gora abiatuz (guk begiratzen dugun alderdi honetara, beraz), *Loretope*-ra eta Antigua-ra iritsiko ginateke. Gaur egun *Kontxa*-ko pasealekuaren azpian dagoen estalpe eta kabinez ezer ez dago, jakina.

Aurrean ikus dezakegun galtzara honetatik, arroketan behera, hondartzara iritsiko ginateke.

Paseatoki xarmanta dirudi honek; batez ere hortxe, eskuin aldean, zegoen *La Fe* kare-fabrikatzar itsusia ikusten ez delako...

Hain zuzen, horra hor, ikusi nahi ez genuena... (ikus 20. orr.).

...eta, geroxeago, oraino zehazkiago iku-



siko duguna: Beitia-ren "La Fe" kare-fabrika "karbo-hidraulikoa" (Lug.7;1862).

Atzeko bidea, jakina, Hernani-ko bidea da (guk *Aldapeta*-tzat ezagutua; malda haseran zegoen baserriaren izenez).

Bidenabar esateko: *Saldias*-ko *aldapa* izena, hor zegoen *Saldias* etxeak eman dio. Eta *La Fe* fabrikaren izena nekez itzul daiteke euskarara (*Fede*aren *bidea*, edo horrelako zerbait, irakurri baitugu berriki!); *"El Lagarto"* fabrika, *Muskerra* itzultzea bidezkoa ez litzatekeen bezala... Baina, bego hori.

Argazkia ere eskuartean izanda, hobeki neur dezake irakurleak artistaren fantasia-maila... Ulia mendia begiratu besterik ez legoke, bestalde. (Ikus berriro 17. orr.).

Juan Antonio Garmendia adiskidearen aholkua jarraituz, halaz ere, marrazki harrigarri hau sartzea erabaki dugu.

Bere burdinazko dorrea hor daukalarik, eta eraiki berri dirudienez, marrazkilariak 1860 inguruan egin zuela pentsa daiteke.

Fabrika oso ederra zela ezin esan, eta Donostiako hondartzarik famatuena edertzen zuela ere ez. Beitiaren fabrika hau ez zen oso polita, egia; baina ez liburu honetan ikusiko ditugun gainerakoak ere... Kezka horiek gero sortu ziren, beti ere oso gorpuzturik ez badaude ere. Garai hartako burgeskumeek, ezaguna denez, ez baitzuten gogoan eta gailen beren fabriken ederra.



Fantasiei utzita, hona berriz fabrika hura bere hartan; baina oraingoan barruko aldetik begiratzen dugularik. (Ikus 21. orr.).

Aski da aurreko Urgull-Gaztelua begiratzea, denboran atzera-pausu galanta eman dugula konprenitzeko...

"La fábrica estaba -dinosku Baldomero Anabitarte kronikariak, bera ere inguru hauetan bizi zelarik- en el punto donde arranca el camino que sube a la carretera de Hernani" ("Gestión del Municipio de San Sebastián, 1901-1925", 48.orr.)

Argazkia ezin mamitsuago gertatzen da; eta karegintzaren teknika *karbo-hidraulikoa* orpoz-orpo segitzeko oinarri grafikoa ematen digu.



Jose Maria Beitia-ren fabrika hau, 1859an eraiki zen; eta baforez lan egiten zuen. Bustindui-k dionez (1881-III-4), bere hamar labeetan eguneko 46.000 kilotatik 60.000 kilotara produzitzen zuen (garai hartako neurrien arauera, 667 zakutatik 1.000 zakutara; zaku bakoitzak 69 kilo pisatuz). Zaku hura, dena kondatzekotan, 1,50 pezetatan saltzen zen (sei errialetan).

Harria Añorga-tik, *Merkelin*-go harrobitik zekarten (Lug.45;1862); eta 20 langilek egiten zuten lan Kolkoa-ren erdierdiko fabrika zatar ilun hartan... Nortzuk? Azkue pare batek, Arizmendi batek...

Fabrikaren ondoan, Antiguarantz begiratzen dugula, bi etxe ageri: *Saldias* izeneko etxea aurrenik (eta horretatik izendapena); eta ondoren antigutar hargin-maisu batzuk, (*Arrokaberri*ko Iza barne; gero berriro topatuko) eraiki zuten *Murillo hotela* (erdaraz, noski). Eraikuntza-baimenaren eskabidea Diego Etxeberria Gutierrez delako batek egin zuen 1887an; batimendu berria honela kokatuz: "en la proximidad de la fábrica de cal hidraúlica titulada La Fe...inmediata y al Occidente de la Fábrica". Puntu hau ziurtatzeko betarik izan ez badut ere, etxe horretxek eraman zuen *Fontalba* izena gure gazte-denboran; gaur *Gasteiz* bihurtu delarik. (Begira hementxe, gainean).

Beitia-ren fabrikatzar hau Antiguan sartzeaz, zer?

*Miramar* jauregiak tunelaren gaineko muga jarri ez zuen artean, Mirakontxa Lugaritz zen; eta eskualde horretako jendeak, handizkiek barne, Antiguako parrokian zeukaten bilgunea (Barkaiztegi-tarrek, adibidez).

Argazki hau 1886koa izanik, Loreto-ko Ama-birjinaren Ermitatxoa eraatxirik agertzen da. Eta, espero zitekeenez, fotoan Ondarreta-ko gartzela (berri-berria!) agertzen da. Beronen gainean, berriz, *Toki-Eder* gaztelua ikus daiteke, Satrustegi-k 1883an eraikia.

*Boltsagillene* ere ikus daiteke Txubillo-ren mazelan (argazkiaren erdian). Behereko bi *Arrokak* ozta-ozta errepara daitezke (gero bai, ordea, hobeki ikusiko ditugu VI. kapituluan).

Urte batzu pasa, ordea, eta zer ikus zitekeen hor? (Ikus 23.).

Beitia-ren fabrika eraatxia, eta behereko galtzara berria (tranbiarentzat propio egina) gaurko bere horretan, itxura hau hartu zuen *Mirakontxa* izeneko alderdiak.





Honetan, berriz, tunela bukaturik bide dagoenez (eta tunela *Miramar* baino lehenago eraiki zen), eta *Miramar* beraren eraikuntza dexente aurreratua dagoenez, 1891 inguruko data eman daiteke.

*Barkaiztegine*ko zuhaztia trinkoago agertzen da bestetan baino, Miramar-en ezkerretan; eta haren sarreraetxola ere hortxe dugu.

*Zaldisko-zokoa*, artean, honela zegoen mende haseran.

Ondoko urteetan itxura hau hartuko bazuen ere.

Eta, oraintsu arte bederen, bere *berezitasun*ari eutsiz.

Taberna bat egon zen hor orain







dela urte mordoxka bat; Matia kaleko Manolo Nievak zuzendua.

Uda honetantxe erantsi zaio hor Txillida donostiar eskultore ospetsuaren imajina bat, dagoeneko esana dugunez.

Honez gero, lagungarri bekigu plano hotz hau (data ezabaturik agertzen zaigu, zoritxarrez; Jose Goikoa-ren sinadura garbi agertu arren). (Ikus 25. orr.).

Loretopea-ren parera iristean, eta Barkaiztegi-tarren jauregia eskuinetan utziz (hemendik goiti ofizialki "Casa de Campo de la Sra. Condesa de

Llobregat" deitua) *Isturin* aldera zihoan bidea hartuko genuke.

*Izaburu*ra, *Aizerrota*ra, bi *Isturin*en aldera abiatzen zen bidea, hestua zen, eta oso erpina; gaur ere, konpondu ondoren, erpinegia baita dudarik gabe.

Handik urte batzutara, 1891 inguruan, *Barkaizteginea* zaharra bota ondoren, *Maritxulegi* izeneko jauregi zoragarri bat eraiki zuen Carmen Manso alargunak (zoritxarrez, 1990ko uda honetantxe, eta foto batzu bederen atera baino lehenago, arrastorik gabe eraatxia).

"A Zanzerreca" irakur dezakegu aisa Goikoaren planoan, eskuin aldeko bidean (*Santzerreka*, Lug.22;1862); Miramar jauregiaren eta Caviedes-en *Panchita*ren artean (1925z geroztik, Ruiseñada-ko Kondeak burututako erosketaren ondorioz, *Oroimena* birbataiatua).





# FACHADA PRINCIPAL

San Sebastian 31 de Marzo de 1891.

Arquitecto de Obras





Garaia da, ordea, *Maritxulegi* hori irakurleari erakuts diezaiogun (1915z geroztik, dena dela, *Trelles* deitua).

Eta hor duzue, besterik ezean, Donostiako Udal-Artxibategian dauden planoen arauera (348.lib.,D,11). Bere horretantxe egon da orain dela hilabete pare batera arte; ehun urtezko xaharkuntzak erantsi zion xarmaz ederturik. Neska gazte bat maita daitekeen modura maita zitekeen *Maritxulegi*: beraren ederraz besterik gabe. Arbel batzu puskaturik zeuzkan azkeneko hilabeteetan; eta, lehen gertatzen ez zena, zaindari zeuzkan *dobermanak* desagerturik, posible zen barruraino sartzea, eta dena aurrekaldeko loretokitik bederen kuxkuxeatzea. Bapatean bulldozer bat topatu nuen atean, geldirik, eta etxe-oruko etxaurre bikaina errausturik. Arbel puskaren bat hartu nuen, eta etxera ekarri... Eta hortxe daukat, urdinska eta mutu.

Xabier Barkaiztegi eta Uhagon-goa (Llobregat-eko Kondea, 1845ez geroztik; eta Montserrat-eko Bizkondea, ezkontzaz uste dut, 1857z geroztik), Donostiako harresien desegintzan lan egin zuen gogor. Madrilen hil zen 1882ko Urtarrilaren 28an (neguteak han pasatzen baitzituen). Liberala zen, donostiar puntuzko asko bezala; eta oso ezaguna zen. Besteak beste, II. Karlistada bukatzean, Agirre-Miramon-ekin Madrilen euskal Foruaren defentsa egin zuelako. (Ezkerretara duzu Barkaitegi aita).

Urteko bolara luzeak pasatzen zituen *Barkaizteginea* zaharrean; Antiguako goiko eliza zaharraren gain-gainean.

*Maritxulegi* jauregia, dena dela, ez zuen berak eraikarazi. Eskabidea emazteak egin zuen 1891ko Uztailaren 4an, "Condesa de Llobregat" izena erabiliz (lursail oso hartan, plano askotan, *Barkaiztegi* izena agertzen bada ere).

Eraikitzeko lekutzat *Sanbere* alderdia hautatu zuen, *Barkaiztegine* zaharra baino goraxeago.

Bestela esanda: *Maritxulegi*ren eraikuntza, Barkaiztegi-ren alargunak agindu zuen. Carmen Manso y Pérez de Tafalla zeritzon andere hari, eta 39 urte zituen.

*Maritxulegi* izendapena noren oroitzapenetan egin zuen ez dakigu. Askotan jabearen deiturari *-ene* erantsi, eta moldatua zen izena. (Ikus honi buruz *Eraskina*).

Etxeko zaindaritzat, Domingo Atxaga hautatu zuen: donostiarra, 1856an jaioa; eta hau hantxe kokatu zen Josefa Berra Irastortza bere emaztearekin eta bi seme-alabekin. Etxetik goraxea-



go finkatu zen famelia hau, "Barcáiztegui del Hortelano" delakoan (Lug.9;1862).

1894an Carmen Manso hil zen; eta bai kapare-titulu bikoitza (Llobregat eta Montserrat), eta bai ondasunak (*Maritxulegi* eta beronen artxibategi ugaria) Jose Jabier Barkaiztegi eta Manso seme bakar eta gaztearen eskuetara pasa ziren (ikus 27. orr., eskuinetan). Euskal Erria donostiar aldizkariak idatzi zuenez, "Doña Carmen Manso residía en Madrid en invierno, pasando todo el resto del año en su hermoso palacio Barcáiztegui, verdadero museo, lindante con el Caserío Real de Miramar" (1894, II, 149.).

Gradoa lehenagotik zetorkion etxeari: 1887-1888 urteetan, Barkaiztegiren etxe-mordoak 7 batimendu zituen, bertan 24 lagun bizi zirelarik.

Eta horra hor, bere eraiki berrian, Miramar jauregia. (Ikus 27., eskuinetan).

Ezkerretan, beste askotan aipatu dugun etxola ageri da: Barkaiztegi-tarren mugarri gisakoa.

Tunelaren gainean, Ondarreta-ko gartzela ikus daiteke.

Ezkerretan *Pantxita* (gero *Oroimena*) jauregia; behinola Etxague jeneralaren pausaleku.

Hemen, berriz, (29.), gauza bertsua.

Baina oraingoan, ezkerretan, orain dela gutxi arte (1982ra arte eman dezagun) zutik egon den *Oroimena* jauretxea; *Txantxerreka* (Lug.22;1862) baserrira zihoan bidetxigorraren gaingainean. Ezkerretako atetik, gora abiatuz, *Maritxulegi*ra iristen zen.






Beheko fotoan, Miramar-ko zuhaitzen atzean, gartzela mutur bat ikusten da. Bi *Arrokak* ere bai; eta Konporta errekak hondartzan isurtzen ditu oraindik bere urak.

Txubillo soil agertzen da, Alkainen *Boltsagillene* besterik ez ageri.

Goikoan "Zaldisko Zokoa" ikus daiteke, oraindik zuhaitzez horniturik.

Tranbia bat ere hor doa, "Benta-Berri"koa seguru aski; Igeldo-lerroa 1912ra arte ibiltzen hasi ez zelako.

Kontxa erdian, Mainuen etxetzar gaitza; denboran zedarri.



Funikularraren arrastorik ez dago (1912 baino lehenago, hortaz). Baina ezkerretakoan (28.) Txubillorako kamino berriaren eraikuntza hasia da (ikus tunela bereziki, mazelaren erdian). Txubillo azpiko baserri hori *Poltsaberri* da, bestetan *Muskullu* ere deitua. (Eskuin aldean jakina; tunelaren "gainean" ikusten dena, (29.), "Boltsagillene" baita).




Horra hor, goiko argazkian, (1905 inguruan) tunel berria pasa, eta Txubillo-tik ikus zitekeena.

Ezkerretan, eta goranzko ilaran, hiru xalet: *Eulieta* zaharrak utzitako eskualdean eraikiak.

Beroien eskuinetan, eta Miramar-en gainean, bi jauregi luze. Beherekoa, gure *Oroimena*; *Txantxerreka*rako bideska ilunaren gaingainean eraikitakoa. Ilaran Etxague jeneralaren, Caviedes-en eta Güell Ruiseñada-ko Kondearen bizileku izana (gaur desagertua).

Eta goraxeago, bere asimetria harrigarrian, Barkaiztegi-ren *Maritxulegi*; García Trelles-ek erostean, *Trelles* birbataiatua. (Aurten, esan dugunez, eraatxia). Eta hortik gora, ilaran, gaur egun *Aloha*, *Nere Txoko* eta *Mª del Carmen* xaletak.

Beherean, berriz, eskuineko zokoan, etxe triangeluaire bat: Rekondo-ren *Kantoi* delakoa, *Bazterretxe* auzunean.

Ondoko etxetxoa Brunet-en *Manen* da.

Baina hau guztia IV. Kapituluan ikusiko dugu.

Behereko fotoan, berriz, "Bikariyo-Etxea" egondako eskualdea dugu hor preseski.

Miramar-en atzean, esan beharrik ez, *Oroimena* erditsuan; eta eskuinaldeko ertza ikutuz, Barkaiztegi-ren *Maritxulegi* jauregia. Atzerago, gaurko *Aloha* xaleta.






Ondoko urteetan itxura idor hau zeukaten *Txantxerreka* inguruko parajeek. (Ikus 32., goian).

*Izaburu* azpiko Rozanés-en Kasinoarentzako obra bitxia ikus dezakegu hor, dexente aurreratua: Espainiako Erreginaren Jauregiaren ondotik bere Kasinora zuzenean eramango zuen galtzada bereziarena...

Baina *Miramar*en atzean jaiokizun zegoen kasino eskerga hura, Primo de Rivera-ren joko-debekua zela-ta, mamitu gabe gesaldu zen azkenean; murrutzar hondakin iraunkor batzu besterik ez utziz. *Txabardegi* azpiko dorre urdinska hutsa hor dago, egia esan, *Itsas-Buru* multzo berriaren ondoan (badakizue: *Izaburu*, hortaz *Isasburu*, eta hortaz *Itxaz-Buru*... eta ez da azkeneko etimologikeria izango!)...

Ondoko urteetan *Txantxerreka* (Lug.22; 1862) baserriaren aurrez-aurre eraiki zen "Hotel Costa Vasca" handia; baina inori ez zitzaion burutik pasa hotela *Txantxerreka* deitzea...

Orain dela hilabete batzu, berriz ibili naiz Baroja-4 inguruko belardiak miatzen; baina, oker ez banago, han ez dago baserri-sagardotegi famatuaren arrastorik geratu. Miramar-eneko zuhaztiaren ertzean zegoen, parkea inguratzen duen paretaren ondo-ondoan; foto honen ezkerretan, hain zuzen. Guztiz beherean, errekaren ondoan, zolan (*Santz-erreka* jatorrizko izena gogoan hartu besterik ez da behar). Arrastorik ez.

Bai *Untzene*tik, eta bai *Almaxene*tik, nork bere aldetik, han beherean, erreka-zolan... ondo daukate gogoan hauek eta haiek. Eta gauza bera Ignazio Barriola osagileak, *Isturin*dik harantz begira geundelarik esaten zidanez.

Geroago bihurtuko gara hona.

Fotoaren erditsuan, nolanahi ere, *Izaburu*ren ondoan eraiki zen dorre karratua soma daiteke (arestian aipatua), oso sabai zuria erakusten digularik.

Bai *Izaburu* (Lug.13;1862), bai *Isturin-aundi* bera (Lug.18;1862), Hernani-ko galtzararen ertzekoak (galtzara horixe baitzen Amara-Lugaritz-en arteko muga, eta *Aiete* Bailen-go dukesaren jauregia besterik ez baitzen), Rozanés-en olatuen eragina jasan zuten. Heldu zen kasinotzar



munstroaren inguruetan, eta besteak beste, diru-galtzairen penak *alaitzeko* etxe bereziak behar zirelako (puta-etxeak, garbikiago)...

*Isturin* (handia), horretara, eraberritua izan zen. Erdian areto zabal bat antolatu zen (badakizue: "niñas, al salón" hori dela bide), lau zutarri borobil eta dotorez inguratua; eta pisuetan (bizpahiru solairutan), gela txiki pilo bat erantsi zen. Hori ere azalpenik gabe irakurle argiak ziplo ulertua.

Baina Rozanés-en projektua (1924an udalean aurkeztua) ez zen gauzatu, esan dugunez. Nahiz Antiguako beste leku batzutan (Igeldo-ko aldapan, Lugaritz kaxkoaren ondoko "barrio chino"an, *Txillardegi*ren Iparraldean, *Suchard* txokolategintzaren ondoan) *plegu* horretako etxe batzu famatu ere bihurtu.

Barriola sendagile ezagunak *Isturin* 1946an erosi eta birmoldatu zuenean (batez ere *Izaburu* aldean, Antiguara begira, etxe erdi oso bat erantsiz), hau guztia bazekien; eta orain irribarrez kondatu digu, Rozanés-en kasino jaiogabearen azpi-kapitulu izkutu baten kondaira gaineratu nahi bailuan...

*Aizerrota*ren berri ote zuen galdetu diogu osagile ospetsuari. Ezetz, erantzuna. Hor egondako errotaren berri badaukala, hori bai; baina zehaztasunik gabe. Eta fotorik ere ez.

Goazen harantz, berriro beheitik abiatuz.

Ezkerretan orduan *Eulieta*ko hirukotea utzi, iaia goian *Izaburu*ra iritsiko ginateke (Lug.13;1862). Argazkiaren ezkerretan (alboan "La Cumbre"ko zu-



hazti zabala utziz), "Villa Adela"; eta ondoren... ondoren dugu sorpresa.

Etxe zabal bat ikus dezakegu zuhaztiaren bukaeran: *Txabardegi* (Lug.17;1862); gaur egun ere hortxe zutik. Aiete-ko bidere izkinan, *Txabardegi* baino goraxeago, *Antoni-enea.*

Hots, hortxe, arretaz begiratuz gero, *Txabardegi*ren aurrean, *Aizerrota*ko pareta luzea eta dorre borobila ageri dira garbiki; ezkerralderago, "Villa Adela"ren ondoan, *Almaxene* (Lug.15;1862) soma daitekeelarik.

Baina, izan ere, errota-dorre borobil horixe da Lugaritz osoak eskain dezakeen bitxirik bitxienetako bat.

Alde batetik, *Almaxene* horretxen ondoan Sagastibeltza karlista buruzagia lehenengo karlistadaren garaian hil zelako. Eta, bestalde, horixe baita (Antton Agirre *molinologo*ak dionez) Gipuzkoak ezagutu duen haize-errotarik zaharrenetako bat, eta bakarra seguru aski. (Ikus berriro 31. orrialdeko planoa).

Zoritxarrez, donostiar zaharrek bere gurutzea eta guzti ezagutu bazuten ere, gaurkoek ez.

Gogoraz dezagun beraz:

"El único molino de viento que existió (en San Sebastián), y único en Guipúzcoa según nuestros estudios, fue el *"Aize-errota"* (de Lugáriz)" (A. Agirre, *Tratado de Molinología*, 437).

Guk dorre borobil haren irudi exkaxa bederen eskain diezaiokegu irakurleari aurreko argazki horretan. (Ikus 32. orr.).

Errotaren dorre borobila, ikus daitekeenez, pareta luze baten muturrean kokaturik, ia-ia *Isturin-aundi*ren baranoan, *Txabardegi*z alde honetara zegoen (eta hortxe daude, sasi artean, azkeneko harri-arrastoak).

Ezker alderago, mende honen haseran Quintina Mugertzak (1865koa) zuzentzen zuen *Villa Adela* zegoen. Eta beronen ondoan, Lizeaga/Ansa-tarren bizileku izandako *Almaxene* (orain dela oso gutxi eraatxia). Jabea, Tovar-ko dukea zen (*ddúkia* inguruko lugariztarren ezpainetan).

Bidearen ondoan, baina gorakoan eskuinetan, *Isaburu* (edo *Izaburu,* eta hobeki) baserri-dorrea (Lug. 13; 1862). Eta hor nonbait, fotoan ongi ikusten ez bada ere, gorakoan ezkerretan, *Txutxuene* baserria (Lug. 14; 1862).

Gaur egun *Baena*n gora joaki, eta *Txabardegi*ra iristerakoan, ezkerretan dauzkagu *Almaxene* etxearen hormakinak (ikus 34. orrialdeko argazkian, Antton Agirrek 1983an ikusi zituen bezala); eta, eskuinetan, sasi artean nekez erreparagarri, *Aizerrota*ko dorre borobilaren aztarnak; (begira, berriz, 32.ko beheko argazkian: "Txabardegi"ren aurrean duzu dorrea).

Oso lañoki errezebitu gintuen Mari Anjeles Rezola Lopetegi etxeko-andereak 1990ko Uztailaren 20an. *Almaxene* baserria kaminoaz Ekialdean zegoela berretsi zigun, *La Cumbre* aldera; eta *Aizerrota*, berriz, bideaz Mendebaldean. (Fausto Arozena kronikariak ere "Isaburu-ko Aizerrota" aipatzen du). Rezola andereak, etxea karlista-gerratean iskilu-gordelekua izana zela errepikatu zidan.

Hots, mende-haseran *Almaxene*n bizi ziren azkeneko maizterrak, guztiz loturik daude Antiguarekin (eta *Gutenfelder*ekin ere bai, bereziki).

Bizirik dagoen azkeneko maiztarra Juana Anza Martiarena (edo-ta *Ansa*, jakina; ikus Eraskina) anderea da; Franzisko San Sebastian *Pako Txiki* zenaren alarguna. Edo-ta, agian errazago, *Sebitas* Errealeko futbol-portero famatuaren ama (*Sebitas* hau gazterik hila).

Are interresgarriagoa: famelia hau, *Almaxene*tik jaistean, Benta-Berriko *Buena Vista* etxean kokatu zen; hain zuzen ere, Antiguako bigarren errota interesgarriaren ondoan: *Errotaundieta*ren albo-alboan (ikus VIII. kap.).

Juana Ansa, beraz, (ohar honi: *Antza*, *Anza* eta *Ans*a bihurtzen da artxiboetan) *Aizerrota*ko azken lekukoa izanik; eta beronen senarra, Pako San Sebastian, urte asko eta askotan *Gutenfelder*-eneko eta *Alvarez-Iraola Hermanos* litografiko burua izana, antigutar bikote horrek liburu honetan leku bat bazuela pentsatu dut; eta hor dituzue, ezkontegunean, 1920 inguruan. (Ikus 35. orr.), (Pako orain dela lauzpabost urte hil zen).

*Almaxene*ko foto hori (34) ikustean, zauskada galanta hartu zuten bai Juana Antza zaharrak (96 urte zituenean azkeneko aldiz 1990ko uda honetan berrikusia, *Almaxene*ren aztarnarik gelditu ez dela nekez sinetsirik!); eta bai Karmen San Sebastián alabak berak ere...

Juana Antzak eta Karmen alabak, *Almaxene*ra sartzerakoan erdiko ate hori baliatzen zutela esan zidaten. Amak, dena dela,





haize-errota hori ez zuela inoiz lanean ikusi azaldu zidan; eta osorik ikusi ere, sekula ez.

Mari Anjeles Rezola *Txabardegi*koak ere (1922an jaioa bera) errota hori ez dela aspaldidanik ibili errepikatu zidan.

Artxiboetara jo dugu. 1890ko Erroldan, Manuel Martiarena Elizegi (1891koa) eta Jose Migel Anza Borda (1857koa) ageri dira bertako bizilagun.

24 urte beranduago (1914an, beraz) Bernardo Lizeaga Estala agertzen zaigu etxekojaun (32 urte orduan), eta Maria Anza Martiarena etxeko-andere (27 urte); beren bost seme-alabekin; Manuel (9 urte), Josefa (8), Manuela (7), Juan (3), eta Teresa (1914an bertan sortu berria). Hauetako norbait gaur egun bizi dateke, non ez dakidala.

Etxe berean (*Almaxenean* alegia) topatzen ditugu, horiez gain, bai Manuel (24 urte), bai Juana Antza neska gaztea (gurea, 1894ko Urtarrilaren 3an jaioa); oraindik ezkongai, eta aurten gure solaskide izana. (Ondikotz, 1991ko Urtarrilean, eta liburu hau ikusi gabe hila).

Aldameneko etxeetan, Iguaran Galarmendi Elizegi-tarrak eta Sorozabal-darrak ditugu (*Izaburu*enean); Baldomero Anabitarte Larretxea kronikaria berriz (liburu honen informazio-iturri balios izana), Isabel Romero Yartza bere ezkontidearekin, *May-Teres* etxean; eta Silberio Zaldua Mendia osagilea (Zumarraga; 1870-VI-20koa), Anabitarte-ren koinatua, eta liburu honen prestaeran "Camino Liburutegi"an lanean diarduen Mari Karmen Zaldua anderearen aita (berau toponimo zaharraren gordailu ageri zaigun *Villa Eulieta* delakoan).

Hauek guztiak lugariztarrak ziren (eta antigutarrak ere bai, beraz, funtsean) eta *Txabardegi* eta *Maritxulegi*ren artean bizi ziren; (aurreko argazkietan halako ilaran aldapan gora kokaturik).

Baina *Aizerrota* bila hasi dugu kapituluaren idazketa; eta amaierakoan abiapuntura itzuliko gara.

Artxiboetan ikus daitekeenez, lanean ari izan zen Lugaritzko errota hau joan den mendean; "En el barrio de la Antigua (sic), detrás del convento de este nombre, están edificando una casa sobre las paredes ruinosas de la llamada Echeverry, propiedad de José Andrés Irurán... y en el camino que va *desde el barrio al molino de viento* están reedificando la mitad de la casa nombrada Echechiqui, de Juan José Azpiazu... Esta casa Echechiqui se halla a 220 varas al Sur-Este del Convento de la Antigua (sic), por el camino que va *desde éste al molino de viento*" (1884-VI-18).

Behin eta berriz aipatzen da, beraz, horko haize-errota; geldirik zegoenik-edo, ezertan adierazten ez delarik. (Ez baita beti kasoa; ikus *Errotaundieta*, 8 kap.).

Oker ez banago, antigutarrok, are inguru horretan bizi diren lugariztarrek ere, erabat galdu dute errota honen oroitzapena. Eta aipamen berezi hau egitea zuzena dela iruditu zait.

# II. LORETOPEA

*AIZERROTA* kapituluan, Andoain-go bide berrian gora abiatu gara (*Mirakontxan* gora, gaurko modura esateko); eta ezkerraldean jarri dugu begirada. Eta horrela topatu ditugu, besteak beste, Beitia-ren kare-fabrika, Barkaiztegi-ren *Maritxulegi* jauregia; eta gorago, ia-ia Lugaritz-Amara mugan, *Aizerrota* harrigarria.

Oraingoan eskuin aldera begiratuko dugu, itsas-kolkora (*Kolko*ra esan behar bide genuke, soilki jadanik eta hondartza gaineko toponimia kontutan hartuz; baita hizkuntzak berak idarokitzen digun bidetik: Lhande, Dict., 375, *golko*, L. golfe). Baina erdal *La Concha* hori hor dago, euskal izenari erabat nagusiturik; eta lanak izango ditugu orain atzera egiten.

Baina Kolko-ra begiratu aurretik, has gaitezen planotxo zahar baten miatzetik: begi aurrean daukazun 1788ko hori.

*Gorgatxo* errekari *arroyo* deritzo hor; eta *Loretopea*ri (normalean [loréto-pía] ahoskatua) "Punta del Antiguo" deritzo. Komentua ere aipatzen da, ikus daitekeenez. Guztiz aspaldidanik etorritako monastegia (lehenengo karlistadak porroskatua) antzinatearen lekuko aparta zen; eta zinez izan da tamalgarri galdu izana.




Dominikarrek baratzak ere bazituztela agertzen da garbi; eta, badakigunez, aldapan gora joaki, haize-errota bat ere bazeukatela ikasi dugu.

Hitz batez, komentu-egoitza handi hura zen Antiguako gune nagusia.

*Pintore* atzeko aldapa zahar estutik abiatu gara, beraz, Antiguarantz, gero jaistekotan. Eta Aldapeta-tik egin dugu, noski; 1847ra arte ez baitzegoen beste errepiderik.

Eta horra hor Donostia, *Pintore* baserri (eta gaztelutxo) inguruko bihurgunetik. (Ikus 38. orr.).

Ezkerretan, aisa errepara daitekeenez, 1546an Alfonso Idiakez-ek eraiki zuen komentutzarra ageri da, zaharragoaren lekuan egina. Beraz, ikusmira hau 1836 baino lehenago hartua da; urte hartako Abuztuaren 3an, lehenengo karlistadaren garaian, karlistek erre baitzuten hango guztia: bai eliza zaharra eta bai monastegia. Lacy Evans liberalen laguntzaile eta ingeles buruzagiaren aginduak (ingelesek aisago euskaraz euskaldunak baino!) badauka oraingoan interes berezirik: "etsiric ya (galdu) biarco citustela San Francisco eta Antiguaco conventu ederrac, sutu eta erre citusten" (1836ko Maiatzaren 25an emana).

Loreto-ko Ama-Birjinaren ermita, halere, ez zen egun hartan galdu; arroken gainean ikusten den kapera txiki hori errekatatik at gertatu baitzen, ondoko argazkietan hobeki ikusiko dugunez.

Eliza zaharra, ordea, eta Dominikarren komentua (besteak beste, Erauso-ko Kattalin "monja alférez" famatua egondakoa) erraustuta gelditu ziren.



Hirurok ageri dira hor, garbiki, ezkerretan; *Loreto-pea*ren gaineko zabalunean. Eta Intzagaraik kondatu digunez, arrantzale asko hurbiltzen zen inguru horretara aspaldiko denboretan, lekuari herriak *Loreto-pia* deitzen ziolarik (Hist. Ecles. de S.S., 1956;442orr.).

Antzina artzainak eta baserritarrak joaten ziren bertara, trumilka; baita hantxe ehortziak izateko eskatzen ere.

Ondoko urteotan, zehazkiago ikusiko dugunez, projektu gaitzak eskaini zitzaizkion lur-mutur honi. Baina Espainiako Maria Cristina de Habsburgo moraviar erreginaren etorrerak (bera 1858ko Uztailaren 21an Gross-Seelowicz-en jaioa), dena aldatu zuen; eta Antigua osoko kondaira ere bai, hein batez.

Batimendu-multzo horrek, Donostian genuen aspaldikoenak, bere gaztelu-kutsua erasten zion inguruari; eskuinetako marrazki apalaren bidez soma daitekeenez. (Ikus 39. orr.).

Hona hemen Loretopea-ko inguruak 1836 baino lehenago; eta oraingoan Antigua-tik begiraturik.

Bi xehetasun aipatuko bakarrik: *Gorga* errekatxoa gurutzatzeko ageri den zubitxoa; eta, Loretopea-ren gainean, etxe-multzoaren ezkerretan, bestetan ere ikusia dugun Loreto-ko Ama-Birjinaren kaperatxoa.

Mendi-mazela hori, hau erran gabe doa, Miramar hesparruan dago gaur egun.



Goazen aurrera.

Marrazki honetan ere (Isabel II. espainar erreginaren kabina ibiltariaren lekukotasunaz ondoriozta daitekeenez, 1845 ingurukoa) Loreto-ko Ama-Birjinaren ermita ageri da, arroka muturraren labarrean. Antigua-ko komentu ohia porroskaturik agertzen da: esana dugunez hamar bat urte lehenago erre baitzuten karlistek.

Ondarreta gainean, hiruzpalau baserri somatzen: *Arroka*, *Euletegi* eta *Erroiegi*, antza.





Itzul gaitezen marrazkietara, begira 41. orr.

Atzean ikus daitezkeen bi baserriak eta mendi-hegi bera ezaugarri ez bazaizkigu ere, Loretopea gainetik hartua da marrazkia; dorretxo borobilak eta ermitak garbiki erakusten dutenez.

Hor ageri den zelaia, gaurko elizaren aurrekoa da, hondar hutsa ia-ia. Eta baserria *Gorgatxo* edo *Bordatxuri* izan liteke. Esan beharrik ez dago, nik uste, bista hau Loretope-tik Lugaritz aldera egina dago.

Goazen orain arkatz pertsonaletatik ikuspegi objetiboetara.

Eta hona hemen, marrazkilariaren fantasiak alde batera utzita, Migel Agirre Ariztegieta-ren foto-makinak 1874an (bigarren karlistadaren garaian)inguru horietan ikusi zuena, ikus 42. orr.

Argazkiaren erditsuan, pittin bat bakarrik ezkerraldera, dorretxo borobil bat ageri da (erdaraz "fortín del Antiguo" deitua). Bigarren karlistadakoan eraiki zenez, "fresko-fresko" zegoen oraindik M.Agirrek argazki hau hartu zuenean.

Eskuin alderago (argazkiaren erdi-erdian, hortaz), dorretxo borobiletik metro batzutara, Loreto-ko ermita dago; urte askotan barrena bertako kanposantuko otoitz leku gisa erabilia.

Arretaz begira ezazu teilatu hori, aurrekaldean dituen hiru zedarritxo horiek ematen dioten kutsu berezian ezagutuko baitugu aurrerakoan Loreto-ko kapera.

Antigutarren gorpuak Polloe-ra bidaltzen hasi arte (1887), gaur Miramar jauregia dagoen zelai miresgarrian agurtzen zituz-



ten gure arbasoek hildako antigutarrak; eta bertan ehorzten. Eta bake-leku eskasa hautatu ez zutela aitortu behar.

Besteak beste, hori bera pentsatu zuen Pera Camps-eko kondeak. Eta Loreto ondoko zelai horretantxe balneario dotore bat eraikitzeko baimena eskatu zion (1886) Donostiako udalari; "para la concesión de los restos de una capilla del Antiguo, y de los terrenos contiguos, para establecer una hospedería balnearia".

Urte hartako Abuztuaren 20ko bileran aztertu zen eskabidea; eta ezezkoa eman zion Donostiako Udalak. Ordurako, guk uste, Habsburgo-ko Erregina-amak begiz jota baitzeuzkan Don Sebastián Infantearen eta Moriana-ko Kondearen lursailak.

Eta horrela, jaio ere gabe hil zen Loreto-ko balnearioaren proiektua.

Egia esan, projektu horren fama askoz ere lehenagotik hedatu zen erruz donostiarren artean. "Diario de San Sebastián" delakoan, adibidez, hamar urte lehenago (1879ko Uztailaren 27an), bigarren karlistada bukatu berrian) hau irakur baitaiteke: "circulan rumores de que los vecinos del Antigua (sic) se oponen a una hospedería balnearia en terrenos situados en la proximidad de aquella iglesia parroquial". Herri-giroa kontra zegoen, dirudienez; "Diario"ak honela amaitu baitzuen bere artikulua: "esa actitud está justificada".

Ezkerretan agertzen den barruki itsusia ertz-ertzean ("una miserable barraca", Aristizabal erretorearen hitzez), Antiguako eliza da. Oraindik ere bere kanpandorrea gabe: 1874an gaudela esan dugu, eta dorrearen erasketa 1881an iritsi zen. Txabola merke horretaz lotsatzen zen Aita Aristizabal; ez baita harritzekoa. Batez ere Donostiako *parrokia nagusia*, teorian bederen, Antiguakoa zela eta dela.

Loreto-ko kapera, kanposantuaren barruan zegoen; eta eliza, *Bikariyo-etxe* ondoan: "Existía también, junto a la iglesia, la ermita de Ntra. Sra. de Loreto, que servía de capilla al cementerio" (Intzagarai, "Historia Eclesiástica de S.S."; 1956; 442. orr.).

1879ko Ekainaren 11ko txostenean *negargarri*tzat salatu zuen Aita Aristizabal-ek ("deplorable" irakurri dugu erdaraz) elizaren itxura. Eta dorre egoki bat behintzat erastea eskatu zuen.

Erregua aditu izan zen: "Se ha acordado construír la torre de la parroquia del Antiguo" irakur daiteke 1880ko Otsailaren 9ko "El Urumea" egunkarian.

Eta handik bi urtetara (1881-III-7) eliz-dorrearen eraikuntza hasi zen.

Hots, eta ohar hau garrantzitsua da, hein batez Loreto-ko ermita zaharra eraatxiz lortu zuten harriari esker. "Felizmente —idatzi zuen Aita Aristizabalek— las ruínas de la que fué capilla del cementerio de dicha parroquia, bajo la advocación de Nuestra Señora de Loreto, facilitan estos materiales con grandes ventajas" (1880-II-20).

Eta Antiguako eliza zatarra berritu eta dotoretuak, ondoko orrialdeetan ikusiko diogun eitea hartu zuen.

Hori dela-ta, ezinezkoa da kanpandorre berri hori eta Loreto-ko ermita zaharra batera eta argazki berean aurkitzea: bata ala bestea. Ezintasun horrek, hain zuzen, arrasto segurua ematen digu Loretope-ko irudiak edo fotoak *datatzeko.*

Baina hari honi helduta. *Behere*ko eliza egitea handik urte batzutara erabaki zenean, hauxe esan zuten: "La torre será de sillería arenisca, aprovechando en gran parte la de la torre de la actual iglesia".

Loreto-ko ermita zaharrean zeuden harriak, horretara, batzu bederen, *Miramar* dagoen lekuko eliza zaharraren kanpandorrean zenbait urtez egon ondoren, *behere*ko eliz-kanpandorrera ere jaitsi ziren... Periplo galanta!

Goazen atzera, ordea. Eta begira dezagun berriro Agirrek 1874an egindako foto miresgarria.

Txubillo-Gulamendi mendietako mazela hutsean, iraulitako alorra franko ageri da; batzutan etxe-teilatu-itxura ere hartzen dutelarik. Kasu! Etxeen bilduma berehala egin daiteke.

*Txubillo* deritzon tontorrean (*Arrimendi* ere deitua, itxura denez) antzinako *farola* ikus daiteke; oraindik ere txukundu baino lehenagoko itxuran (ikus XII.kap.).

Fotoan, Loretope-ko ermitaren eta dorretxoaren artean, baina atzerago, *Euletegi* baserria ageri da.

Ondarreta-ko hondartzaren hegian, ozta-ozta erreparagarri, gaur egun funikularraren geltokia dagoen lekuan, bi baserri somatzen dira: *Arroka aundi* izenekoa, hondartzatik hurbilena; eta

bietan handiena. Eta, beronen atzean, *Arroka txiki* delakoa, txikiena. Geroago ikusiko ditugu bertagotik (ikusVI.Kap.)

Goraxeago, pittin bat ezkerretan, gaur tinko dagoen lekuan, Alkain-darren *Boltsagillene* baserria (ikus XII. Kap.); funikularrean gora igotzean, ezkerretan agertzen zaigun bera.

Loreto-ko Ama-Birjinaren ermita pean, denok ezagutzen dugun arrokadia: *Loretopea.* Geroago, dena erdaldundu behar amorratuan, "Pico del Lorito" ("de Loreto" izan beharrean). Eta ondoren, pausuz pausu, "Pico del Loro", are "Pico del Oro" ere birbataiatua... Donostiarren sendimendua mintzeko ere moduan: "esa estupidez moderna —zion Jose María Donosty kronikari ofizialak— convirtiendo el *pea* de la Virgen de Loreto, en el Pico del Loro" (1973-X-22).



Aurre-aurrean, bukatzeko, *Zaldisko Zokoa* dugu; liburu honetan barrena beste batzutan aipatua.

Itzul gaitezen marrazkietara. (Ikus 41. orr.).

Hel gaitezen Ondarreta-raino.

Eta 1874an honela ikusi zuen Loretopea Migel Agirre Aristegieta argazkilariak.

Dorretxoa, beraz, eraiki berria da, eskuinetan.

Eta Loreto-ko Ama-Birjinaren ermita zutik dago (ez urte askotarako, ikusiko dugunez). (Ikus 44. orr.).

45, orrialdean ikusten dugun foto hau ere 1874 ingurukoa date. Loretopea Ondarreta-tik ikus dezakegu berriro.

Hondartza gaineko murru gotor horietaz ezer ez dugu esango. Dorretxoaz eta ermitaz ere ez. Garbi dago *Loretopea* muturra Loreto-pean zegoela. Argazki honetan, nolanahi ere, ermitaren inguruko harresia besteetan baino hobekiago ikusten da.

Garaia da besteez zerbait esateko.

Aldapa hori, eguraldi euritsuaz oso labain omen zena, "Campo de Maniobras"era jaisteko erabiltzen zen; eta Matia kaletik berezten zen. Hiru bide zeuden, nolazpait esateko: bide zaharra, Lugaritz eta Ibaeta berezten zituena (gero ikusiko). Gora-



go beste bat, 1845-1847an Irun-Andoain zabaldutako errepide berria, gero Matia-kalea deitua. Eta bazegoen hirugarrenik labur bat, bide zaharra baino beherago. *El Arenal*era jaistekoa, argazkian ageri den aldapa erpin hori.

Antiguako etxe zaharrak, beraz, erdiko bidearen ertzetan topatzen ditugu (ikus III. kapitulua).

Aldapez bestaldera, eta bidearen ondo-ondoan, hiru etxe ditugu. Goiko zuria, oraindik ere kanpandorrerik gabe, eliza zaharra dugu, Aristizabal erretora lotsatzen zuena. (Ikus beti 45. orr.).

Hurrengoa, aldapan behera goazelarik, *Martaene* dugu, tabernako atari zurian ezaugarri (Lug. 24; 1862); eta, ondoren, fotoaren ertzean ia-ia, *Markosene* etxea (Lug. 25; 1862).

Beherean agertzen dena, Ondarreta gainean, zein den ezin esan: *Kolkaenea* izan daiteke, 1862ez gerokoa.

Goian agertzen diren biak zein diren ezin segurta. Barkaiztegi-renak zirela, bai. *Eulieta* ote goikoa?

Artxiboei esker (baina ez bestela: inork ez daki gaur ezer etxe hauetaz) zerbait erants dezakegu.

*Martaene* baserria (Lug. 24, esan dugunez) taberna zen. Makina bat aldiz hartu zuketen hor sagardo tragoxka bat orain



dela ehun urteko antigutarrek... Taberna, Arzamendi-tarrek eramaten zuten; eta bertan bizi, eta bertan jaio ere zirela pentsa daiteke. Karmen Arzamendi izenekoa, 1821koa zen. Betidanik *Martaene*ko biztanle, *tabernari* gisa agertzen da 1871ko erroldan. Ignazio Arzamendi bere anaiarekin bizi zen (berau 8 urtez gazteagoa). Bai foto honetan, eta bai aurki ikusiko dugun Comba-ren marrazkian, Antiguarakoan topatzen dugun *lehenengo* tabernan gaudela pensa bide dezakegu (Donostiatik gatozelarik lehenengoa, jakina).

Ez bakarra inondik ere, ondoko lerroetan agertuko denez...

1882an Jose Antonio Asteasarain Arrillaga (1854koa) eta Florentina Erzibengoa (1855koa) senar-emazteak topatzen ditugu *Martaenean*, beren lau seme-alabekin. Biak donostiarrak jaiotzaz. Baita, etxe berean, Eujenia Solaberrieta ere (Orio, 1868).

Hurrengo etxea, esana dugunez, aldapan beherakoan, *Markosene* da (Lug. 25; 1862). Bikoitza, nolazpait esateko, kanpoaldean eskailera batez hornitua. Nekazariz beterik agertzen zaigu hau; eta bizi zirenak bertakoak zirela pentsa daiteke. Bai Nikolas Martikorena (1817), bai Manuela Galarmendi (1821), *labrador* gisa agertzen dira liburuetan. Loretopean laborantzaz bizi... Senideez gain, dena dela, Petra Surupe ere bizi zen hor 1871an (1843an hara aldatua); baita Tomas Irastorza ere, nekazaria, beronen familiarekin (antigutar zaharrek *famelia* diote, dena dela).

Jende asko etxe berean; behin eta berriz egiaztatuko dugunez. Antiguako etxeetan pilatuta bizi zen jendea, zinez. Tarte urria uzten zaigu idealizazio urdinetan erortzeko.

Handik urte batzutara, dena dela, itxura hau hartu zuten Loretopea inguruko parajeek. (Ikus 46. orrialdea orain.).

Ermitaren arrastorik ez dago (inguratzen zuen harresitxoa ez izatekotan), baina elizak bere kanpandorrea badu. Argazkia, beraz, 1885 ingurukoa da.

Bigarren karlistadako dorretxo borobila hor dago, jadanik ezaguna. Eta Txubillo azpian, etxe bakan batzu daude: bi *Arrokak*, Ondarreta gainean; *Boltsagillene*, mazela erditsuan; *Euletegi* Arbizketa-ko harrobiaren gainean; *Marbil* ezkerretako ertzean. Harrobiaren azpikaldean, *Barraka* ezkerretan (gaur ere zutik), usain kiratsak botatzen zituen kanal estali gabea, zuzenzuzen Arbizketako harrobitik guganantz heldu, eta gartzela egiterakoan erraustuak izan ziren txabola hitsak.

Erabat ezkerretan, atzean, Brunet-en botila-fabrika (ikus VIII. kap.), bere tximenea handiarekin; eta honen aurrean, kaminoaren ertzean, etxe-ilara ezaguna: eskuiñetatik ezkerretara, *Herrerotegi*, *Isasene* eta *Iñarrene* (Ikus III. eta IX. kap.).

Erdi-erdian dagoen etxea, lau teilatu eta bi tximenerekin, *Barkaiztegi* zaharra da, ene ustez. Ezkerretan ageri den baserria, berriz, "Barcáiztegui del Hortelano" izenekoa.

Gero itzuliko inguru hauetara.

Azaldua dugunez: elizak kanpandorrea du, beraz, ermita desagertua da.

Ondarretan kristauik ez... Hori ametsa! Gaur egun, hondartzako lagun genituen saltopatxiko gardenska haiek berak, jendeoldearen uholdepean, betirako desagertu direlarik.

Oraingoan Nemesio Barrio udal-arkitektoaren plano honek lagunduko gaitu (1881). (Ikus 48. orrialdea).

Horrela zeuden Loretope-ko inguruak *Miramar*eneko lanak hasi baino lehenago. Loreto-ko ermita desagertu berria da; baina bertako kanposantuko harresia eta dorretxo borobila nabarmen daude. Hor agertzen den kaminoa, beherekoa, projektu hutsa da oraindik, goikoa bakarrik dagoelarik.

Ezkerretan *Barkaiztegi-enea* daukagu (Lug. 8; 1862), baita beronen mugarri-etxola ere. Lursailak "del Sr. Barcáiztegui" dira oraino. 1886 eta 1887ko planoetan, berriz, "de la Sra. Condesa de Llobregat" agertuko dira (X. Barkaiztegi aita 1882n hil zen).

Hortxe dauzkagu, era berean, eliza (goikoa), *Bikariyo Etxea* (Lug. 23; 1862), *Martaene* (Lug. 24; 1862), eta *Markosene* (Lug. 25; 1862). (Ikus beti 48. orrialdeko planoak).

Mintza bekizkigu planook, honetaraz gero. Goikoaren hau, adibidez (1887-I-11).

Kanposantua agertzen da; baina bertan zegoen Loreto-ko kapera ez. Dorretxo borobila, berriz bai; baita foto batean ikusi dugun etxea, hondartzaren gain-gainean.

Eliza eta *Bikariyo-etxe* ere ikus daitezke garbiki.


Barcaiztegui
Terrenos del Sr. Barcaiztegui
Iglesia
Telegrafo
Heredera de D. Sebastian
San Sebastian 31 de Mayo de 1881
El Arquitecto Municipal
Mariano Barrio


PROYECTO DE DESVIACION DEL TRANVIA POR EL PASEO DE LA CONCHA ESCALA 0.002 POR METRO.
1887
I-1887
Carretera de Ambosin á Irun
PASEO
Playa


GAGION DEL PASEO DE LA CONCHA. 0.002 POR METRO.
1886
V-1886
Camino vecinal
Terrenos de la Condesa de Llobregat.
Terrenos de los herederos del infante Dn SEBASTIAN
Terrenos del Exmo Ayuntamiento
Capitana
LAYA. DE BAÑOS.
Sn Sebastian 26 de Mayo 1886.
José de Goicoechea

Loretope-ko harrobia "en explotación" agertzen da (gartzelaren eraikuntzan, horko harria ere erabili zen, besteak beste).

Bide berriari, azkenik, "Carretera de Andoain a Irún" deritzo; jadanik esana dugunez.

Itzul gaitezen argazkietara.

Eta hemen gaituzue berriro, Loretopea-ren parean.

Dorretxoa tinko dago; beraz, argazki eder hau 1889 baino lehenagokoa da. Baina Loreto-ko Ama-Birjinaren ermita, desagertu egin da; eta *goiko* eliza zaharrak, ezkerraldean ikus daitekeenak, bere kanpandorre berria irabazi du. Pasea da, beraz, 1881ko urtea. Irudia, hitz batez, tarte horretan kokatzen da (1881-1889).

Ia soil agertzen da Txubillo azpiko mazela (*Boltsagillene* da salbuespen bakarra). Beherean, hondartzaren ondo-ondoan, bi *Arrokak* ageri, *Aundia*, hondartzaren hegian bertan; eta *Txikia*, barru alderago.

Ezkerretan ikus daitekeen estalpe-etxola, *Barkaizteginek*o sarrerakoa da (eta *Maritxulegi* gorago eraiki baino lehenagokoa).

Etxolaren atzetikako bidetik joanda, *Marruka*ra (Lug. 21; 1862) eta *Txantxerreka*ra (Lug. 22; 1862) joango ginateke.

Etxolaren teilatu-hegia arretaz begiratuz gero, garai hartako etxe kapareen ezaugarria errepara daiteke: halako apaingarri erorkor bat, "Belle Epoque"ko etxe dotorreetan tipikoa. (Ikus Arcachon-go jauregi bat 51. orrialdean).

Zuhaitzen artetik, eliza berritua ageri da, kanpandorrea ere





*Coneba de San Sebastian. — La Casita Real. — ND Fot*

ikus dezakegularik (kanpandorre-lanak 1881ko Martxoaren 7an hasi zirenez gero, honek ere fotoa datatzeko aztarren bat ematen digu).

Aldakuntza horien lekuko, are eragile ere, On Jose Aristizabal donostiar apaiza; eliza xaharra jaso eta berria eraiki beharrez aspergaitz saiatutako gizona.

Bide horretan barrena segituz, hementxe gaude, Antigua-ko sarreran.

Elizak ezkildorre berria badu.

Bideaz bestaldera, elizaren parean, "Bikariyo-etxea" dugu (Lug. 23; 1862); Aita Aristizabal *behera* jaitsi arte erabilitakoa. Eskuin aldean, berriz, *Martaenea* baserria. Atalburuan tabernaren izena bide dator, baina guk ezin irakur.

J. Comba marrazkilariak dorretxo borobilaren ondotik hartu duke bista hau.

Elizaren atzean izkutatzen den bidea, *Txantxerreka* aldera



doa. *Barkaizteginea* jauregia ezkerretan legoke, elizatik gora; *Aizerrota* aldera nolazpait esateko.

*Miramar* jauregia hortxe eraiki zuten; eliza dagoen lekuan zehazki.

Kupelak daramatzan orga, bere bi idiak eta itzainarekin, Ondarreta aldera doa, eta Antigua aldera ere bai (ikus IV. kap.).

Goiko tontorrean, *Lugaritz* etxea (Lug. 57; 1862); hautatu dugun garai honetan Mariategi (San Bernardo-ko Markesa)ren jabego. Ospe handiko etxea zen: "Lugariz, casa solariega, en la partida que llaman de Artiaga o Artiga" (Euskal Erria, XXVI, 1892. 1, 421).

Beranduago, *Castilblanco* eraiki zenean Monteleón-go Dukeena izan zen; eta gero osotara erre zen.

Bada garaia dorretxoa bertagotik ikus dezagun. (Hementxe behean ikus dezakezuna):

*Tunela* zabaltzerakoan eraatxia, dorretxo hau hamabost urtez egon zen zutik. Hamabostez bakarrik.

Baina antigutar zahar batzuk, nahiz dorrea ez ikusiak izan (nork luke gaur 105 bat urte gutxienez!), dorretxo horren berri badaukate; liburu honen prestakuntza garaian neronek frogatu dudanez.





Loretopea basa hark, nolanahi ere, kondaturik zeuzkan bere egunak. Nahiz eta lurra idorra izan; "salvo a fuerza de grandes gastos y cuidados" (Goikoaren txostena, 1888-VIII-6).

Alde batetik, Antiguako tranbia (Benta-Berri-koa) bidean zegoelako; eta, jakina, Loreto-tik Ondarreta-rako aldapa erpina, tranbia batek igo eta jaisterik ez zeukalako. *Behere*ko bidea (gaurko kaminoa) zabaldu beharra zegoen, hitz batez.

Eta, bestetik, Maria Cristina Erreginaren jauregia egiteko (lursail osoa... 7.672 pezetatan erosia, 1888-IX-9an!!) nahi-taezkoa zen *tunela* egitea (*luebakia*, hobeki esateko); eta gero, berriro estali eta aurreko itxuran uztea, Loretopeko muturra eta jauregia etendurarik gabe elkartuz.

Suntsitu beharrak ziren, beraz, dorretxoa, Loretoko kanposantuaren arrastoak, eta abar.

Eta horra hor *tunela*ren egia garratza... (IKus 53. eta 54. orr.).

Luebakia aurrenik; sekulako aldamio baten bidez dena estali, ongi berdindu, eta... horra munduko *tunelik* famatuena prest...

Estalpea egiteko, kare hidraulikoa erabili zen; baita Antzietako harrobiko harria ere. Lanak Migel Salaberriak hartu zituen bere gain (prosupostua: 178.580 pezeta), eta hargin-maisua Juan Kruz Leaniz izan zen. Beste xehetasunen bat nahi? Estalkiaren





oinarritzat hautatu ziren puskek 0,82 m. x 0,35 m. x 0,15 m. zeukatela (ez baita hutsaren hurrena: 100 bat kilo).

Langileak ere ageri dira argazkian. Nor ote diren, zoritxarrez, ezin esan.

Atzekoa, jakina, Txubillo-pea da, Arrubiko-baja.

Ebaketa-lanak 1889ko Urtarrilaren 5an hasi ziren; eta handik urtebetera *tunela* prest zegoen: estrainaketa 1890ko Apirilaren 2an egin zen.



Ekialdeko sarreran (Kontxa aldeko sarreran) lubiziak behin eta berriz gertatzen zirela bide, lanak atzeratu egin ziren.

Loreto azpiko tunela, beraz, *Miramar* eraiki baino lehenago egin zen.

Tranbiaren burnibidea 1890ko Martxoaren 31an ezarri zen. Eta 1889 urtea amaitzean, jende pila ari zen lan haietan: 30 hargin, 130 peoin, 4 zaldi, 4 itzulgailu eta 3 bagoitxo (Doucaville markakoak).

Lehenengo karlistadaren garaian, beste tunel bat egon zen Loretopean: *inglezulo* deitutakoa. Eta artistaren batek horrela ikusi zituen inguruak. Lanak dituzke irakurleak hau sinesteko, eta neronek ere bai. Baina... besterik ere ikusi dugu liburu honetan.

Oso zoko zikina zela-ta, 1856an bete egin zuten, horretarako 90 metro kubiko harri erabiliz.

Eta halaxe egon zen, hetsita, 1887ko udara arte.



Loreto azpiko *tunela*, *Miramar* baino lehenago eraiki zen: hau 1889ko Ekainetik 1893ko udara arte kokatzen da.

Selden Wornum britaindar arkitektoaren jauregi gorri ezaguna eraiki artean, Maria Cristinak Aiete-ko jauregian pasa ohi zituen udak, Bailen-go Dukesarenean. (Gero, jakina denez, hantxe pasa zituen bere udaldiak Franco Jeneralak).

Eskuin aldean tunela ageri da, oraino eraikuntza betean; eta atzekaldean, Ondarreta-ko gartzela berria somatzen da, ez oso ongi.

Ezker aldean, nahiz ez ageri, eliza zaharra.

Argazkia, beraz, 1890koa date.

Tunela bukatutakoan, *Miramar* jauregiaren lanak hasi ziren.

Marrazki xarmangarri hau Comba-rena da, eta 1891 inguru-koa dela kalkula daiteke.



Eskuinetako argazkian (1894 ingurukoa) amaiturik agertzen zaigu *Miramar* jauregia.

Argazkiaren erditsuan, berriz, bere tximenetzarra eta guzti, Brunet-en botila-fabrika; oraindik ere zutik.

Eskuin alderago, *Arbizketa* (hondartzaren atzekoa), *Marbil* (zaharra, goraxeago, eskuinetako ertzean), eta *Erroiegi* (gorago, aurreko harresi luzea erakusten duelarik).

Berriro itzuliko inguru horietara, eta bertagotik ikusiko.

Bego horretan oraingoz.








Horra hor *Miramar*, bertara doazen karrosak eta andere dotoreak falta ez direlarik. Eskuin aldean, ia-ia behereko ertzean, *Zaldisko*ko zuhaitzak ikus daitezke.

Txubillo-ko dorrea (*farola* euskaraz, "el torreón de Igueldo" erdaraz) bere itxura zaharrean dago oraindik; beraz 1905-1910 inguruan gaudela esan daiteke.

Mazelan goiti ageri den etxetxoa, *Polsaberri* izan daiteke, *Muskullu* ere deitua.

Loretopea, berriz, guk ezagutu dugun heinean dago jadanik.




Lanak amaitzean, Combak honelaxe ikusi zuen jauregia joan den mendearen bukaeran.

Eta bere horretan ematea interesgarria dela iruditu zaigu.





Guk horrela ikusi dugu *Miramar*.

Kanpo aldetik urte asko eta askotan; Franco-ren urteetan debekatuta egon baitzen bertara sartzea. Zaharrakatu ere egin zen, oso; eta batimendu batzu batez ere, erortzeko arriskutan gertatu ziren.

Donostiako Udalak bere gain hartu duenez geroztik, eraberritu egin da jauregia; eta ekintza politiko eta kultural asko ospatzen da bertan.

"Austria-Habsburgo-tarren eskuetatik, donostiarren eskuetara aldatu da", behinola Labaien Alkate-ohiak gogorazi zuenez.





Horrelako paradak eta espantu ofizialak behin eta berriz errepikatu ziren Antiguan 1893tik 1929ra arte; eta honek eragin handia izan zuen Antiguako jende xinplearengan, eta are handiagoa udatiar gisa Madriletik urtetik urtera Antiguara etorritakoengan.









Jauregiak ebaki egin zuen Lugaritz auzoa; tuneletik haranzkoa *Miraconcha* bihurtuz, eta antzinako loturak galdu zirelarik.

Goiko postalean ikusten diren xaletak, Antiguatik at senditzen dira gaur. Zuhaitzen atzean ikusten den arbelezko teilatua, *Maritxulegi*ri dagokio. Hots, zoritxarrez eraatxia izan den jauregi eder hori, nork joko ote zuen gaur egun Lugariztzat? Eta (areago, areago mozturik alegia), *Txantxerreka* alderako harantxoa. Gaur egun Pio Barojatik joan daiteke; baina hori, urte askotan barrena, *Miramar*en barruko parkea izan da; atzekaldea






*galduta* geldituz ("Maritxulegi-Trelles" bera Antiguakotzat?).

Hitz batez, Antigua Matia kalean hasten zen gure garaian; behereko argazkian eskuin aldean ageri diren etxe horietantxe: Eztenaga-ren etxea, *Sutegizar*... (Ikus 65. orr.).

Horra hor jende pila bat "Atorrasagasti" izeneko eskualdean: gaur Antiguako eliza dagoen lekuan.

Lehenengo harriaren ezarketa kapitulu honetantxe barrena kondatu dugunez, gauza handirik erantsi beharrik ez.

Bide hori, eliza zaharra eskerretako kaxkoan utzirik, "Txoldaune" aldera zihoan. Eskurik aldean agertzen den baserria, "Borda-errekalde" ote den nago.

Eskuin alderago, beraz (baina argazkitik at) "Bordaberri" ikusiko genuke; eta guk, Agirrek bezala, Matia kaleko sarreratik ikusten dugu gertakaria.

Erdialdean Habsburg-eko Maria Kristina somatzen da; eta hor nonbait daude, era berean, Gil Larrauri Alkatea, On Jose Aristizabal erretorea, etab.

Argazki hau, bertan irakur daitekeenez, Jose Gaikoa arkitektoaren paperetan agertu zen. Eta hau normala da; esana-dugunez, Goikoak diseinatu baitzuen elizaren projektua.

Honez gero, dena dela, *goiko* eliza zaharraz beste zerbait ere esateko unea etorri dela dirudi.

1836ko erreketaz geroztik —esan dugunez— Antiguako eliza eta Dominikarren komentu zaharra galdurik, beste zerbait eraiki behar zela; eta *mementurako*, barruki ezin apalago bat altxa zuten desegindako batimenduak egondako lekuan.

1871an, bigarren karlistada hasterakoan, 60 urtetako zarauztar bat topatu dugu *Bikariyo Etxe*an, 1867an bertara etorria. Apaiz hori On Lazaro Balantzategi zen; eta neskame bat zuen laguntzaile: Joxepa Esnaola izenekoa. Aurrerago ikusiko dugun *Bazterretxe* auzuneko *Sutegizar*enean bizi zen. Sankristaua, berriz, Beloki izenekoa, etxe horretantxe zen bizi.

Aurki joango zen parrokia horretara On Jose Aristizabal apaiz jakintsu eta hizlari bikaina; koxkeroa hertsiki, San Bizente parrokian bataiatua izan baitzen.

Bigarren karlistada bukatutakoan, Aita Aristizabal ihes egin ez zuten apaiz bakarretakoa izanik, elizak behar zuen berrikuntzari ekin zion.

1879ko Urriaren 17an, aldare berriak estrainatu zituen; eta organo-jole kantari bat ekarri: Eusebio Oharritxena.

Kanpandorrea erantsi, dena txukundu, eta... berehala tokatu zitzaion Aita Aristizabali berriz hasi beharra...

Migel Agirre Ariztegieta argazkilariari esker, hemen daukagu Antigua-ko "goiko" eliza eraatxia izan baino hilabete batzu lehenago. (IKus 67. orr., eskuinetan).

Behera doan bidea (errepikatu beharrik ez, agian) Ondarreta hondartzarantz doa.



Eskuin aldean ageri den etxea, "Bikariyo-Etxea" da (Lug. 23; 1862); eta bide horretan haranako aldera joanda, elizaren eta etxearen artetik "Txantxerreka"ra iritxiko ginateke.



Fotoan agertzen den apaiza bertako erretorea da seguru aski: liburu honetan barrena, maiz aipatua dugun On Jose Ariztegieta donostiarra.

Erdialdean ikus daitekeen jaun hori, bertako sakristaua izan daiteke: Juan Mari Beloki elduaindarra.

Berau irakurleak dakikeenez, Bazterretxe auzoko "Sutegizar"enean bizi zen bere familiarekin.

Andere gonaluze hori nor den ez dakigu; baina bidezkoa da "Bikariyo-Etxea" eramaten zuen Josefa Zubiria dela somatzea. 1885ko padroian berori agertzen zaigu etxe horretan. Baina baita Agustina Zamora Etxenike anderea ere; berau "etxeko lanetan" ari (=sus labores), ezkondua; eta 1843ko Abuztuaren 28an jaioa (bere 45 urteetan, beraz, Agirrek argazkia hartu zuen garaian).

Nolanahi ere, beste neskame bat zegoen hor urte batzu lehenago (1871): Josefa Esnaola izenekoa ("Koxepa" seguru aski antigutarren ahotan); hiru urte t'erdi hartan, On Lazaro Balantzategi zarauztarra bertako "bikariyo" agertzen delarik (berau, dena kondatzekotan, 1811 jaioa).

Baina bi hauek 17 urte lehenagoko biztanleak izanik, postu-



ra egingo genuke Aita Aristizabal, Beloki sakristaua eta Koxepa Zubiriaren alde. Nork erranen?.

Motiko horiek, nor ote?. Ezin erantzun. Itxuraren arauera, 1875 inguruan jaioak direteke. Agian antigutarren batek soma dezake multzo horretan bere aitona edo berraitona. Agian bai!

Eta, horrela izatera, kaso egidazue.

Eliza berriaren projektua Jose Goikoa Udal-Arkitektoak hartu zuen bere gain. Zenbat? 51.000 pezeta. Eta, non? Orduan "Atorrasagastiren baratza" zeritzon zabalunean eraiki zen; gaur dagoen puntuan, alegia.

Lehenengo harria 1888ko Irailaren 24an ipini zen. Eta urtebeteren barruan, exkax, prest. (Maria Cristina erregina zai baitzegoen *Miramar*en eraikuntza hasteko).

Obrak izan ziren bitartean, Jose Maria Lasarte-ren barrukian ematen ziren mezak, Brunet-en fabrikaren ondoan (gaur "Casa de las Conchas" dagoen lekuan, bestela azaltzeko). Leku-uzte hori dela-ta, eguneko hamar erreal ordaindu behar izan zuen jaun-ertorak. Geroago (ikus IV. kap.) gai hauetara itzuliko gara, eta mezak ematen ziren xaboin-fabrikako barrukia aipatu eta ikusiko. Lasarte hori ere, bidenabar esateko, beste zenbait negoziotan ikusiko dugu.

Lehenengo harriaren ipinketaren kariaz, garai hartako puntuzkoak bildu ziren Antiguara 1888ko Irailaren 24an. Maria Cristina erregina buru, jakina; Alfonso XIII haurra, Eulalia Infanta, Medina-Sidonia-ko Dukesa, Praxedes D. Sagasta gobernu-burua, Donostiako alkatea zen Gil Larrauri jauna, Kosme Txurruka jauna; eta, jakina, On Jose Aristizabal erretora. Anti-







gutar lekukoen artean Kristina Sorrondegi topatu dugu, "Sorrondegi-ko Kondesa" eta "Dama Particular de Su Majestad". Ikus 66. orrialdea).

Frantsesez esan ohi den bezala: "ce n'était qu'un début"... Eta antigutar asko, handizki eta handigurako betekada iraunkor hartan, erregetiar bihurtu zen brauki; eta espainiar puntuzkoekin tratatzeko ahaleginetan amorratu... Lehen *alternar* esan ohi zen erdaraz; Antiguan errotik sustraitutako joera.

On Jose Aristizabalek bataiatu zuen Battenberg-eko Ena erregina-gaia (katoliku gisa ezkondu bazen, bataiatu egin behar aurrenik); eta dena irudi horietan agertzen den elizan gertatu zen.

Hain zuzen ere, Antiguako eliza zaharrak bazuen Erregeentzako kapera eta aldare bereziak.

Aristizabal erretora 1915ko Ekainean hil zen; ordurako Antigua langilearen zantzuak eguratsean barrena hedatzen zirenean.

Ondoren (1900an Antiguara etorria) Juan Jose Lapeyrak hartu zuen segida, berau Eztenaga-tarren Matia 6ko etxean, 3. estaian, bizi zelarik (11. zenb.koa; hortxe eskuinetan).

Aita Lapeyra Urrestilla-koa zen (1873-III-30); eta Manuela arrebarekin bizi zen (1870-koa).

Beste bi laguntzaile zituen mende haseran: Agustin Elizondo apaiza (6), eta Bentura Itxaso getariarra (26); ondoko orrialdeetan ere, *Isasene*ko berri ematean (IX. kap.) berriro topatuko dugun apaiza, oraingoan bere arrebarekin.

"Miramar-en atzean", azkenik, *Txantxerreka* zegoen (eta orain dela gutxi arte egon zen zutik); eta baserri honen eta Caviedes-en *Pantxita*ren artean, hor nonbait galduta, *Marruka* baserria zegoen (1862ko zerrendan, Lug. 22 eta Lug. 21 zenbakiez).

Bigarrena ezinezkotzat jota, *Txantxerreka*ren argazkiren baten bila ari izan gara. Ezin.

Goiko fotoak eskuin aldetik beste hiruzpalau zentimetro gehiago izan balu, hortxe ikusiko genukeen. *Santz-erreka* izeneko erreka hortxe baitago garbi.












Sekula gauzatu ez zen Rozanés-Kasinoarentzako zimentarriak eta hormatzarrak hor egon ziren luzaz; dena azkenean ia arrastorik utzi gabe desagertuz (ikus I. kap.).

Hots, heldutako antigutarren artean bederen, nork ez du inoiz entzun "pareces de Txantxerreka", edo horrelakorik?

*Untzene* azpian (argazkian ez da ageri), erreka zola horretan, eta *Miramar* jauregia inguratzen zuen hormaren ondo-ondoan, hortxe, gaurko Pio Baroja 4-ren inguruan, eta aurrez-aurre "Hotel Costa Vasca" zukeelarik, hortxe zegoen oso sagardoa, ona saltzen omen zuen *Txantxerreka* baserria ("Santz-erreka" jatorrian; are "Mari-Santz-erreka" ere, Rikardo Izagirre-ren esanetan). Ezkerretan dagoen ikusle talde horrek, hortxe dauka baserria, begien aurrean (moto-laisterketa ere ikusten dute, noski).

*Txantxerreka*n Laskibar-tarrak bizi izan ziren; baina bertan topatzen ditugu ere Argaya, Fagoaga eta Iguaran-dar batzu. Etxeko jendea jatorra bide zen; Katalina Aranburu aiatar neskameak (1791an jaioa), hortxe baitzegoen oraindik 1871an, 20 urte zituenean Antiguara aldatuz geroztik. Hirurogei urtez, beraz, hantxe.

Dagoeneko esan dugunez, are gutxiago dakigu *Marruka* baserriaz, (ikus, dena dela, III, kapituluko argazkiak).

Astigarraga-ko serorengana jo behar bide litzateke honen berri izateko; eta nik, egia aitortzen dizuet, joan gabe egin dut



potto. Agian besteren batek egingo: Uba-ra jo. 1882an Telleria izeneko *peoin* bat bizi zen *Marruka*-enean; baita Altza-ko Jose Maria Delpuerto izeneko nekazari bat (1843koa).

Arrobi mendiko hirugarren ttonttorrean (hirugarren *txubilloan* esatea hobe litzateke), pinadiaren ezkerretan, orain arte aipatu ez dugun *Millabider* etxea ikus daiteke; bere batimendu zaharrean "Villa Biar" deitua (Ib. 27; 1862). Jatorriz Montarco-ko kondearena.

Behereko fotoan, berriz, pertsona-multzo horren azpian, errekaren ondoan, eta goitik datorren harresiaren ondo-ondoan (baina baserria kanpo aldean gelditzen zelarik) *Txantxerreka*. Zoritxarrez ez baita ageri...

# III. ANTIGUA OROKORKI

Eta Antiguarakoan, has gaitezen orain dela ehun urteko auzo hura bestetan bezala artisten begiez ikusten, (fantasiaz mukurru hornitua).

Marrazki ikusgarri honetan, adibidez, 1878 ingurukoa, azpimarragarri gertatzen diren xehetasun batzu aipatuko ditugu.

Loretopea gaineko dorretxo borobila hor dago, ezkerretan, kanpandorrerik gabeko eliza zaharraren ondoan; eta Mercaderen *mamelena* pare bat ere bai, Kolkoan. Eta hortxe, erditsuan, lehenengo aldiz ikus dezakegu Brunet-en botila-fabrika, bere tximenea eta guzti; baina zutik hogei bat urtez ere ez egotekoa.





Gordon-ek hemen, garai bertsuan, zehazkiago aurkezten digu Antigua zaharra.

Loretopea-ren gainean, garbiki, erdi-erdian, bi etxetxo: eliza zaharra ezkerretan, hemen ere kanpandorrea gabe (1881 baino lehenago marraztua, beraz); eta, ondo-ondoan, Aita Aristizabalen bizilekua izandako "Bikariyo-etxea".

Hondartzaren ertzean, berriz, beherean, *Bazterretxe* auzoa (erdaraz "Barrio del Antiguo" deitua). Eta Ondarreta-ko beste muturrean, guztiz eskuinean, bi etxe: *Urondo* (*Barraka*) eskuinetakoa, eta *Arbizketa* ezkerretakoa. Badirudi (baina artistaren fantasiak nahas gaitzake) azkeneko *mamelena*ren gainean agertzen zaiguna, Lemery-ren *Mirador* izan daitekeela, bere dorretalaia ere gainean erakusten duelarik.

Ezkerretan, berriz, kamino berriaren ondoko jauregia, *Barkaizteginea* da; goranzko baserria, *Eulieta*; eta Aiete pareko etxe multzoa, *Txabardegi* eta *Isturin*; eskuinaldeko tontorrean *Lugaritz* jauregia nabarmentzen delarik. *Aizerrot*a-ren arrastorik ez, zorigaitzez; erreparatzeko moduan bederen.

Itzul gaitezen errealitatera.

Eta horretarako begira dezagun 1788 (1795)ko plano ezagun hau.

Loretopea-ren ondoan "Nuestra Señora de la Antigua" irakur daiteke garbiki. Honantzago, arroka-muturraren gain-gainean, Loreto-ko Ama-Birjinaren ermita dago.

Ongi errepara daitezke, bereziki, *Santzerreka* ezkerretan, eta *Gorga* eskuinetan, gaur eliza dagoen inguruan baturik; eta eskuin alderago, *Arbizketa*ko arrokadian irteten, guretzat *Konporta* izan dena. Gero garbikiago ikusiko.

Arretaz begiratuz gero, erreka gurutzatuz, Arbizketa-ko malkortxoaren azpian. "Arribizketa-ko zubia", oso zaharra.

Txubillon, berriz, Donostia-ko Konsuladoak eraiki berria, farola, "Tour à feu" planoan.

Santa Klara atzeko *bantxa* ere hortxe dago markaturik.






Eta hona hemen Antigua zaharra, bere osoan, 1862ko datuen arauera marraztua. Lugaritz-Ibaeta-ren arteko muga marratxo-gurutze lerro batez markatua da.

Azter beza irakurleak mapa hau aurrera baino lehenago.

Eta goazen aurrera.

Lagundu nahiz, ohartxo batzu:

*Boltsagillene* dagoen lekuan, *Marbill* dago; eta, alderantziz, *Marbill* dagoen lekuan, *Boltsagillene*. Zenbat honelako, plano zahar hauetan?

Hor *Olasagastiene* ageri dena, gero *Mirador* izan zen (ikus XI. kap.).

Errepara honi: *Zumibuzu*. Eta *Orgatxo*ri, normalean *Gorgatxo* (are *Gorbatxo* ere deitua).

Plano hau, bere osoan, I. kap.an agertu da.

Hor duzue gure eskuetara heldu den argazkirik famatuenean. Lugaritz-ko mazelatik hartua, 1885 ingurukoa dela segurta daiteke. Eta, ondikotz, hor ageri den ezertxo ere ez dago gaur zutik. Fotoak, benetan, lanak ematen dizkio irakurleari: ez dago dudarik.

Eman diezaiogun gainbegirada orokor bat, ondoko kapituluetan xehetasunetara pasatzeko.

Eta, has aitzin: argazkia ezkerretatik eskuinetara gurutzatuz, Andoain (Bazkardo)tik Irun(Landetxe)ra zihoan errepidea ikusten dugu. 1847koa; gaur Matia-kalea bihurtu dena.

Ohar garrantzitsu bat, bestetan ere errepikatzekoa: Lugaritz/Ibaeta auzo-muga ez zegoela kamino berri horretan, Usurbil-a zihoan bide zaharrean baizik.

Hori dela-ta, eta adibidez, *Txillardegi*ri zegokion lursaila erdibiturik zegoen; errepide berriak bi partetan utzi baitzuen: *Txillardegi* izenekoa, Iparraldean; eta "Txillardegi-Txiki", Matiaz Hegoaldekoa.

Arrazoin berberarengatik, eta alderantziz, Matia kaleko Iparraldean zeuden *Isasene* eta *Herrerotegi* etxeak, esate baterako, bide zaharraren arauera Hegoaldean zeudelako (eta kamino zahar horrek baitzuen munta, eta ez Matia berriak), Lugaritz-ko etxeak dira (eta ez Ibaeta-koak). Hau guztia, nahi izanez gero, piskanaka ulertuko du irakurleak; nik ere oso polliki lortu dudan bezala.

Baina bihur gaitezen argazki paregabe horretara.

Har dezagun, geure gogoan bederen, Bazkardo-ra doan errepide berria (Matia kalea, errazago); eta goazen Benta-Berri aldera aldapan behera.

Hasteko, guztiz argazkiaren eskuinean, Loreto ondoko dorretxo borobila ikusten dugu, bideaz haranzkoan (Ibaeta alderdian, beraz). Loreto-ko ermitatxoaren arrastorik ez dago jadanik.

Ezker aldera joaki, eta Lugaritz alderdian oraingoan, etxe bikoitz bat topatzen dugu: bestetan ere ikusia dugun *Martaene* bizileku eta taberna (Lug. 24; 1862).

Aldapan beherago, baina beti ere Lugaritz aldean geldituz. *Markosene* (Lug. 24; 1862), eskuineko *mamelena*ren azpian.

Tarte huts bat dugu gero. Eta, ondoren, kaminoaz bestaldera (Ibaetan, beraz) hiru etxe ageri (elkarri itsatsirik antza) *Kolkaene* ezker aldekoena, pareta bat itzalean; eta *Arrokaberri* multzoa eskuinetan (etxe hauek eraiki berriak ziren, 1862ko zerrendan ez baitira azaltzen).

*Kolkaenea*ren ondoan, askoz ere beherago kokatua, eta foto honetan nekez erreparatzeko moduan, aspaldiko etxe bat: *Venganza* (Ib. 3; 1862), ondoko orrialdeetan hobeki ikusteko eta zehazkiago azaltzekoa (ikus IX. kap.).

Ezker alderago, etxe-hondakin batzu agiri. Zeren aztarna ote? Ezin segurta. Baina Dominikarren komentuak bazeukan, "en el Arenal", *Etxeberri* izeneko etxe bat; eta 1836an bai eliza eta bai monastegiari lotutako batimendu guztiak deseginik gertatu zirenez, horietako bat hau ote den pentsa daiteke. *Etxeberri* bera agian? Zail da erantzuten. *Bazterretxe* auzunean ere (ikus IV. kap.) beste bi *Etxeberri* daudenez...

Tarte txiki bat hutsik berriro, eta etxe-ilara bat goian, errepidearen ertzean alegia; eta beste bat hauen atzean, eta beherago (Usurbilgo bide zaharraren ondoan). Eskuinetatik ezkerratara bi *Herrerotegi*ak (txikia eta handia), *Isasene* eta *Iñarrene* (ikus IX. kap.). Etxe hauek, esana dugunez, Lugaritzen dauzkagu; bide zaharra beroien atzean gelditzen baita (oraindik ere *Errotatxo* ondotik pasatzen dena, Zumalakarregi eta Matia-ren artekoa).

*Herrerotegi*ren gainean (fotoari gagozkiolarik), bakarrik ikusten dugun *mamelena*ren azpian, *Sutegizar*en mutur bat, bide zaharraz bestaldean, beraz.

Fotoaren erditsuan, eta beti ere gaurko Matia kaleari garraizkiolarik, *Iñarrene*ren ezkerretan, Eztenaga-tarren pospolu-fabrika dago. Karratua zen, handi xamarra, gaur Matia 6 etxea dagoen leku berean; bere tximenea eta guzti. Aurrerago bai *Isasene* multxoa, bai pospolu-fabrika bertagotik begiratzeko parada izango dugu.

Tarte huts bat (gaurko Matia 8, 10, 12... 18 oraindik eraiki gabe zeudelako), eta etxe-ilara luze bat: Brunet-en botila- fabrika atzean utziz, langileentzako etxe-ilara, osoki gaur ere Orian Brunetek berak eraiki zuen etxe-ilararen antzekoa. Atzekaldean, eta bi fabrika horien artean, xalet dotore bat: *Blanchonene* (Ib. 9; 1862), *Ondarreta* ere deitua (botila-fabrikari ere *Ondarreta* zeritzon), ondoko urteetan, ezkontzaz, (Josefa Blanchon-en bitartez eta Joaquin Calbetón-engana) donostiar famelia famatuaren eskuetara aldatzekoa. Brunet-en fabrika hori, beraz, Ibaetan ze-



goen. Ohar bat: langile-etxe-ilara luze hori bide zaharraren ertzean zegoen (gaur Guardia Civilak iskilu-kontrola-edo duen lekuan), eta ez Matia-kalean. Kasu eman behar zaio honi.

Kristalera bikoitza duen xalet dotorea, arbelezko teilatu erpin batez estalitakoa, eraiki berria da. Horra hor Loño Brigadierraren jauregia: "Villa María" izenez (1862ko zerrendan ez da ageri; eta geroztik eraikia izan zela pentsa daiteke). Etxe hau Udal aurrezki-kutxaren sukurtsala izan zen gero; eta, azkenik, Gurutze Gorriaren ospitale bihurtua (gaur ere bai; baina zutik

dagoen batimendua 1930koa da). Loño-ren etxea *oraintsu* arte egon zen hor (antigutar zaharrek gogoan daukate); eta, jakina, Lugaritzen.

Loño-ren etxearen honanzkoan (*beherago*, fotoari gagozkiolarik) *Aranaldene* biak daude: zaharra (Lug. 54; 1862), eta *Aranaldene-txiki* (Lug. 55; 1862), bestearekiko "al contacto" dio artxiboak. Aspaldiko denboretan "casa de campo" gisa sailkatua, nahiz hau sineskaitz gertatu.

*Aranaldene* zaharra, Matia aldera zegoen, *Villa Maria* ia-ia ikutzen zuelarik; eta, itsatsirik, eta txikiagoa, *Aranaldene-txiki.*

Hots, *Aranaldene*ko azkeneko bizilagunarekin buruz buru batzutan hitzegiteko aukera aparta izan dudanez, bego puntu hori horretan oraingoz.

Fotoaren ezkerraldean, ertzean, eta errepideaz haranzko aldean, etxe karratu dotore bat agiri, aiton-seme itxurakoa: horra or *Txillardegi* zaharra, Gaskue fameliarena. Gero, hau ere ezkontzaz, Elizondo-ko Iturria famelia aberatsaren altxorrera pasa zen.

Lau etxeren berri ematea falta zaigu.

Matia kaletik behera, honanzkoan beraz, guregana datorren bidea ezkerretara utziz, lau etxe. Matia aldetik hasi, eta lehenengoa (aurrerago hobeki ikusiko) *Gorgatxo* dugu (Lug. 53; 1862), ozta-ozta erreparagarri, ilunean nahasia. Honantzago etxe handi bat, bikoitza antza denez: Antza-tarren *Bordaberri* (jabegoz Iturria-tarrena), bai Ezenarro-tarren eta bai beste antigutar ezagun batzuren jatorri-etxea. Eskuin alderago, berriz, *Borda-errekalde* baserria; eta, azkenik, *Illunbe-berri* etxea (hiru hauek 1862ko zerrendan ez ageri, eta geroztik etxe-zahar batzuren *A* eta *B* eraskinez izendatuak).

Esan beharrik ez: *Miramar* jauregiaren arrastorik ez dago oraindik.

Baina Antigua-ko lehenengo fabrikak hor daude (Lizariturry ezin honetan ikus, jakina).

Goiko eliza zaharra, irakurleak somatu dukeenez, zentimetro pare batengatik galtzen dugu, hor eskuin aldean. Tamalgarria!

Azkeneko ohar bat: Irun-Andoain errepide berria gorago eraiki zuten Antiguako lursailak baino. Uholdeak eta ur geldiak etengabeko izurritea baitziren Antigua zaharrean.

*Gorgatxo*tik "Villa María"raino dugun pareta luzearen gakoa horretan datza: gorago eraikitako Irun/Andoain errepide berriari *eustea.*

Goazen aurrera.

Arestian ikusi dugun argazkiak eta beste honek, badute antzik. Elkarren osagarri gertatzen dira. (Ikus 79. honetantxe).

Dataz ere adinkidetsu dira, berau xaharragoa izan arren (begira, adibidez, Brunet-en etxe-ilararen luzera).

Satrustegi-ren *Toki Eder* dorrearen arrastorik ez dagoenez gero, argazkia 1879 ingurukoa dela esan daiteke (*Toki Eder* 1883-koa baita).

Fotoan barrena eskuinetatik ezkerretara joaki, antzinako ka-



mino zaharretik jaitsiz beraz, *Sutegizar* topatzen dugu lehenik (*Ezkonberri* ere deitua; Ib. 4, 1862). Matia baino beherago, beraz, bide zaharraz haranzko aldean (Ibaetan, beraz).

Ezkerralderago, gaur "Casa de las Conchas" dagoen lekuan, iluna, leiho txikietakoa, kandela-fabrika zaharra dago, bere tximenearekin (ondoko urteetan Tornero-k bere zepillo-fabrika bihurtua).

Atzerago, irakurleak somatu dukeenez, (79) haurrak *beldurtzen* omen zituen botila-fabrikatzarra dago, tximenea handi batez hornitua. Hau guztia, noski, Ibaeta auzunean.

Orain argazkiaren ezkerretara joz gero, bi etxe ageri: guztiz ertzean dagoena *Bordaberri* duzu, saihetsetik ikusia; eta, beronen aurrean, eskuin alderago fotoari gagozkiolarik (gaurko Matia kaletik bertago, nahiago baduzue) *Gorgatxo.*





Argazkiaren eskuinetan, (79) berriz, eta fotografoarengandik hurbilenik, *"Bikariyo-Etxe"* ondoko zuhaztia ikus dezakegu (begira berriro Comba-ren marrazkia). Bista hau, hitz batez, eta Aita Aristizabal erretoreak leihotik ikusten zuena, oso antzekoak dirateke. Baratza mugatzen bide duten murru horiek, *"Bikariyo-etxe"*koak dira (edo dirateke, bederen).

Arrobi-rantz abiatuz gero, eta *Txubillo*ko farola alde batera utziz, etxe ezagun batzu errepara ditzakegu. Goazen horietara, beraz.

Bi *Arrokak* aurrenik, hor, eskuin aldean, nekez erreparagarri; eta *Boltsagillene* ere bai, erdizka bederen ezaugarri. Arbizketa-ko harrobi-malkorraren azpian, txabola mordo bat ageri; gero gartzela eraikiko zen lekuan (1887). Txabola horien berri ere, geroago emango (Ikus VI. kap.).

Igeldo-ra doan bidearen ertzean, ezkerretan, Brunet-en tximenearen eta gaurko Satrustegi-Etorbidearen artean, *Urondo* baserria (*Barraka* ere deitua; Ib. 18, 1862). Gaur egun ere hortxe zutik; zutik dagoen gauza bakarra foto honetan ia-ia, irakurleak piskanaka ulertuko duenez. Gaur egun Baron-darren egoitza (*Kariño* hil bazen ere, Ramon bizi da oraino) gure gaztaroan Ondarretako *botero*-rik ezagunena eta sendoena izan ondoren.

Ezkerralderago, bi baserri elkarren ondoan: goikoa *Marbil*

da (antigutar zaharrek *mármill* ahoskatua); eta berorren azpian, kea dariola, gaur egun Altuna-tar anai-arreba bizi diren *Arbizketa* etxea (Ib. 23; 1862), neronek askotan neure gaitzizentzat erabilia (*Arribizketa*, alegia).

Malkorraren gainean, bakar-bakarrik, *Euletegi* baserria (Ib. 25; 1862); eta fotoaren ezkerreko ertzean bertan, *Marbil* baino goraxeago, *Erroiegi* (Ib. 26; 1862).

Kitto. Horra hor Antigua zaharra.

*Isasene*ren atzean, *Bazterretxe* auzunea dago; baina foto honetan nekez errepara daiteke ezer garbirik.

Bego, beraz, oraingoz, bere horretan.

Eta goazen 80 orrialdera.

Migel Agirre-ren argazki bikain hau begiratu besterik ez da behar, 1890 inguruan gaudela ulertzeko.

Alde batetik, Miramar jauregiko atezantzaren ingurua lanetan ikusten dugulako.

Brunet-en tximemea ere hor dago, geldirik itxuraz (agian "AM" eta "1876" irakurtzen direlarik fabrikaren sorrera-urtea preseski!); kerik gabe oraingoan.

Ezkerretan, ertzean, "Txillardegi" ageri da. Eskuin aldeko partea erantsi berria bide da, normala litzatekeenez; Iturria-ko Braulio elizondoarra eta Gascue-ko Maria Luisa donostiarra 1888 inguruan ezkondu baitziren. Honek argituko luke, bestalde, "Txillardegi" zaharrari ezkerraldetik erantsi zioten eskailera luzea.

Arrobi alderako arkupea, berriz, etxe zaharraren arauera bitxi xamar atxekirik, Don Braulio-ren ekarpena litzateke; eraskin horretan senar berriak Elizondo-ko "Mitxeltorena"ko arkupe-ilararen kutsua ekarri nahi izan balu bezala (batimendu zaharrean ez baitzegoen horrelako arkuperik).

Ezkerretan ere, atzerago, (beti ere 80 orrialdean) Chaves Beramendi Caudilla-ko Kondearen "Mirador" jauregia ikus daiteke; bere ukuilua eta guzti (teilatuaren gailurra bakarrik, preseskiago).

Erdi-erdian, Pospolu-fabrika dago, bere ganbaratxo bikoitz bereziarekin. (Gaur Matia 6 dagoen lekuan).

Honen eskuinean, "Iñarrene" eta "Isasene" bizkiak (dilijentzia bat zai dagoelarik!). Hurrengoa, bestetan ere azaldu dugunez, Elortza oñatiarraren "Herrerotegi" zaharra (Lug. 50; 1862). Gero tarte bat (makina bat burukominen iturri Elortza-ren hasieran); eta gero, txiki-txikia, "Herrerotegi-txiki". Beronen atzean "Sutegizar" famatua utziz.

Pospolu-fabrikaren atzean, eta galtzara zaharraz bestaldean (eta Ibaetan, beraz), Brunet-en langile-etxe luzea, baita batimendu berri kaxkar batzu, "Txillardegi" pareraino.

Tximeneak estalirik, gaur Altuna anai-arrebak bizi diren



"Arbizketa" zaharra (oraindik ere zutik!). Eta goraxeago, gaur egun *"Erregene"*ra eramaten duen bidean gora abiatuz, "Marbil" baserria (Ib. 24; 1862); baserri zaharra, gaur egun desagertua (nahiz "Marbil-berri" jauregiak izenari bederen eutsi).

Goraxeago "Erroiegi" baserria, oker ez banago Altuna-tarren senitartekoena izana; eta mendiaren gaineko hegian, "Millabider".

Goazen orain 81. orrialdera.

Bestetan ere azaldu duguna ez dugu errepikatuko. Loño-ren "Villa Aldea"ri (gerozko "Villa Maria", alegia) oriandik ez zaizkio Hegoaldeko miradoreak erantsi. Ezkerretan bi "Aranaldene" etxeak ikus daitezke.

Erdian Brunet-en fabrika; bere langile-etxe luzeaz, eta "Ondarreta" etxe karratuaz horniturik.

Berorrekiko aurrez-aurre, betiko "Bordaberri" luzea. Eskuinerantz, berriz, "Iñarrene", "Isasene" eta "Herrerotegi", eta, ertzean, "Sutegizar".

Tximenearen ondoan bi "Arrokak"; gaur funikularra abiatzen den gunean.

Arbizketa-ko harrobiaren gainean, *"Eulategi"* (ezkerretan), eta *"Boltsagillene"* (erdian).

Gartzela eraiki gabe dago; eta *"Toki Eder"* ere bai (foto hau beraz 1883 baino lehenago hartua da).

Harrobiaren zolan, berriz, Keheilla-ren eta Olasagasti-ren txabolak (gero zehazkiago ikusiko), artxiboetan "casuca" eta "caseta" deituta.

*"Barraka"* ere hor dago (oraindik ere zutik gaur egun), ezkerretan, Arbizketa-ko zubi zaharraren ondoan.

Hots, ez zaigu ahaztu: ezkerretan, zuhaitz artean, *"Txillardegi"*. Garbiki somatzen da leihoen eta ateen inguruko marrazki zuria; eta ederki sinesten, era berean, etxea gorrizta zela. Jauregi ederra, nik uste.

Esan beharrik ez dago: *"Aranaldene"* eta *"Villa Aldea"*ren artetik kamino berrira igotzen den aldapa hori, gure *"Escolta Real"* besterik ez da.

Bide zaharra, Matia eta Brunet-en etxeen artetik zihoana, Matia baino beherago zegoen eta ez da ikusten

Goazen aurrerago. (Ikus 82. orrialdea).

Horra hor Antigua "Txokolatene" gainetik ikusia.

Brunet-en botila-fabrika lanean ari da, tximeneari kea dariola; eta *Loretopea* gaineko dorretxo borobila osorik dago oraindik. Data proposatzekotan, 1880 urtea idaroki daiteke.

Konportako arroa kukuturik bide dago (askotan gertatu ohi zenez).

Argazkia, berriro ere Migel Agirre fotografoari zor diogu.

Ezer azpimarratzekotan, mainu-kaxeta mordoxka hori, *"Kolka-enea"*, *"Arroka-berri"* eta *"Venganza"*ren ondoan.

Aldapan gora joaki, ezkerretan *Loretopea* gaineko dorretxoa (Loreto-ko kapera desagertua jadanik). Eskuinetan, berriz, bere itxura bikoitzean, *"Martaene"* taberna eta baserria.

Keaz bestaldera, ozta-ozta erreparagarri, goiko elizaren kanpandorrea. Berorren azpian, berriz, *"Bikariyo-Etxea"*.

Eskuin aldera, zuhazti zabal ba: *"Barkaiztegiene"*koa. Kea gesaltzen bide den gunean, *"Eulategi"* zaharra (gero *"Eulieta"*), eta *"Izaburu"*ren inguruko etxe berri bat. Goraxeago *"Izaburu"* bera; eta goiko hegian *"Txabardegi"*. Zoritxarrez, *"Aizerrota"* eta *"Almaxene"* ez dira ongi erreparatzen. (Beti ere 82.an gaudelarik).

Eskuin aldean, berriz, oso ongi ezagu daitezke *"Bordaberri"* luzea; eta beroni ia-ia itsatsita, *"Borda-errekalde"*.

*"Bordaberri"*ren atzean gaiena fotoari dagokionez, ozta ageri, "Marruka" baserria. Eta guztiz eskuinetako ertzean, "Txillardegi"ko zuhaztiaz bestaldean, "Txoldaunez".

*"Txillardegi"* hor legoke, eskuin aldeko zuhaztian; baina at gelditu da.

Eta aterrune bat egingo dugu.

Plano hau garaikidea delako (1886koa preseski) argigarri gerta dakioke irakurleari, (ikus 84. orrialdea).

Ezkerretan "Campo de Instrucción" delakoaren ondoan (Ondarretako *jardinak* esango genuke guk) *Bazterretxe*-ko auzunea ageri da: kaminoaren eta hondartzaren artean: bospasei etxe guztira. Eta, ezker alderago, lupaz eta arretaz begiratzen baduzu, hiru batimendu daude. Hots, fotoan oso ilun agertzen dena, Bru-




net-en botila-fabrika da. Hain zuzen hauxe irakur daiteke hor: "Fábrica de botellas". Dudarik ez, beraz: fabrika hura hor zegoen.

Usurbil-go bide zaharraren ertzean (gure "callejón de Errotatxo" delakoan), eta Igeldo aldean eraikita, bi etxe. Brunet-en fabrikako langile-etxe luzea bata, eta *Ondarreta*ko zuzendaritzarena. Botila-fabrikaren izena, hain zuzen, bertako baserri zahar batena besterik ez da: *Ondarreta*, hain zuzen. (Ib. 9; 1862).

*Gorga* erreka zaharra ere ageri da, ezker aldetik izkutatzen delarik (estali gabe egon zen berandu arte); eta errepide berriaren ertzean, pospolu-fabrika dugu, Eztenaga bergararrarena; eta ondoren, eskuin alderantz, bestetan ere aipatu eta ikusi ditugun *Iñarrene*, *Isasene* eta *Herrerotegi*.

Gorago, eta bihurgunea pasata, goiko eliza zaharra dago, eta *Barkaizteginea* jauregia.

Guk ezagutu dugun Antigua, esana dugunez, Miramar azpiko tunelerainokoa, jadanik, gauza berria da: Maria Cristina-ren jauregiaren eraikuntzaren ondoren gertatu den ondoriorik nabarmenena, agian. Orduan sortu zen *Miraconcha* sustraigabearen ideia; mazela hori Antiguatik at bailitzan. Lugaritzek 1893an galdu zuen bere Ekialdea. Ez lehenago.

Hanartean Loretopea gaineko parrokoa izan zen Antigua osoko biztanleen erdigune eta bilgunea: *Perla*tik *Zapatari*raino gutxienez.

Esana dugunez, *Isturin* eta *Pintore*tik behera doan bidea (*Aizerrota* eta *Barkaizteginea* ondokoa) Antiguara heltzeko bide normala zen. Eta *Isturin*, *Munto*, *Otxanda*, Lugaritz ziren; eta ez Aiete.

Baina ebaketa hori baino larriagorik ere ekarri zien Miramar jauregiak antigutarrei.

Donostiako liberalak (gainerako euskal liberal guztiak bezala) garai hartako *progreak* eta *modernoak* zirela gauza ukatu-ezina izanik ere (karlistek askoz ere euskal sustrai eta kutsu sakonagoa zuten), donostiar guztien artean bazegoen halere halako kidetasun zahar bat. Eta hauxe da Madrileko gortearen etorrerak mende honen haseran erabat hautsi zuena.

Giza-haustura hau, benetako aiton-semeen harrokeriak, jauntxo handigurakoen harropuzkeriak, eta denen erdalkeriak oro (hizkuntzarena barne) 1893 inguruan jaio ziren Antigua berrian. Madrileko udatiarren joerak, eredu bihurtu ziren; Miarritzen, bide beretik, Napoleón III.aren eskutik, Parise miarriztar guztientzako eredu sakratua bihurtu zen bezala.

Are gehiago nabaritu zen aldaketa Antiguako mikrokosmo txiki hartan: Madrileko gortea, Lugarizko nekazariak eta Ibaetako industrilariak hektaera bakar batzutan elkargainka bizi beharretan gertatu zirenean.

Nafarroatik etorritako Benito Jamar kronikariak bixigarriz kondatu duenez, "los donostiarras no sabíamos lo que era la *high life* (sic); reinaba la democracia como dueña y señora; y de tal

suerte estábamos exentos de pujos aristocráticos que, en la vida social, aparecían mezcladas todas las clases". Baina XIX mende erdiko giroaz ari zaigu hor, ez gerokoaz...

Geroago aldatu ziren iritziak eta ohiturak, adineko donostiarrekiko tratuan berehala froga daitekeenez. Mende honen haseran ez baitzen horrelakorik gertatzen; eta, Bulebarrean, esate baterako, giza-klase bakoitzak bere ibilbide berezia baitzuen, hertsiki markatua; beste batera aldatzea hoben ezin larriagoa zelarik... Euskaldun petoak, *kaxero* bihurtu ziren; eta erdaldunak, *kaballero* dotore... Eta eskema hau barneratu ala, donostiarkeria franko errotu zen; ondorioak denok (Pio Barojak barne) pairatu ditugularik.

Gutxietsi-min berri horrek jota, Madrilera hurbiltzea zen helburua (Gortera hobe, ahalaz), neguteak han pasatzea kilikagarri; eta, bide beretik, *karrera* egiteko, Donostiatik eta Euskal Herritik urruntzea zen nahi-ta-ezko urratsa. Aski da donostiar askoren biografia ikustea, honetaz betirako jabetzeko.

Partikulazki: *karrera* ona egitekotan, aukerarik onena *kolonietara* joatea. Belgikan eta Fraintzian hamekak egin izan duen bezala. Etxague donostiar jeneralak, adibide bakar bat ematekotan, *Miramar*en ondoko *Panchita* bere jauregian finkatu baino lehenago, Filipinetan borobildu zituen bere ospea eta bere moltsa.

Bertako jauntxoak, oro har, "visitante distinguido" bihurtu ziren, baina ez Donostiako egoiliar. Gauza bera Antiguari dagokionez: Lemery Jenera-



la (*Miradoren* jabea), Barkaiztegi-tarrak, Satrustegi-tarrak, Calbetón eta Lasala- tarrak, Erreginaren antzera, Madrilen bizi ziren; eta uda pasatzen zuten Antiguan.

Giza-baradera, beraz, poltsikuz eta bizimoduz, osoa zen 1900z geroztik. Antigutarrek, hertsiki mintzatuz, ez zuten *goiko* jende hori gurutzatzen, askotan ezta bistaz ezagutzen ere. Antiguako jende zaharrak ahobatez kondatu didanez, etxe-jabe aberats horiek, are Antiguako jauregiak berak, aldamenean egunero somatu arren, ez zituzten ikusi ere egiten sekula. Mundu hura guztia at zegoen, urrun; eta debeku zitzaien. Eta honegatik beragatik ere, kilikagarriago gertatzen.

Alde honetatik, txikiagoa zen burgesekiko giza-muga hori (industrilariekikoa, alegia), aiton-semeekikoa eta antzeko handikiekikoa baino. Gizarte-muga horrek bazituen oinarri ekonomikoak. Honetaz ongi jabetzeko, aski izango da 1920 inguruan etxeen jabego-zerga hauek kontutan hartzea:

| | | |
|---|---|---|
| Satrustegi (*Toki-Eder*) | 10.000 | pezeta. |
| Iturria (*Txillardegi*) | 4.500 | " |
| C. de Caudilla (*Mirador*) | 4.000 | " |
| Csa. de Mayorga (*Concha*) | 4.000 | " |
| Calbetón-Blanchon (*Oria*) | 4.000 | " |
| Msa. de Peñafiel (*Molino*) | 4.000 | " |
| Sra. Txurruka (*Victoria Cottage*) | 4.000 | " |
| Dsa. de Almenara (*Nieves*) | 3.000 | " |
| Gut. de Terán (*Sansustene*) | 3.000 | " |

Baina antigutar askoren jatorri-etxe handiak, merkeago:

| | | |
|---|---|---|
| *Bordaberri* | 576 | pezeta. |
| *Borda Errekalde* | 375 | " |

Matia kaleko pisu askotako etxeak ere galestiago ziren (Antonio Berrak, adibidez, 4.980 pezeta ordaintzen zituen garai berean; baina jende asko bizi zen etxe osoaz).

Donostiako Udala urte haietan aberatsei inolako zigor ekonomikorik ezarri nahi ez zienez gero, zifra horietxek izan daitezke klase-desberdintasunen irudi fidela.

Zerrenda hori aski iruditzen ez bazaizu, aski duzu Conde de Caudillaren "Asociación de Propietarios y Vecinos del Antiguo" izenekoak, 1917ko bere Txostenean idatzi zuena: "Por la carestía de la vivienda, se hacinan tres o cuatro familias en una habitación donde la cubicación es apenas suficiente para una sola. Se observa muchísimas veces que una familia compuesta de matrimonio y dos o tres hijos guisa, trabaja, duerme, en fin, hacen la vida juntos, en triste promiscuidad, en una habitación de la cual no salen porque no tienen otra. Estos departamentos tienen un área de 3 metros de largo por 4 metros de ancho, y por 3 metros de alto. En ese reducido recinto encierran además la ropa sucia y los alimentos. En esas mórbidas condiciones, ¿es posible la conservación de la salud, de la vida?"

Antiguak bazeukan bere gain osasunaren arazo larria, ur geldiek behin eta berriz ekartzen baitzituzten izurriteak: "las marismas de los juncales del Antiguo fueron siempre peligrosas, y foco de epidemias", Murugarren-en hitzez esateko.

Itsaso handiaz oso barruraino heltzen ziren urak: "El Regidor Illarramendi decía que las gabarras podían ya, en pleamar, llegar hasta más allá de Lauchimeneta, como lo hacían en los tiempos pasados, sin impedimento alguno". Baina ur geldi horiek hortxe usteltzen ziren; eta areago ur zikinak eta industrialak besteei erantsi zitzaizkienean...

Itsaso handiaz ura "hasta las proximidades de Portuetxe" iristen zen Murugarrenen ustez (eta gauza bera diote antigutar zahar guztiek). Ez baita batere harrigarria, bertako toponimia gogoan hartzen bada (*Ibaeta*), are etxe zahar askoren izena ere (*Txalupagillene*, *Portuetxe*, esate baterako). Zer erantsiko Zuzenbide Fakultatean egon den *Loistarain* ikustean (Lohizetagain), eta beste hamaika?

Besterik ere bazegoen. Ur edangarriaren urria!...

Bizilekuen zabalera bera aipatu dugu laburki. Baina uraz zer? Normalean kalera irten behar izaten zen ur bila, etxe-barneetan urik ez zegoelako. *Bazterretxe*ko auzune osoan, adibidez, ez zegoen etxeko urik; eta denek baliatzen zuten iturri bakarra Usurbilgo bide zaharraren hastapenean zegoen, *Herrerotegi*ren atzean. Jendeen garbitasun-maila somatzen ez da zaila.

Bestetan aipatu ohi ez den alderdi bat azpimarratu behar da era berean: kutsadurarena. Bai eguratsarena (keak, usainak, kiratsa); eta bai fonikoa (baporezko motoreen zarata gorgarria bereziki). Behar bezain gora tximeneak eraikitzea, jakina, galestia zen. Estearinazko kandelak, adibidez, jasan ezinezko kiratsa bo-

tatzen zuten. *Otto* bapore-makinek ere, paretetatik gaizki isolaturik, batimendu osoak jartzen zituzten dardaran.

Mundu hura, hitz batez, atsekabea zen, zaila, itsusia; eta nekez urdin daiteke. Aski da Fès-ko *Medina* zaharra gurutzatzea (gaurko Marrokon) antzinako tekniken eta produzio-moduen lilurak oro erauzteko. 1900ko Antigua, industri eta langile auzunea zenez, deskalabratua zen alderdi askotatik. Ekologia, garai hartan aipatu ere ez baitzen egiten.

Mintza bekizkigu garaiko kronikariak: "El motor funciona día y noche —idazten zuen Jose Loidi izeneko batek 1897an— produciendo ruído y trepidación tales que los vecinos amenazan con desalojar las habitaciones".

Okindegietako giro *ekologikoa* ez bide zen askoz hobea: "La máquina empieza a funcionar a las tres de la madrugada, produciendo tan estrepitoso ruido y consiguiente molestia, que se hace de todo punto imposible el reposo y descanso necesarios a tan altas horas de la noche". (1906).

Edo-ta beste arrangura hau, 1907ko Ekainaren 10an berrogei donostiarrek izenpetua: "el motor produce un ruido ensordecedor y una trepidación que enteramente parece que estamos en perpetuo temblor de tierra" (Príncipe-kaleko 45an hori!). Beroarena kenduta ere... gehiegitxo!

Antigutar xumeak bizi egiten ziren, halere; ahal bezala. Eta libertitu eta jolastu ere bai, ahal bezain ongi.

Mende haseran, adibidez, *Loretopea*-ren ondoko mazelan jo ohi zen txistua igandeetan (tunelaren ondo-ondoan, ikus VI. kap.).

*Konporta* eta *Txapaldegi-berri* omen ziren dantzalekurik ezagunenak (bigarrena, enkas erranen, *Rekondo* jatetxea da). Soinua jotzen zen orduan.

Sagardotegiak, bestalde, ez ziren hutsik egoten; nahiz Antiguan ugari izan: hogei bat auzoan. Altunak berak halako batez esaten zidanez, *Arbizketa*n saltzen omen zen mende haseran eta ondoko urte batzutan izan denik eta *sagardorik onena* (*Txokolatene* ondo horretan, beraz).

*Aranaldenian* ere, Anjel Amianok berak azaltzen zidanez, sardina erreak eta *Beriyo-Azpi*tik ekarritako sagardoa saltzen ziren barra-barra, Gurutze Gorriaren atzean. *Benta-Berri*ko *Lope-xenean* ere, sagardo ona saltzen omen zen, bidenabar edaleak tokan aritzen zirelarik (hain zuzen ere, esaten dutenez, hortxe egon dira luzaz bertan erabilitako tolareak). Fama handia zuen, eta jendea franko biltzen, Miramar-en atzeko *Txantxerreka* baserriak; zoritxarrez liburu honetan irudiz ezin aurkeztua (errepikatua dugunez).

Usurbil-go bide zaharraren haseran, Matia 6-en azpian, behinola pospolu-fabrika egondako leku berean, sagardotegi jendetsu bat egon zen. Nikomedes Ezenarro espartin-gilearen emazteak, gaztetan, sagardotegi horretantxe egin omen zuen lan, gaur arte Iturriotz-en haroztegia egon den eta dagoen lekuaren ondo-ondoan (Ik. VI. kap.).

Gauza bera, amaitzeko, *Kaximiro*-enean (gaurko *Kala- Berri*ren azpian), eta Jenaro Zubizarreta-ren *Xexenian* (Matia 39), benetako *Benta* (*Benta-Berri* gero) egon zen etxemordo muturrean. Sagardoa edari nagusi Antigua zaharrean.

Baina honetaraz gero, gehiegi *hurbildu* gara; sagardotegi horiek hortxe egon baitira atzo arte. Eta nik erabakirik baineukan, liburu hau hasterakoan, 1922tik honantz ezer ez aipatzea. Barka, beraz.

Auzolanaz beste kapitulu batean mintzatuko gara (X. kap.).

Eta euskarari buruz, zer? Zer dakigu, jakin? Ikerketa sakonago bat mereziko luke gaiak. Datu bakan batzu emango ditut.

Antigua zaharra *bikuna* zela azaldu ondoren (Lugaritz vs. Ibaeta), *hirukuna* ere bazela esan behar dugu segidan.

*Bikuna,* bai...

...garai hartan, mende honen haseran alegia, bi osagaik osatua zelako: beherean, Ibaeta, gainean, Lugaritz.

Zeinak bere alkatea zeukan hasteko ("alcalde pedáneo" zehazki, begiratu ditugun dokumentuetan). Antonio Berra, esate baterako, Ibaeta-ko alkatea zen 1902an; eta Isaac Cano, berriz, Lugarizkoa (ahaztu aitzin: *Ixa* baserria, Markuleta albaiteroarena izana, *Isac* agertzen da paper zaharretan. Bera ote?). Berari buruz, berriz, hau esan daiteke: Antonio horretxek eraiki zituela 1894an, "Brunet-en fabrika bustitzen duen errekaren ertzean", gaur egun Matia/Errotatxo izkina osatzen duen etxe-bikotea.

Sei urte lehenago (1886an) Jose Maria Iguaran agertzen da

Antigua-ko alkate (*Bazterretxe* auzunekoa), bera etxe multzo horretantxe bizi zenean.

Era berean, Donostiako Udalak 1906an Antiguako populazioa ematerakoan, berex eman zituen auzo bakoitzeko biztanlekopuruak:

| | |
|---|---|
| Ibaeta | 2.589 lagun. |
| Lugaritz | 1.825 lagun. |

Baina... *hirukuna* ere bai.

Antigua bakar bat dela esaten baitugu; nahiz soziologiaz hiru parte izan, nabarmenki.

Bata, sustraituena, *nekazaritza-munduari lotua*: baserrien Antigua zaharra zen (gehienez Lugaritz alderdian kokatua); oraintsu arte bizilagun izana.

Baserritar Antigua zahar horren aztarnak hortxe ditugu oraindik (ik. X. kap. bereziki).

1910ko Abenduaren 4an, adibidez, *Illunbe-Untzene-Munto* bide hondatua konpontzekotan ("35. bidea", ofizialki), *auzolanez* egiteko erabakia hartu zuten 21 antigutarrek. (Egia esan, *autzo-lanián* irakurtzen dugu artxiboetan).

Eta batek baino gehiagok bere arbasoren bat topatuko duen segurantzian, hona hemen zenbait izen: Santos Berra, Migel Txarola, Serapio Gurrutxaga, Ziriako Muñagorri, Goiburu anaiak (Jose eta Juan), Frantzisko Otegi, Luis Laskibar, etab. Izenpetzaile bakar batek sinatu zuen *de* partikulaz: *Txillardegi*eneko "Braulio de Iturria" delakoak (sic). Gero norbaitek, artxiboetara jo, eta *de* hori tatxatu duelarik...

Lehenago ere gertatua zen horrelako erabakirik: *36. bidea*ren konponketa (*Zapatari/Munto* arteko bidearena) *auzolanez* egin zen 1884an (VI-14); ordukoan, eta besteak beste, Jose Manuel Estala, Manuel Liziaga, Nikolas Zelarain (*Celaraiñ* irakurri dugu), Migel eta Santiago Etxeberria, Manuel Urrestarazu, "dispuestos a arreglarlo en ausolan" sinatuz.

Urte berean, beste adibide bat ematekotan, *"37. bidea"* ere (*Txillardegi*tik *Lugaritz*a igotzen zena, gero Heriz-en Pasealeku bataiatua) *ausolanez* konpontzea erabaki zuten antigutarrek, ohar interesgarri hau erantsiz: "como ha tenido lugar en otros caminos de esta circunscripción". Antiguako gure arbasoek, hitz batez, eguneroko ogia bezala aipatzen dute *auzolan* sistema.

*Bigarren osagai soziologikoa*, industriak ekarri zuen.

Alde batetik industri ugazabak topatzen ditugu; askotan, gehienetan, kanpotik etorritako burges eragileak: Kutz anaiak, Tornero, Farcy-Oppenheim, Suchard (nahiz arduradunak hemengoak izan). Brunet-tarrak (José Francisco eta Jaime), jatorriz katalanak izan arren (Brunet Prat deituraz), dexente *integraturik* zeuden ordurako: Oriako fabrika, tranbiaren projektua, botila-fabrika Ondarretan, eta beste. Alvarez Gonzalez, adibidez, *Gutenfelder*en sortzailea (ikus V. kap.), tolosarra zen ia-ia; nahiz pentsakeraz hil arte (1952) osoki espainiar eta arrotz egon.

Bazeuden, halere, euskaldun burges batzu: *La Fe* kare hidraulikoaren nagusia, Beitia zen; *La Providencia* xaboin-fabrika-ren sortzaileak Lizarriturri eta Rezola bazkideak izan ziren, eta beste bakarren bat. Antiguako industria sortu zuen jendea, oro har, ez zen euskalduna. Posso-tarrak ere, Baionatik etorriak, juduak ziren (ikus VII. kap.).

Industri langileak ere, bide beretik, askotan (ez beti, dena dela, batez ere espezializaziorik gabeko lanpostuetan) ez ziren bertakoak. 1915rako, gutxi gora-behera, lan bila etorririk, bertan jaioa ez zen jende pila aurkitzen dugu. Nafartar pila bat barne; askotan osoki erroturik: Ferro-tarrak, Bujanda-tarrak, Txena-tarrak, eta abar luze bat. (Hizkuntz izkirimiri xume bat, ahaztu zitzin: *Chena* horiek, Tafalla ingurutik etorriak, *Etxenagusia* omen ziren jatorriz; baina deitura erraztu beharrez... *Chena*).

Industrian elkartu zen giza-multzo hori, hitz batez, nahasia zen jatorriz, eta bere hizkeraren praxian erdalduna; nahiz askotan elebiduna izan, baina egoera diglosiko osoan: euskaraz etxe barruan eta zaharrekin bakarrik; "zaharrekin ezin baitzen erdaraz hitz egin"...

*Hirugarren osagaia*, azkenik, ia osoki, Maria Cristina erreginaren etorreraren ondorioz finkatu zen Antiguan. Udatiar jende hau normalean ez zen batere sustraitu: *veraneante*en arbaso haiek, esana dugunez, uda hemen pasa, eta negute luzea Madrilen.

Antiguako handizki guztiak ez ziren derrigorrez plegu eta jatorri horretakoak: *Miradore*neko nagusia (erosketaz, dena esatekotan, eta ez fameli bidez), "Conde de Caudilla" zeritzonaren aitaginarreba deituraz Lemery Ibarrola, eta beraren suhia, errotu egin ziren Antiguan nolazpait bederen (ikus IV. eta XI. kap.). Beren modura sustraitu, noski.

*Txillardegi*eneko nagusiak, berriz, Donostiako puntuzko gehienek bezala, Parte Zaharreko Puyuelo-kalean zeukan bere egoitza normala; ukuiluak eta udako etxea Antiguan atxikitzen bazituen ere. *Sansusteneko* Gutiérrez de Terán *diplomatikoa*, Madrilen egoten zen normalean; *Toki- Eder* eneko Satrutegi-tarrak edo *Maritxulegi*eneko Barkaiztegi-tarrak bezala. Areago, noski, sorkuraz ez ziren erreginaren ondokoak.

*Hiru azpi-multzo* horiek autonomoak ziren, zein bere buruaren ingurukoak; eta ez zuten elkar gurutzatzen; lan arrazoinengatik edo ez izatekotan. Nahiz, liburuan barrena ikusiko denez, antigutarrek elkar ezagutu; herri txikietan denek elkar ezagutu ohi duten bezala.

Antigutarren *pentsakera politikoaren* arazoak ikerketa sakonagorik merezi luke. Baina zerbait esan dezagun.



Lehenengo multzoa, antigutar baserritarrena alegia, karlista zen errotik. Bigarren karlistadaren garaian, antigutar baserritarrak "habitan en territorio enemigo" irakur dezakegu artxiboetan (1875ko Abuztuaren 14an). Eta 1876ko Maiatzaren 30an prestatutako zerrendaren arauera, ia-ia denak egon ziren Don Karlosen *fakzioan*: *Gerraene*, *Aranaldene*, *Gerraenebea*, *Mariyene*, *Isasene*, *Soldaduene*, *Iza*, *Balentegi*, *Errotaburu*, *Sustraiarte*, Oriamendi-ko *Benta*, *Belartza-garai*, *Zuazo* (*Suaso* irakurtzen, Donostia inguruetan /z/ eta /s/ren nahasketa etengabea delarik), *Lugaritz*, *Markosene*, *Illunbe*, *Bordaberri*, *Merkader*, *Txantxerreka*... Lugaritz osoa, dirudienez.

Baina Ibaeta osoa ere bai, baserriko jendeari dagokionez: *Olarain*, *Berakotegi*, *Julianategi*, *Boltsagillene*, *Euletegi*, *Amezketa* (eta ez *Anizketa*, otoi!), *Tolare*, *Arriyola*, *Andrestegi* (zuberotar etxe bat Antiguan!), *Txillardegi*eneko Jose Lorentzo Etxebeste zeritzon gaztea, adibidez (17 urte); eta Antonio Zelaia, 28-koa. Iturria-tarrik ez, jakina, ezkondu arte etxea Gaskue-tarrena zelako; eta ilara jarraituz, *Venganza*, *Errotaundieta* (Benta-Berri ondokoa), *Ekogor aundi*, *Lautximeneta*, *Portu-etxe*...

Antigua karlista zen osoki, jauntxo liberal bat edo beste kenduta. Aristizabal apaiza ere, karlisten aurkakoa bide zen... *koxkero* bati zegokionez... Brunet-tarrak ere ez, jakina; eta Barkaiztegi ere ez. Roke Heriz zen karlista, dena dela.

*Aiton-semeen euskal jatorria*, nolanahi ere, ez da beti somatzen, ondoko zerrenda honetan ikus daitekeenez:

| | |
|---|---|
| Marqués de Rocaverde | Hernaniarra, 1820. Jatorriz: Juan Manuel Moyua Adarraga. |
| Marquesa de Rocaverde | Kasilda Altzaga Enparan. |
| Conde de San Bernardo | Manuel Mariategi Vinyals (*de* Mariategui y Vinyals, jakina), *Lugaritz* jauregikoa. |
| Conde de Llobregat | Xabier Barkaiztegi Uhagón. |
| Marquesa de Monserrat | Carmen Manso y Pérez de Tafalla. |
| Conde de Caudilla | Manuel Chaves Beramendi. |
| Conde de Vastameroli | Román Lizariturry Martínez. |
| Marqués de Tenorio | León Lizariturry. |
| Conde de Serrallo | Rafael Etxague Bermingham. |
| Marqueses de San Millán | Okendo-tarrak. |
| Conde de Torre-Múzquiz | Agirre Miramon. |
| Marqués de la Solana | Antonio Urbiztondo Egia. |

Zergatik izkutatzen zuten jaun horiek, sistematikoki dirudienez, beren euskal jatorria? Irakurleak erabaki beza. Baina zerrenda hori txiripa hutsa dela esatea, gehiegi litzateke.

Handizki hauek jakin bazekiten euskaraz uste baino maizago. Jakin, eta erabili ere bai; zerbitzariak ez baitzekiten erdaraz askotan. "Euskal Erria" aldizkariak, horretara, Emilia de Brunet anderearen hil berria ematerakoan (1903ko Abuztuaren 8an hila), sei hizkuntzaz mintzo zela azpimarratzen zuen: italieraz, gaztelaniaz, frantsesez, alemaneraz, ingelesez, eta euskaraz.

Hatsaldi labur bat...

Dilijentzia bat Antiguan barrena ("Ibaetan" zehazkiago, argazkilariaren izkribuaren aranera). Non?. Irakurleak asma beza... Agian, Bazterretxe auzoko "Etxeberrri"...

*Eta Antigua euskaldunaz, zer?*

Industriaren etorrerarekin batera, hizkuntz borroka hasi zen Antiguan; mende-bukaeran, esan dezagun. Antigutar jendea (bai lehenengo multzokoa, osoki; bai bigarrenekoa, hein batez) euskalduna zen, eta euskara hutsez bizi zen. Hirugarren multzoa, berriz, industriaren ondokoa, erdaraz sortu zen, eta erdaraz hazi. Etorkinik gehienak erdaldunak ziren, Nafarroatik etorritako gehienak barne. Adibide gisa: Jexux Ferro Lareki adiskidea, nafartarra da jatorriz: aita Urantziakoa, ama Añorbekoa; baina bi aldeotatik erdara izan du ama-hizkuntza. Bujanda-tarrak, era berean, gaur euskaldunak, nafartar erdaldunen ume dira: Jose Bujanda Oses, 1848, Otiñanokoa zen; eta Jerardo Bujanda, berorren semea, 1881, Eguzkitzakoa. Eta horrela beste anitz: Txena-tarrak Karkastillo-koak dira jatorriz.

Antiguako osagile izateko, horretara ("Médico de Barrio" izateko, alegia), Antiguan bertan bizi beharra zegoen, batetik; baina, bestetik, euskaraz jakin behar zen: ez "como mérito", edota "con un valor del 10% de la puntuación total". Euskaraz hitz egiten jakitea *nahita-ezko baldintza zen.*

Donostiako Udalak, adibidez, hauxe erabaki zuen 1887ko Martxoaren 9ko bere bileran: "Anunciar a con-





curso por quince días la provisión de la plaza de médico titular del Antiguo, siendo una de las condiciones para pretenderla *poseer el idioma vascongado*" ("Diario de San Sebastián", 1887-III-10).

Eta ondoko egunetan Larrauri alkateak argitara zuen iragarkiak honela zion Donostiako "Ayuntamiento Constitucional"aren izenean: "Los que solicitan (la plaza) acreditarán ser Doctores o Licenciados en Medicina y Cirugía, *y poseer el idioma vascongado*; imponiéndose, al que resulte nombrado, la condición de residir en el barrio del Antiguo". Urte-saria: mila pezta (ordukoak!).

Euskara, gehienen aldetik mespretxaturik ere, ezinbestezko tresna zen Antigua hartan; "*Kalei-kale*" (Eujenio Gabilondo) donostiarraren luman ikus daitekeenez: "En mis tiempos parecía *circunstancia indispensable* el conocimiento de la lengua vascongada para desempeñar un cargo pendiente del Municipio".

Nahiz euskararen etsaien erasoak hasiak izan ordurako.














"Celador de arbitrios" lanposturako deialdia egin zen 1891an. Eta eztabaida piztu zen: "ezinbestezkoa al da euskaraz jakitea?".

Hona hemen bozketaren emaitzak:

"Ezinbestezkoa da": zazpi boto. Irastortza anaiak, Elortza (Matia kaleko oñatiarra ote?), Lizariturry, Iraola, Azketa eta Otero. Botoa galdu, beraz.

"Ez da ezinbestezkoa": hamaika boto. Lasarte, Garat, Nerecán, Urkola, Bermingham, Atxa, Isla, Petrirena, Samaniego... Eta bozketa irabazia, beraz, euskararen beharrezkotasunaren kontra.

"La Unión Vascongada" aldizkariak bere protesta haizatu zuen: "Si no se rectifica esta conducta —zion erdara batuaz hark ere— contra la cual protestamos con todo respeto, pero con toda

energía también, entonces, más o menos tarde, llegará el momento de exclamar con desolada angustia: 'Euskalerria eta Euskaldunak, il ziran'".

Ehun urte pasa dira geroztik. Irakurleak du hitza.

Inguruko auzoetan (Antigua, Igeldo, Loiola, Aiete) euskara zen nagusi. Donostiako kalean, berriz, gora zetorren gaztelania indarrean. Eta kezka agertu zen: "Pronto nadie distinguirá un errico-sheme de un belarri-motz", idatzi zuen Gabilondok garai hartan. Baita joera berriak salatu: "esas actuales flamencomanías y chulaperías de mal gusto"... Orain dela ehun urte...

Guk (nire belaunaldikoak, alegia) egoera euskaldun horren zantzuak ezagutu ditugu haurtzaroan.

1937 inguruan, ni Lurdes-ko eskolara joaten nintzenean (elizaren ondoan, eta Mintegi ahizpen zuzendaritzapean), oso ongi oroitzen naiz Aiete-tikako mutil batzuk ez zekitela erdaraz... Amarekin behin urte haietantsu, *Zapatari*tik gora abiatu, *Iza* inguruko baserri batean bertako batekin hizketan hasi, eta nire amak euskaraz hitz egin behar izan zion; nik, jakina, ezer konprenitzen ez nuelarik (edo ezer gutxi, bederen)... Beste behin, Lurdes-Txiki-ren ondoan, *zorbidea* ez zen bideska batetik gu abiatu, eta oihuka hasi zitzaigun anderea (*Mugitza*koa? *Bekotene*koa?) euskaraz; eta erdaraz egiteko gauza ez zen (nirekin zeudenek erdaraz erantzun baitzioten)... *Errotaberri*-ren ondoan, oso gazte denboran, 1940 inguruan, sagarrak hartzen hasi, baserritar bat etorri, euskaraz guri erritan (eta oso gogor!); eta orduantxe nire bigarren sospresa: nirekin etorria zen adiskide batek, Aranalde izenekoa, sunbildarra, euskaraz erantzun, eta istilua baretu zen ("un navarro que habla vasco"... ez nuen deusik ulertzen...). Eta abar, eta abar. Hori 1940 inguruan.

Beranduago, 1945-1946an, egunero joaten ginen koadrilakook *Errotaberri* ondoko errekatxora. Eta batzutan sagardoa hartzera baserrira igotzen. Bertako mutila zen Kandido (Artola, uste dut), gure adinekoa, ez zen gauza gurekin hitz bakar bat trukatzeko; gu erdaldun hutsak baikinen...

Liburu hau egiterakoan, eta azken urte hauetan, beraz, antigutar zahar askorekin mintzatu naiz. Euskaldun jatorriko guztiek zekiten euskaraz; nahiz erdaraz ere usatuak, eta batzutan erdarara jo... Beste xehetasun adierazgarri bat: *Arbizketa*ko anai-arrebek hitano egiten diote elkarri, erraztasun osoaz... Altuna-tarrez ari naiz... Liburu hau prestatzean, beraz, elkarrizketa asko euskara hutsez egin dut.

*Jabeak eta maizterrak Antiguan*

Mende honen haseran, eta gure arteko famak dionaren aurka, gutxitan gertatzen zen etxeko biztanlea etxearen jabe ere izatea. Gehienak maizter bizi ziren. Eta jabe batzuk etxe mordo bat zeukaten. 1908an, esate baterako, Manuel Campuzano zen *Marbil*, *Marbil-Berri* eta *Erroiegi* etxeen jabea. Ia-ia Aiete-ko mugan, eta oraingoan 1883ko data hartuz, *Otxanda* baserria (*Munto* ondoan) Dolores Etxarte-rena zen; andere hau "vecina de Madrid" gisa aipatzen delarik.

Argi bila joan gara artxiboetara (B2, Neg. 1, Ser. 1, Lib. 23). Eta 1891ko egoerari buruz hau agertzen da:

*Txalupagillene*an, Sorozabal-darrak bizi ziren, Azurtza-tarrak (Franzisko), Auzmendi-tarrak, Agirre-ren alarguna. Baina etxea Balda-rena zen.

*Miradore*n Manuel Lopetegi bizi zen orduan; baina etxea Lataillade-rena zen. *Boltsagillene*an Jose Antonio Mujika bizi zen, etxea Murga-ri zegokiolarik. *Floriandegi*n Antonio Martikorena bizi zen, jabea Olazabal izanik. *Arbizketa*n Iruretagoiena bizi zen, jabea Satrustegi izanik. *Marbil*en Kastor Zugasti, jabea Campuzano izanik. *Millabidere*n Anjel Kerejeta, jabea Montarco-ko Kondea zelarik. Eta abar, eta abar. Salbuespenak gutxi dira: *Sagastizare*n (gure garaiko *Txokolatene*n) Bizente Lizartza zen batera biztanle eta jabea. Gauza bera "Zapatari-berri"n (Franzisko Ezeiza jabe eta biztanle), *Arburu*n (Ramon Lekuona), eta beste zenbait etxetan. Normalena Ibaeta zaharrean, jabea eta maizterra biga izatea, eta ez bera. Etxe-jabeen artean, Prim jenerala topatzen (*Illarra*), San Bizente parrokiako bikarioa, eta Llobregat-eko Kondesa (*Errotazar*). Pentsa zitekeenez, joera berbera topatzen dugu Lugaritz-en.

*Herrerotegi*ren jabea Elortza zen, baina han Elortza ez ziren famelia batzu ere bizi ziren. *Isasene* Antonio Eztenaga-rena zen, baina beste batzu bizi ziren han (Eztenaga-tarrez gain bederen). *Illunbe*n Laskibar-tarrak bizi ziren, baina jabea Pio Landa zen. *Txoldaune*n Landa-tarrak bizi ziren, baina etxea Sangarren-go Markesen jabegoa zen. Rocaverde-ko Markesa ez zen *Muntoa*n bizi, baina etxea berea zuen. *Eulieta* Llobregat-eko Kondesari zegokion.

Gauza bat erakutsi nahi dugu bakarrik: Antiguan ere, mende honen haseran, klase-tartea oso handia zela alde askotatik; eta bazeudela han jauntxoak eta herri xehea, guztiz nabarmen eta guztiz elkargandik berezirik.

*Antiguako tranbiez bi hitz*

Tolosa-koa kontutan hartzen ez bada (1901-IV-3ko R. O.aren aurauera zilegiztatua), Antigua zaharrak bi tranbia zituen: Benta-Berri-koa, aspaldikoena, *5* zenbakian ezaugarri (1897); eta Igeldo-koa, *6* zenbakikoa, (1912).

Tolosakoak ere Antigua gurutzatzen zuen, Matia kalean barrena; eta askotan zoritxarrak sortuz: *mataburros* esaten zitzaion. (Ni haurra nintzenean ere, ongi oroitzen naiz, gerra- haserakoan edo, mutiko bat harrapatu eta hil zuen tranbiak Matia kalean, gure eskolaren ondo-ondoan).

*Benta-Berri*ko tranbia Matia-bukaeraraino heltzen zen, *Sansustene*, *Lopexene* eta *Buena-Vista*raino, zehazkiago hitz egitekotan.

*Igeldo*koa, berriz, Miramar-en azpitik besteak bezala pasa ondoren, eskuinetara jo, eta aldapan behera abiatzen zen Satrustegi Etorbidean barrena. Eta xaletak eta Ezeitza-tarren etxemultzoa ezkerretan utziz, gartzela inguratu, eta funikularraren geltokiraino iristen zen.

Hots, tranbiaren eraikuntzan parte handia hartu zuen, bai Oria-n (Lasarte ondoan, harigintzako fabrikan), eta bai *Oria* xaletean (Ondarreta ondokoan) bere bizilekua izan zuen José Brunet jaunak. 1887ko haseratik agertzen zaigu beronen izena tranbiaren projektuan; eta gaizki pentsatzen dutenak berehala aurkitu uste dute interesaren gakoa: bai *Ondarreta* etxea, bai botila-fabrika, 1876koak direla; eta tranbiaren abiapuntua (*punto O* delakoa)... fabrika-ren parean proposatu zela...

Nolanahi ere, 1887an erabaki zen Loretope-ko kanposantu zaharra harri-iturri gisa erabili ahal izatea; eta bai gartzelan, eta bai Benta-Berriko tranbi-bidearen antolakuntzan, erabilia izan zela badakigu (1887-V-25ko udal-akordioa).

Goazen berriro harira; eta hemen gaituzue 1905 inguruan.

Ikas ditzagun etxe horien izenak; eta geroxeago joango gara xehetasunetara.

*Miramar*en ondoan (nahiz askoz ere atzerago egon) agerten den kasernatzarra, *Kostenea*n eraiki zen. Eskuin alderago, jakina, eliza dago, *behere*ko eliza *berria*. (Ikus 91., adibidez).

Elizaren ondo-ondoan etxe handi trinko bat; Elortza-rena, Matia 1. Eskuin alderago, Eztenaga-tarren etxe berria (Matia 6); *berria* diogu, 1904koa delako. Eta, ondoren, Matia kaleko 8-tik 18-raino, Sukia-raino esan dezagun (nahiz garai hartan oraindik Sukia-kalerik ez egon).

Honantzago, berriz, eta erdi-erdian argazkiari dagokionez, *Sutegizar-Kantoi* etxe bikoitza ikus dezakegu (bigarren parte honek bere 5 leihotako lerroak erakusten dituelarik).

*Bazterretxe* auzoko etxeak ozta-ozta antzeman daitezke *Sutegizar*en atzean (eskuinetan, fotoari buruz); baina hortxe daude.

Marcellán-en kartoizko kaxa-fabrika berria, aldiz, ongi ikusten da (lau aldetako teilatu erpina daukana).

*Gutenfelder* ez da oraindik agiri; baina bidean dago: tatxa zuriak eraikuntza hasia dela salatzen du.

Atzerago, Benta-Berri alderago, alegia, pareta-zati edo zerrenda zuri batekin goiko aldean, *Txillardegi*ren Iparraldeko *"Villa Juanita"* dugu; langile-etxe izan ondoren, "Esclavas de Cristo Rey" delakoen komentu bilakatua. *Txillardegi*renik ez da deusik ikusten, nahiz hor egon: *"Villa Rosario"*k izkutatzen digu (kaxa-fabrikak).

Aurreko ilaran, eta gugandik bertenik, Brunet-tarren *Manen* xaleta ikus daiteke, Calbetón-en *Oria*, *Molino* eta *Victoria-Cottage*. Aurreragokoan ere berrikusiko ditugu denok.

Txubillo-ko mazela erditik hartutako argazki honek osa dezake 1910 inguruko Antiguaren itxura orokorra.

Gartzela handi horrek aurkeztu beharrik ez du; eta berera itzuliko gara ondoko orrialdeetan.

Fotoaren azpikaldean, ezkerretan, funikularraren geltokia ikus dezakegu lanetan; eta honetxek ematen digu oinarri zindo bat argazkia datatzeko: 1911-1912.

Ezeizaren etxe-mordoa eta *Karmen-enea*, Konporta-errekaren ertzean bertan (garai batez izoki-emale, omen!), hortxe daude; gaur egun ere, eraaxteko bezpera honetan, ezagutu ditugun itxuran.



Fotoa abuztuan hartua da; zaldi-laisterketarako tribuna prest baitago Ondarretan.

Gure azpian (alegia, fotoaren behereko ertzean) *Boltsagillene* dugu; eta eskuin alderago *Floriandegi* (antigutar zaharrek [boltsállene] eta [próinde(g)i] ahoskatuak).

Erditsuan, berriz, zuhaitz artean, Satrustegi-eneko ukuilua; eta eskuin alderantz *Toki-Eder* jauregiaren arbelezko teilatua eta dorre bikoitza.

Badago besterik, hala ere, argazki mamitsu honetan.

Eskuin aldeko ertzean, Campuzano-ren *Marbil-Berri* ikus daiteke (fotoan ageri ez den *Txokolatene*ren gainean); argazkiaren eskuinetan teilatu puska bat ageri delarik.

Beherago, berriz (fotoari gagozkionez ezkerretara joz) bide zuzen bat doa Benta-Berri aldera: *Arbizketa* eta *Zubimuzu* lotzen zituen "Paseo del Conde de Caudilla" delakoa; aste hauetan desagertua. Perpendikularki, ukuilu luze bat, trabeska, *Marbil-Berri* fotoan ikutzen bide duelarik ia-ia: Conde de Caudilla-ren ukuilua da. Beronen ondoan, harantz joanda (gora aldera, fotoari gagozkiolarik), *Mirador* jauregia. Haseran, Olasagasti-rena izan ondoren (orduan *Olasagasti-ene* zen etxea), erosketaz, Lemery

jeneralaren eskuetara pasa zen. Eta gero, beronen alabaren esposaketaren ondorioz, Conde de Caudilla-ren eskuetara heldu. (Ikus XI. Kap.)

Antiguako jauregi interesgarri eta bitxi hau, gure haurtzaroan oraindik zutik, suntsitu egin da geroztik; zenbait harrizko aulki eta xehetasun, miragarrizko zuhaztiaz gain, bertan errepara badaitezke ere.

Parkeaz bestaldera, Benta-Berri aldera beti, Mayorga-ko Kondesaren *"Villa Concha"* topatuko genuke, errekaren ondoan. Gaur egun, urte askotan barrena Antiguako nesken eskola izan ondoren, A.E.K.ren euskaltegi bihurtu da (1991an desagertua). Nahiz epe laburrerako bakarrik, omen, eraatxia izango baita aurki, A.E.K. Igeldoko aldapan dagoen *"Villa Sirena"*ra aldatuko delarik (Ikus Posso anaiak, VII. Kap).

Eta argazki honi *adio* esan baino lehenago, ohar pare bat Amilibia-Etorbideaz (1936ez geroztik *Zumalakarregi jeneralarena* birbataiatua).

Erdi-erdian etxe altu itsusi bat: *Txillardegi*ren atzeko "Villa Juanita", jadanik aipatua. Honen atzean, zuhaitz betean, eta erdi izkutaturik, Iturria-Gaskue-tarren *Txillardegi* jauregia (sekula nire fameliarena ez izana, bidenabar esateko; eta are gutxiago neronena!).

Zuhaztiaren muturrean, eskuinetan, Posso-tarren *"Villa Rosa"* izenekoa, gorrixka hain zuzen (aldameneko *Txillardegi* bera bezala); berau ere, ongi ikusiko dugunez (Ikus VII. Kap.), *Txillardegi*-eneko lurralde barruan jasoa.

Oraino eskuin alderago, Matiako etxe-ilara atzean uzten dugula, *Txalupagillene* baserri zaharra eta jendetsua ikus dezakegu (Ib. 11; 1862). Aurrerago bertagotik ikustekoa.

Benta-Berri-ren gainean, azkenik, zuhazti eder baten aurrekaldean, *Sansustene* jauregia (Ib. 12; 1862); askotan "Santustene" ere ahoskatua; eta, Murugarrenen iritziz, lehenago *Yllusulla* deitua. Aspaldiko etxea hau ere; baina urte hauetan "Colegio de Montpellier" delakoa eraikitzean, eraatxia. "Club Taurino" dela-



koan, nolanahi ere, *Santustene*ko atezantza salbatu da; Matia atzeko etxeen atzetik doan bideska estuaren izenak, beharrik, denei gogorazten dienez.

Lugaritz-ko tontorrean bertako jauregia ikus daiteke, aski garbiki: "Villa Rosario" zeritzon, eta geroko urteetan Apezpikuaren egoitza bilakatu zen. Joan den mendean *Lugaritz* zen (Lug. 57; 1862), San Bernardo-ko Kondearen ikerleku izana hazkuntzaren eta botanikaren alorrean. Ez du ezerk idarokitzen gaur "Casa Lugáriz" izenekoak, behinola etxeak izan zuen ikerketa-garrantzia; teilatu-hegaletik oraindik zintzilik errepara daitekeen apaingarri berezian ez bada).

Urte batzu pasa ondoren, Antiguak itxura hau hartu zuen (1920). Hotza da planoa, jakina; baina zertzelada batzu argi ditzakeelakoan erastea erabaki dugu. (Ikus 96. orr.).

Axularren hitzez esateko, planoa "bera da bere buruz klarki mintzo". Isil nadin, beraz.

Liburuan barrena, askotan izango du irakurleak plano honen bitartez lekuak eta etxeak kokatzeko bidea: *Loistarain*, *Ebro*, *Zapatari*, *Miranda*, *Martintxoene*, eta gazteagoek batez ere nekek koka ditzaketen lekuak, hortxe daude, garbiki; mende-haseran (eta askoz ere beranduago arte) egon ziren lekuetan.



# IV. BAZTERRETXE



Horra hor Matia kalea mende honen haseran.

Ezkerretan, bere markesina eta guzti, Elortza oñatiarraren etxea (Matia 1), (ikus beheko argazki pare gabea).

Segidan Posso-tarren "La Sirène" (Farcy - Oppenheim) etxe- mordoa. Gero tarte bat; eta harago *Villa María* izandakoa (Loño-ren jauregia izana, eta gero Aurrezki Kutxa eta Gurutze Gorriaren sendaleku bihurtua).

Eskuin aldetik abiatuz, berriz, *Isasene* etxea, *Iñarrene*ri itsatsia. Oraindik zutik (fotoa, beraz 1917



baino lehenago egina). Etxe horretantxe bizi izan ziren, liburuan barrena esana dugunez, bai Itxaso apaiza, bai Serapio Gurrutxaga-ren familia (Jesusa alaba nagusia, geroago Enparantza Migelekin ezkontzekoa).

Gero tarte bat somatzen da, eta eskailera bat; Matia 4 eta 6-ren artekoa (eta ez, beraz, gaur egun *Errotatxo* aldera doana).

Hurrengo etxea Eztenaga ahizpena da; behinola pospolu-fabrika egon zen lekuan eraikia. Harantzago Matia 8, 10, 12, eta abar, Sukia-raino.

Gero somatzen den tartea, gaurko "Esclavas"-parking-ari dagokio. Hortxe zegoen, beraz, Iturria-ren "Txillardegi" etxea (foto hau egin zenean oraindik arian).

"Benta Berri"ra doan tranbiak burnibide bakarra zuen oraindik.

Ezkerretan, berriz, gurpil handiko "karroa" pausatua dagoen lekua, "Alfonso XIII-ren plaza" da.

Zoritxarrez, "Isasene" aurretik guganatz datorren andere gona luze hor nori den ezin esan. Irakurleren batek bai ote?. Emakume hori 1890 inguruan jaioa date...

Argazkilaria "Herrerotegi"ren parean pausatu zaigu bere lana egiteko (gaurko Matia 2ren ondoan, gutxi gora-behera).

Fotoak interes handia du; gutxitan ikus baitaiteke Matia kalea Miramar alde honetatik.

Eta goazen berriro goiko argazkira.

Urte batzu joan dira. Eta hor gaituzue, Matia kaleko sarreran.

Noiz ote? *Bazterretxe* auzoa hor dago, eskuin aldean, zutik oraindik (beraz, 1917 baino lehenago egina da fotoa).

Elortza-ren etxea ere, jakina, eraikia dago (Matia 1, alegia), izkinako bere *kafetegia* errepara daitekeelarik.

Eztenaga-ren etxea ere hor dugu (Matia 6), aurrez aurre; 1906ko Urtarrilaren 9an bizi-izateko zilegiztatua izan ondoren.

Benta-Berriko tranbia hasia da ibiltzen: hor ditugu biga, bata Benta-Berri aldera joaki; bestea handik datorkigularik, (beheko argazkian burnibide bakarra oraindik).

Igeldo-ko tranbia, aldiz, oraindik ez da hasi; burnibiderik ez baitago eskuin alderako aldapan behera horretan. Aldapa hori (argitu beharrik al dago?) gaurko *Satrustegi-Etorbidea* da.

Data bat eman daiteke, beraz: foto hori 1910 inguruan hartua date, *Miramar* jauregiko murruaren ondotik.

Gainerakoez, zer esango? (Goiko argazkiaz ari gara).

Hor agertzen diren etxerik gehienak Jose Antonio Elortza oñatiarrarenak dira (Nikanora Altube-rekin ezkondua).

Ezkerretan, batetik, Matia 1-ko *arkuen etxea* dago, oraindik ere bere miradoreez hornitua; eta kafetegiko markesina, ezkerretako tranbiaren atzean, hortxe dagoelarik.

Elortza-ren etxe horren ondoren, beraren beste etxe luze bat (Matia 3 eta 5) Fancy-Oppenheim-en gorontza-fabrika egondakoa. Zoritxarrez etxearen luzera guztian barrena irakur zitekeen letrerotzarra (Maria Aristegietak, adibidez, bere etxetik goizero irakurtzen omen zuena), ezin erakuts dezakegu hemen. Fabrika hori Posso baionarrak erosi zuen berehalatik, *La Sirène* frantses izendapena erdaratuz (ikus VII. kap).

Haratago, txapalago ere bai, Loño-ren *Villa María* somatzen da, gero Udal-Kutxarena bihurtua.

Matiaz bestaldetik abiatuz, berriz, eta beti Matiatik irten gabe, Praixku Ezenarro-ren *Kaxeta* ageri da aurretik (Praixku hori, antzuolatarra, Nikomedes-en aita, eta Arkadia-ren aitona izanik).

Ondoren, pisu bakarrean, Elortza harakinaren denda (berau ere, oñatiarra, Jose Antonio-ren anaia), *Herrerotegi-Txiki* delakoa (Lug.50 A, 1862). Ondoren, *Herrerotegi* zaharra (Lug.50, 1862), *Isasene* (Lug.51, 1862) eta *Iñarrene* (Lug.52, 1862). Iparraldetik ikusten dugun etxe-alboa *Herrerotegi*ri dagokio, jakina; hiru etxeok ilaran baitzeuden.

Atzerago, berriz, luzea ("altoa" erdal modura), Eztenagatarren etxe berria (guretzat Matia 6), gaurko bere horretan jadanik.

Oraingoan Usurbil-go bide zaharrean behera abiatuz, Elortza beraren *Sutegizar* zaharra topatzen dugu aurrenik (*Ezkonberri* ere deitua, Ib.4, 1862); batera estankoa eta taberna zena, kanpo aldean ezarritako mahaiak eta guzti. Estefana-ren estankora sartzeko, soldaduen atzean antzematen den eskaileratxoa igo behar zen.

Itsatsirik daukan *Kantoi* etxeaz geroago mintzatuko gara.

Bide zaharrari eutsita, berriz, bidean behera beraz, tartetxo bat utzi, eta *Etxeberri* izeneko etxea ikusten dugu (auzuneko za-



guztien gainetik, azkenik, *Etxeberri* eta *Zubiaurre*ren gainean, "Casa Victoria-Gutenfelder"en teilatu-puska bat.

Tranbiek kurritzen duten errepidea, jadanik Matiakalea bihurtua da.

Kapeloari eusten dioten bi soldaduok doazen bidea, berriz, aldapan beherakoa (bestetan ere ikusia eta berrikustekoa), Usurbil-go bide zaharra da. Hortxe zegoen auzomuga: Lugaritz, ezkerretan; eta Ibaeta, eskuinetan. Horixe zen Antigua zaharraren ardatza eta berez-lerroa.

harrena beharbada). 1862ko zerrendan, Ibaeta-ko 5. zenbakia daramana, dotore antzean ageri.

Bidean beherago joan, eta etxetxo txapal bat tartean: *Beriene* (Ib.6, 1862); sagardo onaren saltzaile, esan didatenez.

Aurrerago joan, eta etxe altuxeago bat topatzen: *Zubiaurre* izenekoa (Ib.8, 1862). Etxe luzeska, ikusiko dugunez. Ondoko urteetan Brunet-ekiko mugakide; eta Gorga erreka zaharraren ertzean kokatua. Gero ikusiko dugun Brunet-en ukuilua hortxe zegoen, *Zubiaurre*ren ondoan.

*Villa Juanita*ren goiko partea ere ageri da hortxe, atzean, zuhaitz-adaburu batek erdibitzen duelarik; kalexkaren bukaeran-edo bailegoan. Teilatu



Bide zahar honek Sukia-kalea ireki baino lehenago, eskuin aldean *Gutenfelder* eta *Villa Rosario* utzi ondoren, ezker aldera jotzen zuen. Eta *Txillardegi* eskuin aldean utziz, gaurko Aizkorri-kalean gora abiatzen zen (Usurbilgo bide zaharrean gora, nahiago baduzue). Eta Lugaritz atzean lagata, *Zapatari* aldera jaisten zen gero.

1847an Irun-Andoain (Landetxe-Bazkardo, zehazkiago) kamino berria zabaldu zenean, bide zahar hau baliogabeturik gertatu zen; 1618z geroztik, Usurbil-Antigua lotura nagusia izan ondoren.

Lurralde zaharrak erdibitu zituen askotan errepide berriak.



*Txillardegi*ko lursailak, adibidez: Matiaz Hegoaldean *Txillardegi-Txiki* izenekoa geratu zen (puskarik txikiena); eta Matiaz Iparraldean, berriz, *Txillardegi* zaharra, Gaskue-tarrena. Baina bi puskak, jakina, Ibaetan zeudelarik; Matia-kale berria ezertan kontutan hartu behar ez; berau bide berria baita Antigua zaharrari dagokionez.

Hots, Usurbil-go bide zaharra guk, geure jatorrizko etxearen ondoan, horrelaxe ezagutu genuen. (Ikus 101., goian).

Atzean ikusten den etxea Alvarez-tarrena da ("Gutenfelder"en azkeneko itxura, alegia) gure gazte denboran inguruak zeuden beren hartan (Ikus V.Kap.).

Bidearen ertzean ikusten dugun murrutzarra, *Gutenfelder*eneko lurren mugatzaile eta eusle, bi txandatan eraikia itxuraz, Brunet-en botila-fabrikari zegokion XIX. mende bukaeran. Eta bazuen harrizko arku dotore bat hortxe, gure ezkerretako paretak izkutatzen digun alderdian, murrutzarraren ertzean. Hortxe egon ziren Brunet-en langile etxeak; Berra-ren eta Aristegieta-ren etxeen pare-parean. Hitz batez, Brunet-en batimenduak, gero "Gutenfelder" eraiki zen puntu berean zeuden.

Argazki hori ikusita (Pedro Sukiak lañoki emana) ez da gauza handirik erantsi behar kamino zahar hura labaina eta urtsua zela sinets-erazteko...

Fotoa, nolanahi ere, Sukia-ren txokolategitik egina da (ikus hor, behean. Migel Sukia aita, osagilearen aitona, beraz). Agertzen den txalupa, berarena izan daiteke; edo-ta Nieva-tarrena, agian.

Eskuin aldeko barrukia, berriz, Garmendia okinarena zen gure gazte denboran. Eta barruki hori, barka errepikapen hau, Lugaritz da; eta ez Ibaeta.

Atea pasa, eskuin aldera jo, eta *Errotatxo*ra irtengo ginateke. (Gaur egun, dena dela, murrutzar horren atzean, iskilu-kontrolerako batimendu berri bat antolatu du Goarda Zibilak; eta gauzak ez daude gaur, beraz, beren horretan).

Ezker aldera joanda, berriz, ez ginateke gaur inora helduko (Migel Sukiak Matia 18-ko eta Sukia-kaleko etxeak eraiki artean, berriz, bai: Matia-ra eta aldapan gorako bide zaharrera). Hain zuzen ere, inguru horietaraino iristen zen *Txillardegi*eneko lurraldea; eta Gaskuek bazeukan (eta Iturriak ere bai gero) bide horretan, luzeran esan dezagun, *Txillardegi*tik Ondarreta-hondartzaraino zuzenki pasatzeko tarte bat: 1,40 metrotakoa. Bidezerrenda hori, berari ez besteri zegokion... Euskara jatorrez *"bide-zorra"* edo *"zor den bidea"* delakoa, antiguan ere bizirik, esana dugunez.

Handik urte batzutara (Abedul jaunaren gasogenoa ikusita 1940 ingurukotzat jo daiteke fotoa), itxura hau hartu zuten tarte horiek.

Ezkerretako barruki luzea jadanik aipatua dugu, Garmendiarena da; eta ezkerretako etxeak Matia kaleko bikotxiak. Matia 18 duzue azkenekoa, Migel Sukiak 1905ko Azaroaren 29an estrainatua. Aurrez-aurre, berriz, Sukiaren etxea (Sukia kalean) urte bertsuetan egina. Kristaleria hori kartoizko kaxa-fabrikari zegokion; eta eskuin aldeko etxea eta garajeak, Alvarez-Iraola-ri dagozkio. Atzekaldean etxe luze bat ikus daiteke, leiho bakan batzuz hornitua: *Villa Juanita* da, Esklaben komentua. Sukiaren etxearen eta *Villa Juanita*ren artean errepara daitekeen zuhaztia, *Txillardegi*ri dagokio. Sukiaren etxeak izkutatzen digu *Txillardegi* jauregia, hitz batez.

Behin eta berriz aipatua dugun Usurbil-go bide zaharra, Ibaeta eta Lugaritz berezten zituena, hortxe dago, garajeen eta barruki zaharren artean.

Baina lagungarri gerta daitekeelakoan egin dudan *moderno-keria*-apur hau barkatzeko eskatu ondoren, goazen berriz atzera. Mende haserara, alegia.

Eta hemen gaituzue *Bazterretxe* auzoaren sarreran berriro. Lehengo leku berbera da, jakina; baina etxeak zaharkiturik topatzen ditugu. Ez, ez: ez gaude oker. Igeldoko tranbiaren burnibidea jarrita dago (1912ko Azaroaren 5an estrainatua); eta honek fotoa datatzeko aztarren bat ematen digu. (Ikus orain 104. orr.).

Postearen atzean, harresiaren kontra, iturri bat: *Bazterretxe*-auzokoek erabiltzen zutena, etxe zahar haietan ez baitzegoen ur laisterrik.

Eskuin alderago, argazkiaren ertzaren alderdian, etxe itsusi bat: *Kantoi, Sutegizar* zaharragoari (Ib4; 1862) erantsia. Hots, hortxe zegoen, aldapaburu horretan, *Xetien- ene* zaharra.

1917an, auzo osoaren eraaxketaren ondorioz, Igeldo-ko aldapara aldatu zuten ostatua; ezagutzen dugun *Rekondo* jatetxea bihurtuz (lehenago hortxe egon zen *Martikotegi-berri* ordezkatuz).




Rekondok, jaten emateaz gain, gelak alogeratzen zituen; eta normalean *Miramar* errege-jauregian zaindari zeuden soldaduak hartzen zituen "apopillo". Batzutan luzaz, *Kantoi*enean egoten ziren soldadu haiek (etxerako bidean ere ikusiak ditugu jadanik batzu); eta batera egon ohi ziren lotarako eta otorduetarako.

Prezioen aldetik, bederen, gaitza zen ostatu hura. Eleuterio Rekondok berak 1989an gogorazten zidanez, hauek ziren prezioak: sagardo-botila, bost xentimo. Ostatua osoa (alegia, ohea eta bi oturuntzak): 2,50 pezeta egunean (*2,40 peoientzat* argitu zidan Eleuteriok). Frantses batek hau esango luke, nik uste: "on croît rêver"...

Etxe azpian, berriz, errementari batek egiten zuen lan: Juan Jose Esorain altzatarrak. Zaldi-perraketa egiten zuen.

Argazkiarentzako data ematea posible dugu: 1916 ingurukoa. Ezenarro-ren *Kaxeta* desagertua da. Eta *Sutegizar*eneko kafetegiaren arrastorik ez bide dago hor.

Foto honek, dena dela, badu niretzat xarma berezia. *Rekondo*-jatetxeko bere gelan hitz egiten ari ginelarik, hauxe bota baitzidan ziplo Eleuteriok (hil baino hilabete bakar batzu lehenago): "Marmita daraman mutiko hori, ni naiz!"... (eskuin aldean).

Bertan behera opaldu nion argazki hau, nire aitonak soma ezin zezakeen hau guztia hausnartuz...

Gutxik ezagutzen zuen *Bazterretxe* auzoa Eleuteriok baino hobeki; Igeldoko aldapara aldatu artean hortxe egon baitzen *Xetien* taberna.

*Kantoi* etxea Manuel Gurrutxaga Zapatari-tarrak eraiki zuen

1891an; urte hartako Irailaren 25an *kokagarritasun-ziurtagiria* jasoz.

Sekulako espantuak sortu ditu argazki honek kontsultatu ditudan antigutar zaharrengandik.

Argazkian ikus dezakegun Eleuterio hori (Jose Rekondo Treku asteasuarraren seme, 16 urterekin Antiguara heldua, eta Jose Mari Rekondo zezenzalearen aita) antigutarra zen erabat. Ama *Mugitza* baserrikoa zuen (Ib.33; 1862), Josefa Azurtza Aristegieta izenekoa (Asteasu, 1863); lehenengo aldiz Setien batekin ezkondua, eta geroago alargundua. Eta honek azaltzen du izen-bikuntasun bitxi hori hori: Rekondo-Setien, oraindik ere bizirik...

Rekondo aitak, *Martikotegi* baserri zaharra egondako lekuan (*Olarain* eta *Lurdes-Txiki*-ren inguruan) *Martikotegi-Berri* eraiki zuen (gaur Jatetxea dagoen puntuan, beraz).

Josefa Azurtza horrek, ikerkuntza-lanak zailduz, hiru semealaba izan zituen Setien-ekin: Paxkual, Joxe, eta Ixabela; eta beste hiru Rekondo-rekin ezkontzean: Bitoriano, Eleuterio (gure hizketakide izana), eta Maria.

*Bazterretxe* auzo horretan ("Barrio de la Antigua" ofizialki joan den mendearen bukaeran) elkargainka pilaturik bizi zen jende umila franko. Auzune honetan, *Bordaberri*n edo *Txalupagillenea*n bezala, bazegoen halako *mukurrukeria*...

Usurbilgo bide zaharraren eta Matia kale berriaren artean, berriz, *Herrerotegi* biak, *Isasene* eta *Iñarrene* zeuden (bestetan ere ikusiak).




ASOCIACIÓN
DE
PROPIETARIOS Y VECINOS
DEL
BARRIO DEL ANTIGUO

MEMORIA
correspondiente al ejercicio 1917
Presentada por la Junta Directiva
a la General de Asociados el día
:: :: 16 de Diciembre de 1917. :: ::

Artes Graficas
"Gutenfelder,,
San Sebastián

Etxe-mordoska hori, Espainiako Erreginaren jauregiaren ondo-ondoan batez ere, konpondu behar zen *lotsagarrikeria* bat zen. Eta botatzeko asmoa trinkotu zen antigutar puntuzkoen artean.

con su habitual puntualidad, para dar con su presencia más validez y realce al acto.

Dándole anticipadamente las más expresivas gracias, tienen el honor de ponerse incondicionalmente á sus órdenes sus afmos. y attos. S.S. q. e. s. m.



Bilera-deialdi bat zabaldu zuen, 1916ko Abenduaren 17rako, *Miradore*neko Chaves Beramendi jaunak ("Conde de Caudilla" izenaz ezagunagoa); biltoki hau proposatuz: Antiguako nesken eskola (jadanik Mayorga-ko Markesak utzia). Antiguako interesak denen artean defenditzekotan elkartuko zirela zion bere mezuan; eta gauzak bideratzeko "Junta de Defensa del Barrio" delako bat antolatu behar zela. Nola hori? "Libre de personalismos y banderías políticas"... *Villa Conchan* , beraz, berriki desagertua.

Sinatzaile batzuren izenak gogoraztea interesgarri gerta daiteke: Gurutze Gorriko Jose Goiburu sendagilea (Matia 30 kalekoa), Rafael Lataillade (gure gaztaroko alkatearen aita, beraz), Juan Kutz garagardogilea, Dougier ispilugilea, Marcellán kaxegilea, Manuel Rezola industrilaria, eta *Gutenfelder*eneko Federico Alvarez González litografilaria.

Elkarte berriaren egoitza, Conde de Caudilla-ren *Miradore*nean kokatu zen (Ib.17; 1862).

Auzo-Batzordea horretara sortu, eta hauxe hartu zuen bere lehenengo helburutzat: *Bazterretxe* auzunearen eraaxtea.

Hori egin, eta Auzo-Batzordeak argitara zuen txostenak ez zuen zalantza izpirik utzi: "(había que derribar el barrio) para que desaparecieran para siempre antiguos focos inmundos, casas insanas, faltas de luz y de aire, de ruin construcción, y de aspecto rancio y repugnante y la estética menos escrupulosa" (Inf. de 15 de Dic. de 1917).

Nor bizi zen etxe horietan? Nortsu bederen? (puntu honetan ere sinets-ezina baita oroimenaren eskasia).

Antigutar zaharrek berek ere ez bide dakite gauza handirik. *Sutegizar*eneko estankoaz oroitzen dira gehienez, *Kantoi*eneko jatetxeaz beste batzu; eta zepillo-fabrikaz ere beste zenbait (ez asko). Zein etxetan nor, ordea? Ez dakite. Asko da, gehiegi bide da, 73 urtetako epea herri-oroimenerako. Mintzatu naizen lekukoak, hizkuntzaz euskaldunak izanagatik, galduta!

*Sutegizar*enean Beloki-tarrak bizi ziren: estankoan, bai Estefana izeneko andere bat, eta bai Beloki izeneko gizaseme bat aipatu izan didate berri-emaleek; honetan artxiboetan aurkitu dudana berretsiz.

Parrokiko sankristaua izan zen (bai goiko eliza zaharrean, bai behereko berrian) Juan Mari Beloki Sarasola; eta hau *Sutegizar*en bizi zen bere sei seme-alabekin; etxe horretara Elduain-dik 1854an etorri ondoren (bera 1835an jaioa zen herri horretan).

*Estefana*, berriz (antigutar zaharrek beti /i/ gabe ahoskatua), paper zaharretan Estefania Nazabal Olasagasti izenez agertzen da *Sutegizar*en, eta 1870an sortua zen. 1914an alargun zegoen; eta bi seme-alabarekin bizi zen etxe-azpian: 18 urtetako Joakinekin (berau Beloki-rena), eta 11 urtetako Ramonarekin (berau, berriz, Elormendi delako baten alaba).

Hauen gainean, etxe berean, 1.pisuan, Juan Jose Esorain altzatarra (1854-VI-24 koa), bere iloba batekin (jadanik aipatua).

Eta 2. pisuan Garmendia-tar batzu bizi ziren, Arizmendi-tarren bat ere bai; eta *Kantoi*enean (*Sutegizar*i erantsitako etxean, beraz) Asteasu-tik etorritako Josefa Azurza Aristegieta (1883-III-29), 1892an Antiguara etorria, eta Setien eta Rekondo familiekin lotua.

Hortxe bizi bide ziren ere nafartar "ribereño" batzu: Molina, Yanguas. Baita Bixente Aranburu ere (ume pila batekin), Elortza oñatiarrarekin istilutan ibilia; eta Goienetxe, eta Insausti, eta Lopetegi, eta Belemendia, eta Auzmendi, eta Amiano... Non? Nola horrenbeste jende?

Aldapa horretan behera goazelarik, berriz, eta eskuin aldean geldituz (Ibaetan, beraz), *Etxeberri* etxea topatzen dugu (Ib.5; 1862). Eta hor, besteak beste, musikari bat, Goiaz-koa (1886): Bitoriano Zabalegi izenekoa. Eta, etxe-izenari dagokionez, Etxeberria pila bat. Barandiaran-en bat ere bai; eta Egozkue, eta Arozena, eta Arrospide... Baina antigutar zaharrek bi deitura aipatu dizkidate: Laburu eta Sagarna.

Beherakoan, berriz, etxe txiki bat: "*Beliene*" (Ib.6; 1862). Eta hor ere famelia mordo bat, edo fameli-izen asko bederen: Landa-tar mordo bat, eta Iguaran (auzo horretan oso ezaguna), eta Laskibar, eta Eiguren...

Atzekaldeko etxean, kandela-fabrikaren aldera (Zumalakarregi aldera, geure modura hitzegitekotan), *Bazterretxe* dugu (Ib.7; 1862); eta etxe horretan Alkorta-tarrak agertzen dira nagusi. Baina badaude beste batzu ere: Amiano mordo bat, eta Zugasti batzu, eta Iraola mordoxka bat, eta abar.

*Zubiaurre*n azkenik, eta bukatzeko (Ib.8;1862), Brunet ukuiluen ondoan, Altuna mordo bat, eta Balerdiren bat, eta Martikorena (Pedro eta Agustin ezagunen arbasoak), eta Sarriegi.

Tornero-ren *La Antigua* fabrikan, *La Encarnita* birbataiatua (Encarnación Tornero da gakoa, Daniel Tornero-ren alaba), Lobato-tarrak bizi ziren. Antigutar zaharrak Lobato-tar hauetaz oroitzen dira. Lobato-tarrak Salamanca-tik etorri ziren; eta bertan kokatu zen bera bere sei seme-alabekin.

Hots, barruki apal horretantxe egon zen, Tornero-tarrak baino lehenago, "La Luz de Gorostidi" elektrika-zentraltxoa (tximenea ere horretan funtsa bide daiteke). Hiru bazkide ziren hor: Jose Maria Lasarte Olasagasti (bestetan ere aipatua), Jose M.Iguaran Galarraga, harotza, eta auzokoa; eta Domingo Rezusta Munua mekanikaria.

Hots, horra hor Bazterretxe-auzoa 1906 inguruan; argazkia *Casa Victoria-Gutenfeldere* txe-gainetik hartua delarik (108).

Ezkerretatik hasita, lehenengo barruki hestu hori, apala, fotoaren ertzarekiko paralelo agertzen zaiguna, Tornero-ren zepillo-fabrika da.

Eskuin alderago, berriz, eta Donostia-tik Antigua-ra gatozelarik (barka antigutar hizkera hori!), hauek ikusten ditugu:

Lehenengoa, etxe altua, teilatu-hegalaren azpian bi leiho erakusten dituena, *Kantoi* da (esana dugunez, *Sutegizar* zaharragoari erantsia).

Honantzago, eskuineko etxeari erantsia, *Bazterretxe*, bere hiru leihoekin (bi solairutan). Honi eskuin aldetik loturik, eta altuago, *Etxeberri"* (saltsa nahasia, nolanahi ere, etxe-berri horie-

kin; etxe-mordo horretan bertan, eta *Zubiaurre*ri loturik, beste *Etxeberri* bat ere topatzen baitugu artxiboetan).

Honantzago, tartean ozta ageri, *Beriene* (edo *Beliene*). Hurrengoa, honantza, bi tximeneekin, *Zubiaurre*, ikus 109. goian

Eta ia-ia honen kontra, "U" itxuran aisa ezaugarri, Brunet-en ukuiluak (gero ere hobeki ikusiko). Nire arbasoen "Gutenfelder", beraz, behin eta berriz ikusiko dugunez, botila-fabrika egon zen orua berean eraiki zuen ene aitonak. (109., goian).

Fotoaren eskuin aldean, berriz, *Herrerotegi* eta *Isasene* etxeen atzekaldea; eta atzerago, jakina, Miramar errege-jauregia. (Ikus 108. eta 109.). Hurbilenik ageri den harrizko eskudela, "Casa Victoria"ri dagokio.





Hona hemen etxe-mordo bera; leku beretik, baina beheragotik hartua, ezkerretan.

Ezkerretan, barruki itsusia, Tornero-ren bafore-makinaren gordelekua (Tornero-ren fabrika bera, hortaz, ezkerraldean zegoenez, ez da foto honetan ageri).

Eskuin alderago, Brunet-en ukuiluak, /U/ itxuran ongi errepara daitekeenez. Kasu teilatu-hegiaren farfailari... Tarte hori, haizeei buruz ongi gerizatua, oso epela omen zen; eta Antiguako zahar asko joaten omen zen bertara negu minean, egonean egotera.

Atzerago, eta Miramar aldera joaki: *Zubiaurre* aurretik, *Beriene* gero (txiki-txikia), eta *Etxeberri* gero, ezkerretatik erantsirik *Bazterretxe* agertzen delarik. Atzerago, teilatu puska bat ageri, *Sutegizar*.

Eskuin aldean ikusten dugun etxe altua, Eztenaga-tarrena da: Matia 6, gaur ere zutik. Ondokoa, ezkerretan, *Isasene Iñarrene*.

Esan beharrik ez dago, nik uste: Brunet-en ukuilutik irten, honantza, eta *Gutenfelder* topatuko genuke, (eta zenbait urte lehenago *Ondarreta* etxea eta botila-fabrika.

Hemen eskualde bera dugu; baina tenis-landetatik hartua oraingoan (Pitarque-ren "Villa Malate"tik, gutxi gora-behera, gure modura azaltzekotan).

David Tornero-ren zepillo-fabrika 1896koa zen (*La Encarnita* izenekoa, esan dugunez). Ezkerretako barrukia dagokio zepillo-fabrikari; eskuin alderago Brunet-en ukuilua ikus daitekeelarik.

Lehenago ikusi dugun txabolatxoan ipini zuen gas-motorea, bafore-makina batez hornitua (25 C.V.takoa zehazkiago). Udaletxean aurkeztutako eskabideak honela zion: "para dar movimiento a las diversas máquinas de su fábrica de cepillos, sita en el Barrio del Antigua" (1900-IV-9koa).



Baina fabrikaz gain, gordailua ere bazen; eta Mexikoko zakatoia, Ameriketako tanpikoak, koko-zuntza, Calcutta-ko eta Txina-ko zurdak, eta zaldi-ilajeak inportatzen zituen.

Denda nagusia, ikusiko dugunez, Gipuzkoako Plazan zegoen.

Aurrez aurre dugun etxea, Eztenaga-tarrena da (Matia 6). (109. behean).

Eskuineko ertzean ageri den miradorea, Alvarez-tarren "Casa Victoria"ri dagokio.

Saltoki nagusia hortxe zegoen (guk Elzaurdi ezagutu dugun izkinan); eta iragarkian bertan ikus daitekeenez (erdialdeko letreroan) "Almacenes al por mayor, Ondarreta (Antiguo)" irakurtzen dugu.

XIX. mendearen bukaeran kandela-fabrika bat egon zen hortxe: "fábrica de bujías y estearina".

Hain zuzen ere, 1889tik aurrera Miramar errege-jauregia eraikitzerakoan, barruki horixe bihurtu zen Antiguako meza-leku zenbait hilabetez. Bertako jabea Lasarte izenekoa zen (Iguaran eta Rezustarekin "Sociedad la Luz" izeneko argi-zentraltxoa moldatu zuena).

1892ko Urtarrilaren 8an eskaintza egokia egin bide zien Amalia Herrero Samperio izeneko andreak (22.500 pezeta, ordukoak); eta barrukia saldu egin zioten.

Amalia hau Tornero-ren alarguna zen ordurako; eta jatorriz Santander-koa (Villacarriedo-koa preseski). Ikusten denez Saro-ko bere sortetxea atxeki zuen.

Tornero-tar hauek Bengoetxea kaleko 5an zeukaten beren


DROGUERIA

HIJOS DE EUSEBIO TORNERO

CASA SUCURSAL
Calle Fuenterrabía, 21 - Teléfono 284

San Sebastián

CASA PRINCIPAL
Plaza Guipúzcoa, 6 - Teléfono 282




ALMACENES AL POR MAYOR
en ONDARRETA (Antiguo)
TELÉFONO 283




LA MÁS ANTIGUA Y SURTIDA EN EL RAMO
PERFUMERÍA - CEPILLERÍA - ESPONJAS - ORTOPEDIA
Productos químicos y farmacéuticos — Aguas minerales
Gran surtido de productos fotográficos - Varios laboratorios para los clientes - Stock Kodak

etxe-bizitza (3. estaian); eta hantxe, beherean, salmentako denda zabaldu zuten, Gipuzkoako Plazako arkupeetan.

Haseran fabrikari eta gordailuari *La Antigua* izena eman zioten: *La Gran Fábrica de Cepillos*, omen... Argazkiak ikusirik ez dirudi, baina... tira! (111., *Villa Nieves* zuria eta *Casa Victoria*ren artean).

Bertan prestatzen eta saltzen zen produkturik famatuena (aski da garai hartako prentsa begiratzea) "Papel Oerokrine" delakoa zen. Alegia, kolore-aldaketaren bitartez, ardoari *zerbait* erantsi ote zitzaion jakiteko paper mota berezia. Hauxe zen etxearen berezilaritza 1879z geroztik, gutxienez. Baina, jakina, baita bertako zepilloak ere.

Amalia Herrero 1910an hil zen. Eta orduan Daniel Tornero Herrero berorren semeak hartu zuen negozioaren segida.Daniel hau, nire aitonaren lehen-auzo eta adinkidea, erriojatarra zen, Logroño-koa (1866-XI-27koa).

Ondoko urteetan, argazkietan ere ikus daitekeenez, Amaliaren bilobek hartu zuten zepilloen arazoa: Eusebio Tornero Martínez topatzen dugu lerro berean. Baita "Hijos de Eusebio Tornero" ere bai.

Tornero-ren "Gran Fábrica"ri ere bere txanda tokatu zitzaion handik urte gutxitara (auzune osoari bezala); eta 1917an desagertu zen. Eraaxketa-lan horretan parte handia hartu zuen Caudilla-ko Kondeak, geroago ikusiko dugunez (Ik.XI.Kap. bereziki).

Argazki honetan ere, ongi xamar ikus daitezke Bazterretxe-auzune inguruko batimendu batzu.





Eskuin alderago, Alvarez-tarren *Casa Victoria-Gutenfelder* etxea; Mendebaldeko erdialdea karabineroen etxebizitza bihurtua (ikus balkoiko bandera-haga).

Aurrean tenis-landa batzu; gaur Zumalakarregi Etorbidea eta lehenengo xaletak dauden lekuan.

Bi argazki horietan ongi ikus daitezke bai Tornero-ren fabrika, bai Brunet-en ukuilua. Eskuin aldean, jakina, *Casa Victoria*.

Ezkerretan *Oria* xaleta dago (Calbetón-Blanchon-ena, goian).

Ondoren, eskuinerantz joanez, zuri-zuria itxuraz, arbelezko teilatuaz estalirik, "Villa Nieves" ikusten dugu (Almenara Alta- ko Dukesarena); Amilibia Etorbidea zabaltzerakoan eraatxia.

Fotoaren erditsuan, luze eta apala, Tornero-ren zepillo-fabrika.

Atzean, berriz, *Kantoi-Sutegizar* etxe bikoitza.



Horra hor *Villa Nieves* bi une desberdinetan.

Beheko argazkian hor dago zutik Tornero-ren lantegia, luze eta txapal.

Goikoan, berriz, Tornero-ren lantegia zegoen lur-sailean zuinketa-seinaleak ageri dira; eta Amilibia kalea Etorbide zabal bihurtu baino lehenagoko bere itxuran ikus daiteke.

*Villa Nieves*en jabea Angela Téllez Girón y Fernández de Córdoba anderea zen, Almenara Alta-ko Dukesa. Gaur Zumalakarregi Etorbidearen abiapuntuan bertan zegoen, errepidearen erdi-erdian nolazpait esateko.









Eta hor dugu 1917ko eraaxketa.

*Ezkerretan,*

Tornero-ren orua, husturik (pareta batzu salbu). Zutik dagoen bakarra gas-motorearen txabola da; Brunet-en ukuiluari izkina batetik erantsia. Eskuin aldean, Brunet-en ukuilua.

Aldapaburuan ikusten diren lau neska-mutil horiek, zortzi bat urte dukete hor; gaur egun, beraz, bizi baldin badira, larogei bat. Nor ote diren inork ba al dakike? Irakurleek dute erantzuna.

*Eskuinetan,* berriz,

Brunet-en ukuilua ikusten da, oraindik zutik, bere /U/ itxuran. Eta, Usurbil-go kamino zaharraz bestaldera, Matia kalearekiko honanzkoan, *Isasene*ko atzekaldea, ganbarak jadanik deseginik.

Eskuin aldeko etxe altua, Matia 6.

Bion arteko tarte horretan eskailera bat zegoen (beste bat!). Matia kalea, uholdeen arazoa gainditzekotan, Ibaeta auzoa baino metro pare bat gorago antolatu zen. Iparralderantz luzera guztian topatzen ditugun eskailerek horretan dute gakoa.



# V. GUTENFELDER

Horra hor *Gutenfelder* eta Ondarreta auzoa 1906ko bukaera aldean. Jatorrizko bere simetrian agertzen zaigu oraindik, garai hartan Antiguako alderdi horretan zeuden batimenduez inguratua.

Hots, antigutar gazteek ezer gutxi ezagu dezakete gaur orain dela mendebetetsuko ikuspegi orokor horretan; eta lagundu egin beharko ditugu.

Argazkiak 84 bat urte ditu; baina mila lukeela esan bide liteke...

Ezker aldetik hasita, eta gaur egun Satrustegi-Etorbidea deritzonean behera gatozelarik, *Kantoi* etxe triangeluarra ageri da aurrenik. *Sutegizar* etxe zaharrari Manuel Gurrutxagak erantsi zion *Kantoi* izkina 1891an, Irailaren 28an udalak zilegiztatu zituen planoen arauera.



Beronen ondoko Bazterretxe etxe-mordo edo auzunea alde batera utzirik, Brunet-en *Manen* xaleta karratua ageri da hor (geroago *Villa Nieves* eraikiko zen lekuan, beraz).

Hurrengoa, beti beherakoan, oraindik zutik dagoen *Calbetón* xaleta ikus daiteke (hein batean bakarrik bera), fotoaren garaian estrainatu berria, Calbetón eta Blanchon fameliena (*Ondarreta* etxe zaharra, desagertua, *Blanchonene* zen era berean). Etxe hori (*Oria* izenekoa orduan) gaur *Algorta* da partez. Eta *Oria* izena, Brunet-tarrek Orian zeukaten fabrikaren oroitzapenetan bataiatu zuten horretara.

Igeldo-rantz gatozelarik, eta ilarako azkenik, bi xalet karratu ageri dira, elkarri erantsirik, eta ohizko teilaturik gabekoak: *Mercedes* xaleta (gero *Molino* birbataiatua, Peñafiel-go Markesarena); eta *Victoria Cottage* zeritzona, Txurruka-ko alarguntsarena.

Argazkiaren ezkerraldera jotzen badugu, gaur Ondarretako jardinak moldatu baino lehenagoko kirol-zelaia ageri da; lursail militarra ere izan ondoren, zaldi-txapelketako gune bihurtua.

Eskuin alderago, berriz, tenis-zelaiak ageri; gaur aldatuak dauden lekura joan aurretik. Baita futbol zelai bat ere. Atotxara aldatu aurrekoa: hortxe, gaur xaletak dauden lekuan.

Amilibia kale hestua somatzen da, 1936an Zumalakarregi bataiatua; oraindik ere bere *Avenida 1* behin-behinekotik irten gabe.

Erditsuan ageri den etxe luzea (hurrengo orrialdetan xehekiago aurkeztekoa) Federiko Alvarez González lerro hauen egilearen aitonak eraikitako *Gutenfelder-Casa Victoria* izenekoa da.

Ondoren (eskuinetarantz, alegia) Laborda-ren *Casa Rosario* gorria dago (gero Marcellán-ena), kartoizko kaxa-fabrika izana, bere bi aterpe simetrikoekin.

Garai hartan maiz gertatzen zenez, bai *Casa Victoria* eta bai *Casa Rosario*, lantegi eta etxebizitza ziren batera. Biotan aspaldikoena *Rosario* zen (1903ko Abenduaren 21an jaso zuen Udaletxean bertan bizitzeko baimena).

Eskuin alderago joaki, argazkiaren ertzeraino, zuhaitz artean apal-apal *Txillardegi*ko ukuilua ageri da: hortxe gordetzen zituen Braulio Iturria jaunak bere zaldiak eta zalkurdiak. Ukuilu hauek Sukia-kalea zabaltzerakoan eraatxi ziren (1920 inguruan beraz).

Eta oraingoan atzerago begiratzen badugu, Xetien-en *Kantoi* eta Alvarez-en *Gutenfelder*en artean, irakurleak jadanik ezagutzen duen Bazterretxe-auzunea ikus daiteke, 1917an eraatxia.

Atzerago, eta erdi aldean, San Sebastián-Parrokia *berria* (hamabost bat urte argazkia hartu zen garaian). Elizaren aurrekaldetik ageri den etxe altoa, Eztenaga ahizpena da, Matia 6 (ofizialki 1905ko Abenduaren 24an estrainatua). Aspaldian egondako pospolu-fabrikak utzitako oruan eraiki zen; liburu honetan barrena irakurleak egiazta dezakeenez.

Beronen ezkerretan, ozta-ozta ezaugarri, bere teilatuxka mordo bereziarekin, *Iñarrene* eta *Isasene* zaharren atzekaldea ikus daiteke (Matia 4, gaur egun).

Eskuinetara jota, eta tarte bat utziz (hain zuzen, gaur ere tartea dagoen lekuan), Berra-ren etxea dugu, eraiki berria, orduan N eta Ñ letrez ezagutua, 1894koa; baita Jose Joakin Aristegietak eraikitakoak (L eta M; gero 12 eta 14 bihurtzerakoak), eta Zinkunegi-rena (0 eta 16), eta Migel Sukia-rena (63.etxea, gero Matia 18 deitua).

Teilatu erpina duen xaleta, argazkiaren eskuineko ertzean, Matiaz bestaldean, Udal Aurrezki-Kutxaren Sukurtsala zen fotoa hartu zen garaian. Joan den mendeko *Villa María* da, gero Gurutze Gorriaren sendaleku bihurtua: Brigadier Loño izeneko militar batek bigarren karlistadaren garaian eraikia. Errotik izan zen berreraikia 1929an.

Bukatzeko, eta atzekaldean beti, bestetan ere aipakizun dauzkagun batimendu batzu:

—Matia 1-ko izkina, *arkuen etxea*, gaur ere zutik;

—Matia 3 eta 5 etxeak, urte askotan (1927ra arte) gorontza-fabrika izanak (Farcy-Oppenhein haseran, Posso gero).

Eta atzekalderago, Errege-Ukuiluak (gure haurtzaroko *Caballerizas*) frankismoan barreneko urte askotan *P.M.M.* kotxe dotore ofizialen gordeleku izanak. Gaur egun, jakina, erabat desagertuak.

*Gutenfelder-Casa Victoria*ren erdian (gaurtxe ere hor dago oraindik), portale nagusiaren gainean, balkoi bat dago. Hortxe egon zen zenbait urtez litografiaren bulego nagusia. Eta askoz ere beranduago, 1960ko udan, bulego horretantxe tokatu zitzaidan niri Teniente Coronelaren aurrean, Martutenera aurretik, *deklaratu* beharra... O tempora, o mores! Bego hori horretan.




1905ko Abuztuaren 23an, eta 2650 sarrera-zenbakia zeramalarik, Donostiako Alkateari egindako eskabidea topatu dugu artxiboetan: "...expone su deseo de instalar un edificio de nueva planta... en los terrenos de Ondarreta que pertenecieron a los señores Brunet y Compañía ... en el solar que está al Norte de la fáfrica de cartonajes de los señores Laborda y Compañía; quedando el edificio proyectado entre dicha fáfrica y las cocheras de los señores Brunet... La fuerza motriz será eléctrica". Eta *Gutenfelder*en izenean, Federico Alvarez-ek sinatu zuen (*propietario*) eskabidea; planoak, berriz, Migel Irastorza delakoak erantsiz.

Urte mordo bat pasa behar izan dut nik esaldi horiek ongi ulertzeko; alegia, *Gutenfelder* Brunet-en botila-fabrika *egon zen lekuan* eraiki zela, ez ondoan edo hurbil bakarrik ... *Gainean!* Eta Usurbil-go bide zaharretik karabineroetara sartzeko zegoen harri-arku zahar bitxi hura, Brunet-en fabrika-sarrera zaharra bera zela...

Eraikitzeko baimena berehala eman zuen Udal-Arkitektoak, Jose Goikoak alegia, 1905ko Abuztuaren 25an.

Baina Gutenfelder hark (ikus projektuan dagoen planoa, etxaurrea ikus daitekeelarik, kapitulu honetantxe) hiru urtez bakarrik atxeki zuen itxura simetriko hori. Eta honen segida irakurtzen baduzu, gakoa jakingo aisa: Irastorza-ren jabekidetza, eta abar. (Ikus 124. orr.).

Argazki hau, hitz batez, 1906 ingurukoa da. (Ikus 117. orrialdea).






D. ANTONIO ELÓSEGUI.

Federiko Alvarez-ek Donostia-rekin zituen lotùrak lehenagokoak ziren. Oraindik Tolosan bizi zenean ere (*La Galerna* donostiar aldizkari horrentzat egindako erretratu horren datan ikus daitekeenez: 1890), Federico Alvarez-ek bazuen Donostiarekiko harremana.

Bide beretik, Donostiako *Deuda Municipal*eko Obligazioak (1899koak) Federico Alvarezek marraztu (grabatu hobe) zituen: "Las 30.000 obligaciones o láminas de la nueva Deuda, fueron confeccionadas por Don Federico Alvarez de Tolosa, por la cantidad de 4.250 pesetas" (Baldomero Anabitarte, "Gestión Municipal de San Sebastián, 1894-1900"; 119.orr).

Alvarez-tarren *Casa Victoria* izenekoa 1906ko Abuztuaren 27an estrainatu zen.

Etxe hura batera zen industri-gune (*Gutenfelder* litografia) eta bizileku (*Casa Victoria*).

Mendebaldetik, hiru urte lehenago eraikitako kaxa-fabrika ikutzen zuen (Marcellán-ena, esan dugunez); eta Ekialdetik, zazpi urte lehenago eraikitako *Cocheras Brunet* zeukan mugakide.

Zilegiztatze-Txostenak (Castells medikuak izenpeturik) honelaxe zion: "La finca reúne las debidas condiciones de higiene y ventilación, por cuya razón puede declararse habitable".

Lanak 1905ko Abuztuaren 22an hasi ziren.

Argazkia arretaz begiratuz gero, xehetasun azpimarragarri bat errepara daiteke: eskuin aldean ikus daitekeen teilatu eta hodi muttur horiek, Brunet-en gurditegiari dagozkio. (Hemen beherean, eskuinetako ertzean).

Zergatik *Victoria* eta zergatik *Gutenfelder*?

*Victoria* izen hori fameliaren istoriari lotuta dago: 1900an, oraino gazte zelarik (37 urte) galdutako Bittori Iraola Eizmendi bere emaztearen oroitzapenetan eman zion izendapen hori Antiguako etxe berriari Tolosatik etorritako Federico Alvarez Gonzalez-ek.






*Gutenfelder* izen bitxiak, aldiz, azalpen tekniko- historikoa dauka. Gutemberg-ek asmatu zuen moldiztegia, jakina denez: inprimaketa fisikoa; eta horregatik *Guten*-hori. Eta litografia, berriz, inprimaketa kimikoa, Senefelder izeneko batek asmatu zuen; eta horretatik *-felder* hori. *Gutenfelder* lantegia, batera moldiztegi eta litografia zenez (aski duzue eskutitz-paperaren seilua arretaz begiratzea), *Gutenfelder* zegokiola erabaki zuen liburu honen egilearen aitonak. (Ikus 119. orr.).

Linotipia asmatu artean, testuen konposaketa eskuz egiten zen, berun-antimoniozko *moldizkiak* (eta horretatik gure asabek asmatutako *moldiztegia* inprenta esateko) multzotan paratuz.

Moldizki horiek ageri diren armairu berezi horietako kajoietan sailkatzen ziren. (Hmentxe, gainean).



123. orrialdeko argazkian, esate baterako (atzean Matia 6ko Eztenaga-tarren etxea ikusten delarik) *Gutenfelder*eneko langile batzu ageri dira, langile eta nagusi batera. Ezkerretatik eskuinetara goazelarik, Federico Alvarez Iraola, eskua poltsikuan, ene aita; Pepe Alvarez Iraola, berorren anaia; eta 1869an Madriletik Tolosara etortzeko asmoa izan zuen Francisco Alvarez González, ene birraitona (bigarren karlistadan behin eta berriz Aita Santa-Kruz harrapatu ustez, beti esku hutsik etxera itzulia, eta 1929ko maiatzean hila). Berau, nolanahi ere, ez zen bera bakarrik etorri; Tolosatik irtendako Alvarez Flores-tarrek, eta abarrek, ongi erakusten dutenez.

Berehala (1906ko Abenduaren lan, preseski) gas-motore bat ezarri zen bertako makinak mogitzeko (5 H.P.takoa).

Eta hortxe duzue, ezkerretako fotoan, garaiko lantegietan ohizkoa zenez, *indarra* eramaten zuen ardatz jirakorra, bere txirritak, uhalak, eta guzti.

Atzekaldean, berriz, apaletan sailkaturik, harri litografiko pilo bat ikus daiteke (eskuz grabatuak).

Aurrekaldean, bukatzeko, makina *plana* bat. Erditsuan, gorbatarik gabe eta gorantz begira, Migel Alvarez Iraola ageri da, Federico-ren seme eta lerro hauen egilearen osaba.

*Gutenfelder*eneko langileen artean, hitz batez, fameliakoak berak ere bazeuden.





Goazen aurrera: 1909 ingurura. (Ikus 125. orr.).

Eta lehenengo begiraldian horrela ez badirudi ere, urte batzu pasa dira lehenengo argazki nagusi hartatik honetara: *Gutenfelder*en aldaketak lekuko.

Behereko ertzean Ondarretako gartzela ageri da; eta eskuin alderago Ezeiza-ren etxe-mordoa eta *Carmen-enea* etxea, berau errekaren eta *Barraka*ren ondo-ondoan; eta etxe- mordoa bezala oraindik zutik, nahiz desagertzeko bezperan. *Toki eder ere* atzekaldetik ikusten da.

Amilibia-Etorbidean, eta argazkiaren eskuin aldean, *Villa Juanita* dugu, *Txillardegi*ren inguruko zuhaztiaren aurrean (jauregia ez da ikusten). Ondoren, ia-ia Matiako etxe-ilara ikutuz, *Villa Rosa* ikus dezakegu, Posso-tarren bizileku izana. Eta *Txalupagillene*, Benta-Berri alderago, berorren atzekaldean Matia kaleko etxe-ilararen aurrean; ozta ikusgarri.

Eskuineko ertzean, zeharka datorkigularik, Konporta erreka ikusten da, *Carmen-enea*ren eta gartzelaren ondotik Ondarreta hondartzan bere urak isuri aurretik.

Berriro bi argazki nagusiok alderatzen badituzu, berehala erreparatuko duzu lehenengoan bere jatorrizko simetrian ageri dela *Gutenfelder* delakoa. Bigarrenean, berriz, baita ondokoetan ere, simetriarik ez.

Era berean Brunet-ek 1896an eraikitako xalet karratu parea desagertua da; haren ordez *Villa Nieves* dugularik.

Honen eta *Victoria Cottage*ren artean, berriz, geure gaztaroan ezagutu genuen *Villa Calbetón* ikus daiteke (*Nieves*en eredu, nonbait; nahiz aisa handiagoa), gaur arte zutik, erdi batean aldatua badago ere.

Zergatik edo nola "Gutenfelder-Casa Victoria" zaharrak bere oreka galdu? Goikoak 1905an ontzat eman zuen etxearen ideia bestelakoa baitzen.

*Gutenfelder*en eraikuntza tolosar errementari batek hartu zuen bere gain. Etxegintzan errementari bat topatzea harrigarri gerta badaiteke ere (Gregorio Irastorza Iriondo zehazki), tolosar bat topatzea ez da harritzekoa: Federico Alvarez González urtebete zuenean Madriletik Tolosara etorririk, foru- hirian bizi izan zen 35 urtez Antiguara joan artean. Hain zuzen ere, Tolosatik beretik bidali zuen Donostiako Udaletxera industri-etxea eraikitzeko baimen-eskaera.

Hasteko, 20.000 pezeta ordaindu behar izan zion Alvarezek Raoul Merlet Lavaux merkatariari (beronek Brunet-i, 1904ko Azaroa-ren 15an, lursail berbera, botila-fabrikarena, 19.094,40 pezetatan erosi ondoren). Erosketa 16 pezetatan metro koadroko egin zuen; gaur egun ez baitirudi prezio txarra inguru horietan...

Lanak, berriz, uste eta kalkulatu baino galestiago gertatu ziren. Besteak beste, *Ilunbe* ondotik, eta guk ezagutu dugun Ezenarro-ren espartin-dendaren azpi-azpitik, hain zuzen, eta Matia 6 eta 8aren artetik, pasatzen zen *erreka* zaharra estaltzerakoan, arazoak sortu zirelako.




Espero ez ziren oinarritze-lanak egin behar, hitz batez, errека zaharra izkinatik pasatzen zelako; eta, guztira, Alvarez-ek Irastorza-ri 36.565,94 pezeta ordaindu behar dirutan, eta berehala. Ezin, ordea.

Eta, besterik ezean, *Casa Victoria*ren erdia, Mendebalde aldeko erdia (planoari buruz ari garelarik, eskuin aldekoa), gero Amilibia 9 bihurtu zena, trukean eman behar errementariari. Eta halaxe egin zuen 1908ko Martxoaren 9an.

Salmentaz galdutako metroak berrirabaztekotan, gaur *Errotatxo* dagoen aldetik erantsi behar izan zitzaion etxe- hegal berri bat; foto horretan, langileak, zaldia eta guzti, eraikuntzaldian ikus daitekeena. (Hementxe, eskuin aldean).



Irastorzak orduan, bere aldetik, jatorrizko simetriari kasorik

ez eginik, 1908/1909 urteetan barrena, hirugarren solairua gaineratu zion eskuineko bere etxe-parteari; ondoko fotoetan behin eta berriz errepara daitekeenez.

Parte hau, alogeraz (salmentaz askoz ere beranduago aldatu baitzen jabea) "Cuartel de Carabineros" bihurtu zen; balkoiko hagan nabarmenki ikus daitekeenez. (Ohar bat, enkas, gazteen zerbitzutan: izkina hori Zumalakarregi 5 da gaur)

Hain zuzen, maizter gisa egon dira hor karabineroak (eta goarda-zibilak, ondoren) 1968ra arte.

36-ko gerratea amaitu eta berehala, 1939ko Urriaren 2an hil zen Irastorza jauna, Tolosan; eta Dolores Huarte Ardaiz alargunak, hil arte (Tolosan, 1966-X-26an) eutsi zion bere etxe-jabegoari, ezer aldatu gabe.






Irastorza-Huarte-tar seme-alabek, berriz, etxearen lege-egoera aldatu zuten. Eta 16 miloitan saldu zioten *Casa Victoria*ren erdi hori "Asociación Pro-Huérfanos de la Guardia Civil" elkarteari; hanartean maizter egon zirenak, jabe bihurtuz. Eta etxe-erdi horrek, kolorea eta altura aldatuak baditu ere, aspaldiko eitea gorde duen etxe bakarretakoa da (eite dotoreegia ez bada ere); Antiguan gehien- gehiena aldatu baita goitik behera. Miradore horiek lekuz aldatu ziren (Amilibia 7ko portale gainera aldatuz).



Goazen berriro harira; horretarako 1909ko argazkiak begiratzen ditugularik. (Ikus 125., goian).

Goikoan *Casa Victoria* dugu. Ezkerraldean dagoen orua hutsa, Tornerok utzitakoa da; 1929-1930 urteetan "Casa de las Conchas"en kokaleku izatekoa, eraikitzailea Llaguno bilbotarra zelarik.

Ondoren, eskuin aldean argazkiari gagozkiolarik, Laborderen *Casa Rosario* ikus daiteke, urte askotan barrena kartoizko kaxa-fabrika izana. (Argazkiaren eskuin aldean).

Eskuin alderago, berriz, ertzean ia-ia *Villa Juanita* izenekoa (ikus VII. Kap.), *Txillardegi*ren hesparruan eraikia; eta geroago, langile-etxea izan ondoren, "Esclavas de Cristo Rey" delakoen komentua izandakoa. Argazkian besterik ematen badu ere, hiru etxe horiek lerro-lerro zeuden, etorbidearen ertzean.

Matia kaletik, berriz (Berra-ren etxetik, kasu honetan) itxura hau zeukan *Gutenfelder* etxeak. (Ikus 126. orr.).

Aurre-aurrean errepara daitekeen harresi-gain zaharra, angelutan, Usurbil-go bide zaharraren gainean dago.

Ezkerraldean, berriz, Irastorza-ren etxea ikus daiteke; hirugarren solairua jadanik erantsia duelarik.

Eta, hondartza aldetik zer ikusten zen?. (Begira 127., goian).

Ondarretara jaitsi diren handiki horiei oraingoan jaramonik ez eginik (Espainiako erregina ere hor dago erdian), interesgarri izan dakiguke ezkerretan agertzen den lehenengo etxea begiratzea; horixe baita *"Gutenfelder-Casa Victoria"*. Irastorzaren etxea handitua da jadanik; beraz fotoa 1915 ingurukoa da.

Bigarren etxea, zuria, arbelezko teilatuarena, Almenara-ko Dukesarena da, juxtu gaur Zumalakarregi Etorbidea abiatzen den puntuan eraikia: *Villa Nieves* izenekoa. (Ikus 127. orr.).

Ondokoak, eskuinetarantz joanda, *Calbetón*, *Mercedes* eta *Victoria-Cottage* dira.

Mende honen haseran, beraz, bai Alvarez-tarrek eta bai aldameneko karabineroek (foto honetan garbiki froga daitekeen bezala) etxeko leihoetatik, eta *dohainik*, ikusten zituzten tenispartidarik hoberenak...

Ezkerretatik eskuinetara goazelarik, beraz, Brunet-en ukuiluak ikus daitezke (itzalean daudenez, oso ilun); Eztenaga-tarren etxea, Matia 6 guretzat; *Casa Victoria* gero, Alvarez eta Irastorza-ren artean banatua; eta *Casa Rosario* eskuinetan. Honen jabea Cándido Marcellán Arozena bilbotarra zen (beherean agertzen dena). Antiguako zinegotzia izan zen, eta 1863ko Azaroaren 4an jaioa zen.

Nor ote zen *Victoria* hori, ordea?

Izena emana dugu: Bittori Iraola Eizmendi, tolosarra.





Amona Bittori Tolosan jaio zen 1863ko Martxoaren 6an, Solana kaleko 3an (arratsaldeko hiruretan irakurtzen dugunez). Gurasoak Bidani-koak izanik, *tolosar berria* zela esan daiteke; eta gure famelian, nik artxiboetara jo arte, bidanitartzat geneukan gure aitaren ama.

Hots, Bittori-ren amak lotu zuen Alvarez-tarren patua. Ageda Eizmendi Urreta delakoak (1832ko Otsailaren 5an Bidanian jaioa) 1857an aldatu zen Tolosara; eta ostatu bat zabaldu zuen Tolosa erdian (Rondilla 14an preseski). Hain zuzen ere, gaur bertan enparantzara sartzerakoan, ezkerretan dagoen etxe horretantxe. (Ikus arretaz Federico Alvarez-ek Tolosako inprentan argitara zuen propaganda *triptikoa*).

Francisco Alvarez González nire birraitonak (jadanik *Gutenfelderer*enean ikusia) bigarren karlistada hasi baino lehenago, 1869 inguruan nik uste, Tolosa-ra *emigratzea* erabaki zuenean, etxerik ez zuela bide, *Fonda Agueda* horretan *ostatatzea* hautatu zuen. Zergatik? Ez dakit. Nonbait kokatu behar...

Eta han, amodiozko nobela klasikoetan bezalaxe, Francisco horren umea zen Federico *seme gehienak* (maizterraren semeak, alegia), eta Bittori, Ageda etxeko-anderearen neskatilak, elkar ezagutu; eta maitemindurik suertatu omen ziren.

Handik urte batzutara, 1893an Tolosan ezkondu ondoren, etorkinen famelia hau mamitu zen.

Eta hor duzue, Tolosan, 1899 urtean, Federico eta Bittori ezkondu eta sei urteetara, Alvarez eta Iraola-tarren multzoa; fotoa egiterakoan berehala gertatuko zen zoritxarra ezertan somatzen ez zelarik. (Ikus 129. orr.).

Baina segi aitzin egin dezagun jaun-andere-ume horien aurkezpen laburra.

Ezkerraldeko *txapelduna*, lehen aipatu dudan Francisco Alvarez duzue, nire birraitona (Madrilen 1842ko Urriaren 3an jaioa); bere anaia batekin Tolosara, *paperaren hirira* omen, *enkuadernadore* gisa lan-bila etorria.

Bere emaztearekin etorri zen (argazkiaren erdi-erdian, hiru haurren artean, begira daitekeen anderea); berau, izenez, Anastasia González Albajara, Villarcayo-koa (1837koa). Horra hor bi zaharrak. Anastasia hau nik bi urte eskas nituenean hil zen, baina ez dut haren oroitzapenik batere.



Bittori Iraola (Antiguako *Casa Victoria*ren gako izkutua, beraz) ezkerretatik hasi eta laugarren agertzen den andere gaztea da. Bi haur ditu magalean: Federiko ezkerretan, nihauren aita zena; eta Jose Luis (*Pepe* famelian) nire osaba. Biok jaio ziren elkarren segidan 1894 urtean, eta biok ere *Fonda Agueda* delakoan; gurasoak oraindik ostatuko bezero zeudelarik.

Federico Alvarez González, berriz (Madrilekoa; 1867ko Urtarrilaren 10an sortua, eta emaztea baino gazteago, beraz, eta Antiguan 1952ko Martxoan hila), ozta ibiltzen hasia zenean etorri zen Tolosara. (Aquilino Alvarez González, berorren anaia alegia, 1871koa, tolosarra zen sortzez; eta Antiguan bizi izan zen luzaz, Ameriketara joan arte).

Federico hori hirugarren agertzen da fotoan eskuin aldetik, *pajarita*-gorbataz jantzirik. Aquilino (beronen anaia; tolosarra esan dudanez 1949ko azaroan hila) hor dagoke; etzanda ageri dena agian).

Inudeak besotan daukan haurra Migel Alvarez Iraola date, ene osaba.

Horra hor multxo bitxia. Txapelagatik besterik ez bada ere, Francisco da *euskaldunena.* Beste batzu hor... mairu galantak izan daitezkeelarik.

*Doña Anastasia* Antiguako *Casa Victoria*enean bizi izan zen 1906z geroztik 1931ra arte; eta antigutar zaharrek ongi gogoan zeukaten oraindik, neronek liburu hau prestatzeko neure ikusaldietan frogatu dudanez. Villarcayo-tik etorritako emakume hura izan bide zen, errainaren heriotzaren ondorioz, *Casa Victoria*ko etxeko-andere *faktikoa*, fameli eta adiskideen bidez jakin dudanez. Eta honek ondorioak izan ditu, nik uste, Alvarez-tar guztion izakeran.

Baina hel diezaiogun hariari berriro. Argazki horri, alegia.



Hiru ahizpa ageri dira hor, Iraola-tarrak eta tolosarrak hirurak: jadanik aipatua dugun Bittori hori; Fermina, berorren atzean zutik agertzen dena, ondoko urteetan Tolosa-ko Floro Izagirrerekin ezkondutakoa; eta Leandra, azkenik, fotoan Francisco zaharraren ondoan exerita, eta gero Tolosa-ko Bastarrika-rekin ezkondua (etxekoentzako *harakinak*, ziotenez).

Hots, Iraola-tarrik batere ez zen inoiz Antiguara etorri. Ezagutu ere ez ditut egin nik Tolosa-ko Iraola-tarrak. *Casa Victoria*ra Alvarez-tarrak etorri ziren, berak bakarrik.

Amona Bittori hori 1900ko Urriaren 31an hil zen, Pako nire osabaren jaiotzaren ondorioz, omen (nahiz aste batzu beranduago). Eta heriotza hori Rondilla 14-ko *Fonda Agueda* horretantxe gertatu zen.

Emakume gazte haren zorigaitzak mindura handia erakarri zuen: bai senitartean (lau ume txiki umezurtz, gazteena bere bigarren hilabetean), bai Tolosa-ko inguruetan. Orduan nire aitona Tolosa-ko kontzejala zenez (1899ko Uztailetik 1904ko Urtarrilera arte egon zen kargu horretan) batzorde ofizial bat igorri zuen Udalak *Fonda Agueda*ra dolumina aurkeztera. Zeberio alkate-ordea joan zitzaion, Zabala alkate-ordearekin (bi ordezko bide zuen orduan Tolosa-ko Udalak), eta Arteaga kontzejala.

Práxedes Diego Altunak (Donostiako zinegotzi, eta gero Udal- liburuzaina izakizunak) lerro publiko batzu idatzi zituen (erdaraz, jakina!), eta Donostia-ko "Gran Casino Easonense"tik bidali.

Donostiako Udaletxetik Jose Matxinbarrenak berak idatzi zion. Dolumin-emaleen artean, xehetasun bitxi bat: Donostia-ko Narrika- Puyuelo izkinako "Droguería Medicinal e Industrial" delakotik, lerro minbera batzu. Dendako Joaquín Alvarez-ek izenpeturik, argitzapen bitxi hau erantsi zuen: "Estimado correligionario"...

Ohar bat bidenabar: Parte Zaharreko Alvarez horiek eta Antiguakoak ez direla ahaideak.

Eta honetaraz gero, eta kapitulua amaitu baino lehenago, horra hor Tolosa-ko *Fonda Agueda*ri izena eman zion etxeko-anderea: Ageda Iraola Urreta, bidaniarra.

*Fonda*ko sukaldean ikusten duzue. Beharbada etnografilariek badukete hor zer miaturik, sukaldeko tresneria ongi xamar ikusten denez...

Bidaniar bat Antiguako ixtoria zelebre honetan, badago, bai, zertaz harriturik...

Nork bere patua konda badezake ere, eta harrigarririk aurkitu, ni neu ere neurea kondatzera deliberatu naiz. Lotsa apur batekin, egia esan. Baina mende haserako gertakari horiek nigan eta nire ikusmoldean aztarnarik gabe gertatuak direnik ez dut uste. Etorkinen identitate-arazoak ulertzeko arrazoinak baditudala iruditzen zait, eta nire biografian beharbada uste baino sakonkiago eragin dutela...

Federico Alvarez nire aitonak Antiguara aldatzean, Tolosa-ko munduarekin osotara hautsi nahi izan baitzuen; ni neu ere, gerora, Tolosa-rekiko, eta zetxekion euskal mundu osoarekiko, arrotz bihurtuz. Tolosarren aldetik, jakina.

Baina *Gutenfelder-Casa Victoria*ko giroa eta loturak horretara mamitu ziren, eta ez bestela. Eta hau gauza askoren gakoa da, ene ustez.



# VI. ONDARRETA

Itzul gaitezen berriro, laburki bederen, orain dela ehun urteko Antiguara; eta gogoraz dezagun III. kap.an ikusi genuen ikusmira hura. Txubillo pean ez zegoen Satrustegi-ren dorrearen arrastorik; eta, are gutxiago, beraz, Ondarretako gartzelarenik. *Euletegi, Marbil, Arbizketa* somatzen ziren urrunean; eta *Herrerotegi, Isasene, Iñarrene,* Andoaingo bide berriaren ertzean.

Hots, Antiguaren erdian itxuraz agertzen zitzaigun fabrikatzarrak harritzen gintuen gehienik; eta beroni buruz xehetasun batzu emateko tenorea iritsi zaigula dirudi.

Goazen aurrera, beraz.



Eta horra hor, argazki txiki horren ezkerretan, beherean, *Arbizketa* etxea (Ib. 23; 1862). Gaur egun zutik, eta Altuna-tarren bizilekua.

*Arbizketa*ren gainean, zoritxarrez suntsitua den *Marbil* baserria ikusten dugu (Ib. 24; 1862); antigutar zaharrek *Mármil* ahoskatua.

Eta eskuin aldean, harrobiaren gainean, *Euletegi* baserria (Ib. 25; 1862), gaur egun desagertua.

Hondartza ondoko belazean behia zaintzen duen baserritar hori nor ote den ez dakigu; eta ez dugu hipotesi alferrik egingo.

Paraje hondartsu horietan ez zegoen ezer orain dela ehun urte; txilarra eta "karakol zuria" ez izatekotan (birigarroak harrapatzeko onena, Pedro Sukiak azaltzen zidanez).

Dexente aldatuko ziren gauzak ondoko urteetan...

1850 inguruan, Francisco Blanchon zen *Ondarreta* etxearen jabea (*Blanchonene*, *Ondarreta*, Ib. 9; 1862); baita hau ere: "propietario de una parte de los arenales del Antiguo" (Artx.; 1850-VII-16).

Badakigu, bestalde, ezkontza-bidez bihurtu zirela Calbetondarrak *Blanchonene* horren jabe: Josefa Blanchon anderea Joaquín Calbetón-ekin ezkondu zenean.

Uste dut, beraz, gure haurtzaroko *Villa Calbetón* delakoa (foto askotan ikusia), gaur *Villa Algorta*, antzinako *Ondarreta*-ren ondorengoa dela; eta botila-fabrikaren esparruan zegoela.

Eta miratiz gure eskuetara heldu den argazki honek argituko gaitu XIX. mende-bukaerako Antigua ikus erazten. (ik. 132 orr.).

Zer ote da, hasteko, ezkerretako xalet dotore hori? Zaharrenek somatua dukete: berandu arte hortxe eta bere horretantxe egon den *Villa María* izenekoa. José Loño *Brigadier* delako batek eraiki zuen bigarren karlistadaren ondoren. Matia kalean ze-



goen (ireki berria zen Irun-Andoain errepidearen ertzean, orduko hizkeraz hitz egitekotan); eta gero, Udal Aurrezki Kutxaren sukurtsala izan ondoren, Gurutze Gorriak hortxe izan zuen lehenengo eritegia izan zen. Baina orain Arantzazu-auzunetik ikusten dugu... Artalanda galanta! Eta Matia azpian dagoen gizasene hori (paretaren ondoan zutik) nor den ezin esan. Kalean dagoen besteren batekin kalakan ari dela esan liteke... Baina, jakina, ez dira 107 urte alferrik joan! Nor ote?

Atzean, jakina, Txubillo dugu; eta *Monte Igueldo*ko dorrea (*farola* zioten zaharrek) eta harresiak, konpondu gabe daude oraindik.

Erdi-erdian *Toki-eder* jauregia ikus dezakegu; Patrizio Satrustegi Baroi berriak 1883an eraikia. Jauregia oraindik amaitu gabe agertzen zaigunez, data zehatza eman dakioke fotoari: 1883/1884 ingurukoa.

Loño-ren etxearen ezkerretan, ertzean beraz, pareta zahar bat eta teilatu mutur bat errepara daitezke: horra hor Gaskue-tarren *Txillardegi* zaharra. (Ib. 10; 1862).

*Toki-Eder*en ezkerretan ikusten den baserri txikia, *Euletegi* da (Ib. 25; 1862); *Txokolatene* (*Sagastizar*) eta *Erroiegi* (Ib. 26; 1862) baserrien artekoa.

Andoain-Irun bide berria (36 urte adin fotoa egiterakoan) gorago agertzen da gaurko *Arantzazu-auzunea* eta gainerakoak baino. Eta hori badakigu antigutarrok: Matiatik edozein tokita-

ra joanda ere, aldapan behera abiatu behar da. (Oro har, noski). Usurbilgo bide zaharra urpean egon ohi zen maiz; Matia ez.

Eta eskuin aldeko fabrikatzar itsusi horretaz, zer? Horra hor Brunet-en botila-fabrika famatua. Kostata ikusten dugu! Berra- ren etxearekiko aurrez-aurre zegoen (Berraren etxea eraiki baino lehenagotik, jakina). (Ikus berriro 132. orr.).

Antiguako zaharrek azaldu didatenez, iluna zen oso fabrika, eta Antiguako umeak beldurtzen omen zituen. Argazkia ikusita ez baita oso sineskaitza...

Baina, kasu! Brunet-en fabrika hau, eta aurrean topatzen dugun etxe-ilara luze hori ez zeuden Matia kalearen ertzean (foto honetan garbiki froga daitekeenez); Usurbilgo bide zaharraren gainean baizik (*Gutenfelder*-ko berri ematean azaldu dugun bezala). Fabrika bera *Casa Victoria*ren aurreko tenis-landa horietantxe zegoen; eta langileen etxe-ilara, *Gutenfelder* zegoen lekuan. Berriro Lugaritz-tik hartutako foto zaharra begiratzen baduzu (III. kap.), hobeki ulertuko duzu hau guztia.

*Arbizketa*ren ondoko malkorra ezagutzen dugu aisa, jakina; gartzelarik gabe.

Brunet-en langileentzako etxe luze horri *Eguzkitza-berri* deitzen zitzaion; Lizariturry-ko langile-etxe sailari bezalaxe (1883ko Erroldan, bi *Eguzkitza* horiek agertzen dira, zein bere lekuan eta ingurunean; eta zein bere langile-mordoarekin). Badirudi, hortaz, Brunet anaiek (Jose eta Franzisko) Lizariturry- Rezola kopiatu zutela; eta beste batzutan egin zuten bezala (*Oria* xaleta, eman dezagun) euskal toponimo bati eutsi nahi izan ziotela.

Eta horra hor botila-fabrikari lotutako hiru argazki.

Alde batetik Brunet anaiek urte bertsuetan Orian eraiki zuten harigintza-fabrika; eskuin aldean bulegoen eta nagusien etxebizitza ikus daitekeelarik; hementxe goian duzu.

Eta bestetik, bi gizaseme: industriaren *antolatzailea* batetik, Jose Brunet Bermingham berbera ezkerretan; eta Amiano jauna, Anjel *Aranaldene*ko azken lekukoaren aita, eskuinetan, botila-fabrikan orain dela mende bat *langile* ari izandakoa. Gutxiegi, badakit; baina zantzu bat bederen.



Baimen-eskabidea Brunet anaiek egin zuten 1875ko irailaren 21an, Josek eta Franziskok sinatuz, eta helburua zehaztuz: "a fin de proporcionar trabajo a una porción de obreros jóvenes procedentes de la fábrica de hilados y tejidos de algodón de Lasarte".

Fabrika 1876an eraiki zen, bigarren karlistada bukatu eta berehala. Kokalekua pitin bat jasotzekotan (uholdeen arriskua beti antigutarren gainean), hondartzatik ekarri zuten hondarra, erruz; horretarako Ondarreta gainetik burni-bide hestu bat apailatu zutelarik (zabalera: 0,80 metro). *Hondarra* idatzi dugunean, *harria* ere idatz genezakeen ("trayendo todo el material por la playa", 1876ko martxoaren 8ko txostenean).





Beira-fabrikaren fama berehala zabaldu zen; 1877ko "Guide du Voyageur" batean, horrela mintzo baitzen M. L. Capistou gida- liburuaren egilea: "La gran cristalería de fundición continua de Brunet y Compañía, llamada Ondarreta, en la cual por hábiles procedimientos se hacen 6.000 botellas diarias, de múltiples formas y dimensiones" (Bustinduik 4.000 dio bere txosten teknikoetan).

Fabrika hau 1877an hasi zen lanean; eta, bertako labea maneatzeko batez ere, 45 *atzerritarrek* egiten zuten lan hor (frantsesak eta alemanak, funtsean); gainerako 35 langileak "del país" omen zirelarik. (Horietako bat, *Ebro* baserriko mutiko gaztea, Amiano izenez aurreko orrialdean ikusia).

Puskakin nagusia mogitzeko 8 H.P.tako bafore-makina bat paratu zuten, fotoetan ikus dezakegun tximenetzarra eta guzti.

Brunet-tarrek berek 1915an emandako azalpen mamitsuen arauera, "se derribó la fábrica al cabo de diez años de trabajo, por insuficiencia de consumo y por dificultad de crear obreros del país".

Fabrika hauxe izan zuten gogoan dudarik gabe tranbiaren bultzatzaileek (Jose Brunet bera barne: "como miembro de la Comisión Administrativa de la Sociedad del Tranvía"); Antigua-Pasaia ibilbideko abiapuntua ("punto cero"), fabrikaren aurreaurrean ipini baitzuten; guk *Villa Josefina* ezagutu dugun puntu horretan.

Brunet-tarrak jatorriz kataluñarrak izanik ere (Brunet eta Prat deituraz), donostiarturik agertzen ziren aspaldidanik: 1815an etorriak, Puyuelo kalean zuten beren bizilekua (47, 3. pisuan). Fernando Brunet bera, zergatik ez dakigularik, Lekeition jaio zen 1808ko Azaroaren 1an, eta bizkaitarra zen (sortzez bahintzat).

Baina bizileku nagusia Orian bide zuten: "ha fallecido en su hermosa fábrica de tejidos e hilados de algodón de Oria... Ramón Brunet" (E. E., XXIV, 1891.1; 433.).

Gartzelaren eraikuntza 1886ko Otsailaren 20an onartu zen; eta Benito Olasagasti kontratistak hartu zituen lanak bere gain. Lursaila bera ere Toribia Olasagasti-rena zen; eta hargin-maisua Domingo Ezeiza. Prosupostua gaitza zen: orduko 503.974,49 pezeta. Bidenabar esateko, Olasagasti-tarrak puntuzkoak ziren garai hartako Antiguan: obra hauetan agertzen dira; baina baita Igeldo-ko *Etume* hazkuntza-leku famatuan. Eta Lemeryk erosi zuen *Mirador* etxea (gero, ezkontzaz, Caudilla-ko Kondearen eskuetara joatekoa), *Olasagasti-ene* zen haseran, jabearen izena gordeaz.

Baina, hel diezaiogun hariari, eta begira, hortaz, 134., 135. eta 136. orrialdeak.

Hortxe, Arbizketa-ko zubi eta harrobiaren ondoan, bost txabola ageri dira. 1887an, gartzela amaitzean eraatxiak, hortxe zeuden txabola ziztrin horiek; osasun-oinarririk xumeenak ere betetzen ez zituztelarik. Lan-txabolak ziren; eta maiz topatzen ziren horrelakoak harrobien ondoan, batez ere Donostiako harresiak botatakoan.

Arbizketako bost hauen zehaztasunak baditugunez, eta datu soziologiko interesgarria izan daitezkeelakoan, hona zertzelada batzu:

"Caseta n. 1" — (izenik ere ez baitzuten). Lau aldeetatik hondarrez inguratua; gainean solairu bakar bat, gehi behereko gelak. Zabalera: 20,58 $m^2$. Hego-Mendebaldetik, Pedro M. Queheille-ren ontasuna mugakide. (Zuberotarrak ote ziren hemen eta *Andrestegi* etxean, Konportan, topatzen ditugun *kehéilla* hauek? *Kehélla* langa baita zubereraz, eta Zalgizen *Kehéilla* mordo bat bizi baita. Ez dakit).



"Caseta n. 2" — Beherea bakarrik. 20,58 $m^2$. (Kontutan har, otoi, zabalera hori: hogei metro karratu).

"Caseta n. 3" — Beherea bakarrik. 40,61 $m^2$.

"Caseta n. 4" — Beherea eta lehenengo pisua. 34,09 $m^2$.

"Caseta n. 5" — Beherea eta lehenengo pisua. 37,45 $m^2$.

Harginen errealitatea hori zen: 20, 30, 40 metro karratutan famelia osoak... Eta, jakina, ez komunik, ez urik... Paradisua!

Aldamenean, Karabineroen Kaserna (gartzela eraiki baino lehenagokoa); gartzela bota ondoren, zenbait urtez *Guardia Civil*aren kaserna gisa zutik egondakoa. (134).

Satrustegi-ren "Toki-Eder" gaztelua eraiki berria denez, 1884 ingurukotzat jo daiteke azpikaldeko argazki eder au.

Horra hor Konporta erreka izokiak harrapatzeko moduan...

Zubia Arbizketa-koa da, oso aspaldikoa. Berorren ondoan






"Barraka" baserria ("Urondo" ere deitua); gaur egun zutik oraindik. Hortxe egon zen aspaldian ur-errota mordo bat. (135).

Eskuin aldean, Keheilla eta Olasagasti-ren etxetxoak (hor duzue bat, Arbizketa-ko zubiaren ondokoa hain zuzen). Andere eta gizon hori nor ote diren ezin esan. (137).

Goiko ainguruan, Arrobi-gaineko "farola" ageri, oraindik konpondu gabe. (135).

Hortxe ditugu, berri-antxa, Satrustegiren *Toki-Eder* gaztelua (1883koa, esan dugunez); ordura arteko bere egoitza, Gipuzkoa-Plazakoa, utzi zuelarik. Tunela zabaldu gabe dago; baina gartzela hortxe ikusten dugu, zutik.

Txubillo azpian, (138) berriz, *Bostsagillene* ikus dezakegu; eta *Arroka* biak, hondartzaren ondoan. (Hirugarrena, "Arrokaberri" izenekoa, bigarren Karlistadaren ondoren eraiki zen Loretope-ren ondoan; jadanik ikusia dugunez).

Presoak 1889ko Urtarrilaren 31an aldatu ziren Ondarretara.

Hain zuzen ere gartzelaren eraikuntzan Loretope-ko harria erabiltzeko baimena lortu zuen Olasagastik 1887ko Maiatzaren

25an (kostata, hortaz, lanak hamaika hilabete lehenago hasi ziren-eta). Loretope-ko kanposantu zaharreko harria erabili izatea oso interesgarria zen, eskuragarria baitzen (eta merkea ere bai: 0,75 pta/metro kubiko).

Ez zen Loretopea-ko harria Antiguako batimenduen eraikuntzan erabili zen bakarra. Bi *Arroka* baserrien ondoko harria ere baliatu zen ausarki (gaur funikularraren geltokiaren ondokoa). Besteak beste, Jose Joakin Aristegietak erabili zuen (Antigua zaharreko etxe askoren eraikitzailea izandakoa). Honek ere, Brunetek bezala, harriaren garraioa hondartzaren gainean paratutako burnibide hestu bat erabiliz egin omen zuen, Arroketatik Matiaraino.





Eta horra hor, azkenik (ikus 138.), mende honen haseran Areitiourtena anaiak bizi ziren bi *Arrokak*: Balentin bizi zen *Arroka-aundian*, eskuin aldekoan, hondartzatik hurbilenean (Ib. 19, 1862); eta Pedro, berriz, *Arroka-Txikian*, ezker aldekoan, barrukoenean (Ib. 20; 1862). Biak, gaurko ikuslearen arauera, exkax eta xahar, itxuraz behintzat.

Eskuin aldean agertzen den *garita* hori, jakina, Ondarretako gartzelari datxekio. Beronen atzean (oraintsu arte zutik egona), karabineroen kasernatxoa, gartzelaren zainketari lotua.

Hor doan errekatxo hori Konporta-ko erreka zaharra da. Edo, zehazkiago hitz egitekotan, bai *Gorgatxo* erreka-adarrak zekartzan urak, bai *Konporta*tikako bi erreka-adarrek zekartzatenak, *Barraka* ondoko zubiaren ondoan elkartu ondoren, itsasora (hondartzara, zoritxarrez) isurtzen zituenak.

Gezurra badirudi ere, hortxe harrapatzen bide ziren txitxardinak eta izokiak, ugari, mende honen haseran, inguruetako biztanleek ahobatez segurtatu didatenez.

Hor ageri diren baserritar horiek, Areitiourtena-tarrak dirateke. Ezin ziurta.

Txubilloko mazela horretan, dena hutsik! Belar-meta batzu han- hemenka...

Funikularra 1912an estrainatu zenez gero, hor dugu fotoa datatzeko aztarna bat: 1905/1910 ingurukoa.

Handik urte gutxitara, 1912 inguruan ikus daitekeenez, Txubillok itxura hori hartu zuen. (Ikus 139. hauxe, eskuinaldean).








Egin dezagun atzera berriz; eta berrikus dezagun botila-fabrikak hutsik utzitako eskualdea. Belarra mardul hazi bide da berriro, nahiz 1900 inguruan egon (fabrika, beraz, hamar bat urte lehenago eraatxia).

Eskuinetatik ezkerretara joanez:

—Matia 8-ko etxea, eraiki berria. Trabarik gabe ikus dezakegu xaletetatik, *Casa Victoria* jaio gabe dagoelako.

—Brunet-en ukuilu bizkiak; tarte horretan agure eta atso zaharrak epel egotekotan oso erabilia, omen.

—Ukuiluaren atzean, *Isasene* eta *Iñarrene*ren atzekaldea.

—Ondoren, apal-apala, luzea, Tornero-ren lantegia.

—Gero, Brunet-en xaletak.

Botila-fabrikaren arrastorik ez bide da gelditu; eta oraindik 1894an aipatzen zen "la regata que pasa por la fábrica de los señores Brunet" delakoa, arrastorik gabe ere desagertua (belarraren urriagoa bakarrik, lehenago esan dugunez).

Baina beheko argazki zaharrean ongi ikusten da, tximenea eta guzti...

Inguru berbera, baina oraingoan Hegoaldera begiratuz.

*Gutenfelder* eraiki gabe dago oraindik, eta *Villa Nieves* eta *Villa Calbetón* jaio gabe daude. Eskuin aldeko etxeak Matian daude (Berraren 8 eta 10 dira). Tornero-ren zepillo-fabrika ikusten da erdian, baita Brunet-en ukuiluak ere, ate nagusia garbiki erreparatzen dugularik.

Estali berria den *Gorgatxo*ren aztarna somatzen da zelaian zeharka, ezkerretarantz (*canal de Igueldo* kiratsa). Fotoa, hitz batez, 1900 ingurukoa da.

Bigarrena, berriz, berriagoa da. Hor daude *Nieves* eta *Calbetón*; eta *Casa Victoriak* bere jatorrizko simetria galdua du. Tenis-landak antolatuta daude. Eta, hitz batez, 1910 inguruan hartua date fotoa.

*Ondarreta* (*Blanchonene* zaharra; Ib. 9; 1862) ziur non zegoen ez dakigu. Baina arrazoin batzu badaude, esana dudanez, *Oria* hori (1896koa) Brunet-ek eraiki zuen tokian bertan egon zela pentsatzeko. Nolanahi ere botila-fabrikaren esparruan baitzegoen (ikus Capistou-ren esalditxoa), eta *Bazterretxe* eta *Txillardegi*ren artean.

1857an *Casa de Campo* delakoen artean sailkaturik topatzen dugu; eta etxe dotorea zatekeen, beraz (*Txillardegi* edo *Sansusten*eren mailakoa, adibidez).

Hots, 1885an Azaroaren 10ko paper batean irakur dezakegunez, *Lautximeneta*ren jabea ere zen Josefa Blanchon de Calbetón- en bidez jaso zuen ontasun hori Fermin Calbetón ezagunak.



Gaur Txillida-ren eskultura dagoen muturreraino Antiguako ur kiratsak ateratzea, lan garrantzitsua izan zen Ondarreta hondartzaren hobekuntzarako (1916 inguruan bukatua).

Baina "puntu beltza" hor egon zen 1949ra arte: Ondarretako presondegia. Elurpean ere beldurgarriago agertzen delarik. (145).





Argazki berriago honetan, bide berria zabalik bide dago jadanik ("Subida del Faro" erdaraz), baino Txubillo-ko dorrea ikutu gabe oraindik.

Etxerik ez mazelan. *Betiko* etxeak ez izatekotan: *Boltsagillene* eskuinetan, Satrustegi-ren Dorrea, *Marbil-Berri*, Ezeizaren etxe-mordoaren gainean; eta gorago, pareta luze batez inguraturik, *Erroiegi* baserria hemen ez da ageri.

Besterik badirudi ere, urte mordoxka bat joan da haserako fotoetatik hauetara (Txubillo-ko mazelan topatzen dugun xaletkopuru hazkorra izan daiteke neurria).

Hondartzan ikusten den berebilak, dena dela, 1920 ingurua idarokitzen du; eta *Miramar*ko zaindariak ere data bertsua, Maria Cristina erregina 1929ra arte etorri baitzen urtero Antiguara.




SAN SEBASTIAN: MONTE IGUELDO.



Gartzelaren atzean, Ezeiza-ren etxe-mordoa; eta eskuin aldean, isolaturik, etxe altutxo bat: *Carmen-enea*, Carmen Larrea Olasagasti-ren oroitzapenetan izendatua (berau antigutarra, eta 1900koa zelarik). *Carmen-enea* zutik dago gaur.

Beronen eskuinetan *Barraka* (*Urondo* ere deitua), Konporta errekaren ertzean.

Atzerago, eskuinetan, Caudilla-ko Kondearen *Mirador* jauregia, XI. kap.an aztertzekoa. Eta beronen aurrean (gugandik begiratuz) barruki luze bat: Caudilla-ko Kondearen ukuilua.



Eta zenbait aldiz itsasoak presoen ametsa obratzeko saialdiren bat egin bazuen ere, hortxe egon zen presondegi hitsa, tenk, 1949ra arte.

Gero (1936an eta ondoko urteetan) gartzela horretan gertatutakoek aipamen luzea merezi lukete, kapitulu oso bat (*Aitzol* apaiza, adibidez, hortxe izan zen torturatua eta afusilatua). Baina 1900 hartu dugu data-ardatz; eta barkamenduz baizik ez dugu ontzat eman 1922tik aurrera azaltzea.

Bego, beraz, gartzela, horretan.



Ondarretan, ordea, are gartzela hor eraiki baino askoz lehenagotik ere, espainiar armadaren saialekua izan zen, "campo de maniobras" (R. O. 25-II-1868). Eta makina bat ekintza gertatzen zen hor, zenbait fotoren laguntzaz adieraziko dugunez.



Ezeiza-ren ondoan hartutako bi argazki horietan, adibidez, apezeria eta armada elkarturik ikusten ditugu. Azaldu beharrik ez dago, nik uste, atzeko etxe horiek non dauden. Gaur ere beren horretantxe daudenez gero.



Gartzela eskuin aldean legoke, zuhazti eder (eta erauzi) horren atzekaldean.



Oso maiz antolatu ziren Ondarretan hegazkinerakutsaldiak 1910 inguruan. (162. etab.)

Benito Loigorri bilbotarrak (1910), Emili Hanouille belgikarrak (1914), Vedrines-ek, Garros-ek, Gibert-ek (1911), eta beste aire- pilotu askok, Ondarretan hartu zuten lurra ("hondarra hartzea" hobe litzateke kasu honetan); zenbait aldiz, gehiegitan, begiraleen aurrean erori, eta bizia galdu zutelarik.

Ondarreta dena izan bide zen mendearen haseran; eta aireportua, oso bereziki. (152., 161., etabar).

Goiko argazkian gartzela ikus daiteke.

162. orrialdean, berriz, Matia-kaleko etxe ilararen teilatuak ikus daitezke (fotoa gaurko xaletetatik hartua da). Etxerik altuena na *Villa Juanita* da; *Txillardegi*ren atzekaldean, beraz.





Ondarretak parada dotoreak ezagutu zituen 1868z geroztik.



Zer gertatzen ote zen Ondarretako beste muturrean, Loretopea inguruan?

Eta horra hor bi argazki esanguratsu.

Egia zioen *Guide Joanne* ezagunak 1902ko bere argitarapenean: "au delà du tunnel, sous le Palais Royal, la plage à peu près déserte offre aussi un très bel espace aux baigneurs qui fuient la foule..."






Ezponda horretantxe jotzen zen soinua igandero igande goizetan mende honen haseran.

Miramar-ko zaindari uniformatuak ere ez dira falta (ikus behereko argazkia); inguru horietan normala izaten zenez.




Playa de Ondarreta 1.928

*Goikoan*, Satrustegi-Etorbidea dugu, itzainak *aida idi!* hoska egiten bide duelarik...

Igeldo-ko tranbia badabil, eta funikularra burutua da. 1912 urtea gainditua da, beraz. Xalet gutxi Txubilloko mazelan, dena dela. Beraz, 1915 ingurukotzat jo daiteke fotoa.

Miramar-tik hiru zaindari jaitsi dira.

Irailean ospatzen ziren zaldi-jokoetarako zelaia eta aldamioak prest bide daude.





*Beherekoan,* berriz, mementu bertsuan hartua, baina ezker alderago begiratuz.

Hiru tenis-landa ditugu begien aurrean, gaur Ondarretako xaletak (lehenengo lerrokoak) dauden lekuan. Futbol-zelaia ere, beste batzutan ikusia, hor dago, atzerago.

Oraindik urrutiago, Ezeiza-ren etxe-mordo hirukoitza ikusten dugu (1905ko Uztailaren 27an zilegiztatua; nahiz, atzerapenak direla-ta, hamar hogerleko multa emanez), gaur ere itxura horretantxe dagoelarik. Eskuinaldeko ertzean, gartzela zati bat ikus daiteke.

Ezkerretan, berriz, *Arbizketa* hasteko, tribunen atzean.

Ertzean bertan *Sagastizar* baserria (gure *Txokolatene*). eta berauen gain-gainean Campuzano-ko Kondearen *Marbil-Berri* etxea (gaur ere hortxe); eta, goraxeago, *Erroiegi* baserria, geroztik desagertua.

Foto hau, jakina, *Casa Victoria*tik hartua da.



Beherekoan, berriz, eskuinetako ertzean, *Victoria Cottage*ren izkina.

Almenara Alta-ko Dukesaren *Villa Nieves* hori 1926an desagertu zen, Urtarrilaren 15an indarrez desjabetua izan ondoren. Amilibia-Etorbide zabalduaren ardatzak *Villa Nieves* harrapatu zuen bete-betean.



Tenis landetatik Miramar aldera begiratuz, eta *tenis-larisa* hori nor den ez dakigularik, horra hor, goian, *Villa Nieves* xaleta; eta berorren ezkerretan, *Villa Calbetón* baino lehenagoko *Villa Oria* zaharra oraindik zutik (1909 inguruan, beraz). Eskuinetan, berriz, Torneroren lantegi gordailua, beste askotan aipatua.







Brunet-en xaletak, fotoetan nekez ikusgarri, plano horien arauera eraiki ziren 1896/1897 urteetan.

Lehenengoak bizi laburra izan zuen oso; berehala eraiki baitzen beraren ordez *Villa Nieves* delakoa (zaharrenak *Villa Manén* zuen izena). Eta hau ere, handik urte gutxitara, Etorbideak bete-betean harrapaturik, eraatxia izan zen 1926an.








Goiko argazkian bi xaletak daude: *Villa Calbetón* izenekoa, oraindik ere zutik dagoena (hein batez aldatua, dena dela); eta *Villa Nieves* izenekoa, Almenara Alta-ko Dukesarena.

Goiko argazkian, berriz, Tornero-ren lantegia eraatxi ondoren hartutakoan, *Villa Nieves* bakarrik agertzen da; eskuinetako hormatzar hori Bazterretxe-auzuneari dagokiolarik.

Gaurko Zumalakarregi Etorbidea, hitz batez, goiko argazkiaren erdi-erditik pasatzen da, zabalera guztia hartuz; eta *Calbetón* xaleta ertzean utziz.





Amilibia-Etorbidearen zabalketak kendu zion Matiari hanartean honek izan zuen gailentasuna. Tenis landen azkeneko aztarnak hor daude, beherean.

Kale berriaren bukaeran, jadanik bihurtua zen *Villa Concha*, *Miradore*n inguruko zuhaztiaren aurrean ikusten dugularik. (158., goian).

Beronen eskuinetan, nekez erreparagarri, Caudilla-ko Kondearen *Mirador* zaharra ikus daiteke; ondoan ukuilua duelarik.

Igeldorako aldaparen haseran, *Sagastizar* baserria (*Txokolatene* deitua), urte askotan barrena Bereziartua- tarren egoitza.

Aldapako bihurgunean, *Villa Maria Luisa* famatua; emaku-



Beherean, berriz, eta garai bertsuan, *Villa Calbetón* ikus dezakegu Satrustegi-Etorbidearen abiapuntuan; ondoren *Villa Mercedes* berriagoa ikusten dugularik.

Igeldoko aldapan, ezkerretako ertzean, Azurmendi-tarren *Txapaldegi-berri* agertzen zaigu bihurgunean.

*Txokolatene*n, eta etxe zaharrei dagokienez, *Arbizketa* dugu eskuinean; *Marbil-Berri* kaxkoaren gainean; eta *Sagastizar* bidartean. Pinadiaren ezkerretan, berriz, gainean, *Millabider* etxea (*Villa Biar*, Ib. 27; 1862). *Erroiegi*, artean, desagertua da; eta fotoa 1926 ingurukoa dela pentsa daiteke.

me-etxe ezaguna baitzen gure gazte-denboretan. Eta berorren azpian *Txapaldegi* zaharra (Ib. 28; 1862).

*Maria Luisa*ren eskuinetan, Azurmendi-tarren *Txapaldegi-berria*; eta goraxeago, ondoko bihurgunean Igeldorantz, *Martikotegi-berri* (*Martikotene*, Ib. 29; 1862), gaur egun *Rekondo-Jatetxea*ren kokagunea, esana dugunez, Bazterretxe-auzuneko *Xetien-enea*ren segida 1917z geroztik.



Hain zuzen. *Arbizketa* da, izan, eta bere apalean, Antiguak gaur atxiki duen etxerik aspaldikoenetako bat (Ib. 23; 1862). Eta hortxe ikus dezakezue, (158) behereko argazkian, erdi- erdian, *Marbil-Berri*ren azpian: ezkerretako baserri luzexka (Bereziartua-rena) *Sagastizar* da (*Txokolatene* ere deitua), aldapako bi xalet berriagoen ondokoa, 1862z geroztik eraikia; eta eskuin aldekoa, Ondarretako xaleten gainean agertzen dena (beste foto askotan urrundik ikusteko moduan agertua), *Arbizketa* da. Bien artean, eta gaur gorantz *Erregenea*ren aldera abiatzen den bidearen ezkerretan, fotoan ozta ageri, Campuzano-ren etxearekin lotutako *Marbil-Berriko Muturra* etxekoa.




*Arbizketa* 1989an bisitatu nuenean, bi Altuna-tar bizi ziren etxearen ezkerreko erdian: Joxe Mari errementaria, orduan bere 87 urteetan, gure gazte denboran hamaika aldiz txirringen konpontzaile izana; eta Agustina, berorren arreba, bi urte gazteagoa. Jatorriz *Berio-garai*koak dira Altuna-tar hauek; eta nolazpait *Erroiegi*koen senitartekoak.



Joxe Mari Altuna-ren esanetara "Antiguako sagardorik onena" saltzen zen Arbizketan mende honen hogeikadan. Honek ere, beste batzuk bezala, Konporta errekan, eta *Barraka*ren ondoan, txitxardinak erruz harrapatzen zirela segurtatu dit; eta gero *Donostian saltzen....* Sinetsi egin beharko!

Mende haseran, amaitzeko, Ondarreta horretantxe ospatu ohi ziren, uda-bukaeran, Donostiako zaldisariketak: jauzi, txapelketa hipiko, eta antzekoak; 1912ko Irailean antolatu zen horren plegukoak: "En el campo de Ondarreta, contiguo a la playa de este nombre, se celebra el mes de Septiembre de cada año un concurso hípico".

Baina hau ezaguna denez, eta beste liburu askotan ausarki azaldua izan denez, horretan utziko dugu.




1
2
14
3
4
5












A "novidades"
Bthoygom

















# VII. TXILLARDEGI

Goazen, beraz, *Txillardegi* bila.

Neure gaitzizena orain dela berrogei bat urte hautatu nuenez geroztik, behin eta berriz frogatu ahal izan dut *herri-oroimen* edo "memoria histórica" delako hori zein den ahula... Oso-oso jende gutxi topatu baitut, are antigutarren artean ere (gazteen artean batez ere) nire gaitzizenaren gakoa ulerbiderik eskaintzeko modukorik.

Hala ere, hortxe zegoen *Txillardegi*, Matia-Sukia izkinan; eta *Chillardegui* letreroa ere, oso oker ez banago, irakurgarri egon da urtetan Matia kaleko atarian.

Ez dut nik gaitzizen horren hautaketan ohitura berririk hasi. Euskal usadio zaharraren arauera (baita gaur berton ere baserrigiroko jendeen artean dagoen ohituraren arauera), sorlekuaren izena nuen hautatu, besterik gabe. Jaiotetxearen izena nagusitu ohi baitzaio normalean senitarte-deiturari.

Toponimia nagusia Euskal Herrian, antroponimo berriagoen gainetik.




Villa Juanita
Chillardegui
Cuartel de Carabineros
Artes Graficas
63
O
M
L
Ñ
N
52
60
CALLE DE MATIA
Carretera a Ayete
ESCALA 1:1000

Liburu honetan barrena egiazta daitekeenez, *Gutenfelder* etxe-mordoari zegokion leku-izena, *Txillardegi* da (Sukia kalea eta etxeak, "en pertenecidos de Chillardegui" egin ziren). Iturriatarrak Antiguan finkatu baino askoz lehenago ere, izen hori daraman *jauregia* (beti "casa de campo" dotoreekin sailkatua), Parte Zaharreko Gaskue-tarren eskuetan zegoenean ere, hortxe baitzegoen, zutik, eta Antiguaren erdi-erdian.

Egia esan, *Beliene*, *Zubiaurre*, *Isasene*, *Bazterretxe*, *Ondarreta* bera (baina honek beste balio semantiko bat zeukan), *Gutenfelder*en ondoan zeuden. Egia da. Baina nik, fameli-bidez, *etxe ondoan zegoela-ta*, *Txillardegi* besterik ez nuen entzun neure gaztaroan, eta ikerketa hauetan abiatu baino lehenago. Gainerako leku-izenak ez ziren gurean erabiltzen (*Txantxerreka* ez bada!).

Are gutxiago Matia haserako kaleko leku-izenak. Osoki galdurik zeuden: Gurrutxaga-tarrek berek ez zekiten, oso oker ez banago, beren arbasoak bizi izan ziren etxea *Isasene* zenik ere. *Sutegizar*, *Gorgatxo*, *Aranaldene*, suntsituak zeuden arrunt antigutarren auzo-oroimenean; nahiz etxe horien oroitzapena, are irudia ere, lortzea eta aurkeztea posible izan bazait ere.

Eta ohar bat (gero errepikatzekoa): ni ez naiz *Txillardegi*koa, eta Alvarez-tarrak ere ez. *Txillardegi* jauregia Gaskue-tarrei zegokien; eta Elizondo-tik etorritako Iturria-tarrei gero. *Gutenfelder Txillardegi*ren *ondo-ondoan* zegoen. Hori bai.

Has gaitezen plano hotzetatik. (Ikus 168.orr.).

Honetatik, adibidez (1920 ingurukoa).

Eta hor duzue batimendu nagusien kokapena: *Villa Juanita*, *Txillardegi*, *Gutenfelder* (jadanik erdibitua). Eta Matia kaleko etxeak; normalean garai hartan letra batez ezagutuak.

*Villa Arcadia*ren arrastorik ez dago oraindik.

Hona hemen aurreko planoaren segida; eta bitara: espazioan



(Benta-Berri aldeko eskualdeak ikusten direlako); eta denboran (plano hau, 1925koa, bestea baino *gazteagoa* delako). Antigutar zaharrek horrelaxe ezagutu zuten auzoa beren gaztaroan.

Aurkibide hau erantsiko diogu:

1- Usurbil-go bide zaharra: gainekoa, Ibaeta; beherekoa, Lugaritz. Usurbil-go bide zaharrari *Aizkorri* kalea deritzo gaur.

2- *Txalupagillene.*

3- Urte askotan (1927ra arte) Posso gorontza-egileen bizileku izandako *Villa Rosa* (gaur desagertua, jakina).

4- *Txillardegi* etxea.

5- Laborda-ren (gero Marcellán-en) *Casa Rosario*, urte askotan Sarasola-tarren egoitza izana (G. Bujandaren osabarena).

6- Sukia-ren Matia 18-ko etxea.

7- *Villa María* (plano hau egiterakoan, *Gurutze Gorria*ren sendaleku bihurtua).

8- Sopelarte-ren etxea, oso-oso *Villa Maria*ren antzekoa.

9- Dougier-en ispilu-fabrika (gero *Eskolta*ra jaitsia).

7 eta 8ren artean (alegia, *María* eta *Manolita*ren artean), eraiki-berria, Ezenarro-ren *Villa Arcadia*.

Goazen aurrerago.

10- *Villa Flora*, hau ere Braulio Iturriak eraikia, eta *Txillardegi-Txiki* lursailean (*Txillardegi*ren eremua, esana dugunez, Matia *berriaz* bi alderdietan baitzegoen).

11- Gaur *Sansustene-bidea* deritzon bideska, G. Terán-en *Sansustene*, Munoa-ren *Rafaelene*, eta Iturria-ren *Txillardegi*-ren artean.

12- *Benta Berri* etxea (*Benta* aspaldiko denboretan; Ib. 14; 1862), gero *Xexene* deitua; Matia-kalearen bukaeran zegoen etxe luze txapala. Ibaeta partean, bai; muga Usurbil-go bide zaharra delako.

*Villa Juanita*, zergatik ez dakigularik, ez da plano horretan agertzen (baina arestian ikusitakoan, bai). Hor zegoen halere mende haseratik; *Txillardegi*ri Txubillo-rako bista oztopatzen ziolarik.

"Casa en proyecto" hori, Primitivo Caballero-ren *Villa Clara* da.

Eta hona hemen antigutar zaharrek, zuhaitz artean bederen, ezagutu duten *Txillardegi* etxea: *berria* nolazpait esateko, Braulio Iturriak 1888an, Donostiara bederatzi urte lehenago Puyuelo kaleko Maria Luisa Gaskue-rekin ezkondu ondoren osatua edo berritua..

Kanpoaldea gorriska iluna omen zuen, eta leihoak zuri. Eta hortxe froga daitekeenez, hondartzaren ertzean zegoen joan den mendearen bukaeran.

Koka dezagun etxea bere inguramenduan.

Guk begiratzen dugun alderditik, *Txillardegi*k ez zuen ezer: zuzenean hondartzara (gaur xaletak dauden eskualdera, beraz), *Villa Juanita* oraindik eraiki gabe zegoelako.





Hondartza aldetik hondarmuno batzu agertzen dira. Hots, Maria Aristegieta andereak (Portas-en alargunak) 1989an elkarrizketatu nuenean, hondarmuno horietantxe jostatu izana zehazki gogoratzen zela aitortu zidan emozio handiz (Maria Aristegieta 1895koa izanik, 94 urte zituen hori argitu zidanean).

Erdizka besterik ez bada ere, *Txillardegi* etxeak bazeukan guk begiratzen dugun alderdi honetara arkupe hirukoitz bat; eta fotoan soma daitekeela esango genuke (aurrerakoan hobeki ikusiko dugu). Hipotesi gisa, esana dudanez, "Mitxeltorena"ren zantzua bide da...

Antzeman egin daiteke argazkian, era berean, Usurbil-go bide zaharra (guk "el callejón" deitzen genuena), Matia kaleko etxeen atzekaldean.

Bide zahar honek fotoaren erdi-erdian Hegoaldera jotzen zuenean, eskuin aldean uzten zuen *Txillardegi,* Matiaz bestaldetik gora eginez (Matia-rik ez zegoen 1847ra arte: ez ahantz).

Sukia-kalea zabaldu gabe dago oraindik.

Brunet-en botila-fabrika desagerturik dago osoki (aterpe luzea ikustean, dena dela, haren arrastoa ote den pentsatzeko arrazoinak eskas ez badira ere). Brunet-en ukuilua, adibidez, eta ongi ikusi dugunez, 1917ra arte egon zen zutik (hogei-ta hamar bat urtez, beraz).

Goazen 171. orrialde honetara.

Garai bertsuan egina date beste argazki hau; eta horregatik, nahiz-eta oso urrutitik hartua izan, eta zehaztasun urrikoa, hona ekartzea balio duela pentsatu dugu.

Aurre-aurrean ageri den basoa, *Mirador* etxea (Ib. 17; 1862) inguratzen zuena da (Caudilla-ko Kondearena, alegia). Gaur ere zuhaitz horietako mordo bat, eder eta lerden, lekuko gisa agertzen zaigu eskualdearen birmoldaketa errabiatuan.

Zuhaztiaren atzean, Matia kaleko etxe berak antzeman dai-

tezke. *Txillardegi* etxea (bakar bakarrik, *Villa Juanita*ren laguntasunik gabe) hormatzar zuriaren aurrean nabarmentzen da.

Eskuin alderago, lau aldetako teilatu batez horniturik, *Villa Rosa* ikus dezakegu. Ondokoa *Txalupagillene* da (hobeki ikustekoa).

Hondartza aldera, ilaran, *Manen* xaleta asimetrikoa eskuinetan (gero *Villa Nieves* eraikiko den lekuan), Brunet-en *Oria* xaleta, eta *Victoria Cottage* xaleta. Azkena mementu hartan.

Gaskue-tarren udateko *Txillardegi* zaharrak (1888 baino lehenagokoak) itxura hau zeukan (berrikus III. Kap.).





Bi tximene zituen Matia aldera (errepide berriaren aldera esatea egokiago litzateke); eta lau aldetako teilatu batez estalia zen. Bazeukan, itxura denez, euskal etxe dotore zaharren kutsua; eta handikotea zen.

Lugaritz alderako aldapa berria (Heriz izendapena gero ezarri zitzaion), *Txillardegi*ren etxaurretik beretik abiatzen zen.

Ikus daitekeenez, ondo-ondoan zeukan Brunet-en fabrikatzarra. Atzekaldeko estalpe luze eta ireki gabe, eraaxketakoan (1890 inguruan gertatua) *salbatu* ote zen pentsa daiteke (jadanik idaroki dugunez); nahiz xehetasun honek garrantzirik ez izan gure kondairarekiko.

Nolanahi ere, bi aldiz zaurituta gertatu ondoren eta bigarren karlistada 1876an amaituta gero, Braulio Iturriak *Txillardegi*ra ezkontzea erabaki zuen (Ib. 10; 1862).



Hemendik aurrera nekez ikusi ahal izango dugu *Txillardegi* jauregia, garbiki eta bere osoan; besteak beste Igeldo aldetik *Villa Juanitak* bista oztopatuko digulako (eskuin aldean agertzen den etxetzar luzea da). (Ikus 172. orr.).

Behereko argazkian ere (1911-1912 ingurukoa), Ondarretako futbol-zelaitik hartua, bigarren futbolariaren buruak hondatzen digu arkupearen irudia; etxeak hiru arku izan beharrean, laugarren bat ere badaukala idarokitzen baitu tatxa borobil beltz horrek...

Eskuin aldean, esan beharrik ez, *Villa Juanita* dugu; eta ezker aldean ordurako C.A.M.en sukurtsala zen *Villa Maria* zaharra (Loñok eraikitakoa).

Bi batimenduon artean, tximenea galant bat: erret-ukuiluetan zegoen bafore-zentralarena (Txoldauneren ondoan eraikia, ikusiko dugunez).

Zuhaitzak hazi gabe daude oraindik (irakurleak berehala egiaztatuko duenez).

Eskuinaldeko ertzean, azkenik, *Esclavas* izeneko seroren *Villa Juanita*, kondaira xelebrekoa, ikusiko dugunez.







Beheko argazkian, eskuin aldean ikus daiteke *Txillardegi* jauregia. Ezkerretatik eskuinetara joaki: *Casa Victoria*, *Casa Rosario* eta *Txillardegi* ikus ditzakegu ilaran.

Goikoan, berriz, Marcellán-en *Rosario* dago ezkerretan; atzekaldetik Sukia-ren Matia 18-ko etxea ikus daitekeelarik. Eta eskuinetan, hesolen atzetik, *Txillardegi* etxea.



Hain zuzen ere, 1921an hartutako argazki honetan ongi konpreni daiteke kristalezko miradore hori nolakoa zen eta non zegoen. Orain guk Matia aldera begiratzen dugu; eta aterpe horren atzean *Villa Manolita* aurkituko genuke.

Lau zutaberen gainean erantsitako miradorea bost urte lehenago eraiki zen (1916ko Urriaren 31ko planoak aurkitu ditugu artxiboan), eta eskuin aldean ikus dezakegu ongi.

*Txillardegi* etxeak, beraz, miradore hau zeukan Hegoaldera, Matia aldera; eta Iparraldera, *Villa Juanita*ren aldera, arkupe estali bat. Arku hauek borobilak ziren, foto batzutan ikus daitekeenez; eta haseratik zeuden hor, Amilibia Etorbidearen eta gerozko xaleten eskualdean, ezer ez zegoen garaiaz geroztik.

Lekua aproposa zen oso.

Gezurra dirudien arren hauxe zen *Txillardegi*eneko parkea, Matia kalearen erditsuan... Sinesten lanak, nik uste.



Hortxe eraiki dute gaur Sukia-kaletik sartzen den *parking* pribatu hori... eta zenbait etxe.

*Txillardegi* etxea, esan digutenez, gorrizta iluna zen, zuhaztiak berak ilunago egina; eta nekez ikusten zen kanpotik. Inguru guztian, are Matia kalean ere, pareta batez inguraturik zegoen.

Matia aldeko pareta luze horren gainetik begira egoten omen zen maiz Maria Luisa Gaskue etxeko anderea. Paretaren gainean burdinazko berja bat zegoen; eta han paratzen omen zen Maria Luisa, Matia-kaleko gorabeherak *de visu* ikusten.

Maria Luisa Gaskue 1917an hil zen; ordurako, dena dela, alargundua zelarik. Horregatik nekeza izan zaigu Braulio zaharraren argazkirik aurkeztu ahal izatea (bat baduzu, *Txillardegi* barruan).



*Txillardegi* etxea *odol-ospitale* bihurtu zen Marroka-ko gerla-garaian (1921-1922).

Eta honelaxe geratu zen urte horietan Matia alderako miradore luzea. (Begira, berriro, 175. orr.).

Ezkerretan zabalik dagoen leiho horretatik begiratuz gero, Matia kaleko *Villa Manolita* ikusiko genukeen; baita Usurbil-go bide zaharraren aldapa ere, izkinan Dougier-en ispilu-fabrika hirukoitza topatuz.

Ospitale-ohearen aldetik harantz begiratuz gero, berriz, zuhaitz artean, Posso-ren *Villa Rosa* gorrairea ikusiko genuke; eta haratago eta lurperatuago, horrela esan badaiteke, *Txalupagillene* jendetsua (Ib. 11; 1862).

Geletan ohe mordo bat jarri zen, argazkian ikus daitekeenez; eta horretara 105 soldadu zauritu (ehun eta bost, bai) *ostatatu* zituzten *Txillardegi*enean; Goiburu sendagilearen agindupean Marrokon jasandako zauriak sendatzeko.

Marroko-ko gerlak lanak eman baitzizkion Espainiari XX. mendeko bigarren hamarkadan (lehenago ere bai, egia esan, nahiz ez horren larriak). Askoz ere beranduago konturatu garenez, Rif-mendialdeko berebertarrek gataska gorria baitzeramaten Espainiaren kontra (baina baita Marroko-rekiko libro izateko ere). Abd-el-Krim-en erasoek 1922 inguruan iritsi zuten beren gailurra.

*Gurutze Gorriak Villa Maria*n antolatutako sendalekuan tokirik ez, behar berriei erantzuteko. Eta *Txillardegi* etxea eskaini zuten Iturria-Gurrutxaga-tarrek. Horrela sortu zen 1921 urtean *Hospital Chillardegui* zeritzona; batez ere soldadu zaurituen egoitza eta atseden-leku bihurtua.





Tortosa medikua. *Txillardegi* ikusaldietarako ordutegia ere irakur daiteke...

Beherekoan, berriz, Maria Cristina erregina irteten ari da *Villa Maria*tik. Barrukalderago Egaña sendagilea ikus dezakegu, *Gurutze Gorria*ren ospitaleko burua.

*Villa Maria*ren eskuin aldean ikusten den etxea, eraiki berria da; eta *Villa Arcadia* deritzo. Gero mintzatuko honetaz.

Maria Cristinak berak ekarri ohi zituen zaurituak bere kotxean. 1921ko Irailaren 22an, esate baterako, *Txillardegi*raino eraman zituen berarekin; horretara antigutarren onginahia irabaziz. Matia kale-

Hain zuzen ere, Marroko-ko gerra-garaian *Txillardegi* odol-ospitale bihurtu zelako, errege eta erregina joaten ziren hara, bertako soldadu zaurituak bisitatzera. Eta bisitaldi horien lekuko dira argazki hauek.

Goikoan Alfonso XIII Espainiako errege ikusten dugu, *Txillardegi*tik Matia aldera irteten. Laguntzen duten hiru gizaseme horiek *Gurutze Gorri*ko sendagileak ziren orduan.

Beroki luzea eta makila bat ezkerretako eskuan daramana, Egaña medikua da. Beronen eskuinetan, portaletik ozta irteten ari, Luis Aiestaran medikua dugu. Eta ezkerretan, kapeloari eskuaz eutsiz,



tik pasatzen zenean, horretara, bihotzetik jaulkitzen omen ziren ezpaloietan antigutarren *Viva la Reina* oihu ozenak.

Eta moraviar erreginak babide zuen Euskal Herriarekiko jaiera berezia; eta *Miramar*ekiko bereziki (urtero bospasei hilabete hortxe pasatzen baitzuen).

Areago Aieteko jauregian bizi zen udetan, arrastirian, "se dedicaba al estudio del vascuence" (E. E., 1887-II, XVII. alean).

Argazki hau elizaren aurrekaldean egina da.

Eskuin aldeko etxea Matia 2 da, Satrustegi Etorbidearen izkinakoa.

Matia 6, ezkerretan legokeena, ez da hor agiri.

Matia 4, berriz (*Isasene-Iñarrene* bikotearen ordezkoa) eraiki gabe dago oraindik.

Atzean, berriz, *Villa Nieves* ikusten da garbiki.

Matia 2 (Emilio Navascués-ek eraiki zuen etxea) 1920ko Urtarrilaren 16koa denez gero, Afrikako gerlako garaian gaudela pentsa daiteke; eta erregina beharbada zaurituak ikustetik datorrela.

Bere ondotik (normalean gertatzen zenaren arauera) Monte Mauro-ko Markesa, bere bizar-kokotz bereziarekin.





Txillardegiko odol-ospitalean zeuden zaurituak bisitatzen zituen Maria Cristina erreginak; hau, irakurleak dakikeenez, *Villa Maria*rekiko aurrez aurrean zegoelako.,

Eskailera horretatik *Villa Rosa* ikusten zen, eta haratago *Txalupagillene* baserria.

Bi makuluak erakusten dituen soldaduaren gainean, berriz, arestian ikusi dugun miradore luzea ikusten da.

Eta ondoko orrialdean, beste bi argazki *Txillardegi*ren barruan.

Egun bereko ospakizuna ikusten dukegu.

Goiko argazkian Sor Pilar dugu erdian, exerita; bere eskuinetan erregina eta bere ezkerretan Luisa Lizariturry Rezola-ko anderea (berriki hil den *Julianategi*eneko Vivanco-ren alargunaren ama). Sor Pilar-en atzean Tortosa sendagilea. Serora zuriaren ondoan, Goiburu sendagilea.

Beherekoan ere, erreginaren atzean, seroraren ondoan Tortosa medikua; eta eskuin alderago, Aiestaran doktorea. Ezkerretan, berriz, Jose Goiburu doktorea. (Goiburu-tar anai-arrebak, dena esateko, oso ezagunak izan ziren Donostian ondoko urteetan. Nork ez du gogoan "Tintorería de París"denda xarmanta? Baina gutxiagok dakite Goiburu medikuaren "Staub" pianoak, hemen azalduko ez ditudan arrazoinegatik, Matia 6-ko Enparantza- tarren etxean egin zituela bere azken egunak...).







Eta hona hemen *Txillardegi*ren bi ikuspegi.

Andere horiek eta eskailera gainean eserita dagoen *refereea* nor diren ez dakigu. Argazkia 1911-koa da, eta Iturria-ren etxea ongi ikusten da. Ezkerretakoa, jakina, Marcellán-en *Casa Rosario* da; eta eskuinetakoa, *Villa Juanita*.

185.ko argazkian, berriz, *Txillardegi*eneko eskailera ikus dezakegu, bertan zauritu mordoska bat ageri. Erdian dagoen serora, exerita, Sor Pilar Romeu da; antigutarren artean ongi oroitua. Eta 1921 inguruan gaude (goiko fotoaz geroztik, hamar urte).

Eta barka bekit ondoko solasaldia.

Benta-Berri-tik haranzko *Politarena-Villa Juanita* xalet famatuak eta *Txillardegi*ren ondoko honek ezelako loturarik ote duenez ezin esan. Baina antigutar zaharrek azaldu didatenez, ikusten duzuen *Villa Juanita* horretan ere (*Politarena*, *Flora*, *Pilar*, Igeldo aldapako *Maria Luisa*, famatuak ziren gure gaztaroan; eta 1947an Perón-ek bidalitako *Crucero Argentina*ko mariñel hark garbiki bere galderaz argitu zigunaz: "dónde se echa el clavito en este barrio...?). *Juanita* horretan ere, esaten nuen, putak egon ziren.

Eta Iturria jaunak; emakume haiek eguzkitan larru gorri-gorritan etzan ohi zirelako, hain zuzen, sekulako paretatzarra eraiki omen zuen burdinazko xaflak elkargainduz; etxeko gazteek lotsagarrikeria hura begira ez zezaten. Baina metalezko pareta horren irudirik ezin hona ekar...

Geroago bihurtu zen etxea *Esclavas de Cristo Rey* seroren komentu eta egoitza (1928 inguruan); kontu zahar hauen oroitzapena gaur egun erabat galdua delarik.

Etxea, nolanahi ere, mende haserako urteetan, langile-etxea izan zen.

Eta sail honi amaiera emateko, horra hor jende mordo bat *Txillardegi* etxearen aurrean. (Ikus 185. orr.).

Batzu ezagutzen ditugu jadanik, erreginaz gain (ezkerretan hau, exerita). Erdian zutik Jose Goiburu osagilea, 1921 eta 1922an Gurutze Gorri-ko buru egondakoa.

Apaiza Juan Jose Lapeira da, Antiguako parrokiko erretorea (bestetan ere aipatua eta ikusia liburu honetan barrena). Erreginaren atzean serora-jazkeraz ageri den anderea, Carmen Resines da. Ondoren Luzunariz anderea (Altube-ren alarguna), eta Maria Londaiz Gaiytan de Aiala-koa.

Handik urte batzutara, berrogeitan zehazkiago, ongi ikus dezakegu Sor Pilar serora, Jose Maria Makibar jaunaren ondoan; biak urte askotan Antigua-ko *Gurutze Gorri*ko agintari izanak. (Ikus 186. orr.).

Eta banoa orain aitor batzu egitera...

Liburu hau egitera deliberata nintzenean, errezeloz eta herabe aurkeztu nintzen halako batez (1988ko Irailaren 28an zehatzagoa izatekotan) Pablo Iturria Sorozabal ezagutzera. Amaran bizi zela jakin nuen, Antso Jakitunaren Etorbidean; ia-ia ni bizi izandako etxearen aurrean. Eta ez nekien... Antonio Mendizabal psikiatra eta kondaira-ezagutzaile sakonak bideratu ninduen haraino. Zaharragoa zenez, Mabel Iturria Sorozabal-engana ere jo



Pablo Iturriak ez omen zekien gauza handirik Antiguako bere etxeaz. Bera oso txikia zenean saldu zela, eta geroago eraatxia izan zela; baina ez fotorik ez debrurik, omen. Etsipenez ohartu nintzen liburua mamitzekotan espero nituen esperantzak oro suntsitzen zirela. *Txillardegi* ospitale izandako garaian erreginarekin eta soldaduekin egindako fotoen oroitzapena bazeukala. Baina aspaldiko kontuak zirela, eta ez zekiela ezer. Gero lokalizatu nituen hemen ikusi dituzunak, C. A. M.en Fototekan; mila saio alfer egin ondoren. 600.000 argazkiren artean hauetxek aurkitzea ez baitzen erraza...

nuen (arrebarengana alegia), Zubieta kaleko bere etxera. Baina honek "muy despistada" omen delakoan, Pablo-rengana bidali ninduen berriro...

Eta, Pablo Iturria Sorozabal ikusi orduko, ez bat eta ez bi, hitz hauetxek esan nizkion agurtzerakoan: "Hoy tengo la impresión de ser un impostor. Porque el verdadero *Txillardegi* eres tú, y no yo". Pablo Iturriak, 68 urte orduan, irribarrez begiratu ninduen; eta oso atseginez erantzun zituen ene galderak (eta lañoki lagundu nau gero ere liburu honen prestakuntzan). Enkas, ez nion tutik esan Ignazio Iturria eta Federico Alvarez zinegotzien artean gertatutako istiluez...






37/3



Elizondo-ko *Mitxeltone*ko Iturria-tarrengana joko ote nuen? (gero ulertu dut Pablo Iturria bera dela *Mitxeltonea*ko nagusia). Baliteke, pentsatu nuen, *Txillardegi*ren kondaira, izkutukiz eta lañoz murgildurik uztea hoberena izatea... Eta, bolara batez, *Txillardegi*ren kondaira (egiazkoa hau, nahiz ezezaguna) *Leturia* eta *Exkixu*ren istorien parean lagatzea bururatu zitzaidan, alegiazko izakien esparru ilunean...

Baina 1990ko Uztailean, Elizondo-ko Pello Mari Esarte kondairalariak azkarturik, *Mitxeltone*ra agertu nintzen. Iturria semeak errezebitu ninduen, apaiza denak; eta kapitulu hau borobiltzeko esperantzak erabat zuzpertu ziren nigan. Errekaren ondoko nafartar etxe dotore handi hartan (inguru osoa mugatzen duen arkupe-ilara barruko esparruan) kondaira eta oroitzapen kutsua baitzerion denari.

Pablo Iturriak orduan Donostiatik argazki historiko hauek liburu honetan erabiltzeko baimena eman zuen; eta horrela osatu ahal izan dut atal hau.

Eta hortxe dauzkazue Antiguan ospetsu izan ziren bi elizondoar: Braulio Iturria Allende-salazar ezkerretan; eta Meliton, anaia, eskuinetan. Ignazio Iturria Gaskueren aita eta osaba, beraz. (Ikus 184. orr.).

Lehenengoa, besteak beste, *Txillardegi*ren jabea; eta, jakina, etxe zaharrari zetxezkion lursail guztiena. Bigarrena, berriz, Matia L (= 12) etxearen jabea.

Paper zaharretan irakurri dugunez, Braulio Iturria "se casó a Chillardegui"; etxe honi Ibaeta-ko *10* zenbakia zegokiolarik.

Gaskue-tarrak, artean, Puyuelo 22an bizi ziren (Fermin Calbetón gure hizkeran), Plaza Berrian; eta udan joaten ziren Antiguara (Antigua "beste herri bat" zelakoan...).

Maria Luisa Gaskue, Jabier Gaskue-ren alaba zen.

Braulio Iturria, antigutar zaharrek esan didatenez, erikorra zen, osasunez ahul xamarra; eta honegatik beharbada Maria Luisa Gaskuek agintzen omen zuen etxe hartan. *Txillardegi*ri buruz, hitz batez, Axularrek bezala esan bide genezake guk ere: "no zen to". Omen, kontuz!.



Braulio Iturria elizondoarrak, *Txillardegi*-ren eraikitzaileak, Zalduendo jeneralaren agindupean egin zuen bigarren karlistada (Antiguarekin eta Gaskue-tarrekin lotu baino lehenago, beraz); eta bi aldiz zauritu zuten.

Hots, Zalduendo jenerala hortxe duzue, erdian exerita.

Argazkiak zertzelada batzu erastea merezi du.

Zutik, ezkerretatik eskuinetara: Aldatz alferez laguntzailea ikusten dugu aurrenik, besoa enbor edo delako horren gainean pausatua. Ondorengoa Martin koronel-ordea da. Gero Mendoza kapellaua ikus dezakegu, militar jantzia ez daraman bakarra; eta zeharo eskuinetan Benac komisarioa.

Exerita, berriz: ezkerretan, Zalduendo kadetea (zaharraren iloba ote?); eta, eskuin aldean, Zalduendo tenientea (lehenengoaren anaia edo?).

Zalduendo jeneralaren senitartea nagusi, beraz, argazki mamitsu horretan.



Karlos Setimo (eta Margarita, jakina, beronen lehenengo emaztea) famatuak ziren Euskal Herrian XIX. mendeko bukaeran. Hego Euskal Herriko errege *faktikoa* izan zen goiko fotoan agertzen den jaun hori; eta Braulio Iturriaren buruzagi nagusia ere bai.

Hots, karlista-mordo haietako bat ikus dezakegu behereko argazkian. Eta Braulio Iturria elizondoarra ere hortxe dugu, txapela zuriarekin (ez gorriarekin, kasu!), zutik ezkerretan ikusten dugun azkenekoa.

Karlos Setimo famatua 1909ko Uztailaren 18an hil zen Italian, Varesen; *Don Jaime* bere semea ondokotzat izendatuz.

Karlistadak, are bigarrena ere, urrunegi gelditu zaizkigu gaur. Gerrillari horiek ikusirik, ezintasunean gertatzen gara, nolazpait esateko: ez dugu inor ezagutzen. Nire adinekoak gazte zirenean (ginenean, nahi baduzu) ez zen berdin gertatzen.

1945 inguruan, adibidez, Enparantza-tarrek Ondarretan, *Villa Calbeton*en parean, zeukaten gasolina-postuan elkartzen ginenean, hamaika bider izan genuen parada *Asilo Matia*tik pasean irteten ziren karlista-ohi zaharrekin mintzatzeko. Guk zirikatu egiten genituen senton haiek (beren 85 urteetan orduan), eta pasadizu hau eta bestea kondatzen ziguten, bertan egondako lekukoek ez bestek erants dezaketen xarmaz dena azalduz.





V. Kap.an ere somatu dugun lotura zuzen hori, jakina, etena da jadanik. Baina xehetasun mordo batek erakusten digu galeraren berri xamarra. Bat barkatuko didazue.

Bigarren karlistada 1876an amaitu zenean, ihes egin nahi zuen Lizarraga jeneralak (Gipuzkoako karlisten buru ofiziala izandakoak eta, hortaz, Aita Santa-Kruz-en etsai porrokatuak). Muga pasatzeko nola egin; eta Dantxaria inguruko bidexka bat hautaturik, makila bat hartu, baserritar jantzi, eta neskatila gazte bat paratu du bere besoetan. Eta abiatu da gure Lizarraga ihesi... Hots, neskatila hura Telesforo eta Isidro-ren ama zen; eta hau Telesforo Montzonek berak kondaturik dakit...

Areago, ordea: andere hura frankismo osoan barrena bizi izan zen Donibane Lohitzune-ko kaiaren ondoan, gu han geundelarik; eta Lizarraga jenerala, bere aldetik, oso gazte zenean, karlistekin joan zen mendira, iskiluak eskutan, lehenengo karlistadakoan eta Zumalakarregiren agindupean...

Telesforo-rekin 1970an buruz buru bost hilabetez Nogaron deserriturik egon nintzenean ikasi nion kondaira-atal mamitsu hori. Kondaira huts eta hotz bihurtu diren gertakariok, oroitzapen bizi gisa iraun dute oraintsu arte...

Baina itzul gaitezen geure istoriara.

Eta garaia da, bai horixe, Iturria-Gaskue-tarrak irakurleari aurkezteko. (Ikus 188. orr.).

Eta hortxe dituzue, jadanik batzutan ikusia dugun eskailera berean.

Hor ditugu, erdi-erdian dotore-dotore, Ana Iturria Gaskue (Braulio-ren alaba), Luis Gurrutxaga osagilearekin ezkondu zen egunean. (Hain zuzen ere, bikote hauxe bizi zen *Txillardegi*enean Afrikako gerla gertatu, eta etxea odol-ospitale bihurtu zenean).

Ezkerretan exerita agertzen den bigotedun gaztea, handik urte batzutara Donostia-ko alkate-ordea (eta *Gutenfelder*eneko Federico Alvarez-en etsai porrokatua) izango zen Ignazio Iturria Gaskue da. Elizondoarra zen hau ere (*Mitxeltone*koa, 1880), eta ezkontzen zen emaztegaiaren anaia (Ana 1888-koa zen, zortzi urtez gazteagoa, beraz, eta Donostian jaioa, *Txillardegi*enean bertan seguru aski). Erremontezale famatuak, erruz lanegin zuen Donostian eta Elizondon pelotazaletasuna bultzatzeko (*Txillardegi* barruan, Sukia- Matia izkinan, frontoin bat eraiki zuen; Donostiatik etortzen omen zen pelotari askok erabilia).

Ondoan duena, sonbrailu dotorez jantzia, Antonio Iturria Allende-Salazar da (Braulio eta Meliton-en anaia). Nafartarra ere bai, jakina.

Hurrengoa, eskuin alderantz beti, Rafael Iturria Gaskue da (hau ere donostiarra, antigutarra preseski, 1890koa); ondoko urteetan Antiguako gorabehera batzutan ibilia.

Eskuinean, azkenik, Maria Luisa Gaskue Balzola (donostiarra, Puyuelo kalekoa, 1845ko Urriaren 8an jaioa), Braulio-ren emaztea, beraz. Hauxe zen, izan, *Txillardegi*ren jatorrizko jabea, etxea gurasoengandik jaso baitzuen.

Erdian, esan beharrik ez, ezkontideak: Ana Iturria eta Luis Gurrutxaga osagilea; jadanik esan dugunez.

Rafael Iturria hori, *Villa Arcadia*ren eraikuntzakoan azaldu ziren eztabaidetan, Nikomedes Ezenarroren alde agertu zen; oso garrantzitsua zena. Rafael Iturria hau, bestalde, pospolu-fabrikaren jabe eta sortzaile izandako Felipe Eztenaga-ren iloba batekin (Mercedes Rodriguez Eztenaga-rekin) ezkondu zen; eta Matia 6ko etxean bizi zen, hain zuzen.

Sor Manuela, berriz, "tia Manolita" *Txillardegi*koen hizkeraz, elizondoarra (1882ko Apirilaren 22an jaioa), *Esklaben* komentuan (*Villa Juanita*enean) bizi izan zen monja oso berandu arte (1960 ingurura arte); eta beronen ohoretan izendatu bide zen hartara Matia-ko *Manolita* xaleta. Seguru asko, belo zurien artean kantari somatu eta entzun dut nik gaztetan, berrogeietan, Agustin Martikorena eta Tomas Arteaga apaiz *madarikatu*en mezetan beretter gisa laguntzera joaten nintzenean... Berriro ere: o tempora, o mores...

Baina, jakina, ez neuzkan nik orduan geroztik hozitu zaizkidan agure-kezka hauek; eta ezin esan dezaket besterik.

Sor Manuela Iturria biziera guztian barrena egon zen *Txillardegi* inguruan (Valladolid-en egindako ikasaldia kenduta); eta oso gortu zen zahartzera, antigutar zaharrek ahobatez esan didatenez.

Luis Gurrutxaga sendagilea, berriz, *Txillardegi*eneko biztanlea, hortxe daukazue. Braulio-ren suhia zen. (Ikus 190.).

Jose Gurrutxaga arkitektoa honen anaia zen, eta Ana Iturriaren koinatua; eta famatu egin zen Donostiako hirigintza mailan (argazkiaren goikoa da Jose arkitektoa; behekoa Luis osagilea delarik, Ana Iturriaren senarra).











Braulio Iturria gazte-denboran ikusi ondoren, hor daukazu oraingoan zaharturik; *Txillardegi* barruan. Atzekaldean, Ana Iturriaren atzean, kapeloz jantzirik dagoen bakarra (1910 inguruan, nik uste).

Erdiko gorbatadun eta bigotedun hori, Luis Gurrutxaga medikua da; Ana Iturria bere emaztearen ondoan.

Exerita dagoen emazteki xaharra, Maria Luisa Gaskue da; eta beronen atzean dagoena, Ignazio Iturria Gaskue, pelotazale eta Donostia-ko alkate-ordea (eta, bidenabar, argazki eder hauek utzi dizkigun Pablo Iturria Sorozabal-en aita).

Ignazio Iturria *dinastiko* gisa aurkeztu zen 1915ko hauteskundeetan. Izen bereko Iturria bat, beronen semea, *Division Azu*lean hil zen 1941an.

Iturria-tarrek handizki-fama dute antigutar zaharren artean. Pedro Sukia zaharrak (mendearekin jaiotako Miguel Sukia-ren semeak), batzutan etxe hartan pianoa jo izan duela esaten zidan; eta bi zeudela zehaztu zidan: bertikal arrunt bat, batetik; eta kolako bat, bestetik. Billar-sala ere ba omen zegoen; baita zaldi mordoxka bat, karrosaren bat eta behi multzo bat; hain zuzen ere Sukia-kalea zabaltzerakoan bota zuten ukuilu luzeskan.

Caserta-ko Kondearen idazkaria izandako Braulio Iturriak babide zuen nafartar harrotasunik. Eta nik neuk ere, udal-artxibategian ikusi dudanez, beti sinatzen zuen berak "Braulio *de* Iturria", *de* hori sekula ez ahaztuz; eta jokabide horren bidez bere burua antigutar arruntengandik bereziz.

Udal-zerga ordaintzerakoan ere, don Braulio ez zen bera udaletxera joaten; paper zaharretan eskuz idatzitako ohar hau irakur baitaiteke: "ya mandó con el celador".

Iturria-Gaskue-tarrek, beren gizarte *grado*ari eusten zioten; eta *Txillardegi*enekoak *desberdinak* zirela somatzen da behin eta berriz. Kontsultatu ditudan lekuko guztiek eman didate inpresio bera.

Eta, badakizue: egiari bere bidea.

*Aranaldene*ko Anjel Amianok kondatutako pasadizu honek gauza bera adierazten digu.

1920 inguruan Madrilen Anjel soldauzka egiten ari zenean, *Txillardegi*eneko andere horietako bat topatu omen zuen tranbia batean. (Argazki hauek erakutsiz nor zen galdetu diot, baina ez dela ongi oroitzen erantzun dit; baina bera baino hamar bat urte zaharragoa zitzaionez, Ana bera ote zen soma daiteke).

Ziplo, normala zitzaionez, *Aranaldene*koek maiz eramaten baitzieten esnea *goiko* Iturria-tarrei, eta denak ikustez bederen ezagutzen, gure Amiano hurbildu zaio, eta hitz egiten hasi.

Iturria-Gaskue-tar handikia, ez bat eta ez bi, agurtu ere gabe hanka, eta tranbiatik jaitsi. Eta han gelditu zen *Aranaldene*ko semea harriturik, arraposturik batere gabe...

Ignazio Iturria Gaskue alkate-ordea ikus dezakegu argazki honetan, alkategoa nortuz, Antigua-ko ospaketa batean (eskuinetatik hirugarrena); *Pestaberri* egun batez, hain zuzen. (Ikus 191. orr.).

Ezkerretatik bigarrena, berriz, bere makila eta guzti, Pablo Barriola duzu; Abelino Barriola euskal antzerki-idazlearen anaia, eta Ignazio Barriola doktorearen osaba. ("Aizerrota" kapituluan aipatua eta laguntzaile izana).

Horra hor eskuinetan *Villa Juanita* antigutarrok ezagutu genuen itxuran, Amilibia-Etorbidearen ertzean. Atean, Agustin Brunet.

Eskuin aldeko atetik sar zitekeen *Txillardegi* aldera (nahiz honen sarrera nagusia Matia kaletik izan).

1988an (Urriaren 8an) Sor Maria Luisa Barroeta durangarra zen komentuko zuzendaria; baina ezin eman izan zidan xehetasunik batere. Gaur zutik dauden komentua eta etxe-bizitzak 1956koak direla esan zidan.

(Sor Maria Luisa, artean, hil egin da).

Atearen aurrean agertzen den jaun hori Agustin Brunet da, Brunet- tarren askazikoa.

Esan dugunez Matia-tik sartzen zen *Txillardegi*ra. Atea hortxe dago oraindik, *parking* hetsian. Zorua Matia baino behereago dagoenez gero, hiruzpalau maila jaitsi behar dira gaur ere. Ate nagusi zabala hortxe zegoen.

Eta argazki honen eskuinetan ikus gehitzakeen "Villa Rosa" eta "Txalupagillene"z zer esango?.

Horra hor (193), Artxiboan aurkitu dugun planoa ("Villa Rosa"rena, jakina).

Parkinaren barruan, berriz, Bihotz Sakratuaren irudi bat aurkitzen da (1921); Espainiako erregina bera aurrean zegoelarik, behar bezala bedeinkatua, eta zauritutako soldaduen babesle ezarria.





Bai 1894ko planoen arauera, bai *Txalupagillenearen* ondotik hartutako foto horretan (1900 ingurukoa beranduenik).

Etxearen eraikuntza 1894ko Uztailaren 9an amaitu zen. Eta berehala finkatu zuten Baiona-tikako Posso-tarrek beren bizilekua Matia-kaleko etxe berri horretan.

Ondoko orrialdean: Edmond Posso (eskuinetan), eta Angèle Rodrigues (ezkerretan), beronen emaztea; eta Manuel eta Raoul gorontzagileen bi gurasoak.







Edmond Posso (Baiona, 1852) eta Angèle Rodrigues (beronen emaztea), Baionako judutar multzoko seme-alaba dira. Edmond, Lesseps-ekin eta beste baionar batzurekin, Suez-ko menturan abiatu zen; eta bere moltsa erabat tturrindu.

Mende honen haseran, beraz, bere egoera ekonomikoa zuzendu nahiz, Donostiara aldatu zen. Eta *Farcy-Oppenheim*-ek Matia 3 eta 5.ko etxeetan ezarri berria zuen gorontza-fabrika ezagutu. Gogoz hartu zuen arazoa; eta negozioa izan zitekeelakoan, erosi egin zuen Matia kaleko gorontza-fabrika bitxia (hortxe lan egin omen zuen antigutar askok; Anjel Amiano *Aranaldene*koaren arrebak barne).

Edmond zaharra ez zen oso senton hil; eta afera berorren bi semeek hartu zuten beren gain: Raoul (zaharrenak, 1885koa), eta Manolo (gazteenak, 1894koa). Gauzak horretara Baionako juduek fabrika famatu bat sendotu zuten Antiguan, Matia kaleko sarreran; *La Sirène* zelakoa *La Sirena* birbataiatuz.

Handik urte batzutara fabrikak zaratak eta kiratsak egiten zituela-ta, 1927an Possotarren gorontza-fabrika hura Igeldoko aldapako etxe gorriskara aldatu zen; egintza gailurretan are 100 langile ere izanez.

Posso-ren *Villa Sirena* izeneko etxe horrek euskal itxura du kanpo aldetik. Baina barrutik Andaluziako kutsua; *Generalife*ko patio ezaguna hartu baitzuen eredutzat etxea eraiki zuen arkitektoak; bere iturri famatua eta guzti (gero kendua).

Posso-tarrak (v. esp. Pozo), gainerako baionatar judu guztiak bezala, Granada-tik bota zituzten Espainiako Errege Katolikoek 1492an; eta beren jatorri horren oroitzapenetan dauka Igeldoko aldapako etxeak Granadako kutsu hori. Barkaiztegi-ren *Maritxulegi*k, Caudilla-ren *Miradore*k, G. Terán-en *Sansustene*k, eta Antiguan egon diren etxe zahar baliosek ezagutu duten patu hitsa ezaguturik, baikor agertzeko arrazoin sendorik ez dago...

Orain A.E.K.ren irakasgu bihurtuko bide da *Villa Sirena*; behereko *Villa Concha* zaharra eraaxtera doazelarik.

Matia kaleko fabrika zuzentzen zuten teknikari nagusiak









(Posso-tarrak berak barne) *Villa Rosa* horretan bizi izan ziren. Eta besteak beste, Baiona-tik etorritako Jacques Dulucq Lendiboure (Mendiboure ote?) izeneko *mekanikari* bat.

*Villa Rosa*n bizi izan zen, era berean, Posso-tarrekin neskame egon zen bidarritar bat: Marie Saint Esteben.

Posso anaiek *Txapaldegi* baserriaren gain-gainean eraiki zuten *La Sirena* (*Chapéldegui*, Ib. 28; 1862).

Azkeneko mundu-gerratean gaizki ibili ziren Posso-tarrak, gainerako judutarrak bezala. Baina Antiguakoak at gertatu ziren.

Goiko eta behereko argazkietan ikus daitekeena, Manolo Posso da; hil arte bere mintzakeran frantses kutsu handia gordea. Beste judutar batekin ezkondu zen: Dédé Salzedo Masberger (Baionako Salzedo-tarren senitartekoa), oraindik ere bere 82 bat urtetan bizi delarik.

Raoul Posso, anaia gehiena, Ninette izeneko batekin ezkondu zen; eta urte askotan bizi izan zen Matia kaleko *Villa Rosa* delakoan (ezkerretan dagoena).

Baina oker ez banago, arras ezabatua da antigutarren artean Antiguako judutarren kapitulu hau.




Nolanahi dela ere, *Txalupagillene* jendetsuak bazeukan halako *gorri*-fama zabala... Eta, horretara, 1934an etxean leherketa bat gertatu zenean, bertan prestatzen omen ziren *bonba* hauetako baten ustegabezko zartaketa izan omen zen gakoa.

Antigutar zaharrek hori diote; eta nik, neure iritzirik erantsi gabe, orrialde hauetara hel-eraztea besterik ez dut egin uste herrikoi hori.

*Villa Rosa*ren fotorik ezin zuei aurkez, zoritxarrez. Badaudeke... Non? Manolo Posso-ren alaba batekin (Dora-rekin) saiatu naizenean, ezinezkoa izan da. Posso-tarren argazki eta dato batzu bai; baina etxeaz, deusik ez.

Eta *Txalupagillene*ra goaz; hiruotan Mendebaldekoena; argazki horretan Benta-Berri ondoko etxe mordoaren aurrean ikus dezakegun etxe zaharra.

Arestian ikusi dugun *Txalupagillene* zaharra (nolakoa zen, Felipe Alkorta adiskideari esker ikus dezakegu), 1862ko etxezerrendan Ibaeta-ko 11. zenbakia daramana, *Txillardegi* eta *Errotaundieta*ren artean zegoen.

Antigutarrek daukaten oroitzapena hitz hauetara bil daiteke: *zuloan zegoen* diote denek behin eta berriz. Etxe handia zen; eta gaurko Juan de Garai kalearen ondoko zolan zegoen.

Hau dela-ta, askotan izan zituen arazoak uholdetakoan.

Berriro ere kapitulu haserako argazkia berrikusten badugu, atze- atzean, *Villa Rosa*ren atzean *Txillardegi* somatzen da (eskuin aldeko ertzean).

Ezkerraldean, berriz, hondartza ikusten da; eta, beronen gainean, etxetzar bikote itsusi gisa, Ondarreta-ko gartzela; aurrekaldeko bere atezantzako zati txapalagoa oso argiro berez daitekeelarik.

Bidenabar esateko, *maniobra-zelaia* bere hartan dago oraindik (foto hau zaharra da zinez). Xaletik batere. Mende haserakoa da fotoa, dudarik gabe.

Nor bizi ote zen garai hartan *Txalupagillene*an? Jende asko, Bazterretxen bezala.

*Imanol* kantaria (Imanol Lartzabal) etxe horretatik omen dator. Baia? Pittin bat arakatu dugu; eta baietz dirudi, egia izan daitekeela. 1905an sei Lartzabal-dar bizi ziren *Txalupagillene*an.

Jabegoz, etxea Santos Balda-rena zen. Baina maizter gisa deitura pilo bat topatzen dugu han: Sorozabal (Manuel), Azurzatarrak, Esnaola-tarrak, Auzmendi-tarrak, Agirre-ren alarguna, Loidi- tarrak, Loinaz-tarrak, Gabilondo-tarrak...

Lan handiegia niretzat.

Beroien ondorengoek dute orain hitza.



# VIII. ERROTAUNDIETA

Horra hor Benta-Berri-ko inguruak mende honen haseran.

Txubillo-ko dorrea (*farola* diote zaharrek) konpondu gabe dago. Hortaz, 1912 baino lehenago egina dago foto hau.

Baina *Toki-Eder* hor dago (= Satrustegi-Dorrea); beraz, 1883 pasea da. Gabriel Campuzano-ren *Marbil-Berri* ere bai (1893). Hondartza betean, itxuraz, Ezeiza-ren etxe-mordoa eraikita dago (1903). Xaletik ez da ageri.



Data bat ematekotan, beraz, 1905 ingurua proposa daiteke arrisku handiegirik gabe.

Lizarriturry-Rezola-ko lantegiak aurreraturik agertzen dira (fabrika 1864koa dela hartu behar da kontutan).

Eta *Lopexene* liburu hau moldiztegian zegoelarik eraatxia) etxe txapal-luzea ikus dezakegu hor, guk *Benta-Berri* deitzen dugun plazatxoaren ondoan (egia esan benetako *Benta-Berri* ez baita argazki honetan ikusten), kamino zaharrean gora goazelarik, geure eskuinean aurkituko genukeen azkenekoa: *Eguzkitza* sailekoa. Saileko zaharrena horixe zenez, horri *Eguzkiza-zar* zeritzon.

Bi tximene luzeen artean, Konporta-ko bideaz haranzkoan (garai hartan *Andrestegi-rako bidea* deitua) zuhaitzen artean, baserri bat ageri: *Zubimusu* (edo *Zumibutzu*, hobeki nik uste). 1862ko zerrendan Ib.16.

Kutz-ek, egia esan, *Zubimusu*ko lurralde horretantxe eraiki zuen bere *Cervezas El León* garagardo-fabrika ezaguna (ofizialki 1890koa, eta aurki suntsitzekoa).

Hor ikus daitezke, era berean, Benta-Berri-ko plazatxoaren ertzean, Konporta-ko bidearen eta plazatxoaren ezkerretan, bai *Buena-Vista* etxe zaharra (oraindik gaur egun zutik, betidanik erortzeko zorian omen zegoelarik), eta bai Salsamendi-ren bi etxeak (eskuin aldekoa, oraindik *hazi* gabe). Eta, argazkiari gagozkiolarik mintzatuz, *Lopexene* sagardotegiaren *gainean*, *Perratzalle* etxea dugu (Ib.71; 1862. *Herrerotegi* ere deitua). (Matia-kalearen beste muturrean, irakurleak ikusi duenez, Lugaritzko 50. etxeari ere *Herrerotegi* zeritzon. Etengabeko nahaste-borraste horretan argi-izpiak bilatzea, zinez, ez da erraza).

Baina, kasu! Aipatu gabe daukagu oraindik argazki honetan aurki daitekeen interesgarriena. Lizarriturry-ko tximenearen ondo-ondoan, pittin bat eskuin aldera, etxe ilun zahar bat ageri da: *Errotaundieta* bikotea: *zar* eta *berri* (Ib.38; 1862).

Antigutarrok hortxe genuen itsas-errota bat; baina arrastorik utzi gabe desagertu da.

*Buena-Vista* etxean jaio eta luzaz bizi izan den Carmen San Sebastián-ek esan didanez (berau *Sebitas* futbolariaren arreba da, eta I. Kapituluan ikusi dugun *Aizerrota*ko etxeko alabaren alaba), *Errotaundieta* botatzerakoan, errota-etxearen teilatuak *Buena-Vista*ren Mendebaldeko paretan utzitako marra oker bat utzi zuen; eta luzaz hor egon zen aztarna bitxi hura, nondik ote zetorkeen berak bederen ez zekiela.

Hori baino garrantzitsuagoa: *Buena-Vista*ko pareta horretxen kontra paraturik, zutik, luzaz egon omen zen, garbitokiaren ondoan, *Errotaundieta*ri zegokion harritzar handi-handi bat... Non ote dago gaur? Zer bilakatu ote zen? Auskalo!

Josu Tellabidek esan didanez, hain zuzen, *Errotaundieta* toki-izena erabiltzen dute oraindik Konporta inguruko agure batzuk; nahiz errota hau, ondoko lerroetan ikusiko denez, errota gisa aspaldidanik geldirik egon.

Antton Agirrek, berriz, gure *molinólogo* ikasiak, errota bikoitz horren berri eman du bere *Tratado de Molinología* mamitsuan (1988). (Ikus bereziki 448-449 orrialdeak).

Hala ere, errota zahar horren oroitzapena nolazpait gorde da gaur arte; *Lizarriturry-Rezola* fabrikaren lehenengo mende-urrena ospatzekotan lantegiak argitara zuen liburuxkan, hor ikusten duzuen marrazki hori sartu baitzuen.

Marrazkia, dirudienez, argazki zahar batetik aterata dago. Lemery-ren *Mirador* jauregia (gure urteetan, Caudilla-ko Kondearena), ia-ia ezagutu-ezina da hor; eta Txubillo-ko farola ere ez.

Benta-Berri-ko *Errotaundieta* zaharra, berriz, ongi ezagu daiteke; baita urak kanporatzeko ubidearen gaineko arkua ere (argazkiaren eskuin aldean).

Gartzelaren arrastorik ez dago, jakina: 1887 baino lehenago gaude, eta Lizarriturry-ko lantegia 1864ko bere hartan eskaintzen zaigu.

Konporta-ko bidea ikusten da garbiki, hori bai: ezkerretatik eskuinetara bista zeharkatuz.






*Errotaundieta* aspaldi danik ez zebilela, nabarmenki ondorioztatzen da Jose Goikoa udal-arkitektoak utzitako kroki horretan: *Errota Andieta* (sic) aipatzean, *antiguo molino* argitzen baitu.

Hots, planotxo hori 1892ko Urtarrilaren 29koa da.

ABD-tik doan ubidea (*canal* dio erdaraz), gure haurtzaroko *Konporta-erreka* da; eta ezkerretatik datorren ubide- adarra, Andoain-dikako errepide berriareen ertzetik zetorrena (Lizarriturry eta errepidearen artekoa, alegia).

Agiri denez, Konporta-bideari *Camino de Andrestegui* zeritzon joan den mende-bukaeran.

Ez dakit nik irakurlea lekuaz ongi jabetzen den. Planoari gagozkiolarik, eskuinetan *Mirador* genuke; azpikaldean, Benta-Berri izeneko plazatxoa; gainekaldean, Konporta auzoa; eta ezkerretan, ubidearen ondotik, baino hiruzpalau metro gorago, Tolosa-rako kaminoa.

Ikus ere, gauzak hobeki ulertzekotan, 200. orrialdean datorren planoa.

Errota honen azkeneko jabea, mende haseran, Anselmo Lataillade izan zen (Donostiako alkatea izandakoaren aita); Antiguako beste etxe eta lur-sail askoren jabe berbera. Ekonomiaren alorrean (behin eta berriz azpimarratu dugunez) ez baitziren Antigua zaharrean elkarren kide eta maila berekoak; ez urrik eman ere.

Errotatikako ubidea kukutzeko asmoa proposatu zitzaionean, bere baiezkoa eman zuen Latailladek; errota, esan dugunez, ez baitzen hanartean erabiltzen.

1879ko Azaroaren 6an, hain zuzen, atalarria erortzekotan zegoela irakurri dugu artxiboetan: *casa 38: tiene un dintel en ruina.*

Eta ohizko oharra: Antiguako beste etxe askotan bezala, *Errotaundietan* jende pila bizi zen (6 famelia 1891 urtean); Altuna-tarrak gehiengoa bide zirelarik.

Hona hemen Lizarriturry fabrika 1865ko bere lehenengo itxura hartan (seguruenik, lehenago emandako marrazkiaren oinarri izandako fotoa).



Zoritxarrez, eta iruzkin luzea merezi lukeen jokabide zoraxka baten ondorioz. Lizarriturry-Rezola-eneko artxibategia osoa joan da zakarretara azkeneko hilabete hauetan; bertako argazki mamitsu eta xehetasun soziologiko aztergarriak eta guzti. No comment!



*Lopexene* aipatu dugu arestian (eskuin aldean, zuhaitzen aurrekaldean); eta hortxe egon dira luzaz Juanito Zuloaga-ren taberna eta sagardotegia, bere tolareak eta guzti.

*Lopexene* etxea 1862koa da; eta horregatik ikus daiteke aspaldiko argazki askotan (*Eguzkitza*, Ib.72; 1862). Esan beharrik ez: "Lopez-enea" dago oinarrian.

Ilara berean behera joanda (berrikus hastapeneko argazkia) *Eguzkitza-berri* etxea berrixeagoa da.

*Benta-Berri* (Ib.14; 1862), mapa zaharretan *Benta* soilik, Matiaz *Hegoaldeko* etxe-ilaran zegoen; gaur Matia 35 dagoen lekuan (eta ez plazatxoan), Matia kalea eta Sansustene-ko bideska hestuaren arteko lur-mutur horretan. (Ikus beti 200. orr.).



Gure gazte denboran, hortxe zeuden oraindik Zubizarretaren *Xexene* izeneko etxe txapalak (eta foto ziztrin horretan, agertu egiten da zuhaztiaren ertzean).

Egia esan, Zubizarreta-tarren jabego hori berri xamarra zen: 1902an 14.270 pezetatan saldu zion etxea Jose P. Azurza Arrillaga jaunak, Jose Mari Zubizarreta Iturriza jaunari.

Zuhazti hori *Sansustene*ri dagokio (gaur ikastetxea dagoen mazelan).

Bada garaia, nolanahi ere, *Benta-Berri* aldea bere osotasunean ikus dezagun. Eta has gaitezen, beraz. (Hemen, ezkerretan).

Argazkiaren behereko aldean, eskuinetako angeluan, zuhaztiaren aurrean, Conde de Caudilla-ren *Mirador* jauregia dugu (Ib.17; 1862); hastapenetan Lemery Ibarrola jeneralarena izana. Hortxe egon zen XIX. mendearen erdian *Olasagasti-enea* baserria, *Arbizketa* eta *Zubimusu*ren artean.

Zuhazti horren arrastoei deritze gaur *Parque de Kutz* (Caudilla-ko Kondeari, gerla ondoren, Kutz-ek erosi zion-eta). Ikus honi guztiari buruz XI.Kap..

Ilaran ikusten ditugu Matia kaleko zenbaki bikotxiak, atzetik; tarte hori, erditsuan, Garai-kaleari dagokiolarik.

Ezker aldean, argazkiaren ertzean, *Txalupagillene* baserria dugu, bestetan ere (eta VII. Kap.an bereziki) aipatutakoa (*Chalupagillenea*, 1862); atzeko etxe-muturra honanzkoan.

Bai Amilibia kalea, bai Matia-kalerainoko lotura, zabaldu gabe daude oraindik (argazkia, hortaz, 1926 baino lehenagokoa da).



Benta-Berri plazatxoaren gainean, berriz, zuhaitz artean, *Sansustene* jauregia soma daiteke (Antiguako jauretxerik sonatuena agian).

Ezker alderago, berriz, Usurbil-go bide zaharraren ertzean (Garai-kaleari dagokion tartearen gainean, pittin bat eskuin aldean) *Sansustene*ko atezantza ikusten dugu; gaur zezenzale-elkarte gisa zutik dugun batimendu zahar bakarra.

Ondoan, baina Heriz aldapan, Rafael Heriz-en *Toki-Eroso* jauregia. Eta, ia aurrez aurre, Goarda Zibilaren kaserna; aldapaz haranzko alderdian.

Maldan behera jaitsiz, zuhaitzen ezkerraldean, Lugaritz auzoko eskola. Adineko askori gertatuko zaio ezagun kristalezko galeria hori; hortik haurretan Miramar-ko zuhaztia eta beherean Arantzazu-auzoa begiratzen zituztelarik. (Hementxe, ezkerretan).

*Sansustene*ren gainean, bestalde, mazelan beherago, *Gerraene* ageri da, luzexka itxuraz (*Gerraene-goia*, alegia; *Sansustene*ko atezantzaren parekoa ez baita argazki honetan erreparatzen).

*Munibe* etxea ere (Peñafloridako Kondeak 1916an eraikitakoa) ez da ongi ikusten. Hauxe da, gogoz kontra, zintzilik uzten dudan hutsune bat; Munibe-tarrek fameli-artxibo gaitza baitute, niretzat gaurkoz ezezaguna.

Antiguako makina bat mutil ibili da Heriz-ko eskola horretan. Arkadia Ezenarro-ren bitartez lortu dudan argazki miresgarri horretan (1910 ingurukoa), eskolako atari nagusia ikus daiteke; baita maisu batzu eta mutiko pila bat (gaur egun, bizi direnak, 82-84 urte inguruko senton xahar bihurturik). (Hementxe, behean).

Argazkiaren erdian ageri dena Migel Txarola irakaslea da; eta beronen aurrean, eskua aurreko mutilaren besaburuaren gainean pausatzen duelarik, Boni Ezenarro ikusten dugu (Bonifazio Ezenarro Anza, 1907koa).

Agian beste irakurleren batek beste norbait ere ezagu dezake multzo horretan...





GABRIEL M.ª DE LAFFITTE

# Aspaldiko Gauzak

(Cosas de Antaño)



Hortxe dituzue, prestu eta dotore, Donostiako maisuak. Antiguakoa, Migel Txarola, exerita dago; ezkerretatik hasi-eta bigarren agertzen delarik.

Eta hortxe ere garaiko maistrak; Antiguako neska askoren andereño izandako Juana Txarola, exerita, erdi-erdian ikus dezakegularik.

Eskola inspektoreek, inspektore gisa bederen, ez dute ospe handirik lortzen. Eta Txarola-tarren buruzagia eta Gizpuzkoako Irakaskuntzan *Comisario Regio* izandako Gabriel M. Laffittek ere ez. (Hementxe, beheran, dotore jantzirik).

*Aspaldiko Gauzak* liburu interesgarriaren egileak, halere, bai idazle gisa, eta bai Donostiako alkate xelebre gisa (Azkona alkatearekin osatu zuen bikote ospetsua ez baita oraindik ahaztu), Laffitte hau desberdina zen.



Horrez gain *Gil Baré* sinatzen zuena Antiguan bizi zen, *Au dek* xaletean; *Gutenfelder*en aurre-aurrean nolazpait esateko. Eta antigutar gisa aipamen hau eta bere argazkia liburu honetan merezi zituela pentsatu dut.

*Sansustene* aipatu dugu behin eta berriz. Non zegoen? Zelakoa zen? Erdizka bakarrik dakigu.

Hots, hortxe duzue; Benta-Berri plazatxoaren aldetik ikus zitekeen itxuran. Gaur egun plaza gaineko mazelatxoan gelditu den zuhazti-arrastoa, Matia kale-erdian dagoena bezalaxe, antzinako jauretxe dotorearen aztarna da.

*Sansustene* izan zen auzoko etxe zaharrik zaharrena eta ospetsuena. *Santustene* ere zenbait zaharrek ahoskatua (1862ko zerrendan ere *Santusténe*, sic, irakur daiteke: Ib.12) desagertua da.

Etxearen irudia berehala atxik daiteke gogoan; batez ere teilatuaren gainean zituen bi leihatila horien bidez.

Benta-Berriko plazatxotik beretik sartzen zen bertara (gaur *Colegio de Monpelier*erako sarreratik), aldapan gora pittin bat eginez, eta *Lopexene* beherean eta eskuinetan utziz.

Antigutar zaharrei nik *Sansustene* hitza aipatu diedanean, ahobatez erantzun didate: *Baldomera.*

Eta egia zioten. 1861an Itsasondon jaiotako Baldomera Osi-



Madrilen eta Ategorrietan bere bizilekua zeukan Gutiérrez de Terán *diplomatikoa*rena zen.

*Sansustene*k bi etxe zituen: Terán-darren jauregia, batetik, begien aurrean duzun hori, berriki bakarrik eraatxia; eta Aizkorri-kaleko Atezainarena (gaur egun *Asociación Taurina*-ren biltoki).

nalde izenekoa agertzen baita (1914) neguko etxeko-andere gisa. Benetakoa, esan dezagun; jai-ta-aste, nagusiak izan ala ez izan, hor zegoena.

*Sansustene*ko nagusiak, halere, artxiboetako dokumentuetan froga daitekeenez (baita, besteak beste, eliza ondoko *Illumbe*ren jabeak berak zirelarik) Madrileko Vicente Gutiérrez de Terán-en fameliakoak ziren.




tean (baina honetatik hurbilago) *Columbia* disko-fabrika eraiki zuten gerla baino lehenago.

Argitu beharrik ez dago, ene ustez, Inurrieta-ren fabrika horren argazki hau Amilibia aldetik hartua izan denik (gaur *Hotel Codina* dagoen leku beretik). Baina gazteagoen mesedetan egiten dut argitzapen hau.

Argazkiaren ezkerreko ertzean legoke jela-fabrika.

Eta, ondoren, *Txalupagillene* muturren aurrean geneukakeelarik, Garaikalea.

Bigarren argazkian, berriz, jela-fabrika ere ikus daiteke; eta eskuin aldera joanda, Benta-Berri-raino iritsiko ginateke.

Tomás (G. de T.) beronen anaia gazteago batek (1819an jaioa, Vicente zaharrena 1810koa izanik) Madrileko Aduana-kalean zeukan beren egoitza nagusia; eta Adelaida Ceriola katalanarekin (Barcelona, 1822) ezkonduta zegoen. Antiguara 1866an etorria, Benta-Berri-ren gainean bizi zen. Pilar (Coghen-en alarguntsa), 1858koa; eta Raimunda, 1865koa, *Sansustene*ko biztanle gisa agertzen zaizkigu 1871an. Vicente, anaia gehiena, *Puertas Coloradas*en (Ategorrietan) bizi zen 1867an.

Etxearen izen zaharra, Murugarren kronikaria sinestekotan behintzat, *Illusulla* zen; baina izendapen honen beste arrastorik ez dut aurkitu ahal izan.

*Perratzalle* eta *Txalupagillene*ren ar-






Egun horretan grebarik egon ote zen galdegin diezaiokegu geure buruari... Fotoa 1919koa da.

Tranbia Benta-Berri-ra ari da iristen.

Eskuin aldean *Sansusteneko* mugak eta landareak ikusten ditugu; eta zaldiaren atzean Zubizarreta-ren *Xexene*. Egia esan inguru horretan egon zen *Benta-Berri* zaharra; eta ez plazan.

Aurrez-aurre, argazkiaren ezkerretan, Balda-ren etxea.

Goazen orain halako *bilduma* bat egitera. (ikus 207. orr.).

Itxura hauxe zuen Antiguak mende-haseran Benta-Berri inguruan.

Amilibia kalearen ertzetan (zabaldu ondorako gordeko dugu *etorbide* izena), *Villa Juanita* ikusten dugu lehenengo (ezkerretatik eskuinetara goazelarik), bere atzean *Txillardegi* izkutatzen digularik. Ondoren, lau aldetako teilatu piramide-airearekin, Posso-ren *Villa Rosa*. Tartetxo bat (atzean Dougier-en ispilu-fabrika utziz, etxe apal luze hori), eta ondoren Matia kaleko etxe bikotxien atzekaldea ikus dezakegu: Matia 38, Arozena; Matia 44, Mayoz, eta abar. Etxe-pareta horren aurrean, jakina, *Txalupagillene* dugu.

Beherean, berriz, eskuin aldeko angeluan, Caudilla-ren *Mirador* jauregia; teilatuaren erdian gailen agertzen den talaitxoa (*mirador* erdaraz) garbiki ikus daitekeelarik.

Berriro ezkerretara eginez, baina oraingoan bigarren lerroan arreta jartzekotan, ertzean bertan, Loño jeneralaren *Villa Aldea* (herrixkatzat hartu baitzuen hark ere gure auzoa), argazkia egin orduko *Villa María* bataiatua; bere arbelezko teilatu *laukuna* erakusten duelarik.

Atzerago, hiru etxaurre-triangelu erakutsiz, erregeren Zalditegiak, batimendu luzea (gure haurtzaroko *Caballerizas Reales*).

Horien atzean *Txoldaune* (Lug.27; 1862); gero hobeki ikustekoa.

Matia-kalera bihurtuz orain, Heriz aldapako abiapuntuan, teilatu antzekoak dituzten bi etxe. *Villa Manolita* da lehenengoa, 1892koa, Sopelartek eraikia, eta 1894ko Ekainaren 30an bizitzeko zilegiztatua; Usurbil-go bide zaharraren eta Heriz aldaparen artean.

Bigarrena, luzexka, Heriz 4 da, oraindik ere (etxe erdia bakarrik, zehatza izateko) itxura horretantxe ikusteko moduan.

*Kostaene* eta *Munibe* hor daude, egon; baina argazki honetan ezin ikus.

Aldapan gora joanik orain, mutilen eskola ikus dezakegu (dagoeneko erakutsia), zuhaitz batzuren ezkerretan.

Zuhaztia pasata, Heriz-en jauregia dugu eskuinetan, eta Guarda Zibilaren kaserna ezkerretan.

Benta-Berri-ren gainean, berriz, eskuin aldeko teilatuen



gain-gainean: *Sansustene* jauregia; eta beronen atezantza edo goardetxea, Usurbil-go galtzara zaharraren ertzean bertan.

*Sansustene*ren gainean, luze xamarra, *Gerraene-goia.*

Plazatxoaren ondoan, Matiako etxe-ilara bukatuz, Zubizarretaren *Xexene* (aspaldiko *Benta-Berri*ren ordezkoa; Ib14; 1862).

Eskuin aldean beti, baina goraxeago, bi etxe. Bata luze handia (gaurko *Donosti-zarra* auzoaren alboan), *Aizetsua* da. Bestea, honen ondoan, oso zuri, paretak pentagono itxura daukalarik, *Flores* etxea. Oraino ere gorago, elkarren ondo-ondoan, *Azkaratene* ezkerretan, eta *Mantulene* eskuinetan.

Argazkiaren erdian, amaitzeko, zuhazti zabal baten aurrean, *Aiete* jauregia (Antiguatik at, beraz, Lugaritz-Amara muga Ernaniko galtzara berrian baitago); eta beronen eskuin aldean *Txaola* (Lug.37; 1862) eta *Guarnizo* (Lug.36; 1862) ikus ditzakegularik, muga-mugan.

Ezker alderago, eta beti *Txoldaune* aldera jaitsiz (ikus, honi buruz, X.Kap.):
— *Munto* gaur ere zutik (Lug.34);
— *Gantxegi* (Lug.32);
— *Portuene*, txiki-txikia, zuhaztiaren atzean (Lug.31);
— Iztueta-tarren *Untzaene*, luze xamarra (Lug.30);
— *Txirain* (Lug.29);
— *Jaronenea* (estartan, baina Miramar aldean) (Lug.28);
— *Txoldaune* (Lug.27);
— zuhaizpean galdurik, *Illunbe* (Lug.26).

Goitik behera begiratuz gero (ikus hemen ezkerretan) hauxe zen ikuskizuna (argazkiaren zehaztasuna, zoritxarrez, nahi bezain handia ez bada ere).

Ondarretan gartzela ageri da; eta honen ezkerraldean Ezeiza-ren etxe-mordoa. Beronen ezkerretan, ozta erreparagarri, Baron-darren *Barraka-Urondo* baserria.

Argazkiaren erdi-erdian, zuri-zuri ageri, *Villa Juanita* altuxea; beronen eskuinetan, ilun, bere teilatu koskadun bitxian ezaugarri. *Txillardegi* etxea.

Ezkerretara joanda, Matia kaleko ertzean zegoen Dougier-en ispilu-fabrika, batimendu-segida txapalean.



Eliza aurkeztu beharrik ez dago. Gu eta elizaren artean, ozta ezagutzeko moduan, *Bordaberri* (ik. IX.Kap.).

Ezkerretan oraingoan, *Gerraenebea* (*Sansustene*ko goardetxearen ondokoa), Usurbil-go galtzada zaharraren ertzean.

Eskuin aldean, argazki honetan ikus daitekeen batimendurik handiena, teilatu-azpia marrazki bitxi batez apaindua, Guarda Zibilaren *13. Tercio* delakoaren kasernatzarra.

Eta beronen gainean, ia-ia estalia, Heriz-ko mutilen eskola, jadanik erakutsia.

Noizkoa ote da fotoa? Ezin zehazki erantzun. Baina xalet gutxi ikusten da, bai Ondarretan, eta bai Txubillo-ko mazelan. 1920ko data proposatzea ez zait arriskugarriegi iruditzen.

Nahiago izan nukeen Heriz-en jauregia argazki bizitan aurkeztu. Ezin.

Heriz-tarrek (Rafael-ena da eskabidea, ikus daitekeenez) 1891an eraiki zuen etxeak (*Gerrabea*ren inguruan) bazeukan *Belle Epoque* delakoaren kutsu nabarmena.

Udalaren zilegiztaketa 1891ko Otsailaren 23koa da.

*Toki-Eroso* bataiatua, etxe hau Heriz aldapan zegoen, Guarda Zibilaren kasernaren aurrean.









Zer bilakatu ote zen, artean, Usurbil-a zihoan galtzara zaharra? Horixe baitzen Ibaeta eta Lugaritz berezten zituen muga bera; eta errepide berria zabaltzean, bere betekizuna maingu geldi-tu baitzen.

Eta hortxe duzue, Bazterretxe-ren ondotik pasa ondoren, antigutar helduek ezagutu duten hein tristean.

Ezkerretan Lugaritz (Aldapeta-raino: Munto, Isturin, Lugaritzen). Eskuinetan Ibaeta: *Sansustene*, Ibaeta. Baina *Gerraene*, Lugaritz. Benta-Berri (etxe zaharra eta plazatxoa), Ibaeta. Artxiboetan ere nahaspila franko topatu baitut; eta nahasketa ez baita atzokoa...

Begira dezagun ezkuinetako argazkia. *Ayala* moble-fabrika dugu; eta berorren atzean, aldapan gorago, *Gerrene-be*ko pareta zaharra.

Eskuinetan, aldiz, bideaz eskuin aldera, *Sansustene*ko atezantza (edo goardetxea), lehen *Peña Taurina José María Recondo*, soziedadea, gaur egun *Sansustene* izena hartu duena. Gisa bisitagarri, bere taberna eta guzti. Horra joaten omen zen antigutarra franko, eta Baldomera-ri esnea erosten.

Beste aldera begiratuz, berriz, eta ezkerretako argazkiaren laguntzaz: *Ayala* lantegia eskuinetan; alemandar deinugintza ondoren; eta, ezkerretan azkenekoa, lehen ere aipatua dugun Guarda Zibilaren 13. Terzioaren kaserna.



*Hemen gaude berriro, gaur Benta-Berri* deitzen dugun plazatxoan.

Konporta aldera begiratuz, *Buena Vista* dugu hor. Gertakariren bat dago egun horretan, etxeko biztanleak leihoetan harrapatu baititugu begira. Hortxe bizi izan zen luzaz *Aizerrota*tik jaitsitako Juana Ansa, San Sebastian-en emaztea.

Eskuin aldean ikusten dugun etxea, Matia 56 da gaur egun, Olasagasti-ren etxea, omen, *Perratzalle*ren ondoan eraikia. Tolosa-ko tranbiaren bulegoak hortxe egon ziren luzaz; juxtu mutilaren ondoko atetzar horretan.

Bi etxeen artean somatzen den batimendua Kutz-en garagardotegiari dagokio; eta inguru horretantxe egon zen *Zubimusu* baserri zaharra.

*Buena-Vista* etxearen kantoinaren aurrean dagoen gizasemearen atzetik, garbitokira jaitsiko ginateke; eta orain dela urte gehixeago joan izan bagina, *Errotaundieta* topatuko genukeen; itsas-aldien arauera, urez bete, eta horrela ibiltzen zen errota zaharra.

# IX. ARANALDENE

Eta honetaraz gero, goazen eliza dagoen alderdira.

Eta hona hemen lehenengo ikuspegi eder bat: Loreto-ko dorretxo borobila hor zutik egoteak databide segurua eskaintzen digula: 1885 ingurua, esan dezagun. (Ikus 214. orr.).

Azter dezagun eskuinetatik ezkerretara.

Argazkiaren ertzean ia-ia, Loretopea gaineko dorretxo borobila, bestetan ere ikusia; eta jadanik irakurleari ezagun gertatzen zaiona. Antiguako eliza zaharra, *goikoa* alegia, eskuin alde honetantxe legoke; baina argazkiak, zorigaitzez, ez du alderdi hori hartu.

Ezkerretara jarraituz, beraz, etxe bikoitz bat itxuraz, eta bertan egon zen tabernari dagokionez, jadanik *ezaguna*: Artzamendi-tarrena. *Martaene*, alegia (Lug.24; 1862). Ikus, nahi izanez gero, II.Kap..

Honen ezkerretan, eta ikutzen bide duelarik, Martikorenatarren *Markosene* etxea (Lug.25; 1862).

Gero tarte bat hutsik; itsas-kolkoaren parte bat ikusten uzten diguna (*Kolko*aren parte bat, proposatu dugunez).

Ondoren, errepideaz bestaldean, eta galtzara zaharraz haranzko aldean ere bai (eta behean, beraz) hiru etxe ikusten ditugu Ibaeta alderdian, eta hondartza aldean, itxuraz elkarri itsatsirik: Ganboa-ren *Kolkaene* ezkerretan (B.Ant.1; *casita* diote artxiboek), Iza-ren *Arrokaberri* luzea ondoren (B.Ant.2), hiruotan handiena, bikoitza nolazpait. Eta... kasu! Niri bederen luzaz lanegitea kostatu baitzait xehetasun garrantzitsu honetaz jabetzea: bost zuhaitz horien eskuinetan, *Kolkaenea*ri itsatsita bezala, eta zola sakon batetik irteten ari balitz bezala, oso zahar kutsuko baserri bat: Lasarte anaien *Venganza* famatua (nire biografian bakarrik *famatua*, beharbada; baina, tira). Beste biak ez, baina etxe hau zaharra da: Ibaeta-ko 3. zenbakia, 1862.

Guri begira dago, eta teilatu-gaina eta goiko gapirioaren gaineko teila-ilara ikus dakizkioke. Badakigu, jakin, *Kolkaenea* ez zuela ikutzen; baina hurbil zegokion.

Eta hau idatzita, ohar garrantzitsu hau egin behar da: etxe horiek ez daudela Andoain-go errepide berriaren ertzean, lehenengo begiraldian hori pentsa badaiteke ere; Usurbil-go bide zaharraren ertzean baizik. Sakonago ezarriak, beraz. Hain zuzen ere, altu xamarrak ziren etxe horiek: artxiboaren bidez jakin dezakegunez, *Kolkaenea*k eta *Arrokaberri*k bi solairu, are hiru ere, zituzten, (liburu honetan ikusi ere dugunez, III. kap.).

Adaburu horien atzean, bestalde, murru-hondakin batzu somatzen dira (*ruinas* diote artxiboetako planoek). Zerenak ote?

Loretope-ko komentu zaharrak bazeukan hondartzan (*en el arenal* dio 1829ko dokumentu batek) *Etxeberri* izeneko etxe bat, bere baratzarekin. Lehenengo karlistadan setiatzaileek Antiguako batimendu *guztiak* birrindu zituztenez gero, murru-hondakin horiek desegintza horren ondorio direla pentsa daiteke. (*Etxeberri* izenak ez gu gauza handirik esaten: hamaika daude Donostian, eta Bazterretxe auzunean bakarrik, biga).

Oraingoan ezkerralderago joanez, eta Santa Klara uharteaen *azpian* (fotoari gagozkiola), beste hiru etxe ikus dezakegu, ilaran, tamaina berekoak; eta, tartetxo bat utzita, beste txiki bat eskuin aldean, lehenengo zuhaitzak ia izkutaturik.

Hots, ezkerretatik eskuinetara baldin bagoaz, eta irakurleak badakienez, *Iñarrene* dugu aurrenik (hiru leiho), eta zerrendari dagokionez: Lug.52; 1862. Ondoren (beste hiru leiho) *Isasene* dator (Lug.51; 1862). Eta *Herrerotegi* gero (zenbait aldiz artxiboetan *Erreotegui* idatzia), beste hiru leiho (Lug.50; 1862). Tartetxoaz eskuin aldekoa, *Herrerotegi-txiki* da (Lug.50 A).

Hiru etxe hauek, galtzara zaharraz beheko aldean dagoen *Sutegizar* izkutatzen digute; hara joateko bide laburrena, hain zuzen, tartetxo horretan zegoen eskaileratxoa izanik.

Bi etxe horiek, eta atzeko *Sutegizar* ezaguna, Jose Antonio Elortza oñatiar hargin-maisuarenak ziren.

Tarte hori Elortzak errespetatu nahi ez izanak, istilua franko ekarri zion Donostiako Udalari; Antiguako oñatiarra ez baitzen, itxura denez, biziki malgu eta etorkorra...

Argazkiaren ezkerreko ertza ikutuz, azkenik, Felipe Eztenaga-ren pospolu-fabrika dago. Hain zuzen ere, aisa irakur daiteke hor *Fábrica de Fósforos* hitz-hirukotea.

Ohar bat: pospolu-fabrikak utzitako oruan eraikiko zen gero Matia 6-ko etxea; bidez, *Eztenaga-ren etxea* deitua.

Felipe Eztenaga Arbulu hori, Antzuolan jaio zen 1824an; eta Goñi deiturako emakume batekin ezkondu zen. Zazpi semealaba izan zituen (gehienak emakumezkoak, Eztenaga deituraren desagerketaren gakoa hau izanik).

Matia 6-ko etxea Victor Zaldua kontratistak eraiki zion (gaur ere hortxe dago etxe hau); bertan bizitzeko zilegiztaketa 1906ko Urtarrilaren 9an lortuz.

Antiguan bagenituen, hitz batez, haize-errota bat, botila- fabrika bat, itsas-mareekin ibiltzen zen errota bat, zepillo-fabrika bat, pospolu-fabrika bat, gorontza-fabrika bat, nik dakita zer besterik; eta... ez genekien!



Pospolu-fabrika hori, Antiguako fabrikarik aspaldikoena (Lizarriturry-Rezola *La Providencia* delakoa 1865koa besterik ez da), 1854an eraiki zen.

25 urtez (1879ko Maiatzera arte, beraz) Jose Yurrita aitak zuzendu zuen teknikaren alorrean, Yurrita semeak segidan bere gain hartu zuen arte.

1880 urtean, egunean 11.520 pospolu-kaxa prestatzen ziren hor, antigutarrek gaur erabat ahantzita daukaten fabrika horretan. Alegia, 80 *gruesa* erdaraz, eguneko; edo-ta 80 x 12 x 12 pospolu-kaxa; kaxa bakoitzak 100 pospolu zituelarik. Honek kopuru eskerga hau ematen du: 1.152.000 pospolu egunero hortxe, Matia 6an... Sinetsi ezina. Ez da hala? Miloi bat...

Begien aurrean duzun lantegi horretan 50 langilek egiten zuten lan urte hartan (gizasemek zein emakumek).

Lan-atalik zailena, operaziorik korapilotsuena, pospoluak bastidorean zutik paratzekoa, Yurritak asmatutako sistema bati esker egin zitekeen makinaz (bi makina berezi zituen horretarako); gainerako guztia eskuz burutzen zelarik.

Fabrika honen martxa ona bigarren karlistadak eten bide zuen; artxiboetan zergatik hori zehazki azaltzen ez bazaigu ere. Pospolugintzak hala ere aurrera jarraitu zuen 1900 ingurura arte.

Felipe Eztenaga hura Ibaetako alkatea izan zen (1866). Ibaeta-koa, eta ez Antiguakoa. Eta Tomas de Olasagasti (beti *de* jartzen zuen honek ere, Iturriak bezala), Rafael Munoa (Benta-Berri-ko *Rafaelen*en eraikitzailea), Juan Maria Eguren (berau *apoderado del Sr. Lemery* izanik), eta beste antigutar jaun batzurekin izan zituen gidaritza-harremanak Antiguako arazoetan.

Mendearen haseran desagertu zen fabrika; eta 1905an, Eztenaga ahizpek finantzatuta, Matia 6-ko etxea eraiki zen. Eskabidean hau irakur daiteke: "teniendo idea de levantar una casa de nueva planta, en el solar del edificio que se destinó en otros tiempos a fábrica de fósforos".

Argazkia berriro begiratuz, eta gaur eliza dagoen alderdira itzuliz, lau etxe ikusten ditugu. Eta berriro ere ezkerretatik eskuinetara joango gara geure azalpenetan:

*Gorgatxo* zaharra aurrenik (Lug.53; 1862); zenbait aldiz *Gorbatxo* ere idatzia. 1882an Tomas Zelaia Bastarrika aurkitzen dugu hor, maiztar (Donostian 1814an sortua); baita Josefa Martiarena ere, urte berean, eta Anza-tarren senitartekoa, nik uste.

*Bordaberri* (Lug. 53 A) izeneko etxe berria, luzea (eta hortxe XIX. mendean egon zen *Bordatxuri* txikiaren ondorengoa, berau 1850 inguruan botaia). Etxe handikote horretatik dator antigutar famelia ezagun mordo bat (Antza-tarrak barne). 1882an etxe horretan bizi ziren Antza Amundarain-darrak; baita hiru gazte ere, Antza Martikorena deiturakoak.

*Borda-Errekalde* baserria ikusten dugu ondoren. Gure haurtzaro garairako oso kaxkartua. Horixe izan da, besteak beste, Nazabal Imatz-tarren bizilekua.

Eta, azkenik, eskuineko ertzean, zuhaitzen artean ozta erreparagarri, *Illunbe-txiki* dugu (Lug.26 A). Hortxe bizi zen Petra Surupe anderea 1882an. *Illunbe* zaharra, Miramar-en jauregi-esparruaren barruan geratu zen.

*"Tunela"* zabaltzerakoan (eta kakotxak berariaz jarri ditut, luebakia ireki ondoren estalkia erantsi zitzaiolako), besterik ere errausti zen. Alde batetik etxe batzu eraatxi edo desitxuratu; bestetik indarrez desjabetu.

Eskualde honi dagokionez, hiru gunetan gertatu ziren tirabirak. *Expropiazioa* agindu zitzaien, jabeek lotsarik gabe eskatzen baitzuten beren *tokamena.*

Loreto-tik Ondarreta aldera etortzean, argazkian ikus daitekeenez, Frantzisko Iza-ren *Arrokaberri* sagardotegi-ostatua topatzen dugu aurrenik. Desjabekuntza dela-ta, 605 metro koadro saldu behar izan zituen *goitik* eskainitako prezioan; eta horretara 9.317,00 pezeta eman zizkioten. Ofiziokoa zen Iza hau; Beitiaren *La Fe* kare-fabrikaren ondoan eraiki zen *Murillo Hotela*, Iza honetxek egin baitzuen.

Etxe bikoitz horretan zeuden bederatzi tolareak saldu behar izan zituen Izak, horretara, baita bederatzi kupela eta 231 *sagardo-karga* (hori zenbat litro den ez dakigularik).

Horrez gain *Arrokaberri*n apopilo bizi ziren maiztarrak kaleratu behar izan zituen presaka: Txomin Aranburu Apaolaza espartina, Koxme Mujika, Andueza zapataria, Anjela Aranburu (Txomin-en arreba ote?), Maria Cuesta neskamea, eta besteren



bat. Antiguan Aranburu asko izanik, ez dut aukerarik izan Aranburu hauek noren senitarteko ote diren. Barka. Josetxo Aranburu, Eliseo Aranburu... Ez dakit.

Bigarren eztabaida edo istilugunea *Kolkaenea* etxetxoa izan zen. Argazkian ikus dezakegunez, leiho txikiagoak zituen etxe honek. Antiguan 1855z geroztik bigarren solairuan bizi zen Bizente Aranburu Olano anoetarra(1831), kalera beharrez gertatu zen brauki. Etxe horretantxe bizi zen Franziska Olano Sirasuegi bere izebarekin (bere 71 urteetan orduan). Hirugarren solairuan, azkenik, Higinio Anabitarte Mendiburu iruñearra bizi zen (1834koa); enplegatua, eta lehenengo karlistada amaitzean, Aristizabal deiturako bere emaztearekin Antiguara etorria. Kalera denok!

Hirugarren istilu-gunea, *Venganza* etxea izan zen (bertakoek, ene uste apalean, *Mengantza* deitua; baina hau nik diot, eta ez dut dokumentuetan ikusi, *Millabider* edo *Erreotegi* aurkitu dudan bezala. Gauzak garbi).

Gatozen *Venganza*ra.

1882an (errepide berria zabaldutakoan) *Venganzan* bizi ziren bi famelia gutxienez. Joakin Elizalde nekazaria batetik; irundarra (1833), eta 1852an Antiguara etorria; Dolores Elola bere emaztearekin eta beren bost seme-alabekin. Eta etxe berean ere bai Leon Garmendia jornaleroa, berau Magdalena Gorriti-rekin eta beren lau seme-alabekin hortxe. Magdalena Gorriti hori donostiarra zen (1843). 1871ko Erroldan hortxe kokaturik topatzen dugu Madrileko Alonso bat.

Hots, *Venganza* etxeak —artxiboak kondatzen digunez— bi jabekide bide zituen: Jose Anjel eta Franzisko Irizar anaiak, batetik; eta Manuel Aldai bestetik.

Jose Anjel Irizar horrek, Salome Arrillaga anderearekin zenbait urtez ezkondurik egon ondoren, hiru seme utzi; eta hanka egin omen zuen *a las Américas*: Buenos Aires-a, Antiguan dena bertan behera utzita. Kanta zaharrean bezalatsu, *xentimorik gabe*; eta, agian, *bost miloiren jabe* itzultzeko esperantzatan.

Nolanahi ere, arrastorik ez Antiguan. Eta Salome Arrillaga gaisoak, orduan, halabeharrezko *espropiazio* horien berri izan zuenean, salmenta horretan diru-mordoxka bat etor zekiokeelakoan, akordio bat lortu nahi izan zuen Antiguan gelditutako Frantzisko Irizar bere koinatuarekin... Artxiboan froga daitekeenez, Salome hark (garai hartako askok eta askok bezala), *por mano ajena* izenpetu zituen bere eskabideak... Erdibitutako famelia tristatu hartan zer gertatu ote zen ez dugu ikasi, artxiboen bitartez bederen. Baina antigutarren batek baluke, agian, ikerketa edo kondaira-nobela mamitsu bat Antigua zaharrean kokatzeko asmorik eta orain antigutar gazteek erantzun bezate. Mikel Antza idazlea da gainera, eta *Bordaberri*-tik eta *Arcadia*-tik etorria... Hor uzten diot erronka!





Errepikatuko al dut? Ez du balio, nik uste. Ezkerretatik eskuinetara: *Iñarrene*, *Isasene*, *Herrerotegi*. Eskaileratxo hori *Herrerotegi*ri datxekio. (Ikus hementxe, eskuin aldean).

Benta-Berri-ko tranbi-bidea hor dago (mende hasera, beraz).

Ohar bat: ezkerretan somatzen den eskailera hori, *ez da* gaur *Errotatxo* aldera jaisten dena; ikusten duguna pospolu- fabrikatik Ekialdera baitago.

Etxe hauek ez ziren 1889an eraatxi.

Mende haseran udal-eskola bat egon zen *Iñarrene*an, (ezkerretako portalean, nolazpait esatekotan) eta 1871z geroztik gutxienez. Eskola, ezkerretako ateotan zegoen. Bigarren karlistada hasterakoan (1871), eskola horretantxe zegoen maisu Juan Mari Beloki elduaindarra (1836koa), bere bi seme-alabekin; 19 urte zituenean Antiguara, eta *Sutegizar* etxera preseski, aldatua (ik. IV. Kap.).

*Iñarrene*-ko atarian letreroa irakur daiteke: *Peluquería.* 1906an zegoen Narziso Ganboa-ren orraztegia, seguru aski *Kolkaene*tik etorria. Famelian eta bestetan hamaika galdera egin ondoren, hau esan dezaket: zutik agertzen den *pelukero* hori (ez *barberoa*, kasu!), ez bide da Juanito Aldasoro, eta ezta Eliseo Aranburu ere... Baina antigutar zaharrek *Aranbururen orraztegia* ikusi uste dute ate horretan (Aldasoro-rena, dena dela, Matia 8an egon zen, Garmendiaren okindegiaren ondoan, eta *batzokia* egondako inguruetan). Bego horretan.

*Isasene*an, berriz, antigutarrei ezagun gertatuko zaien jendea bizi zen mende honen haseran.

Behereko solairuan, hasteko, Gurrutxaga-tarrak bizi ziren. Aita (Serapio Gurrutxaga Egiburu, alegia) aizarnatarra zen (1864ko Azaroaren 16koa). Bi urterekin umezurtz gertatu, eta Azpeitira eraman zuten, *Komuntsoro* (*Komúntzo* pratikan) baserrira, eta hantxe hazi zen. Okin-lana Azpeitiko Justo Agirre-ren okindegian ikasi zuen. Eta, horretara, 24 urte zituenean, Antiguara aldatu zen. Artxiboetan *panadero* gisa agertzen zaigu.





Bere emaztea (Maria Rekalde) eta bi alabekin bizi izan zen hor luzaz, Eztenaga-tarren etxera aldatu arte.

Jesusa (1897ko Urtarrilaren 16koa, antigutarra), oso emakume ederra izan omen zen gaztetan. *Arroka-aundi*eneko Luis Areitiurtena-rekin ezkonduko ote zen zurrumurrua zebilenean, Migel Enparantza-rekin ezkondu zen; sei seme-alaba sortuz.

Maria, berriz, bigarren alaba, gazteena, *Atxo* deitua, ezkongai gelditu zen.

Etxe berean bizi bide zen, neskame, 1905an bederen, Teresa Orbegozo gaztea (1885ko Azaroaren 10an jaioa).

Beherean, hitz batez, Gurrutxagatarrak topatzen ditugu 1900 inguruan. Baina zenbait urte lehenago hortxe bizi izan zen Margarita Isasa izeneko andere bat; eta agian emakume honetxek izan zuen etxearen izenaren gakoa: *Isasene*.

Eskolako fotoan, azkenik, Juana Txarola andereñoa, erdian, jadanik ezaguna (VII. Kap.); eta lehenengo lerroan, exerita, Txarola andereñoaren ezkerreko eskuaren ondoan, ilea bi bixtez lotu duelarik, *Isasene*ko Jesusa Gurrutxaga bere bospasei urteetan (argazkiaren data 1903 inguruan koka daitekeela).



Gaiñeko argazkian *"Isasene"*ko biztanle batzu: Serapio Gurrutxaga eta Maria Rekalde; Jesusa eta Atxo beren bi alabekin (1911 inguruan).

*Isasene*ko lehenengo pisuan, gorantz goazelarik, parrokiko koadjutorea bizi zen (1905): On Bentura Itxaso, getariarra; 1875ko Abenduaren 8an jaioa.

Eta, etxe berean, berorren laguntzaile dudarik gabe, Zeledonia Itxaso arreba zaharra bizi zen (1865ko Martxoaren 17koa); Gurrutxaga-tarren adiskidea, eta famelian *Xele* deitua. Nik emakume xar-xar baten oroitzapena atxeki dut gaur arte, lehengusuen etxea batzutan ikusia.




Ondoko argazkian, Bentura Itsaso, parrokiko koadjutore, eta *"Isasene"*ko biztanle (1914 inguruan).

*Isasene*ko bigarren pisuan, azkenik, etxeko jabeak bizi ziren: Eztenaga Goñi-tarrak: lau ahizpa, lauak mutxurdin, oker ez banago; eta Antonio anaia, bost Eztenagetan zaharrena (1860koa). Neskame bat ere bazuten: Sotera Zabalo izenekoa.

Eztenaga-tar hauek, irakurleak nik esan aurretik ere somatu dukeenez, aldamenean egondako pospolu-jabearen alabak ziren: zazpi denera. *Señoritas Eztenaga* horiek, antigutar zaharrek esan didatenez, aberaskume-fama zuten.

Hots, *Isasene* horretantxe bizi izan zen aurreko orrialdeetan



aipatu dugun Yurrita teknikaria. 1883an bere emaztearekin eta bost seme-alabekin bizi zen hor.

Argazkiaren eskuin aldera joanda (218), zer? *Herrerotegi* Antiguan oñatiarrek zeukaten *kontsuladoa* bihurtu zen. Bi hargin-maisu bizi ziren bertan: Elortza eta Goitia, Jose Antonio eta Raimundo lagunen artean. Raimundo Goitia Beitia (1861koa), Elortza-ren alabarekin ezkondu zen (Josefa Elortza Arrieta, 1863); eta bikote honengandik sortu zen, besteak beste, Nikolas Goitia Elortza (1894), hogeikadan Donostiako zinegotzi izana.

*Herrerotegi* etxea oso zaharkitua zegoen Usurbil-go galtzara zaharraren aldetik, atzetik alegia. Eta Goikoa udal-arkitektoak berak idatzi behar izan zuen txosten tekniko bat, bertan beren lantegia zuten lixatzaileak ez bertan behera handik uxatzeko.

Baina bihur gaitezen *Herretotegi*eneko harira.

Beronen jabea (baita bideaz bestaldeko *Sutegizar* ezagunarena) Jose Antonio Elortza Lizarralde zen (Oñati, 1842). Argazki batzutan ikusi dugunez, tarte hestu bat utzirik, *Herrerotegi-Txiki* etxetxoa eraiki zuen, Loretopea alderantz. (Begira berriro 214.ko argazkia).

Hots, Matia kalearen sarrera horretan, eta etxetxo edo txabolatxo horretan bere harakindegia zeukan Teofilo Elortza izenekoak (1891an); eta anaia eta oñatiarra zela somatzeko arrazoin asko dago.

Batimendu hauek guztiak 1917an desagertu ziren, ondoko Bazterretxe auzune osoa bezala. Eta lehenengo etxe berria, *Herrerotegi* izandako izkinan,(Matia 2) Emilio Nabaskues-ek eraiki zuen 1920an (*Villa Arcadia*-rekin batera, Arkadia Ezenarrok berak bereziki azpimarratzen zidanez). Etxe hori zutik dago oraindik, eta garai batez *Bar Bellamar*eko etxea zitzaigun antigutar gazteoi, beren billar *amerikanoa* eta guzti.

1900 inguruetan *Herrerotegi* hartan bizi zen Elortza jauna. Eta eskaileratxo horietatik sartuz irits zitekeen Goitia-ren tabernara (beheraxeago zegoen Kantoiko Xetien-enearen "kontrarioa").

Aspaldidanikoa zen Goitia-jatetxe hau. Eta badakigu, adibidez, bigarren karlistadaren garaian, hortxe zegoela; eta Arrietatarrek gidatzen zutela: Pantxika zegamarrak, batetik (Elortzaren beraren garaikidea: 1843koa); eta Antonio Arrieta beronen aita zaharrak.

Hots, horko Nikolas Goitia Elortza izenekoak, fama eta izari politikoa iritsi zituen ondoko urteetan, 1920an zinegotzi maila lortu baitzuen Donostiako Udalean (antigutar zaharrek "alkatetza" eskuratu zuela ziurtatu didate; baina Goitia Donostiako kontzejala izan zen 1922-1923 urteetan, eta ez besterik).

Garai hartan modan jarri bide zen Antigua; hamaika antigutar topatzen baitugu kargukide hiriko Udalean:

*Txillardegi*eneko Ignazio Iturria Gaskue, zinegotzi *dinastikoa* (1918-1922); batzutan, lehenagoko argazkian ikus daitekeenez, ordezko alkatetza betetzen zuelarik; *Gutenfelder*eneko Federico Alvarez González litografoa (1920-1923); *Casa Rosario*eneko Cándido Marcellán *jaimista* (= karlista), kartoizko kaxa-egilea (1910-1922), alkate-ordea izana; *Toki-Eroso*eneko Roque Hériz jauna (1918-1922); botila-fabrikakoen ondorengoa zen Jaime Brunet (1916-1919); Juan Kutz garagardogilea (1918-1922); Alfredo Laffitte (1901-1925) eta Gabriel Laffitte, *Audek*enekoa, zinegotzi (1910-1916), are Donostiako alkatea izandakoa (1917); *Toki-Eder*eneko Jorge Satrustegi jauna, 1906/1909 urteetan Alkate izana.... Luzea da zerrenda! Horiez gain, Sánchez Guerra ministroak ere Matia-kaleko *Villa Flora*enean pasatzen zituen udaldiak... Toute la crème était là...

Baina bihur gaitezen Nikolas Goitia-ren aitaginarrebaren kondairara. Elortza ez zen batere eskolatua (ez baitu adierazten zozoa zenik!); eta artxibategian ikus daitekeenez, ozta-ozta lortzen zuen bere sinadura dokumentuetan txukun erasten.

Baina Elortza zen, orain dela mende bat, Antiguako puntuzko bat; bestegatik ez balitz ere, diruaren aldetik lortutako mailarengatik: *Sutegizar*, *Herrerotegi*, Matia 1-ko *arkuen etxea*, Darcy-Oppenheim eta Posso-ri (gorontzagintza dela-ta) lotutako etxe-mordoa (Matian eta Matia- atzekaldean)... *Euskal Erria* aldizkarikoek bazekiten: *el rico propietario Sr. José Antonio Elorza* (1893; XXIX; 291).

Baina kaskagorra ere bazen gure oñatiarra, galanta; udalak zilegiztatu nahi izan ez zizkion projektu batzutan izandako eztabaida garratzetan ikus daitekeenez.

Matia kaleko zenbaki bikotxietan barrena Benta-Berri aldera joanez gero, berriz, Narziso Ganboaren orraztegia zegoen ezpaloitik Mendebalderantz, ondoko etxeak ikusiko genituzkeen:

— aurrez aurre (baina fotorik ezin eskain dezakedala) go-

rontza-fabrika genukeen; batetik besterainoko *Farcy-Oppenheim* letrerotzarraz horniturik (gero itzuliko lantegi honetara);

— gure ezpaloitik, berriz, Berra-ren etxe biak (1894), argazkietan ere froga daitekeenez;

— Melitón Iturria Allende-Salazar elizondoarraren etxe altua (1894), L letrakoa, gero 12 birbataiatua; hori, dakigunez (berrikus, bestela, VII.Kap.) Braulio-ren anaia zelarik;

— Jose Joakin Aristegieta-ren M letrako etxea segidan (1894); 14 zenbakia gero. Maria Aristegieta bisitatu nuenean (1989, bere 94 urteetan zegoelarik) beraren aitak eraikitako etxe horretantxe errezibitu ninduen. Bi etxe horiek, baita Matia 30 eta 46koak, Aristegietak eraiki zituen 1900 inguru horretan, tunelaren eraikuntzan parte hartu ondoren;

— Santos Zinkunegi-ren O letra (16 zenb. gero), 1902an eraikia; berau *frente a la fábrica de corsés* dinosku artxiboak (1903ko Maiatzaren 9an zilegiztatua);

— eta, etxe-mordo honetan azkena, Migel Sukiak egindako *63* etxea (Matia 18, segidan), bai Pedro Sukiak (90 urte) eta bai Jose Luis Torner de Cerverak (77 urte) errezibitu nauten etxea (1905koa, *en pertenecidos de Chillardegui*).

Baina honetaraz gero, goazen berriro *barrukaldera*. (Ikus eskuin aldean).

Lehenengo aldiz begiratzen dugun argazki honetan, badugu xehetasun interesgarria franko.

Ezkerraldean agertzen zaigun etxesail hori (bere tximenea eta guzti), Miramar-jauregiaren menpeko batimendua zen: erdaraz *Caballerizas* izenekoa (*Errege-Zalditegia* agian euskaraz). Hor zeuden, besteak beste, jauregia eragiteko makineria eta motoreak.

Hor, erditsuan, ageri den baserria, Aiete-ra abiatzen den *estrata*ren ertzekoa, *Txoldaune* da (ikus X. Kap..); bertako morroinak su-emanda kiskalia, omen.

Miramar-en lurralde osoa inguratzen zuen murrua ikus daiteke hor (gaur egun galdua du parte bat, Antiguako irakurleek ongi dakitenez); baita berori gurutzatu, eta barru aldera sartzeko ate dotore bat (baso aldera goazelarik, irakurleak hobeki ulertzeko). Ate horretaz bestaldera pasa, eta *Illunbe* topatuko genuke; eta bertan biztanle Berra eta Aristegieta-tarrak (gerrate-garaian hau).





Marroko-ko gerratearen garaian (1921-1922), *Txillardegi* etxea odol-ospitale eta zaurituen pausaleku bihurtu zenean, Zalditegi hauetan ere beste zerbitzu batzu antolatu ziren.

Zergatik ez dakidala, *Txoldaune* ondoko batimendu hauei *Docker* omen zeritzen.





Goiko argazki horretan, garbiki ikusten dira Elortza-ren etxe batzu.

Handiena, arbelezko teilatu erpinarena, Matia 1-da, *arkuen etxea*. Gorontza fabrikaren garaian *C* batimendu izana, 1890an jaso zuen eraikuntza eta bizitzeko zilegiztakuntza ziurtagiriak (1890-V-24). Etxea jasotzerakoan, etxearen ertzetik beretik pasatzen zen erreka estali behar izan zen; berau hortixek abiatzen baitzen Brunet-en fabrikaren aldea (V. Kap.an ikusi dugunez).

Beronen ezkerretan, hiru zatitan partekaturik itxuraz, batimendu luze bat ikus dezakegu: gorontza-fabrikako *B* izeneko langile-etxea (*A* letrako kidea Matian zegoen).

Erdialdean belaze zabala. Hots, inguru horretantxe egon zen *Bordasuri* (edo *Bordatxuri*) baserria, Zelarain-darrena izana; gero, ezkontzaz, Telleria-tarrengana pasea; eta XIX. mendearen erditsuaz geroztik eraatxia eta desagertua. *Bordasuri* zaharreko (eta *Bordaberri* berriko) eskualdea, Antza Amundarain-darren jabego bihurtu zen erosketaz (1919). Eta etxe handi hori hortxe ikus dezakegu, gorontza-fabrikako langileen etxearen alboan; eskuin alderago *Borda- Errekalde* baserria uzten dugularik.

Argazki honetan ere, oso ongi ikus daitezke Elortza-ren etxe batzu: Matia 1-koa, eta Matia-atzekaldeko B etxea; gure aldetik barruki luze hori erakusten duena.

Eskuin aldeko baserria, dakigunez, *Txoldaune* da. (Ikus 225. orr.).

Behin eta berriz aipatu dugu *Farcy-Oppenheim*en fabrika, Bai. Baina zer debru zen fabrika hori?

Lantegiak bost batimendu zituen (gehienak gaur egun zutik):

— Matia-Plazako izkinako etxe nagusia, *casa para particulares* gisa asmatua eta eraikia; dotoreena, *C* letrakoa, gero Ezenarro-ren espartin-denda zeukana;

— *A* eta *B* izeneko etxe luze eta apalagoak, *casas para obreros* bataiatuta: *A* Matia kalean (3 eta 5); eta *B*, atzekoa;

— *E* patio bitxi bat zen, estalia, *Villa Maria*ren baratzaren ertzean jarria.

Udaletxeko artxibategian ur-gaztelu metaliko bitxi bat topatzen da, batimenduen erdian (Matia atzean, beraz); baina inoiz gauzatu ote zenez ez dakit.

Matia aldeko 3 eta 5 etxeetan, lehenengo eta bigarren pisuetan, juxtu Matia 14-16-ren aurrez aurre, 90 bat josteko makina zeuden. 15 H.P.tako *Davey-Paxman* makina errara batek eraginda, ardatz luze jirakor batek mogitzen zituen. Ardatz hau Matia-kalearekiko paralelo jarririk, motore hori oso zaratatsua zelako, txabola berezi batean paratu zuten, *B* eta *C* batimendu luzeen artean (gure hizkeran *Matía- traseran*); *en el patio o plaza del Sr. Elorza* irakurri dugu.

Matia kaleko zaharrek diotenez, sekulako letrerotzarra jarri zuten goiko leihoen azpian: *Farcy-Oppenheim*, ia-ia *Villa Maria*raino iristen zen luzeran.

Lehenengo bi estaietan, fabrika zegoen, eta josteko maki-

nak; goiko estaian, berriz, fabrikako *maistrak* (josten irakasteko irakasleak, azaldu didatenez).

Baina goazen Benta-Berri aldera.

*Escolta Real* aldapa gurutzatu ondoren (eta Loño-ren *Villa Aldea*, eta gerozko *Villa María*, ezkerretan utzita: geroxeago ikusiko dugu bertatik), gaur *Villa Arcadia* dagoen lekuan, edaska luze bat aurkituko genukeen; goizetan esnezaleen asto, idi eta behiei edan erazteko oso aproposa. (Ikus 229. orr.).

Gero Aiete-rako aldapa topatuko genuke geure ezkerretan (Heriz-en paseabidea, Roque Heriz deputatu-ohiak *Txilardegi*tik *Lugaritz*aino bere kostuz zabaldua).

Eta gero, ezkerretan, Heriz-aldapa eta Usurbil-go bide zaharraren artean, arbelezko teilatuaz estalia, *Villa Manolita* (*Villa Aldea*ren kide hertsia, egiaztatuko dugunez). Sopelarte-ren xalet hau, guztiz frantses kutsukoa (Goikoak projektatua izan zitekeen, zinez!), 1894ko Ekainean estrainatu zen. "Manolita" izendapen hori, Braulio Iturria-ren moja-alabaren izenetik ote den nago; orua "Txillardegi"ri baitzegokion jatorriz.

Segidan, goranzko galtzara zaharra ezkerretan utziz, Dougier-en ispilu-fabrika topatuko genuke (planoak 1902ko Urriaren 18an onartu ziren Udalean); hiru barruki txapalez osatua, Matia kalearen gainean segidan. (Jadanik erdizka bederen ikusia).

Aurrerago, berriz, *Etxeburuba* lur-sailaren aurrekaldean, *Villa Flora* izenekoa (jadanik aipatua); eta ondoren, *Villa Clara* delakoa (1924ra arte zutik egona).

Harantzago, *Txillardegi-txiki*ko eskualdea atzean lagata, Munoa-ren *Rafaelene*ko lurretan sartuko ginateke (Ib.13; 1862); gaur egun eraatxia izateko bezperan bide dagoen *Egiola* (230) xalet-ilara bikoitzaren eremuan (ABCDEF, ezkerretan; GHIJ, eskuinetan. Gaur egun desagertua).

Oraino haratago joan, eta benetako *Benta-Berri*ra iritsiko ginateke (Ib.14; 1862). Zubizarreta-ren *Xexene*ra, beraz; Antigua-ra zetozen baserritarren biltoki eta azienden kokaleku izan eta egondakora.

Hain zuzen, Benta-Berri-plazatxoaren inguru horretan, bazegoen *zerbait* antolatzerik: *Perratzalle* perratokia, *Lopexene* sagardotegia, *Errotaundieta* errota- zaharra, *Benta-Berri* biltokia; are *Sansustene* jauretxe zaharra ere... Baina horretarako besterik behar da bihotz-ondoan; eta ez *Mammon*en gurtza bakarrik... Itzul gaitezen berriro Matia-kalera.

Miramar jauregiko atezantzaren ondoan (228) exeri diren mikelete horiek, egunero ikusten zituzten antigutar jendeak. Arriluzko etxetxoa, argazkia arretaz begiratuz konpreni daitekeenez, laburturik dago gaur; *Illunbe* aldera jaisten zen aldapa iluna zabaltzerakoan, Matia-kaleko atezantza hori txikitzea erabaki baitzen.

Gero, berriz, gorontza-fabrika, eta *Villa Maria* eta *Villa Manolita* ezkerretan eta gure atzean lagata, Dougier- en kristaleria genuen. Zer ote zegoen hor?

Lehenengo barrukian, haroztegia zegoen; bigarrenean, zilar-





keta-lantegia; eta hirugarrenean, zabalenean (Usurbil-go galtzara zaharra igo-ala, Iturria-tarren lursaila zabalago egiten zelako), ispiluen hegiketakoa, *biselado* erdaraz.

Hortik aurrera, esana dugunez, Braulio Iturriak eraikitako bi xalet xarmant, *Belle Epoque*ko kutsukoak: *Villa Flora* eta *Villa Clara*.

Aurrerago, Olasagasti eta Egia-ren etxe-multzoa (*Egiola* guretzat), karabineroen kasernarekiko mugakide: 1916an estrainatutako etxe-mordoa; eta liburu hau moldiztegirakoan, eraatxi berria.

Goiko xalet hori, ezaguna duzu dagoeneko... *Villa Maria*. Joan den mendean Loño jeneralak bigarren karlistada amaitzean eraikitako *Villa Aldea* izana; eta gero C.A.M.en sukurtsala eta *Gurutze Gorria*ren sendalekua izana.

Serora horiek hor agertzen direnez gero, eta Gurutze Gorria leihoen ondoan ikus daitekeenez, data eman daiteke: 1918 inguruan. Ez askoz beranduago; *Arcadia* 1920koa delako.

Jadanik ikusia genuen etxea; baina berriro ekarriko dugu.

Planotxoa 1901-koa da; eta begiratu hutsaz, beste azalpenik eman beharrik ez dagoela iruditzen zait.

Lugaritz-a gorantz doan bidea (*Camino n.37* ofizialki), *Heriz-aldapa* da gure hizkeraz; eta *carretera de Irún a Andoain* hori, gure Matia-kalea.

Matia zabaltzerakoan, moztuta gelditu zen Bazterretxen barrena zihoan Usurbil-go galtzara zaharra (*parte suprimida del camino* irakur daiteke *Villa Manolita* eraiki zen puntuan).

*Aranaldene* bikoitza zen: batetik *Aranaldene* bera (Lug. 54; 1862); eta bestetik *Aranaldene-txiki* (Lug. 55; 1862), bestearekiko *al contacto* (sic).

*Villa María*, berriz, aldapan behera joan, eta ezkerretan zegoen; *Aranaldene* biak, aldiz, eskuinetan zeudelarik, gaur *Oliyos* taberna dagoen lekuan, gutxi gora-behera. Hitz batez, fotoan horrelakorik somatzen ez bada ere, *Villa María* eta *Aranaldenea*ren artean, *Escolta* aldapa dago.

Eta ondoko orrialdeetan etxe hauetaz mintzatuko natzaizue.



On izan daiteke, planoan arestian ikusi duguna, orain Agirre Aristegieta-ren fotoen laguntzaz ikustea.

Argazki hau, irakurleak berehala errepara dezakeenez, oso zaharra da; 1880 ingurukoa. Erdi-erdian *Aranaldene* biak ageri dira, elkarri eratxekiak. Atean ikusten dugun gizasemea, Amiano-tarren arbasoa da noski; baina nork zehazki ezin esan.

Beste ohar bat egin behar da honetarakoan: Loño-ren "Villa Aldea" (gero "Villa María" izana, eta beranduago Gurutze Gorriaren eritetxe bihurtua, oraindik eraiki gabe dagoela.

Osorik dago, erdian, Brunet-en botila-fabrika, *"Ondarreta"* etxe berria eta guzti.

Zeharka ikusten dugun kaminoa, gaurko Matiakalea da; eta Gorgatxo erreka gainditzeko, zubitxo bat ikus daiteke eskuin aldean. (Gogoan har Bazterretxe-ko *Zubiaurre* etxea). Hain zuzen ere, horixe da Elortza-ren etxe azpitik (Matia 1), plazaren ertzetik, Errotatxo aldera, konkor borobilean, *"Gutenfelder"*en azpitik eta Satrustegi-etorbidean aurrera, *"Barraka"* inguruetan *"Konporta"* errekareko bat egiten du.

Eskuin aldeko ertzean, Eztenagaren pospolu-fabrika ikus daiteke, bere tximenearekin (gero Matia 6 bihurkizuna). Eta, atzerago, *"Basterretxe"* auzoko etxeak: *"Sutegizar"* altua, ertz-ertzean; eta "Zubiaurre" izenekoa, Eztenaga-ren fabrikaren atzean.

Ezkerretako etxe handia, zuhaitz artean izkutatua, *"Txillardegi"* jauregia da; eta beronen ondoan, eta botika-fabrikaren aldera, Gaskue-Iturria-tarren ukuilua (*"Txillardegi"* etxeari buruz).

Argazki honetan ageri den guztia desagertu da (ez baita kasu bakarra liburu honetan barrena). Santa-Klara irla ezagutzen dugu bakarrik, ia-ia gaurko itxura berean.

Beste batzutan baino nekezako irakur daitezke hemen "Fábrica de Fósforos" hiru hitzak; baina jadanik badakigu.

Beharrik!





*Aranaldene*ko azken lekukoa, Anjel Amiano Altuna, behin eta berriz hizketatzeko aukera izan dut (jadanik esana dudanez). Eta Anjel hau, 1907koa, solastatu dudan antigutarrik antigutarrena dela esango nuke. Aita *Ebro* baserrikoa zuen (Ib. 75; 1862). *Zapatari* ondokoa, *Teresatxo*ren aurrekoa. Eta ama, beste Altuna asko bezala, *Beriyo Goiko*koa (Ib. 55; 1862). *Konporta* gain-gainekoa, alegia; gorantz joan, eta *Andrestegi* (Ib. 46; 1862), *Almortza*, eta *Beriyo-Azpi* (Ib. 45; 1862; arte apartaren ondoko baserria) atzean utzi ondoko etxea.

*Aranaldene* (Amianok *Aranaldénia* dio, eta artikuluaz deklinatzen du) *aundiya eta zaarra zan*, beraren hitzez esateko. Eta *Arratoia* gaitzizeneko harakin batena zen (Izagirre-ren bat izan behar, ene ustez).

*Aranaldenean* sagardoa franko saltzen omen zen; eta amak maneatzen zituen sardina eta bixigu erreen usain sarkorra omen zegoan oso maiz inguru haietan. Arrastirian, batez ere, lanetik irtetean, *Donostiatik ere* hurbiltzen omen zen jendea *Aranaldenean* afari merienda egitekotan. (Begira berriz 227. orr.)

Sagardoa ez omen zen bertakoa, *Beriyo-Azpi*koa baizik (Zuzenbide Fakultatearen gainean zegoena); eta etxazpiko kupela luzetan gordetzen omen zen.

Badirudi, hitz batez, *Aranaldenea*rekin batera, hauek zirela Antiguako sagardotegirik famatuenak: *Arbizketa* (Altuna), *Lopexene* (Zuloaga), *Xexene* (Zubizarreta) *Kaximiro* (Kaximiro Jauregi), gaur *Kala-Berri* dagoen jatetxearen azpian; eta *Txan- txerreka.*

Pantxika Altuna (Anjel-en amak) sardinak, xapoa eta bixiguak prestatzen omen zituen; eta sagardoa basoka saltzen (Anjel-ek esan didanez, *kanilla* egiten zen, eta ez *txotxa*).

Donostia-ko festak zirenean, eta antzinako kantuen esanak beteaz, Anjel mutikoak jauzi egiten zuen hortxe ikusten duzuen leihotik; eta ama ezertaz jabetu gabe, Matia-kalean prantatzen...

Beste xehetasun gogoangarri bat. *Txillardegi*koak askotan joaten omen ziren *Aranaldene*ra esne bila (hirurogei metro bai ote bi etxeen artean?). Baina Anjelek azpimarratu didanez, sekula ez Iturria-tarrak berak: beti ere etxeko zerbitzariren bat bidaltzen.

*Aranaldenea*ren etxe-gradoaz galdetu diot (zenbait paper zaharretan *casa de campo* gisa agertzen baita etxea). Amianok, ordea, ez du sailkapen hori konprenitzen. Berak etxe hartan bere lehenengo hamabi urteak pasa ondoren, ez du horrelako kutsurik somatu. Hain zuzen, etxea kankailua, zaharra eta xaharkitua zela uste baitu. (Josu Tellabide adiskideak, baserri-kontu hauetan oso ikasia, sailkapen horretan huts bat dagoela uste du).

Bego, beraz, horretan gure *Aranaldene* hori.

Eta goazen *Villa María*ra. (*Aranaldene* eta Matia artean argazki honetan.





Horra hor *Villa María* (*Gurutze Gorri*ko enplegatu zaharrek honela deitzen diote oraindik; nahiz ofizialki, erreginak erosi zuenez geroztik, *Villa María Cristina* izan...)

Behera doan aldapa hori (mutil horien atzetik) *Aranaldene*ra doa.

Eskuin aldean aska luze bat errepara daiteke; gero, 1921z geroztik, *Villa Arcadia*k hartuko duen lekuan.

Ezkerretako etxea, jakina, gorontza-fabrikako A batimendua da.

Leihoen ondoan gurutze gorria ikusten da.

Hitz batez: 1920 ingurukotzat jo daiteke foto hau.

Xaletak bazeukan (argazkietan ikus daitekeenez) beirazko galeria luze bat Hegoaldera begira, erabat *Txillardegik* zeukanaren antzekoa. Argitasunarekiko eta eguzkiarekiko maitasuna gaurko kontu iragankorrak ez direlako; eta are gutxiago Donostia euritsuan (*euritsu hartan* idatzi behar nukeela dirudi...).

Baina honetaraz gero, nor debru zen *Excmo. Brigadier Loño* hura? Jator erantzungo dizuet: ez dakit.

Badirudi jaun hark ez zuela etxe hau bizileku nagusitzat; Donostiako paper zaharretan Iturria eta Caudilla agertzen diren arren, Loño aldiz ez baita sekula agertzen.

Karlisten kontra oso ausarki borroka egin zuen Francisco Loño Pérez izeneko *general* bat agertzen da liburuetan (1837-1907), Cuban 1873an ibilitakoa; eta Santa Cruz apaizaren garaian, *Norteko Probintzietan* ari izana.

Anaia edo ote zuen? Baliteke.

Geroago, mende haseran Etxepare bi ahizpak bizi izan ziren *Villa Maria* horretan, baina ez dut berekin hizketatzeko aukerarik izan.

Xaleta 1918an Gurutze Gorriaren ospitale bihurtu, eta berehala hasi zen *Arcadia*ren eraikuntza.

Argazkia arretaz begiratuz gero, eskuinetako ertzean Sopelarte-ren *Villa Manolita* ikus-





ten da, 1910 inguruan *Villa Pilar* ere deitua. Murrutxo batez inguratua, Matia-rekiko atzealdean geratzen zen; Heriz-aldaparekiko angelu zuzena eratuz, eta *Txillardegi*rekiko erabat aurrez-aurre.

*Villa María*ren teilatu erpinaren atzekaldean (fotoari gagozkiola), bi miradore bikoitz eta luze ageri dira: mutilen eskolakoak dira (eskolak, ikusia dugunez, Heriz-aldaparen aldera zeukan aurrekaldea).

Ezkerretara jota, *Guarda Zibila*ren kasernatzarra topatzen dugu, berau ere XIX. mende-bukaeran eraikia (1892, Miguel Comín-en eskaeraren arauera).

Goraxeago, azkenik, guri begira antza, Roque Hériz-en jauregia (ordurako Rafael Hériz Cornejo-ren eskuetan utzia).

Eta bada garaia, nik uste, *Villa Arcadia*ren eraikuntzaz eta Ezenarro-tarrez zerbait esateko.

Ezker aldeko etxaurrea, *Manolita* xaletari dagokio; 1892ko abenduaren 19an Sopelartek udalean sartutako eskabidearen arauera (ikus artxibategian lortutako zirriborroa).

*Manolita* eta Dougier-enetik harat, 1916an eraikita xaletmordoa genuen, Benta-Berri-rakoan ezker aldean. (Behean ageri).

Baina, horiek ikusi ondoren, itzul gaitezen Matia-sarrerara.




PLANO GENERAL
DE LOS TERRENOS DE
LUGARITZ PROPIEDAD DE
D. EVARISTO SANMARTIN
Vendido
Vendido
Chalets económicos
Asilo de niñas ciegas
Cuartel de la Guardia Civil
Lore-tokl
Hospital de la Cruz Roja
Escuelas
Café-Cine
CALLE MATIA
Munive
Peñaflorida
S. 2161
S. 1960
S. 337
ESCALA 1 : 1,000

Evaristo San Martin-ek utzi du aztarnarik Antiguan: *Monte Igueldo S.A.* batetik, eta bertako joko eta solastoki ospatsuak (ik. XII. Kap.); eta Heriz-aldapako xaleta ilara ezagun hori, bestetik: gorakoan ezkerretakoa. (Ikus 231. orr.).

Planoan badaude, puntu azpimarragarri batzu:
— *Arcadia* etxean, *Café-Cine* irakur daiteke aisa (Txarola-Zinema, alegia);
— *Munibe* ondotik goraino abiatzen den eskailera azkengabea;
— *Villa María*, jadanik *Hospital de la Cruz Roja* deituta agertzea.

Hitz batez, 1922an gaudela esan behar.

Antigutar zaharrei *espartinak* hitza bota; eta, besterik gabe, Nikomedes Ezenarro eta Matia 1ko denda datozkie gogora. Zaharrenak, menturaz, izkina horretantxe egondako kafetegiaz oroitzen dira zenbait aldiz, markesina ere aipatuz. Jaun hura 1940-1945 inguruan ezagutu genuenok, antipar asimetrikoz *paraturik* ikusten bide dugu geure barruan, Ondarreta-ko jardinetan barrena, bere brusa urdinska luzeaz jantzirik; eta, tarteka-marteka, orduan ere bere alboan zeukalakoan, Federico Alvarez zaharrari hitz egin ustean aideari kalaka ari.

Aspaldidaniko lagunak ziren biak; eta espartin-dendara azaltzen zen maiz Don Nikomedes pasean ateratzekotan.

Mende haseran *frantses batzuk* (?) espartingintzako lantegi bat antolatu omen zuten Matia-atzean. Gabriel Léon Supervielle izenekoa izan daiteke; 1897an Antiguara etorri baitzen *manufactura de suelas para alpargatas* izeneko lantegia eraiki zutenak.

Lehentxeago ere hor zeuden Supervielle-tarrak. Beroien izenean, Teodoro Mallo izeneko batek eskabide bat sartu baitzuen Udaletxean 1895ko Maiatzaren 14an, baiezko erantzuna urte bereko Ekainaren 6an hartuz. Projektua hau zen: *en las casas llamadas del Sr. Elorza, en la calle Matía*, 10 H.P.tako gasmotore bat (Otto-Groseley markakoa) jartzea. Gorontza-fabrika eta zola-fabrika hau guztiz desberdinak zirela iruditzen zait, nahiz inguru bertsuan.

Ezenarro Artiz-tarrak (Bonifazio seme-lehena, Eleuterio, eta Nikomedes anaia gazteena) hantxe trebatu bide ziren espartingintza-arloan.

Joera hori lehenagotik ere bide zetorkien; Matia sarrerako *kaxeta* horretan, espartin-denda apal bat zabaldu baitzuen Ezenarrotar guztien asaba zen Praixku Ezenarro jaunak *Herrerotegitxiki*ren saihetsean (ikus fotoa).



Nor ote zen, ordea, *Arcadia* izena etxe berri horri eman zion andere edo neska hura? Horixe erantzungo dugu ondoko lerroetan. Antigutar zaharrek hau badakite: gaur bere 87 urteetan mardul dabilen Arkadia Ezenarro ezagutzen dutelako.

Nikomedes Ezenarrok etxearentzat izen hori hautatu zuenean, neska gaztea zen Arkadia bere alaba (argazkian, ezkerretan exerita dagoena). Aita bergararra zen (1865-V-14), eta 1895an iritsi zen Antiguara.

Argazkiko gainerakoak Ezenarro-tarrak eta antigutarrak; eta izen-deiturak emateko unea dela uste dugu. Ezkerretatik eskui-



Euxebi Zatarain *Belen* baserrikoa alabaren senarra.

Nikomedes-ek plazako lantegian bere dirutxoak bildu bide zituen. Eta metro koadroko 80 pezeta ordainduz, *Aranaldene* ondoan etxe dotore bat eraikitzeko baimena eskatu zuen Donostiako Udalean 1920ko Martxoaren 24an. Eskabideak honela zion: *entre la carretera denominada de Hériz y la carretera vecina que conduce al Cuartel de la Escola Real.*

Obrak has aitzin, garaitzapen txiki bat lortu zuen: *El Excmo. Ayuntamiento retirará, por su cuenta, el abrevadero situado en los terrenos de la finca Aranaldenea*, adosado al muro que se levanta paralelo a la carretera de Madrid. Matia- kalea besterik ez da Madrileko errepide hori; eta uhaska ikusia dugu jadanik kapitulu honetxen haseran.

Lurralde honen jabea Higinia Izagirre Miranda zen; eta inguru hura guztia *Aranaldenea*ri zegokion.

Istilu bat sortu zen berehala: Gurutze Gorriaren etxea ondoan zegoela bide, ez omen zeukan Nikomedesek etxea atzera-koskarik gabe (*retranqueo*rik gabe) eraikitzeko eskubiderik. Batzuk baietz zioten, bes-

netara, eta zutik: Feli Ezenarro (Karlos Irazusta-rekin ezkontzekoa), Tere Ezenarro (Juan Ziriza-rekin ezkontzekoa), Boni Ezenarro (Heriz-ko eskolakumeen artean jadanik haurtzaroan ikusia, eta gerora M. Luisa Hermoso-rekin ezkontzekoa); eta Juli Ezenarro (Albisu-ren emaztea izatekoa; eta *Mikel Antza* idazlearen amona: benetako deituraz Mikel Albisu Iriarte).

Exerita oraingoan, eta ezkerretatik eskuinetara: Arkadia Ezenarro (oso gaztetandik Zubillaga-ren alarguna, eta liburu honen prestakuntzan laguntzaile abila izana); *Nikomedes Ezenarro Artiz* (espartin-gilea; jatorriz Bergarakoa: aita, Praixku Ezenarro Alberdi, 1840an Deba-ibaiko hirian jaioa); Enkarnaxion Antza (*Bordaberri*koa, elizaren atzekaldean behin eta berriz ikusia dugun etxe luzean); eta Silbino Ezenarro,



te batzuk ezetz; eta 1920ko Ekainaren 25ko udal-bilera ez omen zen goxoa izan...

Handik ia urtebetera (1921-IV-6) berriro planteiatu zen Ezenarro- ren eskabidea: Escolta Real-en aldeko pareta, goraino zut-zuta egitea.

Beste alde batetik Higinia Izagirrek, zenbait urte lehenago Braulio Iturriak hautatutako jokabidea eredutzat hartuz nonbait, berak ere bi metrotako pasabide bat atxiki nahi izan zuen beretzat (34,10 metro luze); zuzenean horrela Matia-kaleraino *bere* korridoretik heldu ahal izateko. "Zor dan bide" famatua, Antiguan bizirik.

Eraikitzeko baiezkorik ez zuen Ezenarrok 1923ko Abenduaren 11ra arte lortu...

1925an, halaz, ere, beste sinadura-bilketa bat antolatu zen Antiguan Nikomedes-en alde; eta interesgarri izan daiteke espartingilearen lagun batzuren izenak ematea: *Txillardegi*eneko bi zaharrak hilik (Braulio eta Maria Luisa), Rafael Iturriak eskaini zuen bere baiezkoa; eta honekin batera: J. Eztenagak, Teodoro eta Juan Kutz anaiek, *Rosario*ko Estanislao Marcellánek, Emilio Txarolak, Jose Sukiak, Anjel Amianok... eta, *por sí y en representación de Gregorio Irastorza y Francisco Enríquez, ausentes*, *Gutenfelder*eneko Federico Alvarezek.

Eraiki egin zen *Arcadia* etxea gaur ikusten dugun bere horretan. Eta aurki famatu egin zen etxea; gaur Etxeberria taberna dagoen izkinan, antigutarren babesleku kuttun, *Txarola Zinema* zabaldu zelako. Nor oroitzen ote da honetaz?

Baina gauzak honela, edo honelatsu bederen, gertatu ziren. Dougier-en ispilu-fabrika, berriz, 25 urte besterik ez zuen egin Matia 15ko bere kokalekuan.

Aranburu-rekin bazkideturik, Escolta Real-era jaitsi zen entrepresa, 1927ko plano honetan ikus daitekeenez.

*Txoldaune* baserriaren irudia ikus daiteke.

Hortxe egon zen, beraz; ondoko baserria handik lau urtetara arrunt erre zelarik.






# X. ESTRATA

Hauxe da mende bukaeran (1890) Adolfo Morales de los Ríos-ek altxa zuen planoa.

Etxe batzuren izendapena zuzena ez bada ere (*Herrerotegi* biak Matia-kalean zeuden, adibidez; eta lanak izan ditut tamainako hutsen bat egon zitekeela sinesteko), Tolosa-ko Laborde-k koloretan argitara zuen plano honek badu bere xarma.

Begiraldi labur bat eman, eta Usurbil-go bide zaharra nondik zihoan berehala asma daiteke: baserriak lerro-lerro topatzen ditugun eskualdean.

Planoaren eskuin aldean, ertzetik zentimetro pare batera eta ia- ia paraleloki, bi bide abiatzen dira, biak aldapan gora, planoaren gaikaldera; eta biok *P* letra daraman etxetik abiatzen dira, *Txillardegi*tik.

Lehenengoan, zabalenean, ezkerretarantz doan horretan (Roke Heriz Elizalde karlista ezagunak bere kontura ireki zuen horretan), ez da etxerik bat ere ageri. Ireki berria den seinale.

Bigarrenean, berriz, hestuenean, eskuinetarantz abiatzen den horretan, baserriak aurki daitezke ezker eta eskuin. Bidean gora joaki, ezkerretan Peñaflorida-ko Kondearen eskualdea aurrenik; gero *Munibe* jauregiaren kokaleku, ondoko urteetan ikastetxe bihurtzekoa. Aurrerago, eskuin aldean oraingoan, *R* etxea, Gutiérrez de Terán-darren *Sansustene*-ko atezantza edo goardetxea. *Gerrabia* ondoren, ezkerretan (*Gerrene-bia*, Lug. 56, 1862), *S* letraz; eta *Gerragoia*, *T*, goraxeago, ezkerretan ere bai. Gorago, eta planoan agertzen ez delarik, *Lugaritz* jauregia, *U* letraz (Lug. 57; 1862), urte horietan Mariategi San Bernardo-ko Kondearen jabego, eta mendiaren gailurrean. Lugaritz hura etxe ederra bi-

de zen: *más que mansión humana parece nido de hadas* zion *Euskal Erria* aldizkariak 1894an.

Joan den mendean Mariategi jaunak Nikolas Zelarain-i erosi ondoren, abel eta landare hazkuntza-leku jakintsu bihurtu zuen. Manuel Mariategi Kondeak bultzatu zituen ikerketak; eta ikerlanak sustatzekotan udaldiak Antiguako bere jauregian pasa ohi zituen: *ese prócer... reside frecuentemente (en Lugáriz) durante el verano... apóstol del progreso... (habiendo construído) una vaquería modelo* (*Euskal Erria*, XXX, 1894: 76/78 orr.)

Etxea Gipuzkoako Apezpikuaren egoitza izan zen zenbait urtez, itxura berrituan dena dela. Sarrera nagusiko ate handia, bederen, herdoildurik egon arren, hortxe dirau oraindik *Lugaritz* zaharraren lekuko; goardetxeko teilatu-hegalak ere bere jatorri kaparea salatzen digularik.

Baina itzul gaitezen planora.

Behereko aldean, eta berriro ere bide zaharraren bi alderdietan, *Isaseneko* etxe-ilara ikus daiteke, eliza berriarekiko aurrez-aurre. Gero eskaileratxo bat agertzen da (aurreko foto batzutan ikusia). Eta ondoren Eztenaga-ren pospolu-fabrika, kanalaren ondoan; bere karratutxo zuria tximenearen kokalekua markatzen digularik.

Ibaeta aldean (bide zaharraz behekaldean, planoari gagozkiolarik), eta *explicación* hitzaren ondoan, botila- fabrika, geroko urteetan *Gutenfelder* eta *Rosario* eraikiko ziren lekuan.

Bakarrik, eta *P* letraz, Iturria-ren *Txillardegi* (Ib. 10; 1862), VII. Kap.an azaldua.

Matiaz bestaldera, zabaldu berria den Heriz-aldaparen ezkerretan, bi etxe ageri: *Villa Aldea* lehenengoa (planoan irakur daitekeenez, *Propiedad del Brigadier Dn. José Loño*, gero *Villa María* birbataiatua) 1862ko etxe- zerrendan ez dator; eta geroztik eraikia izan zela pentsatu behar da.

Ezkerralderago, baserri bat (etxe bat, hobe), *Terreno vendido a Juan B. Iraola* hitzen ondoan ikus daitekeena: *Aranaldenea* (Lug. 54; 1862), jadanik ikusia. Bidenabar esateko, *Escolta Real* izeneko aldapa ireki gabe dago oraindik.

Guztiz ezkerretan, eta *Cornejo* hitzaren ondoan, *Txoldaune* (*Soldaduenea*, Lug. 27; 1862), antigutar zaharrek *estrata* deitzen duten harri-bide hestuaren ertzean. Miramar jauregiko mugamurruaren ondotik zihoan *estrata* honi, *35.bidea* deritzo artxibo zaharretan. (Planoan ere *Soldaduenea* irakurtzen da).

Eta gure arreta-gunea izango da ondoko orrialdeetan.

*Bordaberri*, *Borda-errekalde*, eta *Atorrasagasti-ren baratza* ingurua, Antiguako fadura zaharrak bezala, lokatzetan egoten zen maiz; urpean ez esateagatik. *Ibaeta* hitza sustraiaren adieraz ulertu behar dugu.

*Estrata*, hitz batez, lokatzetatik eta lohietatik gora abiatzen zen. Eta hauxe zen, hain zuzen, Hernani-ko errepidetik Antiguara jaisteko erabiltzen ziren bideetako bat: *Munto* parean hasi, Aiete aldean; *Illunbe*ra, eliza berriaren ondora.

*Estrata* ondoko baserrien izen-lerrokada gogoan atxikitzen dute antigutar zaharrek, eta aisa errepikatzen: *Illunbe*, *Txoldaune*, *Txirain* (*Etxenagusi* ez dute esaten), *Untzene*, *Portuene*, *Gantxegi*, *Juaindegi*, *Erramundegi*, *Otxanda*; eta, goi-goian, *Munto*. *Portuene* esanaz batera, *eroaren baserria* erantsi ohi dute.

Oker ez banago, *Untzene* ari da bakarrik oraindik bere baserri-lanetan.

Bide zahar hori sarritan labain, lokatz eta irristakor agertzen zelako, ohitura zaharrari jarraituz (1972ra arte egon bide da bizirik elkar-lan mota hau), 22 antigutar (izenak geroago) *en nombre y por encargo de la mayoría de vecinos del barrio del Antiguo... se brindan a trabajar en 'autzo-lanián'* (sic). Dokumentu honek 1910ko Abenduaren 5ko data darama (zaharragorik ere badago alor honetan); eta Luis Aiestaran Irazusta agertzen zaigu taldearen ordezkari.

Antigutarrei interesgarri gerta dakiekeelakoan, hona hemen 22 izenpetzaile horien izen-deiturak; nik neure aldetik, parentesi artean, zertzelada argigarri batzu erantsiz:

— Bentura Itxaso apaiza (*Isaseneko* biztanle, dakigunez);
— Serapio Gurrutxaga (pentsu-saltzailea eta okina, Enparantzatarren aitona; hau ere *Isaseneko*a);
— Lazaro Errazkin;
— Braulio de Iturria (*Txillardegi*eneko nagusiaren sinaduretan, sekula ez da *de* hori falta);
— Jose Maria Landa (*Txirain*enekoa? *Txoldaune*koa?);
— Frantzisko Illarreta (*Muntoa*enekoa edo *Portuene*koa);
— Antonio Gorriti;




Bide- konponketa horiek ez ziren oso taxuzkoak, itxura denez; hamalau urte lehenago (1896-VIII-10), bide berbera konpontzekotan, beste *auzolan* horietako batean abiatu baitziren antigutar batzu, *Antigua-ko Alkatea* zen Jose Mari Iguaran-en aurrean dokumentu bat izenpetuz. Besteak beste: Jose Maria Santxa, Luis Laskibar (1910koa bera ote?), Frantzisko Iztueta (ohar bera egin daiteke), Santos Etxeberria, Jose Etxabe (berdin), Frantzisko Illareta (berdin), Juan B. Lizeaga, Saturnino Leuna(sic), eta abar.

*Ausolan*ez (*autzo*, *auso*, *auzo*... *Ansa*, *Anza*... *suri*, *zuri*...!) konpondu zen, era berean, Zapatari-Merkader-Muntoa *36.bidea* (1883ko Irailaren 22an); batez ere *Munto* eta *Merkade*-ren arteko partea oso egoera txarrean zegoelako; eta auzolan-kide horien artean izen hauek topatu ditugu: Jose Manuel Eztala, Manuel Lizeaga (*Lisiaga* irakurtzen), Nikolas Zelarain (*Celaraiñ* sinatzen zuen *Lugaritz*en jabe-ohiak), Migel Etxeberria, Santiago Etxeberria, Manuel Urrestarazu...

— Pedro Maiz;
— Manuel Lizeaga (*Lisiaga* irakurtzen da; agian *Aizerrota*koen ahaidea);
— Migel Txarola (maisua bera izan daiteke);
— Ziriako Muñagorri;
— Santos Berra (Azurtza-tarren ahaidea, nik uste);
— Juan Goiburu (osagilearen anaia ote?);
— Jose Goiburu (osagilea bera, nik uste);
— Raimundo Goitia (*Herrerotegi*enekoa, Jose Antonio Elortzaren suhia);
— Jose Lizeaga;
— Jose Etxabe;
— Frantzisko Iztueta (*Untzene*koa izan daiteke);
— Frantzisko Otegi (Karlos Otegi idazlearen aitona edo?);
— Migel Arriaran;
— Jose Maria Lekuona (*Lekuna* irakurtzen da; eta *Juanindegi*enekoa izan daiteke);
— Luis Laskibar (*Txantxerreka*ri lotua ote?).

Agian antigutarren batek ezagutzen duke bat edo beste...

Antiguako bideak, hitz batez, *auzolan*ez konpondu izan dira oraintsu arte: *por medio de ausolana* —irakurri dugu berriro 1884ko txosten batean— *como ha tenido lugar en otros caminos de esta circunscripción*. *Auzolana* eguneroko ogia zen antigutarren artean...

Josu Tellabidek jakinerazi didanez (*Teresatxo*enekoa da sortzez; *Ebro* eta *Zapatari* ondokoa, beraz) *auzolan*ez konpondu zen 1972an *Aingeru Guardako bidea* deritzona. Seguru aski antigutar gazteen artean sinetsi ezina dena...

Eta goazen orain, argitzapen horiek horretan utzita, gure *estrata* horretan gora.





Eta horra hor, hasteko, mende honetan hor ezagutu dugun *Illunbe* etxea (Lug. 26; 1862). Guk ezagutu dugun *Andrestegi* etxea, aspaldikoa ez den bezala (zaharra erre egin zelako mende haseran), *Illunbe* hau ez da oso aspaldikoa, itxuraz.

Berau estrata atzeko alderdian zegoen; eta Berra-Aristegieta-tarrak bizi izan ziren hor (argazki hauek, hain zuzen, gaur Madrilen bizi den Antonio Berraren bidez lortu ditut). *Illunbe* zaharraren arrastorik ez dago, Berrak dionez (*Marruka*renak eta *Txantxerreka*renak, inguru horretantxe, dakigunez, arras ezabatu diren bezala).

Mende honen haseran bi etxe-bizitza zeuden hor; bi eskailera desberdinez zerbitzatuak.

Nekez bada ere, zeure begien aurrean daukazun kolore-argazki horretan (liburuan, nolanahi ere, kolorerik gabe argitaratuko) tatxa gorrixka ahul bat ikusten da zuhaitzen artean, (ikus 245. orr.) paretaz haranzko aldea; eta, zehazki, bospasei leiho erakusten dituen barruki luzexkaz bestaldera (gainean, fotoari dagokionez). Horixe da *Illunbe*. Miramar jauregiaren barrukaldean, beraz.

Ezkerretan, azaldu beharrik ez, eliza ikus daiteke (berorren atzekaldea bereziki); baita gorontza-fabrikari lotutako batimenduetako bat, azpian estalpe ilara agertzen duelarik. (Ikus 239 eta 245 orr.).

Honen ondoan, Antza-tarren *Bordaberri* etxe jendetsua; elizaren eta Elortza-ren tartean.

Eskuin alderago *Borda-errekalde* etxetxoa; oker ez banago antigutar isekazaleek *Mokordotxo* birbataiatua.




*Estratan* gora abiatu aitzin, eta oraingoan etxea geure eskuin aldean topatuz, eta Miramar-eneko esparrutik at, *Txoldaune* dugu (Lug. 27; 1862); oso antigutar gutxik *Sóldau-éne* ahoskatua. (Hmenetxe, argazkiaren eskuin-aldean).

Berorren *L* itxura ezaguturik, eta saihetsean estrata eta murrua dituelarik, nahasterik ez dago. Landa-tarrak bizi ziren hor mende haseran.

Ezkerretako batimendu luze dotoreak, Miramar-en Zalditegi-ukuiluak dira (*Caballerizas*), tximene luze batez hornituak.

Elizaren ondoan, berriz, gorontza-fabrika eta Elortzaren etxe nagusia (Matia 1); alde honetan *Bordaberri* eta *Bordaerrekalde* zaharrak ikus ditzakegularik.

Argazki honetan ere gauza bertsuak (245).

Urgull-en itxura harrigarriak (batimendu asko tinko, *Pasealeku Berria* oraindik ere zabaldu gabe daukagula) fotoaren zaharra salatzen du (mende hasera).

Hortxe ditugu *Miramar*, *Txoldaune* (*estrata*ren abiapuntuan); bere belar-meta (meta-ziria eta guzti agiri!) falta ez duelarik. (Ikus 237. orr. bereziki).

Beherean, ia-ia ezkerretako ertzean, parkerako sarrera dotore bat: *Illunbe* ondokoa.

Eskuin aldeko ertzean bertan, berriz, *Oroimena* jauregia; gazte-denboran guk *Caviedes* deitua; baina gero, erosketaz, hogeikadan, Güell-Ruiseñada-ko Markesarena izana.

*Txoldaune* baserria 1931an erre zen osotara, bertako morroinak su-emanda. Ikerketak desbideratzekotan bere burua zuhaitz bati lotuta topatu omen zuten gure gizona...

Erregeren ukuilu batzu hor daude oraindik.

Atzekaldean *Escolta Real* eta *Herizko* etxe batzu ikus daitezke.

Ezkerretan, tximenearen ondoan, Guarda Zibilaren 13. Tercio-aren kaserna; eta atzeraxeago, *Munibe* jauregia.

Kristaldegi luzeetako etxea Lugaritz-ko mutilen eskola da.





Horrela bukatu zituen bere egunak *Txoldaune* baserriak.



Gorago joanda, *Txirain* (Lug. 29; 1862).

Aurrean ikusten dugun anderea, Juli Iztueta da; jatorriz aldameneko *Untzene*koa.

*Txirain* (*Etxenagusia*) leku-izena, bere lehenengo osagaian salbatu arren (inguru horretan eraiki den etxe berria *Txirain-berri* izendatu dutelako), gutxik daki gaurko antigutarren artean baserri hori non zegoen.

Etxe honen parean, gutxi gora-behera, baina beheraxeago, eta beti estrataren ertzean (baina oraingoan Miramarren barrukaldean kokatuz), jauregiko behitegia zegoen (*Vaquería* edo *Vaqueriza* ere erdaraz deitua).

Arriluzkoa zen (Miramar-en esparruko batimendua guztiak bezala); nahiz ukuiluko pareta bat, estrata aldekoa hain zuzen, jauregi- inguruko murrua bera izan (zenbait argazkitan, arretaz begiratuz gero, froga daitekeen bezala).

*Txirain*en ondotik jaisten den estratan behera joan, eta berehalaxe topatuko genuke geure eskuin aldean.





Eskaintza kilikagarriak egin zaizkie Iztueta-tarrei azkeneko urte hauetan; baina berek ezetz eta ezetz, tinko.

Bihoakie antigutar guztion izenean gure gorazarre xumea lerro hauen bidez; eta beroien aurpegiak eta zertzelada batzu etorkizunerako aurkeztuz.

Estratan gorakoan joanda, *Untzene* baserria zegoen eta dago, esana dugunez (Lug. 30; 1862). Gaur Antiguako erretora den Jose Mari Iztueta apaizak esan didanez, jendeak ez du gaur inoiz *Untzaene* esaten; nahiz paper zaharretan horrela etorri.

Baserri hau Iztueta-tarren eskuetan dago aspaldidanik. Eta Antiguan fama denez, hortxe, estrata aldeko sarreran, aurki omen daiteke behinola Ondarreta gartzela hesteko erabiltzen zen ate nagusia... Omen! Baina ateak ez baitira beren buruz mintzo, ni neu ere isil nadin.

Argazki horiek 1979ko Otsailekoak izan arren, gaur ere *Untzene* itxura horretantxe dagoela esan daiteke. Elizatik berrehun bat metrotara, Antigua baserritarraren lekuko bizi bat...





Horra Iztueta-tarren multzoa:

Zutik (ezkerretatik eskuinetara):

— Joxe Iztueta (On Jose Maria apaizaren aita), bere eskopeta eta guzti. Oso gazterik hila (argazkia 1940 inguruan egina date);
— Hilari, Astigarraga-tarren ama.
— Xantus (= Santos, jakina). *Untzene*an gaur bizi den Patxiren aita; ama, berriz, Maria Mendizabal izanik.
— *Untzene*ko Maria, Sorrondegi-rekin ezkondutakoa. Mari Jose Sorrondegi azken honen alaba, Koldo Azurtza Aristegieta psikiatraren emaztea da. Iztueta hauxe da *Txirain* baserriaren aurrean ikusi duguna.

Eta exerita daudenak orain (bi gurasoak, jakina):

— Praixku Iztueta (= Frantzisko), Zaldibi-tarra, 1863koa, eta *Untzene*ra joan den mende-bukaeran esposatua;
— Joxepa Etxeberria, *Andre Joxepa* etxekoen hizkeran. *Untzene*an jaioa; eta parrokiko erretoraren amona, beraz.

1882an, nolanahi ere, 1855an Antigua-ra etorritako andere bat topatu dugu baserri honetan.

Gaurkoz aski Antiguako *estrata*ri buruz.



84. SAN SEBASTIAN. — Palacio Real.

# XI. KONPORTA

1865 inguruan hauxe zen Ibaeta-ren itxura. Hasi berria zen *La Providencia* gure aurrean, *Errotaundieta* eskuin aldean, *Olasagastiene* beronen ezkerretan (gero *Mirador* bihurtua), eta ezkerretan tatxa zuri bat, *Txapaldegi* zaharra (berria, dakigunez, Igeldo-ko aldapan eraiki zen).

Eta hiru fabrika handi inguru hauetan, eraikuntzaren daten arauera honetara zerrendatzekoak: Lizarriturry-Rezola-ren *La Providencia* (1864-1865), Kutz-en *El León* (1890) eta txokolategintzako *Suchard* (1909).

Lehenengoak berehala hartu zuen ospea; eta 1865ko Abuztuaren 3an Isabel II erreginak berak bisitatu zuen (ospaketa-arku horrek adierazten digunez).








Mende haseratik zabalera hori hartuz.

Igeldo-ko mazelan, dena dela, xehetasun batzu azpimarratuko ditugu. Ezkerretan, gaur askoz ere trinkoago bihurtu den zuhazti baten eskuinetan, *Julianategi* etxea (azkeneko urte hauetan Vivanco-Rezola-rena izana), 1862ko zerrendan Ib. 40 zenbakikoa; 1883an Claudio Lachaize-ren jabego.

Honen gain-gainean *Ttonttor-goxo* etxea.

Erdi-erdian, Captier ikastetxe dotorea egondako *Villa Mallorquina* (*Lurdes-Txiki*ren ondoan; ikus XII. Kap.). Eta aldapako bihurgunean *Martikotegi-berri* (*Rekondo* jatetxea, alegia).

Eskuin aldeko ertzaren kontra, *Txapaldegi.*

Lehenengo irudian ikusi dugun bidea (zeharka eta errara argazkia gurutzatzen duena) segituz gero, *Konporta*ra iritsiko ginateke. Alegia, behereko argazki horren erditsuan errepara daitekeen etxe-multxora (Ib. 39; 1862). (Ikus 249. orr.).

Benta-Berri-tik abiaturik, ezkerretatik datorren bide zuzen horretatik iritsiko ginateke. (Ikus auzotxoaren itxura ondoko urteetan, 249.).



Beherean, ezkerraldean, bi bide ikusten ditugu: ezkerretakoa Txubillo-ra doa, *Leku-Eder*era nahi baduzue; eta eskuinetakoa *Lurdes-Txiki*ra.

Argazkia, beraz, Captier-en gainetik hartua da; eta aspaldian hartua.

Konporta hauzuneko hiruzpalau etxeen atzean, Andoain-go errepide berriaren bihurgunean, *Miranda* etxea ikus daiteke, solte.

*Konporta*ren eskuinetan, berriz, zuhazti horren ondoan, *Julianategi*, jadanik aipatua.

Atzerago, *Zapatari* aldera urrunduz, baserri txiki bat *Teresatxo*ren parean: Amiano fameliaren sorlekua, *Ebro* baserria.

Eta gauzak honela, oraintxe kondatuko dizuet pasadizu adierazgarri bat. Anjel Amiano-ri zor diot (*Aranaldene*koari).

*Ebro* horretatik abiatzen zen Amiano aita, errepide berritik *Errotaundieta* eta *Ondarreta* aldera. Anjel-en aita motikoa zen orduan (1885 inguruan, esan dezagun); eta botila-fabrikara joaten zen lanera (berrikus VI. Kap.). Halako batez konturatu egin zen Amiano mutikoa ondotik asto bat zerraikiola. Egunero-egunero, *Ebro*enetik irten orduko, astoa atzetik. Amari esan dio hau Anjel-en aitak; eta hark orduan, jarraiketa iraunkor hartan gaiztakeriaren bat ote zegoen beldurrez, debekatu egin zion semeari Brunet-en fabrikara joatea... Eta hau Antiguan gertatzen zen joan den mendearen bukaeran, fabrikagintza abiatua zenean; eta Anjel Amianoren amonak jokatu zuen horretara, begi-jotzeren bat ote zegoen ikaran... Aita Barandiaran-en osagarri xume bat...

Eskuin aldean, berriz, eta Golamendi-ko mazelaren hegiaren gain-gainetik ozta ageri delarik (*Golamendi* bai, zaharrek; eta ez *Gudamendi*), *Lautximeneta* baserria ikus daiteke.










*Konporta* pasaz gero, hona hemen *Martintxoene* (Ib. 43; 1862) eta *Loistarain* (Ib. 44; 1862) baserrien ingurua (zoritxarrez bi etxe horiek agertzen ez direlarik). Gure ezkerretan (fotoaz bestaldera, hitz batez, baina eskuinetatik) *Andrestegi* etxea ikusiko genuke (*genuke* diot; nik neuk ere, fotoan ageri, ikusi egingo nukeelako). *Andrestegi* hau Andres Queheille izeneko batek eraiki zuen 1851an.

Argazkiaren ezkerralde horretan *Zuzenbide Fakultatea*, *Informatika Fakultatea*, eta abar, eraiki dituzte azken urteotan.

Beste argazkirik ezean erori naiz ariketa narzisiko honetan. Bi mutil horietako zaharrena, eskuinetakoa, lerro hauen egilea baita; eta beste mutila Juan Mari, egilearen anaia bakarra. Hiru emakume horiek, azkenik, badute halako lotura Antiguarekin: ezkerretakoa, Atxo Gurrutxaga, *Isasene*an jaioa zen, esan dugunez; bigarrena, erdikoa, Maria Enparantza da, liburu honen egilearen ama; eta eskuinetan, harresitxoaren gainean exerita, Axun Enparantza (beronen ahizpa), gerla-aurrean Inurrieta-ren diskofabrikan ibilitakoa, Benta-Berri eta *Txalupagillene*ren ondoan.

Bigarren argazkian, berriz, arratsalde berean egina, eta oraingoan Benta-Berri aldera begiratzen dugularik, hortxe dugu

haseran *Andrestegi-ko bidea* zeritzona (guretzat *Konporta-bidea*). Eskuin aldean Lizarriturry-ko lantegia agertzen da (seizortzi barruki luze, lehenago ere ikusitako horietakoak). Arratsalde hartan ere koko-usain sarkorra genukeen paraje horretan, Konporta errekatikako kiratsaz beharbada nahasia.

Erreka hori, dena dela, fotoaren ezkerretatik zihoana, ez da argazki honetan ikusten.

Bi foto hauek 1937 ingurukoak dira (barka!).

Hirugarrenean, berriz, Konporta-tik gorako ingurua ikus daiteke.

Andres Keheilla-k (fr. Queheille) eraikitako *Andrestegi* etxea (baimen-eskabidea 1851-ko Otsailaren 20koa da, Antiguan egindako aspaldikoena itxura denez); mende honen haseran, nolanahi ere, osoki berriztatua (Ib. 46; 1862).

*Andrestegi*tik Igara-rako bide zaharra hartuz, eskuinaldean, eta harrobiak utzitako malkortxoa atzean utzirik, *Almortza* (Ib. 47; 1862), *Amezketa-bea* ere deitua.



Goraxeago, zaharrakatua, *Beriyo-garai* (Ib. 55; 1862).

Hurbil xamar (foto honi buruz, ezkerretan; baina argazki honetan ageri ez delarik), *Beriyo-azpi* baserria, liburu honetan IX. Kap.an ere aipatua, berriki bakarrik eraatxia; bere arte ederragatik famatua (4,50 metro enbor-ingurukoa), eta ondoko orrialdeotan erakutsia (Ib. 45; 1862). (Ikus hementxe, gainean).





Ibaetak berehala hartzen zuen baserri-kutsua; baserriak hortxe baitzeuden, fabrikak pasa eta segittuan. Artalandak ere bai, hor ikus daitekeenez.

Ezkerretako zuhaztia *Mirador* jauregiari dagokio (Caudilla-ko Kondearen parkeari). Ezkerretako izkinan, baserri zahar bat (gaur eraatxi berria): *Txapaldegi* (Ib. 28; 1862). Lizarriturry-z ezkerretan, *Kutz* garagardotegia; eta eskuinetan, *Suchard* txokolate-fabrika.

Bakardade eta baserri-kutsu horiek... lekutara joan dira: Benta-Berri pasa eta berehala topagarri zen giro baketsua aurkitzeko, makina bat kilometro egin behar da gaur egun. Aurrerapenaren prezioa, omen...

*Lizariturry-Rezola* fabrikak itxura hori zeukan mende haseran. (Ikus 248 orr.).

Eta grafia zahar batzutan, eta normalagoa litzatekeenez, *Lizarriturri* irakurtzen da.

*La Providencia* hau izan da mende luze batez Antigua-ko lantegirik handiena.

Ez zaharrena, dena dela, irakurleak erreparatu dukeenez: Matia 6-an egondako pospolu-fabrika, lehenagokoa zen.

*La Providenciak* kandelak, xaboinak, lisibak, tokadore-lurrinak, eta abar, prestatzen zituen; *El Lagarto* agian sonatuena.



Donostia-ko tranbiaren burnibideak (betidanik Tolosa-koaren kide izana) bide-sare oso bat zeukan fabrikaren esparruan; garraio-lanak erraztuz.

Hiru pertsonak sortu zuten *La Providencia* fabrika hau (hiruk sortu, bai; baina ehunka antigutar apalek sustatu eta gauzatu): hor, gainean, dugun Juan Lizarriturri Ondikola zeritzona: donostiarra, eta Etxarri-tar batekin ezkondua. Eta ondoko Lizarriturri-tar guztien arbasoa (erdian, Manuel Lizarriturri).







Hirugarrena hortxe duzue, eskuinetan: Jose Antonio Rezola Gaztañaga.

Elektrika-indarra oraindik ez zela hedatu; eta etxe-barruetan, gauzak eta kristauak argitu beharrez, kandelak erabiltzen ziren; eta kandela horiek normalean zihoz (koipez) oratuak zirenez, sekulako kirats atsekabea hedatzen zuten.

Estearina baliatzeko ideia indartu zen horretara 1830z geroztik. Bai pospolugintzan eta bai kandelagintzan, aldaketa gaitzak somatzen ziren. Eta Lizarriturrik eta Rezolak entrepresa bat eraikitzea pentsatu zuten.

Horretarako, bere pospolu-fabrikan usatua zen Paskasio Lizarbe Ruiz ekarri zuten Tarazona-tik.

900.000 errealetako kapitala bildu zuten; eta Ibaetan, *Errotaundieta*, *Ebro* eta *Konporta*ren artean, 10.900 metro koadro erosi; eta abiarazi egin zuten fabrika berri bat. 1864 zen.

Lizarriturri, senitartetzaz eta harremanez ipartar euskalduna izanik (eta horretatik *Iturry* bukaera hori), Léon Droux frantsesa deitu zuten Antiguara. Eta 50 langilerekin abiatu zuten fabrika.

Honek berehala jaso zuen garai hartan eman ohi ziren sari haietako pare bat.

Alde batetik, Donostia bere udaleku bihurtu berria zuen Isabel II erreginak (Maria Cristina baino lehenago, beraz, udatiar iraunkor izana) bisita egin zuen fabrikara, argazki txiki batean ikusi dugunez. (Ikus 247. orr.).

Bestetik, zilarrezko domina irabazi zuen, urte berean, Bordale-ko Azoka Internazionalean.

1894rako 160 langilek egiten zuten lan fabrika honetan. Eta 1915rako, xaboin-fabrikarik handienetakoa bihurturik, 40 tonelada egiten zituen egunero; baita 70.000 kandela ere, makina guztiak mogitzeko 1.500 H.P.-tako potentzia jarria zeukalarik.

Orain osoki eraatxia eta erraustua izan den fabrika handi horretan, hamaika antigutarrek pasa du biziera osoa; eta langile horien bizierak zinez merezi luke nik orain egingo ez dudan azterketa sakona. Agian besteren batek hutsune hau beteko!

Lizarriturry izenak, nolanahi ere, bi gertakari hitsetan gailendu zen ondoko urteetan.

1904an, zezenaren eta tigrearen arteko borroka famatua mamitu zen egunean (eta zein donostiarrek ez du, gure belaunaldian bederen, apostu lotsagarri horren oihartzunik jaso?), ihes egin zuen piztiak; eta politziak garbitu behar izan zuen tiroka.

Bala haietako batek, ordea, Jean Pierre Lizarriturry *frantsesa* hil zuen (halaxe zion Donostiako prentsak ahobatez); prestatutako astakeria ahalkegarriak donostiarren lotsaz gain gazte baten odola ere berarekin eraman zuelarik...





Askoz ere beranduago, nik liburu honen mugatzat hartu dudan urtearen inguruan (1928ko Ekainaren 22an gertatu baitzen ezbeharra), blankolazko lantegia lehertu; eta bertako hiru langile gertatu ziren hilik: Benito Mujika, Dionisio Otsoa eta Jose Mari Irizar.

Antigua osoa azaldu zen ehortzetara: bi mila lagun, omen; eta Donostiako agintaritza ere bai (Jose Begiristain alkatea barne).




Suteak ere ezagutu zituen fabrikak (1887, 1925, 1940); baita makina bat uholde ere. Ibaeta osoak hori, esana dugunez.

*El León* garagardo-fabrika, berriagoa da: 1890.

Fabrikaren sorreran aleman batzu topatzen ditugu. Albert Kutz Graf zeritzona, Klin-en jaio zen 1864an; eta artxibo-paperetan haseratik *cervecero* gisa sailkaturik topatzen dugu.

*Juan y Teodoro Kutz* entrepresa 1890an sortu zen. Kutz hauek guztiok, (baita Luis eta Benito ere) elkarren ahaideak zirela gauza segurua da; baina, aitor dut, ikertu gabe gelditu zait.

Garagardogileen bigarren belaunaldian, Juan Kutz Martinez eta Teodoro Kutz Igarzabal agertzen zaizkigu, mendearekin bateratsu munduratuak.

Badakigu *Zubimusu* zaharra (Ib. 16; 1862) ezkontza-bidez pasa zela Antigua-ko Igarzabal-tarrengandik, Kutz-tarren altxorrera; bertako Pantxika (Igarzabal Zipitria) Teodoro-rekin esposatu zenean.

Hots, hortxe, *Zubimusu*n, *Errotaundieta*rekiko aurrez aurre horretan, eta Konporta errekaz bestaldean, eraiki zen *Maltería* saila. Eta hortxe ikus dezakegu batimendu hori mende honen haseran.

Zubi hori *Errotaundieta* ondokoa da (zenbait aldiz *Lohieta-ko zubia* deitua).

Hortxe handitzen edo ugaltzen zen Konporta-erreka; zubigune horretan. Gu begira gauden lekutik zubira datorrena, *Ebro* (Ib. 75; 1862) eta *Miranda*tik zetorren. Mutilaz harunzko aldetik datorrena, berriz, *Konporta* auzunetik. Biak orain elkarturik, fotoaren eskuin aldetik, *Concha* eta *Barraka* aldera abiatuko dira.

Eskuin alderago (fototik at, beraz) *Buena Vista*ko paretaren kontra pausaturik egon zen *Errotaundieta*ko turtukia ikus genezake agian; baina fotografoak ez zuen horretan pentsatu...

Joan den mendearen bukaerarako, zenbait sail nagusi abiaturik zeuzkan fabrikak hiru barruki desberdinetan. Lehenengoan, hartzitu egiten zen garagarra; bigarrenean, bi solairutan, garagardoa prestatzen zen; eta hirugarrenean, *Rotonda* batimenduan, garagardoa eta freskagarriak saltzen ziren. Jela ere egiten zen (6 tonelada eguneko).





Kutz-en garagardotegia (oraindik ere Benta-Berri ondoan zutik, nahiz zaharkiturik eta zabarturik) oso istimatua zen. Irakur dezagun Jose Maria Donosty kronikaria: *estaba el parque, término de paseo dominguero, cervecería agreste de los Kutz, donde jugábamos a la rana, y bebíamos cerveza mezclada con limón, servida en grandes y altas jarras de cristal... en aquel rincón de la cervecería del Antiguo, de Kutz, umbroso, recatado, tranquilo* (1975-V-19).

Zuhaitza eta kristalezko miradorea gure eskuinetan abiatuz gero, berriz, Konporta-ko bidea hartu, eta Konporta-auzunera iritsiko ginateke (orain dela urte gutxi zeukan itxuran hor, ezkerretan, agertzen zaigularik).

Ezkerraldeko basotxo horretan izkutaturik, *Julianategi* ederra ikusiko genuke (Ib. 40; 1862); gaur egun zutik, bertako azkeneko biztanlea hil-berria denez (Vivanco-ren alarguntsa anderea), luzaz iraungo ote duen segurtatzerik ez badago ere. (Ikus 248-249. orr.).






Askoz ere zaharragoa den argazki honetan (ikusi besterik ez da behar *Julianategi*ren inguruko basoa oraindik bere hozitu-berrian, itxuraz), *Lizariturry*ko batimendu batzu ikus daitezke (aurrekaldean), eta *Suchard*eneko beste batzu (ezker aldean).

*Suchard*en atzetik, *Konporta* auzunea (*Konporta* baserriak, esana dugunez, 39. zenb. darama 1862ko zerrendan).

Ezkerretako tximene-punttaren eskuinetan, *Julianategi* (Ib. 40; 1862).



Gainean *Ttonttor-goxo*; eta eskuinetan, ia ertzean, *Captier-ikastetxea.*

1909ko Martxoaren 31an, Jose Maria Rezola injinariak aurkeztu zuen eraikuntza-eskabidea; eta 1910an, Aurrekotxea andere alargunak saldu zizkion bai lursailak, bai bertako batimenduak.

Luzaz saiatu ondoren, ezin zuei *Mirador* (Ib. 17; 1862) jauregiaren itxurezko argazkirik eskain.

Uholde bati esker lortu dudan horretan, halere, ongi xamar ikusten da Caudilla-ko Kondearen etxea. Ezkerretan duzue, ilun xamar zoritxarrez; paretak izkutatzen zituen untza erakutsiz. Jauregiaren erdian, eta teilatuaren gainetik, talai karratua: *Mirador* izena eman zion bitxia.

Jauregiaren eskuinetan, barruki luze bat: *Mirador* etxeari zetxekion ukuilua (garai hartan ez zegoen berebilik; eta ukuilua izan ala ez-izan horretan berezten ziren kapareen etxeak eta erromesenak...)

Talaitxoa ia-ia ikutuz, Igeldo-aldapako *Maria Luisa* (etxe *alaia* esan dezagun, eufemismoz); beronek ere bere talaitxoa erakusten digularik. (Ikus 260.ko argazkia).

Erdi-erdian, Posso anaien gorontza-fabrika: *Villa Sirena* larrosa kolorekoa; eta oraindik gaur egun bere horretan zutik (patioaren erdiko iturri *andaluza* arrastorik gabe desagertu bada ere). (Beti ere 259.ko argazkia).

Beheraxeago, *Marbil-Berri*ren azpian, *Saliquet* xaleta (1922koa).

Eta, honetataz gero, bai etxeaz, eta bai etxeko biztanleez, zerbait esan beharra dago.

*Mirador* etxearen izen zaharra, beste hauxe zen, izan: *Olasagasti-ene*. Hain zuzen ere, Tomás de Olasagasti (beti *de* honek ere) jaunarena zelako; XIX. mendearen erdi- aldean, Antigua-ko puntuzkoetakoa. Egin dezagun kondaira apur bat.

Andres Keheilla (*kehélla*, zubereraz, langa besterik ez da: *Sc, porte à clairevoie entre pièces de terrain, Larrasket, Dict., 1939) Andresteg*ienekoa baino hamaika urte lehenago beste Keheilla bat topatzen dugu: Pedro M. izenekoa; 1840an Zatarain-i egindako erosketaz, *Ibaeta o Juncales* (sic) inguruko lurren jabe bihurtuz (artxiboetan *Queheille*, noski). .

Hots, 1842ko Urriaren 12an sortu zen *Ibaeta-ko Entrepresa* izenekoa (erdaraz, noski); elkartearen sortzaile gisa pertsona hauek topatzen ditugularik: Pedro M. Keheilla (*Andresteg*ienekoen arbaso, nik uste), Frantzisko Blanchon (*Ondarreta*enekoa), Jerónimo Merino de Villanueva, Manuel J. Mitxelena; eta gure Tomás —*de*— Olasagasti hau, Elkarteko buru izatekoa, eta ondoko urteetan Lemery jeneralaren hornitzaile (eta, ondorioz, Caudilla-ko Kondearena).

Tomas Olasagasti horretxek saldu zion *Olasagasti-ene* etxea José Lemery Teniente-Jeneralari; zehazki noiz ez dakigularik, baina 1860 inguruan, nik uste. Lemery noraino aldatu zuen etxe hura *El Mirador* egiteko, ezin esan dezakegu.

Konportako erreka eta fadurak zaintzekotan *Sociedad de los Juncales* delakoa eratu zenean (1842-X-12) hantxe ditugu, elkartekide, hiru antigutar sonatu: Olasagasti-ko Tomas hau, Pedro M. Keheilla, eta Frantzisko Blanchon.

*47 bidea*ren konponketarakoan ere, beste antigutar famatu batekin agertzen zaigu Olasagasti: Frantzisko R. Brunet jaunarekin, besteak beste.

Eta gauza bera *Miradore*n aurretixek pasatzen zen *11. bidea* (*Arbizketa*tik *Zubimusu*rakoa) konpontzerakoan. Hobekuntza-eskabidea (1865ko Maiatzaren 29koa) zenbait antigutar famatuk sinatu zuen: Pedro M. Keheillak, Rafael Munoak (Benta-Berri ondoko *Rafael-ene*koak), *Isasene*ko Jose Felipe Eztenaga pospolugileak, Tomas Olasagasti-koak; eta, xehetasun argi-emale, Juan M. Eguren delako batek, beronek *como apoderado del Sr. Lemery* izenpetu zuelarik.

Gauza segurua da, hitz batez, Lemery militarra eta Tomas Olasagasti-ko antigutarra, harremanetan zeudela 1860z geroztik gutxienez.

Hots, Lemery Jenerala da giltzarria *Mirador* jauregiaren kondairan.

José Lemery Ibarrola Teniente-Jenerala, Isabel II.rekin sail militarreko burua izan zen (errege zegoen Francisco de Asis senarrarena, berezikiago), eta Baroja-ko markesgoa jaso zuen.

Amaz ez dakigu ezer; baina euskal jatorrikoa dela dirudi. Aita, berriz, hura ere militarra, Napoleon Bonaparte-rekin etorri zen *Independencia*ko gerra-garaian, mende haseran, beraz.

José Lemery Ibarrola Teniente-Jenerala (semea, beraz) Ferrer deiturako batekin ezkondu zen gerora; eta alaba bat izan. (Bidenabar esateko: Antiguan baditugu beste Ferrer-en batzu: aski da Igara ondoko *Ferrene-azpi* gogoan hartzea (*Ferrerenía*, Ib. 77; 1862)).

Isabel Lemery Ferrer andere hori, Manuel Chaves Bera-

mendi-rekin ezkondu zen XIX. mende-bukaeran; bi alaba izanez: Maria Flor (1891) eta Pilar (1893), biok donostiarrak, eta *Mirador* etxean luzaz egondakoak. Bi emakume hauek semealabarik gabe hil ziren.

Mirador-en benetako jabea Isabel Lemery zela garbi agertzen da artxibategian; Kutz-ek egindako erosketetan behin eta berriz irakur baitaiteke: *compra a los esposos Isabel Lemery Ferrer y Manuel Chaves Beramendi, biak* aipatuz, eta ilara horretan gainera.

Manuel Chaves Beramendi hori 1945 inguruan hil zen Prim kaleko 14an, Donostian, bere 84 urteetan; zenbait urte lehenago, moltsa tturrinduta, *Mirador* jauregia Kutz-i 100.000 pezetatan saldu ondoren.

Baina, hain zuzen ere, Manuel Chaves Beramendi horixe duzu, irakurle, Caudilla-ko Konde famatua ( jadanik, IV. Kap.an, liburu honetan aipatua). Antigua-ra 1889an etorria, eta jaiotzaz sevillatarra izanik (1861-III-22koa), Erreginaren inguruan ikusiko dugu askotan.






Mirador jauregia zabala zen, fotoa ikusita soma zitekeenez: 440 metro koadro planta; baratzainaren etxean (*Bertzene* izenekoak, errekaren ondoan) 102 $m^2$, eta ukuiluek beste 168 $m^2$ zituelarik. Jauregiaren lursailek, azkenik, 70.562 $m^2$ zituen (zazpi hektara... *Bordaberri* edo *Txalupagillene* zer ziren ezagututa).

Barka argazki "moderno" hau...

Eskuinetan, zehazki, *Maria Luisa* xaleta dugu, Igeldo-ko aldapan.

Eta, erdian, Conde de Caudilla delakoaren baso ederra. Beronen ezkerretan *Mirador* jauregia, ozta erreparagarri.



Ezkerretan, eta zaldiz, daukazue, *Kondea*, Jose Luis Torner de Cervera-ri esker. Oleo handi bat duzue margo hori, eta maitagunez utzi dit Torner jaunak liburu honetan agertzeko. Antigutar batzuren esanetara, Torner hauxe da gaurko Caudilla-ko Kondea; Maria Cristina de Chaves Ibargoitia-ren alarguna den jaun hau, Matia kaleko biztanle, bigarren belaunaldiko ondorengo bakarra baita. Baina, jakina, hori ez da gure afera; tituluaren beste eskatzaileren bat bai-paitago.

Hor dituzue, bi argazki horietan, Chaves Beramendi bi anaiak: Manuel (kondea) eta Antonio (konde ez zena). Maria Cristina de Chaves Ibargoitia, bigarren honen biloba zen. Eta Jose Luis Torner dateke kondea, beraz.

Goiko fotoari gagozkiolarik, bere ezkerreko poltsikuan mokanes zuri bat erakusten duen gizasemea, horixe da Manuel Chaves; Kondea, beraz. Eskuinetatik hasi, berriz, eta bigarrena, *pajarita* gorbata daramana, Antonio Chaves da, kondearen anaia. (Guztiz eskuinetan ikusten dugun bigoteduna, oso jaun aipagarria da: *Au dek* Ondarreta-ko xaletean bizi izan zen Gabriel





M. Laffitte alkate-ohiaren aita: Alfredo M. Laffitte; Ibaeta-ko Elkarteko buru izandakoa).

Era berean, eta behereko fotoari gagozkiolarik, erdi-erdian harroxko dagoena, Caudilla-ko Kondea; ondoan, eta gurekiko eskuinetan, Antonio Chaves Beramendi, Kondearen anaia, Torner-en aitona politikoa.

Konporta errekaren ertzean, atezainaren etxetxoa zeukan jauregiak (*Bertzene* izenekoa, esana dagoenez). Urte askotan etxe horretantxe bizi izan zen Manuel Caseres donostiarra (1856koa); Tipoiniziana deiturako bere emaztearekin eta beren zazpi seme-alabekin.

Nekez soma dezakegu gaur egunean, langile eta jende txiroz mukurru betetako auzo apal hartan, horrelako zaldun anakronikorik bizi izan zitekeenik. Zeren-eta, antigutar zaharrek esan didatenez (nik entzun bezalaxe kondatzen dizuet), *derecho de pernada* edo horrelako zerbait erabiltzen baitzuen (*omen*, jakina) Kondeak Antiguako neska eder askorekin. Horrez gain, eskrima-eskola pertsonala omen zuen han, *Txokolatene*ren ondoan; eta artxibategian bertan nik bezala beste edonork egiazta dezakeenez, zerbitzari pila baitzeukan: dozena oso bat, gutxienez, 1914 inguruan.

Antiguako gertakari nagusietan, Chaves dugu beti handiki guztien artean gailen. Adibidez, 1902ko Uztailaren 2an, Alfonso XIII. bere heldu-arora iritsia zela bide, feste bat antolatu zenean, han ditugu, elkarren ondoan, Bailen-go Dukea (*Aiete* jauregikoa), Matxinbarrena Deputatu-nagusia, eta... Caudilla-ko Kondea.

Bide beretik, 1906z geroztik bildua ez zen *Sociedad de los Juncales* zaharra, 1912ko Abenduaren 27an berriro elkartzean, hantxe ditugu antigutar puntuzkoak oro: Brunet, Satrustegi, Kutz, Campuzano, eta... Caudilla-ko Kondea.

*Miradore*neko zerbitzarien buru, Mieres-tik Chaves-ek ekarritako Quirós izeneko bat ezarri zuen (1834koa), bere emaztea eta bost seme-alabekin.

Manuel Chaves Beramendi, *Cruz Roja Española*ko lehenengo presidentea izan zen. Eta, esana dugunez (IV. Kap.), lehenago *Asociación de Vecinos y Propietarios del Antiguo* Elkarteko presidentea ere bai (1916).

*Miradore*n ondoan, *Mirador* eta *Txalupagillene*ren erditsuan, Mayorga-ko Kondesaren *Villa Concha* zegoen (fotoetan ikus), arrilu gorrizkoa; 1912an birmoldatua izan ondoren, neska-eskola luzaz izana, eta gaur egun (eraatxia izateko bezperan, dirudienez) A.E.K.ren ikasgu (geroztik, desagertua).

Konporta errekaren ondoan kokatua, *Miradore*k bezala, uholdeen arazoa ezagutu zuen behin eta berriz. (Caudilla-ko Kondeak txalupaz jaregin behar izan zuten bere jauregitik halako batez; baina larriune haren argazkirik ez dugu aurkitu).

Behereko argazkian, estrainatu berria da *Arbizketa* eta Benta-Berri lotzen zituen kamino berria (Amilibia Etorbidearen zabaltzearekin bateratsu burutua); eta 1926 ingurukotzat jo daiteke fotoa.

Erdi-erdian, poltsikuan mokanes zuri handi bat zintzilik daramana, Manuel Chaves Beramendi dela esango nuke.





Oraindik ere aisa ikus daiteke Mayorgatarren harmarria, lau zatitan grabaturik nolazpait esateko, eta *Txokolateneko* bide aldera jotzen duten paretetan. A.E.K.ko ikasleren batek erreparatu duke, agian...

Aipamen llabur bat bederen *Zapatari* ondoko *Asilo Matia* zahar honi (gaur eraberritua): Goikoa Udal-arkitektoaren arauera 1890an eraikia (estrainaketa 1889-XII-16an ospatu zen). Aurten antolatu dira Jesus Ferro Lareki antigutarraren zuzendariaren agindupean, lehenengo mendeurreneko ospakizunak. Jose Maria Matia Calvo hau kolonietan

Beste argazki honetan, berriz, azkeneko urte hauetan *Villa Concha*k zeukan itxura ikus dezakegu.

Mende honen haseran, etxe horretantxe bizi zen Mayorga-ko Kondesa; eta 1913ko Ekainaren 24an, Donostia-ko Udalak, egindako birmoldaketak ontzat emanez, bizitzeko zilegiztapena eman zuen.





aberastutako laudiotarra zen (Araba), eta hemen eraiki zuen zaharren zerbitzutako kokagune hau. (Hemen ezkerretan).

Ferro adiskideari zor zaio, eta ez gutxi, liburu honen prestakuntzan; *Lizariturry Rezola* entrepresaren artxibo ezin-interesgarriagoaren arrastoak aurkitzekotan egin dituen ahalegin guztiak, zorigaitzez, alferrik izan badira ere.



# XII. TXUBILLO

Nork ez du *Txubillo* tontorreko dorre hau ezagutzen? Mundu guztian barrena aurki daiteke *Monte Igueldo*ko *Torreoia* noizpait bederen ikusi duenik. (Ikus 266. orrialdea).

Argazki horretan ageri zaigun itxuran, berri xamarra den seinale. Konpondu berria, alegia. Eta, beraz, 1912 urtea aspaldian joan ez dela esan dezakegu. Noizkoa da argazkia? 1915 ingurukoa edo? Horrelako zerbait; bisitarien jazkerak salatzen duen bidetik. Dorrearen gainean dagoen itzal-zalearen parasolak, agian, beste kokabide bat eskain diezaguke.

Hots, eta hasteko, goiko herriari deritzo *Igeldo*; eta ez funikularraren makineria gordetzen duen *Txubillo* honi (eta ez bertako beste bi *txubillo*ei ere, minuskulaz oraingoan).

*Arrobi* mendi-katearen kaxko honi, *Txubilloz* gain, *Arrimendi* ere deitu izan bide zaio (ikus *Euskal Erria*, 1887, XVII, 8; eta *Euskal Erria*, 1888, I, 382). Militar arrotzek beren aldetik *Montefrío* ere esan diote beren plano militarretan. Eta azkenik, joan den mendean hor antolatu zen harri-erabilketa eskergarengatik, *Arrobi* izena gaineratu zaio (baina hau, harrobiak luzera guztian hasi zirenez, Mendizorrotz-aino gutxienez). 1863tik aurrera Donostiaren hedakuntzak, harri gehiago eta gehiago eskatzen zuelako.

Bego, beraz, *Txubillo* izendapena. Donostia-ko *Consulado*ak, itsas-farola gisa erabiltzekotan, 1773an eraiki zuenean, Kantauri-ko lainoen eta behe-lainoen maiztasuna gutxietsiz altxa bide zuen. Eta ondoko itxura horretan eraiki zuen; hementxe, ezkerretakoan.

*Txubillo*, beste alde batetik, eta esaten ahantzi baino lehenago, Ibaeta da; eta Antigua, beraz: *Erroiegi* (Ib. 26), *Millabider* (Ib. 27), *Olarain* (Ib. 30), *Mugitza* (Ib. 33), *Arburu* (Ib. 37), Antigua-ko baserriak dira. (Ohar bat hemen ekologizaleen zerbitzutan: erroiak zeuden Txubillon bertan...)




Argazki hau *Euskal Erria* aldizkariak argitara zuen mende honen haseran (E.E., 1906; LIV, 357 orr.); argazkilaria bertan agertzen den López-Alén kronikaria bera izanik.

Farola behin eta berriz jausi zen karlisten eskuetara lehenengo karlistadakoan; Donostiako liberalei eta Madrileko agintariei arazo larri bihurtuz.

Mikelete liberalek gogor eutsi zioten bigarren karlistadan; karlistak ordurainokoan dorreaz nagusi ezin zitezkeelarik.









Gure Txubillo hura labezomorroak baino itsusiagoa zen: soila, ia- ia etxerik gabea...

Agirre Aristegieta-ren argazki bikain honetan ikus daitekeenez, honelaxe zegoen *Txubillo* tontorra 1874an; bigarren karlistada hasi berri zenean. (Hmentxe, gainean).

Gerla-gaztelu bihurtu zen; eta mende honen haseran, oraindik ere zaharrek kondatzen dutenez, itxura horixe zeukan; eta oso jolastoki interesgarria omen zitzaien garaiko mutikoei...

Gauza bera edo bertsua senditzen bide zuten *Collège Captier* famatura joaten ziren mutikoek; 1903 eta 1912 artean egindako argazki honetan ikus daitekeenez. (Ikus ikastetxe hori kapitulu honetxen bukaeran).

Bi argazki hauetan, funikularraren arrastorik ez dago oraindik, eta Txubillo-ko dorreak bere itsas-farola zaharraren itxuran dago (elkarren ondoan, eta ilaran, hiru *txubilloak* ikus daitezke ongi; dorrea dagoenari batez ere *Txubillo* esaten zaiolarik).

Hondartzaren ondoan, gartzela zaharra, aldameneko kasernatxoarekin. (Ikus 269 orr.).

Mazela beherean (Satrustegi-ren parean), eta erraz erreparatzeko moduan, Antiguako baserrietan zaharrenetako bat: *Boltsagillene* (Ib. 21; 1862); eta gorago, farolaren azpian, farola berriaren paretsuan, *Poltsaberri* (*Muskullu*ren bizileku izana).









Ezer berririk ez bide du erasten foto honek; eta, halaz ere, hemen sartzea erabaki dut.

Alde batetik, bi farolak ageri dira: goikoa, zaharra, erdaraz *torreón de Igueldo* famatua bihurkizuna; eta beherekoa, erdaraz *el faro* esana, 1855ko Martxoaren 15an estrainatua; mendiaren erditsuan (goratasunari dagokionez) ikus daitekeena.

*Boltsagillene* ikus dezakegu berriro; baita Satrustegi-tarren *Toki-Eder* ezaguna.

Gartzelaren gain-gainean (fotoari dagokionez) *Marbil- Berri* ageri da, 1894an eraikia, gaur ere bere horretan. Goraxeago, eta eskuin alderago, *Erroiegi* (Ib. 26; 1862).

Ondarreta-ren gainean dirudienez, baino askoz atzerago funtsean, Caudilla-ko Kondearen *Mirador* famatua (liburu honetan, XI. Kap.an batez ere, maiz aipatua), bere *begiratokia* (erd. mirador) eta guzti, teilatuaren gainean.





Funikularra gora eta behera ari da jadanik (1912); baina Txubillo-ko dorrea oraindik osatu eta dotoretu gabe dago.

Itsas aldeko aldapa, aldiz, ongi ikus daitekeenez, lanetan abiatua da; baina xaletik ez du bere ertzetan. Beraz, 1912an bertan egina dateke argazkia.

*Arroka* biak desagertuak dira. *Konporta* errekak hondartzan bertan isurtzen ditu bere ur zikinak. Alkain-darren *Boltsagillene* hortxe beti. Eta, gain-gainean, fotoaren ezkerretan, herriak *Millabider* birbataiatu zuen *Villa-biar* ikus daiteke, garai hartan Montarco-ko Kondearena (1906- an birmoldatua).

Hondartza gaineko murru zaharra, zuzen gaur Ondarreta deitzen dugun hondartzaren gainetik zihoana, hortxe dago. Honen aztarnak agerian zeuden gure haurtzaroan; baina orain ez dira sekula agertzen, hondarrean barrena suntsitu bailirean.



Funikularra estrainatu ondoren ere (argazki honetan garbiki ikus daitekeenez), dorreak lehenagoko bere itxurari eutsi zion bolada (labur) batez.

Foto hau 1912 ingurukoa dela esan dezakegu.

Eskuin aldean, berriz, garai hartako "Boeing" beldurgarri bat...



Ulia mendiaren arrakesta erabat moztu zuen Txubillo honek, berehala osatu zuen bere gailurra.

Funikularraren ondoren ostatua eraiki zen; eta handik zenbait urtetara jokoen ugalketa eta jolastokiaren osaketa etorri ziren, gerla aurreaz geroztik gutti aldaturik atxiki duen aurpegia hartuz (1930).

Tunela zabaldu berria da (arestian ere ikusia), funikularraren behereko geltokia eraikia dago (gaur ere berdin dago), eta xalet berriren bat ikus daiteke. (Funikularra 1912ko abuztuaren 25an estrainatu zen; goiko batimenduen eraikuntza ozta hasia zenean).





*Monte Igueldo S.A.*ren sarreran bi izen nabarmentzen dira: Luis Anjel Pascual, batetik, gaurko zuzendariaren aitona; eta Antiguako beste zenbait bultzadatan (Heriz aldapan, eta bestetan) ikusia dugun nafartara: Evaristo San Martin. (Ikus IX. kap.).

Ezkerretako fotoan xalet bakar bat agertzen da: *Villa Navarra* izenekoa.



Behereko argazkian ikus daitekeenez, Konporta erreka estali gabe dago oraindik; eta ur zikin haiek (industriaren eraginez eta auzunearen hazkundeaz ere kirasturik) Ondarretan bertan isurtzen ziren, gaur Tenisaren ate nagusia dagoen puntuaren inguruan.

Eskuin aldean gartzela; murrutzarraren ondotik *Igueldo* tranbia bat pasatzen delarik...

Ondarreta-ko jardinak bideraturik ikusten ditugu; maniobra-zelai soilari zetxekion itsustasun militarra gainditzen hasia zelarik.

Xehetasun pozgarri bat: Zurriola-ko hondartzari gertatutako desmasiak, honi ez: hemen hondartza-metro mordo bat *irabazi* zitzaion itsasoari!



Bi argazki hauek alderatuz, *Txubillo*ko aldaketek nondik nora jotzen duten uler daiteke.

Goikoan, 1912 ingurukoa, ostatua eraikitzen hasia bide da; beherekoan, amaitua.

Karrusela ere badator (beherekoan); eta dorrea apainduta dago. 1920 inguruan gagozke.

Farola zaharraren txukunketa (1912an bukatua) Elizalde arkitektoak prestatutako projektuaren arauera egin zen.








Eta Txubillo-tikako ikusmira famatua aldatuz joan zen.

Ezker aldeko fotoa zehazki data dezakegu. Nabaskues-en etxea eraikitzen hasiak dira (Matia 2); hortaz, 1920.

Funikularraren eraikuntza (1912) urrun gelditu zaie gaurko antigutarrei. Baina gure gurasoek, beren gaztaroan, funikularraren frogaketak ikusi zituzten. Hondar-zakuak eramaten omen zituzten lehen *Arrokak* egondako geltokira; eta han funikularra mukurru zaku horietaz betetzen. Gero abiatu egiten omen zuten funikularra, eta bapatean kablea laxatzen. Orduan funikularraren freinu automatikoa desarratzen zen, eta bagoia tinkatzen... Hau behin eta berriz errepikatu ondoren, ontzat eman omen zuten segurtasun-sistema.



Beheko argazki hau ere ez da atzokoa: Konportaren estalketa egin gabe dago (1916koa); beraz, 1914-1915 eman dezagun.

Goikoan, berriz, "Centinela alerta" oihua botatzen zen gartzela-garita bat ikus daiteke... Atzerago, berriz, karabineroen kaserna; orain dela gutxi arte zutik egona.








Eta garaia dugu, nik uste, *Txubillo* horretatik mende honen haseran ikusten zena aurkezteko.

Horra hor, jakina, Ondarreta-ko gartzelatzarra; eta, honantzago, gartzela eraiki baino lehenagotik, eta gartzela bota ondoren ere, Goarda Zibilak hor zeukan kasernatxoa (arestian aipatua).

Gartzelarekiko parez-parean, eskuin alderago, Ezeiza-ren etxe-multxoa; eta lehenengoa, gugandik harantz kondatuz, Larreak eraikitako *Carmen-enea*. Multzo osoa oraindik bere horretan dago 1990 honetan.

Baina gartzelaren eta Ezeiza-ren artean, *Etxetxikia* etxea ikus daiteke, (jakinaren gainean egonez gero bederen...)

Askotan aipatu ditugun gainerako etxeez ez dugu ezer errepikatuko. (Berrikus III. Kap.).

Argazkiaren eskuineko ertzean, hiru etxe eta bide zuzen bat errepara daitezke (fotoaren erditsuan, nolazpait).

Eskuin aldekoena, horrela ematen ez badu ere, besteak baino goraxeago dago: Manuel Campuzano-ren *Marbil-Berri* da, *Txokolatene* (=Sagastizar)-ren gainean. Gaur ere, *Arbizketa* ren paretsuan, zutik. Eraikitzeko baimena, artxiboan ikus daitekeenez, 1893ko Urriaren 24koa da.

Behereko zelaian, bide zuzen eta hestu bat: *Txokolatene*koa, *Arbizketa*tik *Zubimusu*ra zihoan bidea.

Angelu zuzena eratuz, ukuilu luze eta txapal bat: Caudillako kondearena.

Eta atzekalderago, zuhaztiaren ertzean, *Mirador* etxe bitxia; aurreko kapituluan ahal bezala ikusia eta aurkeztua.

Honantza gatozelarik, berriz, Satrustegi-ren *Toki-Eder* dorrebiduna ikus dezakegu.

Honen ezkerretan, eta gartzelaren eskuinetan, Satrustegi-ren ukuilua (puntuzko guztien etxeetan, ukuilua beti; orduan zaldiak baitziren gaurko kotxeen kideak), bere dorretxoarekin.



Captier-enetik Ondarreta-ra jaitsi diren ikasle horiek, adibidez, beren atzean daukate Satrustegi-ren ukuilu hori.

Baina hel diezaigon geure hariari, arestian ikusi dugun argazkia berriro begiratuz. (Ikus III. eta VI. Kap.).

Fotoaren behereko izkinan, *Floriandegi* (Ib. 22; 1862), *Plóindei* (are *Próndei* ere), bi silabatan ahoskatua. Aspaldidanik Satrustegi-ren esparrukoa.

Honantzago, ertzean eta beherean, Alkain-en *Boltsagillene* (*Poltzállené*, are *Pontzállené* ere, zenbait aldiz ahoskatua).

Funikularraren lanak amaitu gabe agertzen zaizkigunez gero, fotoa 1912 ingurukoa dela esan daiteke.






Urte askotan (1912 eta 1930ren artean), Txubillok hiru bixigarri besterik ez zuen: Kasinoa, jatetxea eta funikularra.

Gero erantsi zitzaizkien gainerakoak, eta jolasak eta jokoak bereziki: *Río Misterioso* delakoa, karrusela, ontziak, labirintoa, tximuak, *Ursula* hartza (1937an, gerratean Asturiasen harrapatua).

Farola inguratuz goitik behera jaisten zen txirristra bat ere egon zen; baina mutiko bat erori eta hil zenez geroztik, kendu egin zuten; eta lekuko bakarra gaur egun iltze herdoilduen arrasto gorrixka da.





*Toki-Eder* 1883koa da, jadanik errepikatu dugunez.

Bertako semea zen Satrustegi-ko Jorge, Donostiako alkate izan zen 1909an.



Jorge Satrustegi Barrie hau Baionarra zen (1873); ama, Georgina Barrie Labros, Madrildarra zelarik (1839). Petit de Meurville batekin ezkondu zen. Baroitza titulua bigarren karlistadaren ondoren jaso zuten Satrustegi-tarrek.

Goiko fotoan, berriz, beherekoaren anaia nagusia ikus dezakegu: Enrike Satrustegi Barrie, cadiztarra hau (1865). 1888an iritsi zen Donostiara, jauregia ia-ia estrainatu berria zelarik. Eskoriatza-ko Rosa Fernández Bikuña-rekin ezkondu zen. Injinaria, hamar seme-alaba izan zituen (Enrike, 1897; Karmen, 1900; etab). *Toki-Eder*eneko lanak burutzeko, 9 zerbitzari ostatatzen eta elikatzen zituen jauregiak garai hartan.

Funikularrean gorantz gindoazelarik, eta gaur egun ere gauza bera, behereko geltokitik irten orduko, baserrilanari eusten dion etxe bat dago (Donostiako foto askotan ageri): *Boltsagillene* da (Ib. 21; 1862), vid. *Boltsagillenea* batzutan.

Jesus M. Alkain, Donostiako Alkatea izandakoaren jaiotetxea da. Hain zuzen ere, bi foto hauek berak eman zizkidan 1989 urtean, eta azalpena franko ere bai. Aita ere *Boltsagillene*koa zuen; ama, berriz, Matia-kalekoa: *"Txillardegi-Txiki"* koa.

Alkain-darrak Urnietarrak dira jatorriz (Migel Alkain, urnietarra, 1859an jaio zen han; eta ez Txubilloko mazelan).





Alkate izango zenak ez zekikeen, ezkerretako argazkiak atxiki duen une horretan (1936ko Aberri-Egunean) halako batez lehenengo donostiarra izango zenik; eta are gutxiago, nik uste, beste antigutar batek prestatutako liburu honetan agertuko zenik... Hor duzue, begirada gora, ezkerreko ilara horretan laugarren dantzaria.

Joan den mendearen bukaeran, nolanahi ere, beste pertsona bat topatu dugu *Bolsagillene*ko jabe: Pedro Bidaguren jauna.



(Goikoa udal-arkitektoak beti jotzen zuen Fraintzia aldera!). Eskuin aldekoa da.

Beronen azpian, *Marbil Txiki* izenekoa (*Sagastizar*en parean), *Marbil-Berri*eneko atezantza.

Hirugarren muinoaren ondoan, *Toki-Eder*enetik gorantz eta ezkerretarantz joanda, Montarco-ko Kondesa alargunaren *Millabider* dugu, zenbait fototan ozta baizik ez ageri. (Ikus behean, hegian bertan).

Etxe txikia zen (10,00 x 12.00 metro); eta XIX. mendearen bukaeran Anjel Kerejeta bizi zen bertan.

Esana dugunez, artxiboan aurkitzen dugunak *Villa biar* zuen izena (Ib. 27; 1862); eta guztiz berritua hortxe dago oraindik.

Mazelan goraxeago, *Erroiegi* baserria (Ib. 26; 1862); zaharrek *Erróyei* ahoskatua.

*Tenislarisa* hori nor den, zoritxarrez, ezin nik esan. Barka! Baina hor ditugu askotan aipatutako etxe batzu.

*Erroiegi* ikus dezakegu, aurretik pareta luze batez nabarmendua (*Arbizketa*ko Altuna-tarren ahaideak dira *Erroiegi*koak; baina zehazkiago ez dakit). *Marbil-berri* eta *Marbil-txiki*ren gaingainean zegoen *Erroiegi*; tarteko lurrak Telleria delakoei zegozkiolarik (1920).

Fotora itzulita, frantses kutsua duen xaleta *Marbil Berri* da



*Etume* (Ib. 64; 1862) Ibaetan dago, bai; ematen ez badu ere, eta aipamen bat merezi du.

*Lugaritz*en antzera hazkuntza-leku famatua izanak (Juan *de* Olasagasti-ren hazkuntza-gunea), garai hartako kutsu nabarmena du foto honetan (*Euskal Erria* aldizkarian argitaratua), eta hemen duzue. Beti *de* erabiltzen zuen Olasagasti honek, Lemery jeneralari XIX. mendearen erdi aldean *Olasagastiene* (gero *Mirador*) saldu zion Tomás de Olasagasti-ren anaia, edo ahaidea bederen, ote den galdetzen diot neure buruari.

Ezkerretan ikusten den dorre hori, gorri-gorria nire oroitzapenean, oso ezaguna zen Antiguan; Arrobi kateko talaia bailitzan. Egunero-egunero ikusten genuen hor, begirale.

Olasagasti-ko Juan, dena dela, mutilen ondoan exerita dagoen agure bizartsua da; eskuineko fotoan behia laztantzen duena.

*Etume* gaur etxe-multzo dotore bihurtu zaigu.





Eta, honetaraz gero, *S.A. Franco-Española Colegio Captier* izeneko ikastetxe dotoreari buruz lerro batzu bederen idazteko tenorea heldu zaigu.

Ikuspegi orokor horretan (1904 ingurukoa) *Villa Mallorquina* izendapen zaharra irakur daiteke garbiki atalgainean.

1903 arte *Villa Mallorquina* (*Mallórkiná* ahoskatzen dute euskaldun antigutar zaharrek), Fraintzian elizaren kontrako kanpaina gogorra mamitu zenean, Antiguako (eta Donostia osoko, agian) ikastetxerik dotoreena bihurtu zen.

Ihesi etorririk, eta babes eta irakats-leku berri baten bila saiaturik, zoko horretantxe kokatu ziren dominikarrak.








Eta 1903ko Ekainaren 30an, Migel Irastortzaren izenez, gaur *Ekintza* eskola dagoen lekuan ikastetxe bat eraikitzeko baimena eskatu zuten; horretarako projektu oso bat Udalean aurkeztuz.

Ontzakoa Goikoa udal-arkitektoak eman zien. Eta 30 urtez *Olarain* (Ib. 30; 1862) izeneko baserriaren eta iturriaren inguruan egongo zen batimenduaren eraikuntzari ekin zioten.



Irakurleak hau guztia nola kokatu ez dakielakoan, goiko argazkia hartu; eta apaiza eta mutikoak dauden aterpearen ondoko bidean behera joan, harantz, eta *Lurdes-Txiki*ra iritsiko ginateke; eta hortik aurrerago, pitin bat igo ondoren, *Berakotegi*ra (Ib. 31; 1862) eta *Martikotegi- berri*ra (Ib. 32; 1862), gaur *Rekondo* jatetxea.

Oroigarri xarmant bat utzi digu Captier Ikastetxeak, halaz ere, antigutarron bizieretan: *Lurdes-Txiki*ko harpe-kaperatxoa. Eliza kutsuak markatuta, dudarik gabe; batez ere frankismoaren garaian Antiguatik gora, goizean goizik ozenki kantari eta otoizlari, larunbatetan igotzen zen proosioagatik. Baina horrez gain, ezkontza-leku eta nolanahiko txango-muga gisa erabilia izan delako. Eta Olarain-go xirripa-hots apalak xarma izkutu horretan bere apurra badukeelako... Ez dakit. (Ikus 288. orr.).

Neronek ere, aitor dut, oso luzaz ez dut jakin otoitz-gune bitxi hori nondik etorri ote zitzaigun. Oso berandu jabetu naiz, hitz batez, Lurdes-ko Birjinarekiko jaiera horren jatorrian, areago bilatu behar zela ihesi etorritako frantses fraileen etsipenean, antigutarren berezko tradizioan baino.

Bego horretan, nolanahi ere.

Joxepa Zubeldia zaindari zaharrak berriki gogorazten zigunez, antigutar asko oroitu baita azkeneko urte hauetan Olarain-go ospel ilunari darion olerki leunaz.







Ikastetxeak sekulako *gradoa* zeukan. Zalkurdi diztiranteak zeuzkan (gidatzailea bera ere uniformaturik agertzen zaigu), ikasleak etxera eramateko; bazeuzkan idiak eta behiak ere, esnetarako eta bertako laneterako; eta bazeuzkan zaldi lerdenak, ikastetxean bertan itzegoten hasteko. Denetarik!

Beste xehetasun batzuk argituko digute ikastetxearen nolakoa.

1914an, adibidez, 60 ikasle ari ziren hor eskolatzen, 16 irakasleren zuzendaritzapean. Irakasle horiek oro dominikar frantsesak ziren; eta zuzendaria marseillatarra zen: Auguste Maurel apaiza.

Ikasleen artean Baiona-ko eta Miarritze-ko mutilak zeuden; baita jatorriz zubietarra zen antigutar bat: Pedro Sukia (1900ko Ekainaren 29an jaioa), neronek bizpahiru aldiz hizketatua.

Beste xehetasun adierazgarri bat: ikastetxea aurrera eramateko 16 zerbitzari zeuden (irakasleen kopuru bera!). Ez baitzen Captier hura Lugaritz-ko Txarola-tar maisu-maistraren eskolen kidea...




1914ko ikasle (era irakasle) zerrendak aztertu ditugu artxibategian. Frantses pila dago, espero zitekeenez; are brasildarren bat ere bai. Irakasle *guztiak frantsesak* ziren; eta ikastetxeko lan-hizkuntza *bakarra, frantsesa*.







Ohar bat argazki hauei buruz.

Ezkerretan, Pedro Sukia antigutarra

Eskuinetan ikusten den baserria *Martintxoene* da (1862; Ib. 43). Antigutar zaharrek [martintxóne] ahoskatzen dute erdaraz; eta [martíntxoné] euskaraz.

Baserri hau 1948 inguruan erre zen.

1891ko Erroldan, Zuloaga-tar batzu agertzen dira bertan (Benta Berriko "Juanito" tabernakoen askazi ote?); jabea Bernabé izeneko bat zelarik.

*"Beriyo azpi"*, *"Ebro"* edo *"Loistarain"* (ikastolari izena eman diona) ezagunak bazaizkigu ere, *"Martintxoene"*ren oroitzapena ilunago dagoela esango nuke; inguru horretan zegoen baserriaren erreketaren zantzua antigutar zahar askok atxiki badu ere



Ikastetxea, ikusten dugunez, Antiguan egonagatik ere, antigutar *ikasle bakar bat* topatu dugu zerrendetan; eta izen-deituraz gogoraztea bidezko iruditu zaigu: Pedro Sukia Añorga (beste behin Antiguan barreneko proosio batean, eliz-ikur bat eskuan, ikusia dugun Migel Sukia zaharraren semea, beraz).

1989ko udan elkarrizketatu nuen jaun hori, orduan bere 90 urteetan; eta berak eskaini zizkidan bai argazki hori, eta bai Usurbilgo bide zaharraren beste batzu (III eta IV Kap. ikus). Bizikleta hori, hain zuzen, Rudge-Winworth markakoa zela erantsi zidan; fotoa 1914ko Maiatzaren 17koa dela; eta, gorbata eta guzti daraman jantzi hori, *Captier*eneko uniformea zela. (Ikus 287. orr.).












Eta gaur egun, liburua moldiztegira eramaterakoan, argazki horiek berrikustean, Antiguako txoko horrek oroitzapen-lerro hauek bederen merezi zituela iruditu zait.

Eta hor dituzue.

Bere iragana ahazten duen herria galdua den segurantzian, gure txokoko iraganari eutsi nahiz ahalegindu nauzue azken hilabete eta urte hauetan. Nahi nukeen zehaztasuna batzutan, segur naiz, huts eginez. Baina giro eta antigutar haien kutsua ahalean behintzat zuei ere sendi-araztekotan.

Agian gaurkoen eta gerokoen hoberako!

Guk, zaharragook (baina halere *Collège Captier* hura mende haseran bere saltsan ezagutu ez genuenok), besterik ere dastatu dugu inguru horietan...

1936ko udazkenean, erredizak puskaturik, eta leihoak eta ateak erauzirik, topatu baikenuen inguru hura geure bisitaldietan. Ordurako utzia zegoen ikastetxe-ohian *ostatatu* baitziren tertzio *liberatzaileak*... Gu haurrak izan arren, armadak bere ondotik utzitako ikuskari hits hura gure oroimenean sustraitu zen oinaze balatan. Gerla-giroaren oihartzunak zoko baketsu hartaraino heldu ziren.



# ERASKINAK

# ERASKIN TOPONIMIKOA

Antigua-ko toponimoen azterketa laburra

Eraskin honen oinarritzat, *1862ko Apirilean* Donostiako Udalak burututako leku-izen zerrenda hartuko dugu: *Registro de la numeración de las casas urbanas y rurales de San Sebastián... concluída el mes de Abril de 1862*. (Sec. D. Neg. 7, Lib. 1, Exp. 1). Idaz-letra Lorenzo Alzate-rena da, Pío Baroja idazlearen arbasoa (berak *Alzáte* sinatzen zuelarik, azentu diakritikoaz).

Hasteko bi zerrendak emango ditugu beren horretan; eta gero erantsiko ditugu geure iruzkinak.

*Ibaéta*

1 - Cóst-érdi, o Robinsón.
2 - Belóca-chíqui.
3 - Vengánza.
4 - Sutegui-zár, o Escombérri.
5 - Echebérri.
6 - Beriéne.
7 - Baster-éche.
8 - Zubi-áurre.
9 - Blanchonéne, u Ondarréta.
10 - Chillárdegui.
11 - Chalúpa-guillenea.
12 - Santusténe.
13 - Rafaeléne.
14 - Venta-bérri.
15 - Venta-chíqui, o Gorríya.
16 - Zubi-músu.
17 - Miradór.
18 - Barráca.
19 - Arróca-áundi.
20 - Arróca-chíqui.
21 - Bolsaguilléne.
22 - Floríndegui.
23 - Arbízqueta.
24 - Marbíl.
25 - Euletégui.
26 - Erroyégui.
27 - Villa-bíar.
28 - Chapéldegui.
29 - Marticoténe.
30 - Olaráin.
31 - Beracotégui.
32 - Martincochótegui.
33 - Muguíza.
34 - Zapatári-gurúce.
35 - Singueréta.
36 - Chóza-echebérri.
37 - Arbúru.
38 - Erróta-aundiéta, (zar y berri).
39 - Compórta.
40 - Julianátegui.
41 - Toláre.
42 - Arrióla.
43 - Martichoéne.
44 - Loistaráin.
45 - Bério-ázpi.
46 - Andrestégui.
47 - Amézquetabéa, o Almórza.
48 - Amézqueta-bórda.
49 - Amézqueta-góya.
50 - Gurruchága.
51 - Arostéche.
52 - Muguitégui.
53 - Artóla-espinósa.
54 - Artóla-chíqui.
55 - Bério-garáy.
56 - Illárra.
57 - Errotácho.
58 - Ecógor-chíqui.

59 - Pocopandégui.
60 - Ecógor.
61 - Iríbar.
62 - Pillótegui.
63 - Zugásti-éder.
64 - Etúme.
65 - Igára.
66 - Igarabúru.
67 - Erróta-bérri.
68 - Muno-chával.
69 - Munó.
70 - Otáño.
71 - Perratzálle, o Herrerotégui.
72 - Eguzquíza.
73 - Fábrica de cerbeza.
74 - Miránda.
75 - Ébro.
76 - Loitégui, o Lauchiminiéta.
77 - Ferrérenía.
78 - Pórtu-éche.
79 - Errotazár.
80 - Urrézti-garáy.
81 - Urrézti-ázpi.
82 - Cámpo-éder.
83 - Muña-légor.
84 - Loístegui priméro.
85 - Loístegui segúndo.

*Lugáriz*

1 - Aldapéta.
2 - Arratóla.
3 - Pintóre.
4 - Balmaséda.
5 - Caléne.
6 - Machilánda.
7 - Fábrica de la Fe, (carbohidráulica).
8 - Barcáiztegui.
9 - Barcáiztegui del hortelano.
10 - Don Balatasarréne.
11 - Sasoenía.
12 - Euliéta.
13 - Izabúru.
14 - Chuchuéne.
15 - Almacén o aice-erróta.
16 - Chicoéne.
17 - Chabárdegui.
18 - Istúrin-áundi.
19 - Istúrin-chíqui.
20 - Ochánda.
21 - Marrúcas.
22 - Sanz-erréca.
23 - Vicariyo-éche.
24 - Martaéne.
25 - Marcoséne.
26 - Illúmbe.
27 - Soldaduéne.
28 - Jaronenía.
29 - Chiráin, o Echenagúsi.
30 - Unsaéne.
31 - Portuéne.
32 - Garchégui.
33 - Mercadér.
34 - Montóa.
35 - Olagüéne.
36 - Guarnízo.
37 - Chaóla.
38 - Bera-guéra.
39 - Órta.
40 - Mari-gomíztegui.
41 - Mari-gomíztegui chíqui.
42 - Pagóla-garáy.
43 - Urtárte, o Chandarméne.
44 - Echelúce.
45 - Merquérin.
46 - Oría-méndi.
47 - Venta de Oría-méndi.
48 - Añórga-bérri.
49 - Zabalégui.
50 - Herrérotegui.
51 - Isaséne.
52 - Iñarréne.
53 - Gorgácho.
54 - Aranaldéne.
55 - Aranaldéne-chíqui (al contacto).
56 - Guerraéne.

57 - Lugáriz.
58 - Lugáriz-bérri, o Guilisásti.
59 - Zapatári.
60 - Íza.
61 - Valéntegui.
62 - San Vicente-echebérri, o Sesiotégui.
63 - Sustrayárte.
64 - Erróta-búru.
65 - Agorra-éne.
66 - Pagóla-ázpi.
67 - Atócha-erréca.
68 - Muriána.
69 - Añórga-chíqui.
70 - Añórga-áundi.
71 - Unánue-bérri.
72 - Unánue.
73 - Charrabetári.
74 - Erróta-zár.
75 - Amasorráin.
76 - Tejería.
77 - Vidárte chíqui, o ázpi.
78 - Recálde.
79 - Belarráza-ázpi.
80 - Zuázo.
81 - Sagasti-búru.
82 - Lucaincatégui.
83 - Vidárte.
84 - Otarte-echebérri, o Manteliñéne.
85 - Celayárte.
86 - Vella vista, o Capiríyo.
87 - Lindabérri.
88 - Paráda.
89 - Belarráza-garáy.
90 - Barcáiztegui.
91 - Iparraguírre.
92 - Ustaéne.

# ERASKIN GRAFIKOA

Osagarri grafiko gisa, eraskin hau hautatu dugu liburuaren amaieratzat. Garaiko lamina eta grabakinez oratua ikuskariok badute beti Antiguarekin nola-halako loturarik.


LES ENVIRONS DE S^T. SEBASTIEN.
A PARIS
Chez le S^r. de Fer dans l'Isle du Palais sur le Quay de l'Orloge a la Sphere Royale 1719.
164
Echelle
Toises
200
400
600
800
1000
1200
MER OCEANE
S^te Claire
Isle et Hermitage Fortifiée
S^T SEBATIEN
Moulin
Torret
La Plage
S^te Catherine
Chemin de Fontarabie
Les Cordeliers
Religieux S^t Sebastien
S^t Martin
Religieux de S^t Barthelemy
Aqueduc qui conduit les Eaux de Source a la Ville



("Patrimonio Nacional"aren bilduma. Luis Paret, XVIII)



Dessiné d'après nature et lith.é par J. Jacottet, Fig.es par A. Bayot.

# S.t SEBASTIEN,

Pris de la Route d'Hernani.

Chez Gihaut freres, éditeurs, boulevart des Italiens, 5

Lith. d'Auguste Bry, rue Favart, 8.





(Eugenia enperatrizaren ikusaldia)





(Kutxaren bilduma. Jean-Baptiste Genillon, 1810)



SAN SEBASTIAN.




(Robert Batty)




(Robert Batty)



(Robert Batty)




(San Telmo Museoaren bilduma. Laureano Gordón)



(San Telmo Museoaren bilduma. Laureano Gordón)



(José Rocandio)



(José Rocandio)



*Goletas a vapor francesas vistas desde "Loreto-Pea" o "Pico del Loro". Mediados del siglo pasado. (Cuadro de D. José Rocandio).*

*Obsequio de la* Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián *-ren oparia*

(Kutxaren bilduma)



(Petit de Meurville. "Banco Guipuzcoano"ren 1972ko urtekaria)




(Dr. Camino Bibliotekako bilduma)




SAN SEBASTIÁN.—LA VIEJA IGLESIA DE SAN SEBASTIÁN «EL ANTIGUO» Y SUS ALREDEDORES, ANTES DE LA CONSTRUCCIÓN DEL PALACIO DE MIRAMAR.

(Dibujo del natural, por Comba.)



ONDARRETA (SAN SEBASTIAN).—NUEVA FÁBRICA DE BOTELLAS PARA VINOS Y BEBIDAS GASEOSAS, DE LOS SRES. BRUNET. (De fotografía.)



NUEVA IGLESIA DE SAN SEBASTIAN
EL ANTIGUO




(Iñaki Agirreren bilduma. Lundwerg argitaletxea)



SAN SEBASTIÁN.—REAL CASA DE CAMPO DE MIRAMAR.

FACHADA NORTE, VISTA DESDE EL MAR.—VISTA DEL ALA DERECHA DEL EDIFICIO Y DE PARTE DE LA GRAN TERRAZA. PUERTA PRINCIPAL DEL PARQUE.—CASA DE OFICIOS, TÚNEL Y PARTE DE LA POSESIÓN QUE DA AL MAR.—(Del natural, por Comba.)


D. J. Reyoyos



Fuerte de la Farola

Lan hau Usurbilgo IZARBERRI, S.A.-k inprimatu zuen, Donostia Hiriko zaindari San Sebastianen jaibezperetan, Gipuzkoa Donostia Kutxaren Kultur Ekintza den Donostiar Historiako Dr. Camino Institutuak argitaratuta eta 1992ko urtarrilaren 18an aurkeztua.